



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA NEURTZEKO AZTERKETA BATERATUA

AURKIBIDEA

SARRERA	1
1.- EIBARKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN (H.A.P.N.) HELBURU ESTRATEGIKOAK KONTUAN HARTUTAKO ORDEZKO AUKERAK	2
1.1.- HAPNREN JARDUERA ESPARRUA ETA IRAUPENA	2
1.2.- HAPNREN HELBURUAK. INGURUMEN HELBURUAK	2
1.3.- AZTERTUTAKO AUKERAK. ZEHAZTASUN MAILA	3
1.3.1.- Eibarko Plan Nagusiaren Aurrerapenak aztertu dituen aukeren deskribapena	3
1.4.- PLAN NAGUSIAN PROPOSATURIKO JARDUEREN LABURPENA	5
1.4.1.- Lurzoruaren sailkapena	5
1.4.2.- Kalifikazio globala eta xehatua	6
1.4.3.- Sektorekako jarduerak	6
1.4.3.1.- Bizitegi garapena	6
1.4.3.2.- Jarduera ekonomikoen garapena	7
1.4.3.3.- Sistema orokorrak	8
1.4.3.4.- HAPNren ingurumen proposamenak	8
1.5.- EIBARKO HAPNEAN HIERARKIA MAILA NAGUSIKO BESTE PLAN BATZUK AZTERTU, INTEGRATU ETA GARATZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA	11
1.5.1.- Plangintza bateragarritasuna	11
1.5.2.- Bide/trenbide azpiegiturak	11
1.5.3.- Ibai ibilguak	12
1.5.4.- Espazio libreen sistema	12
1.5.5.- Jarduera ekonomikoak	12
1.5.6.- Bizitegi garapena	13
1.6.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUKEREN ZEHAZTAPENA	13
1.6.1.- Lurzoruaren mugapen eta zehaztapena	13
1.6.1.1.- Lurzoru urbanizaezinetik urbanizagarrira	13
1.6.1.2.- Lurzoru urbanizaezinetik hiri lurzorura	14
1.6.2.- Erabilera aldaketa. Lurzoruaren kalifikazio aldaketa	14
1.6.3.- Ibai ubideak	14
1.6.4.- Komunikazio eta garraio sistemak	14
1.6.5.- Espazio libreen sistema	15
1.6.6.- Ezarpen isolatuak Lurzoru Urbanizaezinean	15
1.7.- PLANAREN BETETZE FASEAK	15
1.8.- PLANAREN DOKUMENTUAN ATZEMANDAKO INFORMAZIO HUTSUNEAK	15
1.9.- ESKU-HARTZE PUBLIKOA: ESKU-HARTZE MAILA ETA ERABILITAKO PROZEDURA	16
1.9.1.- Esku-hartze maila	16
1.9.2.- Erabilitako prozedura	17



2.-	BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN ANALISIA 19	
2.1.-	LURRALDEA ANTOLATZEKO PLANEN JARRAIBIDEEN ZEHAZTAPENA, EIBARKO HAPNA BALDINTZATZEN DUTENAK	20
2.1.1.-	Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak	20
2.1.2.-	Deba Barreneko Lurralde Plan Partziala. Eibarko Gune funtzionala	21
2.1.2.1.-	Ingurune Fisikoa	21
2.1.2.2.-	Bizitegi lurzorua	22
2.1.2.3.-	Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	23
2.1.2.4.-	Merkataritza eta herri dinamizazioa	23
2.1.2.5.-	Azpiegiturak eta zerbitzuak	24
2.1.3.-	EAEko ibai eta erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldeko Plan Sektoriala (Kantauri itsasoko isurialdea)	24
2.1.4.-	Jarduera ekonomiko eta ekipamendu komertzialetarako lur publikoa sortzeko Lurraldeko Plan Sektoriala	25
2.1.5.-	Ingurune naturalaren eta landa eta basoaren LPSa	26
2.1.6.-	Etxebizitza publikoa sustatzeko lurzoruaren LPSa	27
2.1.7.-	Euskal kultur ondarearen LPSa	27
2.2.-	BESTE PLAN ETA LEGEDI BATZUEN ERAGINA AZTERKETA HONETAN	28
2.2.1.-	Uraren Legea eta jabetza publiko hidraulikoaren araudia	28
2.2.2.-	60/2000/CE Uraren Zuzentarau Markoa (UZM), Hidrologia Plan Nazionala eta III Ipar Hidrologia Plana	29
2.2.3.-	Gune urpegarrien gaineko legedia	29
2.2.4.-	Euskal Herriko lurzoruaren kutsadura ekidin eta zuzentzeari a	29
2.2.5.-	Zarataren kontrako legea	31
2.2.6.-	Agenda 21	31
2.3.-	ERKIDEGOAN, ESTATUAN, EUROPAN ETA NAZIOARTEAN EZARRI DIREN INGURUMEN HELBURU ETA KONPROMISOAK, HAPNK NOLA LANDU DITUEN AZTERTU	32
3.-	PLAN NAGUSIAK LANDUTAKO INGURUMEN ANALISI, DIAGNOSTIKO ETA BALORAZIOA	34
3.1.-	AZTERKETA EREMUAREN DEFINIZIOA. KOKAPENA	34
3.1.1.-	Azterketa eremua	34
3.1.2.-	Kokapena	34
3.2.-	INGURUNE FISIKOA	34
3.2.1.-	Klima	34
3.2.2.-	Geologia	35
3.2.3.-	Geomorfologia	36
3.2.4.-	Maldak	36
3.2.5.-	Hidrologia	37
3.2.5.1.-	Sare hidrografikoa	37
3.2.5.2.-	Ibilguen tipologia eta ezaugarriak	38
3.2.5.3.-	Egoera eta ahalmen ekologikoaren zehaztapena	39
3.2.5.4.-	Saneamendua	39
3.2.5.5.-	Hornikuntza	40
3.2.6.-	Landaredia eta lurraren erabilpena	42



3.2.6.1.- Izan litekeen landaredia	43
3.2.6.2.- Egungo landaredia	43
3.2.6.3.- Zuhaitz bereziak.....	47
3.2.6.4.- Arriskuan dauden flora espezieak.....	48
3.2.7.- Fauna.....	49
3.2.7.1.- Arrainak	50
3.2.7.2.- Anfibioak	50
3.2.7.3.- Narrastiak.....	50
3.2.7.4.- Hegaztiak	51
3.2.7.5.- Ugaztunak	52
3.3.- PROZESUEN ETA IZAN LITEZKEEN ARRISKUEN AZTERKETA.....	52
3.3.1.- Mazeletako prozesuak eta izan litezkeen arrisku elkartuak.....	52
3.3.2.- Akuiferoen ahultasuna	53
3.3.3.- Uholdeak izateko arriskua duten aldeak	54
3.3.4.- Lur kutsatuak	54
3.3.5.- Zelaitze lanak.....	56
3.3.6.- Harrobiak	57
3.4.- KULTURA INGURUNEA.....	57
3.4.1.- Historia-Arte Ondarea.....	57
3.4.1.1.- Historia-Arte Ondarearen katalogoa.....	57
3.4.1.2.- Eusko Jaurlaritzaren inbentario historiko arkitektonikoa	59
3.4.2.- Paisaia	61
3.4.2.1.- Paisaiaren ikuspegitik interesa duten eremuak	63
3.5.- INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA	64
3.5.1.- Demografia eta biztanleria.....	64
3.5.2.- Etxebizitza	65
3.5.3.- Berdeguneak eta leku libreak.....	66
3.5.4.- Jarduera ekonomikoa	66
4.- hautabideei buruzko azterketa. konponbidearen justifikazioa. konponbidearen justifikazioa	67
4.1.- INDUSTRIA ERABILERAKO LURZORUA SORTZEKO ERAGIKETAK	67
4.2.- BARNE ERABERRIKETARAKO EDO HIRI-ERREGENERAZIORAKO ERAGIKETAK.....	68
4.3.- BIZITEGI GARAPENERAKO ERAGIKETAK	68
4.4.- KOMUNIKABIDE-SISTEMA OROKORRA	69
4.5.- LURZORU EZ URBANIZAGARRIA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA	69
5.- ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALIOESPENA.....	71
5.1.- PLANAREN EDO PROGRAMAREN HELBURUEK INGURUMENEAN ERAGIN LITZAKETEN ONDORIOEN AZTERKETA	71
5.2.- ACTUACIONES DEL P.G.O.U. Y EFECTOS AMBIENTALES DE LAS MISMAS QUE HAN SIDO OBJETO DE ECIA EN NIVELES JERÁRQUICOS SUPERIORES.....	71
5.3.- HAPNK PROPOSATUTAKO JARDUEREN INGURUMEN ONDORIOAK, GOIKO MAILA HIERARKIKOETAN ECIAREN HELBURU IZAN EZ DIRENAK	71
5.3.1.- Aztertutako ekintzak	71
5.3.2.- Ikuspegi metodologikoa.....	72



5.3.3.- Aztertutako ekintzen eraginaren identifikazioa eta balioespena.....	75
5.3.3.1.- Lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari buruzko zehaztapenak.....	75
5.3.3.2.- Industria-erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitain - Erisonon.....	77
5.3.3.3.- Berantolaketa eta bizitegi-garapena Azitain Biden	85
5.3.3.4.- Lurzoru urbanizagarria Legarre-Arrajolan	91
5.3.3.5.- Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Bolinguan	97
5.3.3.6.- Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Egazelain	103
5.3.3.7.- Bizitegi-erabilerako hiri-lurzorua handitzea Amañan	109
5.3.3.8.- Txonta eremuaren antolamendu berria	114
5.3.3.9.- Kanposantua Altamirara eramatea.....	121
5.3.3.10.- Trenbidea bikoiztea eta lurperatzea	127
5.3.3.11.- Hiri barruan mugikortasuna hobetzeko proposamena	132
5.3.3.12.- Hiri-parkeak eta hiri-ingurukoak sortzea.....	137
5.3.3.13.- Lurzoru Urbanizaezinean Parke Periferikoak eta Atsedenlekuak egitea.....	143
5.4.- INGURUMEN INPAKTUAREN ONDORIOZ ALDATURIKO EDO EZABATURIKO JARDUKETAK.....	149
5.4.1.- Txarako dentsitate apaleko bizitegi-garapena.....	149
5.4.2.- Amaña-Arrajolako dentsitate apaleko bizitegi-garapena.....	149
5.4.3.- Industria-garapena Txontaren ibarbidean	149
6.- BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIEN PROPOSAMENA.	150
6.1.- INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIOA PLANIFIKAZIOAREN GORAGOKO MAILETAN EGINDA, ONDORIOZ ATERATZEN DIREN BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIAK IDENTIFIKATZEA.....	150
6.2.- PLANAREN HELBURU ETA ESTRATEGIEN EGOKITZAPEN PROPOSAMENA. INGURUMENARI DAGOZKION HELBURUAK.....	151
6.3.- PLAN NAGUSIKO PROPOSAMENETARAKO BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIAK	153
6.3.1.- Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumena hobetzeko babes neurriak	153
6.3.2.- Plan Nagusian proposatutako esku-hartzeen eragin esanguratsuenei dagozkien babes eta zuzenketa neurriak	156
6.3.2.1.- Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa	156
6.3.2.2.- Azitaingo erabilera industrialerako lurzoru urbanizagarria.....	156
6.3.2.3.- Bizitegi-garapena Azitain Biden.....	157
6.3.2.4.- Lurzoru urbanizagarri programatugabea Legarre-Arrajolan	158
6.3.2.5.- Lurzoru urbanizagarri eta bizitegi-garapena Bolinguan	159
6.3.2.6.- Bizitegi-garapena Egazelain	160
6.3.2.7.- Hiri-lurzorua handitzea eta bizitegi-garapena Amañan	162
6.3.2.8.- Txontaren eremuaren antolamendu berria	163
6.3.2.9.- Hilerria Altamirara eramatea	164
6.3.2.10.- Burdinbidea lurperatzea eta lekuz aldatzea	165
6.3.2.11.- Hiri barruan mugikortasuna hobetzeko proposamenak	165
6.3.2.12.- Hiri-parkeak eta hiri-ingurukoak sortzea.....	166
6.3.2.13.- Herriaren kanpoaldean parkeak eta atsedenlekuak egitea: Santa Kruz, Arrate eta Kalamua	167
6.3.3.- Zuzenketa neurri orokorrak	167



6.3.4.-	Konpentsazio neurriak:	172
6.3.5.-	Maila apalagoko planak edo programak diseinatzeko irizpide eta araubide orokorrak.....	173
6.3.6.-	Betetze mailaren adierazleak	174
6.3.6.1.-	Lurzoruaren okupazioa	174
6.3.6.2.-	Uraren zikloa.....	174
6.3.6.3.-	Energia kontsumoa eta airearen kalitatea	174
6.3.6.4.-	Zarata eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak	174
6.3.6.5.-	Materialen eta hondakinen kudeaketa.....	174
6.3.6.6.-	Bioaniztasuna zaintzea.....	175
6.3.6.7.-	Paisaiaren kalitatea	175
7.-	PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN PROGRAMA	176
7.1.-	KONTROLAREN HELBURUAK. DEFINIZIOA	176
7.2.-	JARRAIPEN EGIN BEHARREKO SISTEMAK, ALDERDIAK EDO ALDAGAIK IDENTIFIKATZEA.....	176
7.3.-	ADIERAZLEEN JARRAIPENA EGITEKO DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK FINKATZEA	176
7.3.1.-	Lurzoruaren okupazioa	176
7.3.2.-	Uraren zikloa.....	177
7.3.3.-	Airearen kalitatea eta energia kontsumoa	178
7.3.4.-	Kutsadura akustikoa eta elektromagnetikoa	179
7.3.5.-	Bioaniztasuna zaintzea.....	180
7.3.6.-	Paisaiaren kalitatea	181
7.4.-	IKUSKAPEN, ZAINZTA ETA INFORMAZIO PROGRAMEN DISEINUA.....	181
7.4.1.-	Iraungarritasunezko estrategiarekin koherentzia duten ingurumen helburuak eta antolamendu irizpideak hartzeari dagozkion ikuskapen, zaintza eta informazio programa	181
7.4.2.-	Planeamendua aplikatzeari dagozkion obretan Ingurumena Zaintzeko Programa.	182
7.4.2.1.-	Eraikuntza aldia	182
7.4.2.2.-	Funtzionamendu aldia.....	184
7.5.-	BEREN AZTERKETA XEHEAK GERORAKO UTZI DIREN ALDERDIAK.....	185
8.-	SINTESI DOKUMENTUA	186
	AURREKARIAK ETA IKERKETAREN HELBURUAK.....	186
8.1.-	EIBARKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN (H.A.P.N.) HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK	186
8.1.1.-	HAPNeren jardura esparrua eta gaur egungo egoera.....	186
8.1.2.-	HAPNeren helburuak.....	186
8.1.3.-	Aزتتutako alternatiben deskribapena.....	186
8.1.4.-	Eibarko Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiaren Dokumentuan aintzat hartu diren jardueren laburpena eta zehaztasun maila	187
8.1.5.-	HAPNren zehaztapenak goragoko esparru batean dauden antolamendu-planei dagokienez	189
8.1.6.-	Ingurumen eragina sor dezaketen jardueren zehaztapena.....	189
8.1.7.-	Esku-hartze publikoa	190



8.2.-	BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN ANALISIA.....	190
8.3.-	PLAN NAGUSIAK LANDUTAKO INGURUMEN ANALISI, DIAGNOSTIKO ETA BALORAZIOA.....	191
8.3.1.-	Azterketa eremua eta kokalekua.....	191
8.3.2.-	Ingurune fisikoa.....	191
8.3.3.-	Prozesuen eta izan litezkeen arriskuen azterketa.....	193
8.3.4.-	Kultura Ingurunea.....	194
8.3.5.-	Ingurune sozio-ekonomikoa.....	194
8.4.-	ALTERNATIBEN INGURUMEN AZTERKETA. AUKERATUTAKOAREN JUSTIFIKAZIOA.....	195
8.5.-	ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALIOESPENA.....	195
8.5.1.-	Planaren edo programaren helburuek ingurumenean eragin litzaketen ondorioen azterketa.....	195
8.5.2.-	Planaren jardueren eragina ingurumenean.....	195
8.5.2.1.-	Aztertutako jarduerak.....	195
8.5.2.2.-	Ikuspegi metodologikoa.....	196
8.5.2.3.-	Aztertutako jardueren eraginaren identifikazioa eta balorazioa.....	196
8.5.3.-	Eragin kritikoaren ondorioz aldatu edo ezabatutako jarduerak.....	206
8.5.3.1.-	Txarako dentsitate apaleko bizitegi garapena.....	206
8.5.3.2.-	Amaña-Arrajolako dentsitate apaleko bizitegi garapena.....	206
8.5.3.3.-	Industria garapena Txontako ibarbidean.....	206
8.6.-	BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSASIZIO NEURRIEN PROPOSAMENA.....	206
8.6.1.-	Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa planifikazioaren goragoko mailetan eginda ondorioz ateratzen diren babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak.....	206
8.6.2.-	Planaren helburu eta estrategien egokitzapen proposamena. Ingurumenari dagozkion helburuak.....	207
8.6.3.-	HAPNk proposatutako babes neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak.....	207
8.6.3.1.-	Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumen egoera hobetzeko babes neurriak.....	207
8.6.3.2.-	Aztertu eta proposatu diren jarduera horien eragin esanguratsueni buruzko babes neurriak eta neurri zuzentzaileak.....	207
8.6.3.3.-	Neurri zuzentzaile orokorrak.....	209
8.6.3.4.-	Kompentsazio neurriak.....	209
8.6.3.5.-	Maila apalagoko planak edo programak diseinatzeko irizpideak eta jarraibideak.....	209
8.6.3.6.-	Bete beharreko adierazleen deskribapena.....	210
8.7.-	PLANAREN ONDORIOAK IKUSKATZEKO PROGRAMA.....	210
8.7.1.-	Kontrolaren helburuak. Definizioa.....	210
8.7.2.-	Ikergai diren sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatzea.....	210
8.7.3.-	Adierazleen jarraipena egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea.....	210
8.7.4.-	Antolamenduaren ezarpenari dagozkion lanen Ingurumen Ikuskaritzako Programa.....	210
8.7.5.-	Aspectos con análisis detallado propuesto.....	211
9.-	SARRERA.....	216
10.-	AZTERTUTAKO AUKERAK.....	216



10.1.- Aurrerapena egiterakoan aintzat hartutako aukerak.	217
10.2.- Aurrerapenari egindako iradokizunen ondoren kontuan hartu diren aukerak.	218
10.3.- Hasierako onarpenaren eta aldi baterako onarpenaren ondoren aintzat hartu ziren aukerak.	219
10.4.- Azkenean hartu diren aukerak.	219
10.5.- Dokumentu honetan aztertu diren aukerak.	220
11.- “0” AUKERAREN EDO “INTERBENTZIO EZA”REN AUKERA ZEHAZTEA.	221
12.- AUKERAK AZTERTZERAKOAN ERABILITAKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA.	222
13.- AZTERTUTAKO AUKERA HORIEK SORTZEN DITUZTEN ERAGIN NAGUSIEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA.	223
14.- AZKENEAN HARTU DEN KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA.	227



SARRERA

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesten duenak, ingurumen eraginaren ebaluazio azterketa osokoa sortu zuen, eta haren helburua da, plangintzaren lehen faseetan, ingurumenari buruzko planek eragin ditzaketen ondorioak aztertzea. Bestalde, Garapen Iraungarrirako Euskal Ingurumeneko Estrategiak ere (2002-2020), ingurumen eraginaren ebaluazioa ezarri nahi du administrazioak sustatzen dituen plan eta programetan.

3/1998 Legearen araudia garatzeko, 183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, egin eta onartu zen, eta dekretu horrek arautu egiten du ingurumen eraginaren ebaluazio osokoaren prozedura. Dekretuak, bere hirugarren artikuluan, aditzera ematen du aipatu den prozedurak aztertu egingo dituela, besteak beste, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak.

183/2003 Dekretuaren onespenez eragina izan du HAPN. tramitatzeko orduan; Plan Nagusiaren Aurrerapen Dokumentua 2002ko uztailaren 8ko udal osoko bilkuran onetsi zen-eta. 2003ko abenduan egin zen Aurrerapenari zegokion Azterketa. Dokumentuak biak igorri zitzaizkion Ingurumenaren Eragina aztertzeko Atariko Txostena egin beharra zegokion erakundeari, oraingo kasu honetan Gipuzkoako Foru Diputazioaren Garapen Iraungarrirako Departamenduari.

Eibarko udalak, HAPN udal bulegoaren bitartez, Hasierako Onespenerako Dokumentu bi prestatu zituen gero, bata 2004ko urrian egindako udal osoko bilkuran onartu zena, eta bestea 2005eko abenduan onarpena jaso zuena. Dokumentu biek izan dute bakoitzaren IEN Azterketa bateratua, HAPNren proposamenetan egindako aldaketetara egokitua eta Ingurumenarekiko Eraginaren Atariko Txostenaren zehaztasunak kontuan hartuta. Bigarren kasuan IENA Eranskin gisa aurkeztu da, bakarrik azterketan egindako aldaketak dituena.

Dokumentu honek IEN Azterketa Bateratuaren Testu Bategina jasotzen du; HAPNren Dokumentuari egin zaizkion aldaketekin batera eguneratu dena eta horretan eskumena duen organoak egindako Ingurumenarekiko Eraginaren Atariko Txostenak zioena kontuan hartuta.

Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterketa Osokoa, Ekolur, S.L.L. enpresak egin du. Honako hauek idatzi dute:

Tomás Aranburu Calafel
Iñaki Urrizalki Oroz
Amaia Lizarralde Olano
Eduardo Echenique Olano
Estela Cuevas Diez



1.- EIBARKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN (H.A.P.N.) HELBURU ESTRATEGIKOAK KONTUAN HARTUTAKO ORDEZKO AUKERAK

1.1.- HAPNREN JARDUERA ESPARRUA ETA IRAUPENA

Eibarko Herriaren Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiak duen jarduera esparrua Eibarko udalerriak duen lurraldea da.

1989ko ekainaren 20an behin betiko onartu, eta orain arte indarrean egon diren Eibarko Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioak (UPAS) berrikusi egingo ditu HAPNk. Eibarko HAPNa, behin betiko onarpena jaso ondoren, zortzi urtez indarrean egotea aurreikusten da.

1.2.- HAPNREN HELBURUAK. INGURUMEN HELBURUAK

Plan Estrategikoaren arabera, "Eibarrek beste etapa bati ekin behar dio, mende bukaeran Europako hainbat herrik ekin dioten bezala, eta, beraz, garapen iraugarria lortu nahian, Plan Estrategikoaren ekimenak inguruko udalekin, Deba Barreneko Eskualdearekin, eta Euskal Autonomia Erkidego osoarekin elkar hartuta gauzatu behar ditu".

Ondorengo **jokabideek** zehazten dute Helburu Nagusi hori:

- 1.- Eraldatu, dibertsifikatu eta modernizatu ekoizpen egitura ekonomikoa.
- 2.- Herria berritu eta ingurumena hobetu.
- 3.- Herriari kalitate hobea eman.
- 4.- Sustatu Eibar eta inguruko arteko harremanak, eta sendotu eskualdearen hiriburutza.

Jokabide horiek 18 helburu eta 75 ekimen estrategiko dituzte, eta eurek zehazten dituzte Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren oinarritzko helburuak, "Hiri Proiektu" berria eraikitzeko.

A.- Ekoizpen egitura ekonomikoari dagozkion helburu orokorrak:

- Sustatu kalitatezko industri lurzorua lortzeko politika aktiboa.
- Garatu zerbitzu tekniko eta teknologikoen azpiegitura, enpresen eta industrien berrikuntza bultzatzeko.
- Bultzatu eta sendotu herri eredu berriak eskatuko dituen industri jarduerak, eta, hortaz, berritu industri sarea.
- Bultzatu merkataritza udalerrian, eskaintza hobetuz.

**B.- Hiri-antolamenduari eta ingurumen hobekuntzari dagozkion helburuak:**

- Sustatu lurzorua berritzeko politika, eta berritu espazio edo eraikin zaharkituak.
- Hobetu herriko komunikazio azpiegitura eta garraio zerbitzua.
- Garatu ekipamendu eta zerbitzuetarako programa bat, herria erakargarriagoa izan dadin eta harrera ahalmena handiagoa.
- Hobetu udalerraren ingurumena, sistemaren iraungarritasunari eutsiko dioten politikak eta ekintzak garatuz.

C.- Bizi kalitateari dagozkion helburuak:

- Garatu herriko azpiegiturak, ekipamenduak eta gizarte-zerbitzuak, eta arreta berezia jarri behar handienak dituzten taldeengan: gazteak, langabetuak.
- Lortu, Eibar, herri abegitsu eta erakargarria izatea oinezkoarentzat, pertsona orok mugitzeko aukera izan dezan.
- Sustatu azpiegitura sozio-kulturalen, eta aisialdirako zerbitzu eta ekintzen, eskaintza kualifikatua hobetzea, kontuan izanik bera dela eskualdeko hiriburua.

D.- Eibar, eskualdearen hiriburutza sendotzeko helburuak:

HAPNk "Eskualdearen Azterketa" dokumentuaren ondorioak azpimarratzen ditu, eta, horien artean, Deba Barreneko Eskualdea dinamizatzeko, Eibar izan behar duela ardatz adierazten du. HAPNk dio "hala ere, beharrezkoa da zehaztea eta osatzea komunikazio sarea, eta, horrela, [Eskualdearen] lurralde eta funtzio banaketa sendotu egingo da, eta horrek erraztu egingo du hiri sarearen garapena, eta, saihestu, jada dituen hesiei gehiago eranstea".

1.3.- AZTERTUTAKO AUKERAK. ZEHAZTASUN MAILA**1.3.1.- Eibarko Plan Nagusiaren Aurrerapenak aztertu dituen aukeren deskribapena**

HAPNren tramitazio prozesuan (Aurrerapena, Hasierako onespina, 2. Hasierako onespina, Behin Behineko onespina) hainbat aukera aztertu dira.

Lurzoru urbanizagarria: Dentsitate gutxiko bizitegi etxebizitzaren eskariari erantzuteko, honako aukera hauek aztertu dira:

- Lurzoru urbanizagarritzat hartu, beren ezaugarriengatik, tipologia honetako eraikinak egitea onartzen duten lurzoruz guztiak (%20 baino gutxiagoko malda duten lurzoruz; higadura arriskurik, akuifero ugarririk edo hegalean egonkortasun arazorik ez dutenak).



- Landa gunetzat hartu udalerrian dauden baserri multzoak, nahiz eta ez eduki gutxieneko sei etxebizitza, Ingurumena Babesten duen Legeak eskatzen duen bezala.
- Lurzoru urbanizagarritzat hartu Arau Subsidiarioetatik ezabatutako eremuak (Legarre-Arrajola, Egazelai, Bolingua) edo beste hainbat eremu berri (Mandiola-Gorosta, Txara, Miraflores, Legarre-Arrajola...).
- Ixuan lurzoru urbanizagarri bat finkatu, barreiatutako etxebizitzak eraikitzeke eta ostalaritza bizitegi-parke bat egiteko.

Era berean, jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskariei erantzuteko, ondoko aukerak aztertu dira:

- Lurzoru urbanizagarritzat hartu hainbat ibar eta hegal jarduera ekonomikoetarako: Arrajola, Estixa, Argiñaoko eremuak, Gorosta (Azitain) erreka eskuin hegala, Murrategi, Txonta, Erisonoko hegala, Urkoko eremua.
- Industri lurzoru urbanizagarritzat hartzen jarraitu Ibur Errekako eremua.
- Mallabiko udalerrian lurzorua prestatu jarduera ekonomikoetarako.

Hiri lurzorua: Hiri lurzorian aztertu diren aukerak, hiri birkalifikazioa lortzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko izan dira. Aztertu diren aukera nagusiak hauek ditugu:

- Sendotu hiri erdigunean dauden industri eraikinak, eta lekuz aldatu, bakarrik, bizitegi erabilera galarazten dutenak.
- Sendotu Araudi Subsidiarioetan, ekoizpen jardueretarako, xehatuta zeuden eremuak: Txonta, Matsaria, Asua Erreka...
- Birkalifikatu zaharkituta dauden industrietan betetzen duten lurzorua (Otaola-Torrekua, Lambrettaren instalazioak, Beistegi Hnos, Alfaren bulego eraikina...), erdigune nukleo berriak sortzeko, eta hirugarren sektoreko instalazioak sartzeko.
- Industrialde bat sortu Alfaren instalazioetan (San Andrés).



Sistema orokorrak: Egitura orokorreko elementuei dagokienez, honako aukerak aztertu dira:

- Saihesbidearen Hirugarren Faseko ibilbidearen ordezkoko bidea, errazteko Mallabiko gunerari bertaratzea.
- Trenbidearen Saihesbidea, herri osoan lur azpitik joango dena.
- Aurkeztu Matsaria eta, Markinarako norabidean, GI-3950 errepidearen arteko tunela egiteko proposamena.
- Gerriko berde bat sortu, kanpoaldeko parke lineal gisa.
- Autobus Geltokiarentzat beste kokagune bat.

1.4.- PLAN NAGUSIAN PROPOSATURIKO JARDUEREN LABURPENA

Aztertu diren aukeren artean, HAPNk ondokoak onartu ditu:

1.4.1.- Lurzoruaren sailkapena

Indarrean dagoen hirigintza legediaren arabera, HAPNk hiru multzotan bereizten ditu lurzorua: hiri lurzorua, lurzoru urbanizagarriak eta lurzoru urbanizaezinak. Multzo bakoitzeko azalera hauek dira:

LURZORUAREN SAILKAPENA			
Kodea	Lurzoru-mota	Azalera (m ²)	%
SU	HIRI LURZORUA	2.023.210	8,18
SUB	LUR URBANIZAGARRIA	216.016	0,87
SNU	LUR URBANIZAEZINA	22.503.482	90,95
GUZTIRA UDALERRIAN		24.742.708	100,00

Iturria: Eibarko HAPNren Dokumentua



1.4.2.- Kalifikazio globala eta xehatua

Hauek dira HAPNk onartu dituen kalifikazio globalak:

KALIFIKAZIO GLOBALA		
KALIFIKAZIO OROKORRA	AZALERA (m ²)	%
Komunikabideak	2.798.394	11,31
Zerbitzu azpiegiturak	33.840	0,14
Equipamenduak	289.959	1,17
Administrazio eta hiri zerbitzuak	181.565	0,73
Gune askeak	3.379.576	13,66
Bizilekuak	999.564	4,03
Jarduera ekonomikoak	673.420	2,69
Ibilguak	809.993	3,24
Nekazaritza, baso eta abelzaintza	15.576.397	62,96

Iturria: Eibarko HAPNren Dokumentua

1.4.3.- Sektorekako jarduerak

Hauek dira HAPNk aipatzen dituen jarduerak sektoreka:

1.4.3.1.- Bizitegi garapena

- 1.- Hiri lurzoruetan bizitegi garapenak lortzeko, erreforma operazioak egiten dira industrialde zaharkituetako guneeetan. Honelako operaziorik garrantzitsuenetakoak Alfa, Txonta eta Matsaria-Geltokikoak dira. Hauek Plan Berezien bidez gauzatuko dira.
- 2.- Hainbat jardueraren bidez, herrian hainbat ekimen egitea (birgaitzea, ordezkatzeta, hiri hutsuneak betetzea) proposatzen du HAPNk; jarduera horiek aukera emango dute egoera txarrean dauden eraikinak ordezkatzeko, eta, aldi berean, herriko bide sarea hobetzeko (Azitain Bide).
- 3.- Lurzoru urbanizagarritzat hartu dira oraingo hiri bilbe ertzeko sektore batzuk (Bolingua, Egazelai, Legarre-Arrajola). Lehenengo bietan hiri bilbe buruan bloke ireki erako etxebizitzak egitea aurreikusten da eta Legarre-Arrajola kasuan lurzoru urbanizagarri ez programatu gisa dago kalifikatua.
- 4.- Amañako hiri lurraren mugapena zabaldu egin da, Bolingua eta Egazelairako dagoen aurreikuspen bera duela.



- 5.- Azitain Bideko eremuan berrantolatze-lanak eta bizitegi-erabileraren garapena berria egitea aurreikusi da. Hilerria dagoen lekuan HAPNk bizitegi garapen berriak proposatzen ditu, espazio libre ugariarekin, eta, hortaz, hilerria lekuz aldatu beharko da.
- 6.- HAPNak 2.031 etxebizitza eraikitzea eta ordenazioz kanpo dauden 416 etxebizitza ordeztzea aurreikusten du. Hortaz, indarreko plangintzan ezarritako kopuruarekin alderatuta, 1.885 etxebizitza gehiago egongo da eremuan.
- 7.- Etxebizitza-kopuruaren gehikuntza garbiari dagokionez (1.885), %29,81 babes ofizialeko (BOE) erregimenekoak izango dira, hau da, 562 etxebizitza.

1.4.3.2.- Jarduera ekonomikoen garapena

- 1.- Otaola eta Torrekuako eremuak sendotu industri eta ekonomi jardueretarako, gaur egun hutsik dauden lurak beteaz, edo erreforma operazio puntualak eginez.
- 2.- Azitain inguruan sortu den plataforman industria garatu, Erisono I Plan Partzialaren bidez, HAPNk jaso baitu bere plangintzan.
- 3.- Beste industri poligono bat egin Ibur-Errekan, udalerriaren hego-mendebaldean, Eibar, Elgeta eta Zaldibar udalerrien artean. Hiru udaletan batera tramitatu den Plan Partziala jasotzen du proposamenak.
- 4.- Matsaria Iean, gune teknologiko bat sortu. HAPNk dio, iritzi orokor gisa, hiri barne erreforma bat egin behar dela, oraingo poligonoa duintzeko, eta hobetzeko bertaratzeko baldintzak eta urbanizazio eta eraikuntza kalitateak. Matsarian balio erantsi handiko ekoizpen jarduerak finkatu nahi dira, lurzoru handirik erabili gabe.
- 5.- Matsaria IIan, aurrekoaren iparraldean, industrietarako gune bat sortu. Irizpide nagusia lur industrialak sortzea da, bertara eramateko herrian gaizki kokatuta dauden industriak. HAPNk Matsariako Plan Partzialean agertzen diren erabakiak jaso ditu.
- 6.- Azitain-Erisonon industrialde bat sortu. Lurzoru urbanizagarritzat hartu da Erisono I plataformaren mugakide den eremu bat, Azitain inguruan sortuko dena, eskualde-mailako teknologia-zentroa finkatu ahal izateko.



- 7.- HAPNk industri eraikin zaharkituak berritzeko jarduera puntualak proposatzen ditu. HAPNk, zenbaitetan, erabilera aldaketa proposatzen du (bizitegia, hirugarren sektorea). Aipatzekoak dira “Aurrera” enpresaren instalazio zaharren berrantolaketa eta “Alfa” enpresaren lurak birgaitzeko eta eraldatzeko operazioa, eta, hartara, hirugarren sektorea garatzea planteatzen da, eremu hori herriaren erdigunerako berreskuratuz, “erdigune-nodo” gisa.

1.4.3.3.- Sistema orokorrak

- 1.- HAPNk Saihesbidearen 3. faseko trazadura-proiektua bere horretan jasotzen du.
- 2.- HAPNk proposatu du desbideratzea eta lur azpiratzea egungo trenbidea, trenbidea bitan banatzea, ustiaketa baldintzak hobetzea eta trenak herrian eragiten dituen oztopo fisikoak kentzea.
- 3.- Aurreko proiektuari dagokionez, HAPNk beste Geltoki bat eraikitzea proposatzen du, “Alfa” zonaldean. Era berean, baita beste geltoki bat Azitainen ere, herriaren ekialdeari zerbitzua emateko.
- 4.- HAPNk hainbat jarduera proposatzen ditu norberaren ibilgailua gutxiago erabiltzearen, hala nola, Sarbide Mekanikoen Planarekin jarraitzea, auzoetan aparkalekuak egitea, eta oinezkoentzat proposamenak aurkeztea. Proposamen hori trenbidearekin osatzen da, honek herriaren erdigunea luzetara zeharkatuko duelako, eta, zeharkako loturak, dauden instalazio bidez (eskailera mekanikoak) edo garraio publiko bidez (Udal Bus, Taxi Bus) egingo dira.
- 5.- Planean zenbait jarduera aurreikusten dira bide sarerako, barne komunikazioa ahalbidetu eta herriko sarea osatzeko. Horien artean, Otaolatik Azitaineraino bide bat egitea aurreikusten da, bi auzoak lotzeko eta herri barruko trafikoak saihesteko.

1.4.3.4.- HAPNren ingurumen proposamenak

Ibai ibilguak

- Lekuz aldatuko diren enpresek (ALFA, STAR) utziko dituzten lurzorua birmoldatzeak ahalbidetu egingo du Ego ibaia azalerratzeko zati horietan, eta elementu garrantzitsu bat izango da hiri diseinuan.



- Gipuzkoako Foru Diputazioak egin duen Eibarko herriaren Saneamendu Proiektua Planean sartu da. Deba ibaiaren Saneamendu Planaren barruan dago, eta, bertan, Elgoibarren Ur Zikinenzako Araztegi bat egongo dela adierazten da, gaur egun eraikitzen hasia dagoena.
- Lurzoru Urbanizaezinean “Lurgaineko Urak Babesteko Zona” kategoria ezarri da.
- “Babes Berezi” kategoriaren barruan, Saturixo ibaiaren ibilgua sartu da, eta baita bi ertzetako 15 metroko beste zati bat ere, betiere Eibarko udalerrri barruan.

Mugikortasuna eta azpiegiturak

- Trenbidea lur azpiratu eta estali egingo da herri barruan. Azitainen beste tren geltoki bat egingo da, eta horrek zerbitzua emango dio herriaren ekialdeko jendeari.
- Saihesbidearen 3. Fasea amaitzen denean, gaur egungo CN-634 errepidea “hiri kale” bihurtuko da, eta herriaren erdigunea oinezkoentzat izango da. ALFAko zonaldearen berrantolaketak, bestalde, aukera emango du oinezkoentzako erdigunea zabaltzeko, ibaiaren bi ertzetan oinezkoentzako ibilbide bat sortuko delako.
- Trenbidea estali ondoren lortuko den espazioa, luzetarako ardatz egituratzaile bilakatuko da, eta horrek ahalbidetu egingo du kanpoaldeko auzoetako eta herriaren erdiguneko bizilagunen mugikortasuna.
- Sarbide Mekanikoen Planaren bidez, erdigunearen eta zailtasunak dituzten kanpoaldeko auzoen arteko lotura izango dute oinezkoek.
- Auzo bakoitzean zonalde lasai bat (“30 Zonaldea”) sortuko da, ibilgailuen abiadura mugatuz “elkarbizitzeko kaleak” izenekoetan.

Erabilera esleipena

- HAPNk, ordenantzetan, hainbat xedapen sartu ditu, eta horiek aukera emango dute zenbait eraikin beste zeregin batzuetarako erabiltzeko. Horrekin eutsi egin nahi zaio herriaren erdigunean tradizionalki bizi izan den nahasketari eta aniztasunari.
- Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko politika sustatu nahi da, industri eraikin zaharkituak berrerabiliz eta/edo birmoldatuz.



Espazio libreen sistemak

- “Hiri parkeak eta Hiri inguruko parkeak” sortzea proposatzen da, homogeneouski banatuta lurraldean (120.588 m²s, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien %5.39). Proposamen honek Espazio Libreen Sistema Orokorren, biztanleko 4.82 m²s/biz, estandarra erakusten du 25.000 biztanleko hipotesian. Sistema hori osatu egingo litzateke auzo bakoitzeko espazio libreekin, 5 m² biztanleko gehituz.
- Jabetza publikokoak diren bide azpiegituren (Autopista, Saihesbidea) eta eraikinen artean dauden hainbat gune, Espazio Libreen Sistema Orokortzat hartzea proposatzen da, herri inguruan “gerriko berde” bat sortzeko, eta horrek, gainera, murriztu egingo ditu errepideko trafikoak eragiten dituen arazoak.
- HAPNk, Arrate eta Santa Cruz zonaldeetan, hiri inguruko bi parke sortzea proposatzen du, eta dagokion Plan Bereziak finkatuko ditu. Lurzoru urbanizaezintzat hartutako espazioak dira, Babes Berezi kategoriaren barruan. 399.955 m²s betetzen dituzte, 40 Ha gutxi gorabehera (Lurzoru Urbanizaezinaren % 1.78).
- Hiri inguruko parke hauez gain, bi atsedenleku zabal eranstea proposatzen da Kalamua eta Urko eskualdeetan. Horiek ere lurzoru urbanizaezintzat hartu dira, Babes Berezi kategoriaren barruan. 2.809.280 m²s izango lirateke, 281 Ha gutxi gorabehera (Lurzoru Urbanizaezinaren % 12.50).
- Hiri parkeen azalerak, hiri inguruko parkeenak, kanpoaldekoenak eta atsedenlekuenak batuta, espazio libreetarako, guztira, 3.379.576 m²s proposatzen dira. Azalera horrek biztanleko 135,18 m²s/biz erakusten du (25.000 biztanleko hipotesian), eta Eibarko udalerriaren % 13.66 da.

Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua

- Lurzoru Urbanizaezinaren barruan, hainbat kategoria adierazi dira, Lurralde Antolamendurako Jarraibideek (LAJ) eta Landa, Baso eta Ingurune Naturalaren Lurralde Plan Sektorialek diotenaren arabera. HAPNk zehaztu egin ditu zonalde bakoitzean egin daitezkeen eta baimentzen diren ekimenak eta erabilerak. Hauek dira kategoriak: Babes Berezi, Ingurumen Hobekuntza, Baso, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabal Zonalde eta Lurgaineko Uren Babes. Babes Berezi kategoriak hiru azpikategoria ditu: natura interesekoa, fauna interesekoa eta paisaia-aisialdi interesekoa.
- HAPNk jaso egin ditu, Landa, Baso eta Ingurune Naturalaren LPSk zehaztu ondoren, higatu daitezkeen guneak, eta horiek, LAJek eta LPSek dioten bezala, gainjarritako baldintza dira.



1.5.- EIBARKO HAPNEAN HIERARKIA MAILA NAGUSIKO BESTE PLAN BATZUK AZTERTU, INTEGRATU ETA GARATZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENEN LABURPENA

Dokumentuak dioen bezala, Eibarko HAPNren helburuak bat datoz LAJek ezarrirako irizpide orokorrek, eta LAJek honako arauak finkatu dituzte Eibarrerako:

- Gune degradatuak eta zaharkituak birmoldatu.
- Ingurumena, eta bizi eta hiri kalitateak hobetu.
- Ekoizpen sektorea dibertsifikatu.
- Lurraldea berriro orekatu.

Ondoren, HAPNren ekimen proposamenak aipatzen dira, eta proposamen horiek integratu eta, batzuetan, garatu egin dituzte hierarkia maila nagusiko planak.

1.5.1.- Plangintza bateragarritasuna

Eibarko HAPNk plangintza bateragarritasuna eskatzen duten proposamenak egin ditu. Jarraian, udalen arteko eraginik handiena duten bi jarduerak aipatuko ditugu:

- Mallabian, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzeko, HAPNren Dokumentuak beste aukera bat aurkeztu zuen Eibarko Saihesbidearen 3. Faserako, fluxu garrantzitsu bat aurreikusten zuelako herritik industri poligono berrira. HAPNren proposamena atzera bota zuten, bai Ermuko udalak, bai GFDk, eta, beraz, ez da sartu HAPNren Dokumentuan, honek proiektua dagoen bezala jaso baitu.
- Ibur-Errekako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren garapena Eibar, Zaldibar eta Elgetako udalerriei dagozkien lurretan kokatzen da. HAPNren Dokumentuak, hiru udaletan batera tramitatu zen Plan Partziala erantsi du. Proposamena ez da loteslea izango, harik eta udalek eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Diputazioek onartzen duten arte.

1.5.2.- Bide/trenbide azpiegiturak

HAPNk trenbidea lur azpiratzea edo estaltzea proposatzen du, espazio libreak lortzeko eta hesi fisikoak kentzeko.



LPPk N-634 hiri kaletzat hartu du. Bide sareari dagokionez, HAPNren helburu orokorretako bat da "sarea hierarkizatzea, argiagoa eta funtzionalagoa izan dadin, udalerrri kanpoko trafikoak eta, auzoak lotzeko, udalerrri barrukoak zuzen bideratzeko (...)". Beraz, Saihesbidearen Hirugarren Fasea amaitu eta gero, HAPNk proposatzen du egungo N-634 hiritarragoa izatea, LPPk proposatu bezela.

1.5.3.- Ibai ibilguak

LPPren Hasierako Onespeneren Dokumentuak Gipuzkoako Saneamendu eta Hornidura Plan Integralaren proposamen bat jaso du, eta, proposamen horretan, Elgoibarren, ur zikinen araztegi bat eraikitzea gomendatzen da, Eibarko eta Deba Barreneko beste zenbait udalerritako ur zikinak jaso eta tratatzeko. Proiektu hori jaso egin du Plan Nagusiak.

Uholde arriskua murriztu eta saihestearren, Ego ibaia kanalizatzeko aurreproiektua jaso du HAPNk, eta, bertan, zenbait ñabardura erantsi du, hala nola, ALFA eremuan azaleratzea Ego ibaia. Ego ibaia, eremua erabat birmoldatu ondoren, antolamenduaren ardatz izango litzateke. Proposamen hau guztiz bat dator EAeko Ibai eta Erreken Ertzen Antolamendurako LPSk jasota dituen irizpideetako batekin, eta, irizpide horrek dio "kentzen joango dira, pixkanaka, dauden estaldurak, batez ere 5 km² baino gehiagoko arro drainagarriak dituzten ibilguetan".

1.5.4.- Espazio libreen sistema

HAPNk Espazio Libreen Sistema Orokorraren barruan sartu ditu kanpoaldeko Arrate eta Santa Cruz parkeak, eta Urko eta Kalamua atsedenlekuak, LAJek eta LPPek proposatu bezela. Eremu horiek Lurzoru Urbanizaezineko "Babes Berezi" kategorian sartu ditu.

1.5.5.- Jarduera ekonomikoak

LPPk behin eta berriro hartu ditu kontuan LAJen eta SPLren erabakiak Eibarko barne birmoldaketa eta berrikuntza sustatzeko, eta baztertu egin du lurzoru berriak sortzea jarduera ekonomikoetarako. Azitaingo industri poligonoa onartu du jarduera ekonomikoetarako, eta behin betiko dokumentuan barneratu ditu Txonta, Matsaria, Ibur Erreka, Murrategi, eta abar.eko aukerak.



HAPNk, barne erreformarako edo hiri berrikuntzarako, proposamen estrategiko batzuk egin ditu, eta, horien artean, zenbait industri gunek birmoldatzea (ALFA, Txonta, Matsaria-geltokia), eta gunek horiek bizitegi, hirugarren sektore eta ekipamendu erabileretarako gordetzea. Plan Nagusiak Otaola eta Torrekuako eremuak industri eta jarduera ekonomikoetarako lurzorutzat hartzea eta sendotzea proposatu du, eta Azitaingo poligonoan sortutako plataforman jarduerak egitea.

Bestalde, Matsaria, Ibur-Erreka ibarretan industri lurzoru berriak sortzea, eta Azitaingo poligonoa handitzea proposatu du HAPNk. Matsaria eta Ibur-Errekako proposamenak, dagozkien Plan Partzialetan garatu dira.

1.5.6.- Bizitegi garapena

LPPk dio "hiri kongestio handiko eta lur gutxiko udalerrietan, hiri birmoldatze eta urbanizatzeko lanak industri gunek zaharkituekin bat etorritako egingo dira, eta gunek horiek dentsitate ertaineko bizitegi eremuek ordezkatuko dituzte (60-70 etx/ha) (...)". Lan ildo hau HAPNk jaso eta garatu du, eta hala ikusten da Alfa eta Txontako eremuak birmoldatzeko jardueretan, eta baita espazio libreak birgaitzeko eta betetzeko ekimen ugarietan ere.

1.6.- INPAKTUAK ERAGIN DITZAKETEN JARDUKEREN ZEHAZTAPENA

Atal honetan zehaztu egiten dira, baloratu gabe, Plan Orokorrek proposatu eta ingurumen inpaktuak eragin ditzaketen jarduerak. Saiatu gara inpaktu positiboak zein negatiboak eragin ditzaketen jarduerak zehazten.

1.6.1.- Lurzoruaren mugapen eta zehaztapena

1.6.1.1.- Lurzoru urbanizazinetik urbanizagarria

- ✓ Bolingua eta Egazelai: bizitegi garapena eta hiri inguruko parkeak.
- ✓ Legarre-Arrajola: urbanizagarri ez-programatua.
- ✓ Erisono II (Azitain): industri garapena.



1.6.1.2.- Lurzoru urbanizaezinetik hiri lurzorura

- ✓ Amaña: Hiri lurzoruaren muga zabaldu egingo da, bizitegi garapenerako.
- ✓ Ubitxa: Hiri lurzoruaren muga zabaldu egingo da, bizitegi garapenerako.

1.6.2.- Erabilera aldaketa. Lurzoruaren kalifikazio aldaketa

- ✓ Hilerriaren lekualdaketa: Gaur egungo hilerriaren eremua birmoldatu egingo da. HAPNk espazio libre ugari aurreikusten du leku horretarako.
- ✓ Hiri berrikuntzako eremuak: Alfa-Star, Txonta, Matsaria-Geltokia eta beste gune jakin batzuek kalifikazio aldaketak izango dituzte, eta industriarako izatetik bizitegi eta/edo hirugarren sektoreko izatera aldatuko dira.

1.6.3.- Ibai ubideak

- ✓ Ego ibaiaren zati batzuk azaleratu: HAPNk ALFA-STAR eremurako, Barne Erreformarako Plan Berezi batek garatu dituen aldaketak jaso ditu, eta, bertan, San Andresen Ego ibaiaren azaleratzea ageri da.
- ✓ Kanalizatu, azaleratu eta baldintza hidraulikoak hobetu: HAPNk jaso egin ditu Ibur Erreka eta Matsaria errekek kanalizatzeko eta haien baldintza hidraulikoak hobetzeko egin diren proiektu eta/edo aurreproiektuak. Bi erreketako ibilguen ibilbideak ageri dira proposamenean, eta baita zenbait zati kanalizatzeko eta azaleratzeko aukerak ere, dagozkien Plan Partzialen arabera.
- ✓ Txonta Errekako eragina: Txontako gunea birrantolatzeko proiektuak eragina izan dezake Txonta errekan. Proposamenaren arabera, gaur ea erabat estalita dagoen erreka azaleratuko da zati batean.

1.6.4.- Komunikazio eta garraio sistemak

- ✓ Hiri barruko mugikortasuna arrazionalizatzeko proposamena: Proposamenak, garraioa arrazionalizatzeko, hainbat jarduera aurreikusten ditu, hala nola, murriztea norberaren ibilgailuaren erabilera herriaren erdigunean.



1.6.5.- Espazio libreen sistema

- ✓ Hiri parke eta hiri inguruko parke berriak egin: Plan Nagusiak parke berriak eta hiri inguruko parkeak egitea proposatzen du, homogeneoki banatuta lurraldean.
- ✓ Atsedenlekuak egin: Plan Nagusiak, Lurzoru Urbanizaezinean, kanpoaldeko bi parke (Arrate eta Santa Cruz) eta bi atsedenleku (Urko eta Kalamua) egitea proposatzen du.

1.6.6.- Ezarpen isolatuak Lurzoru Urbanizaezinean

- ✓ Altamirako hilerria: Egungo hilerria "Altamira" izeneko lekura eramatea proposatzen du HAPNk, zonalde hori lurzoru urbanizaezina izanik.

1.7.- PLANAREN BETETZE FASEAK

HAPNk udalerrri osoa hainbat esparrutan banatu du. Kasu batzuetan indarrean dagoen planeamenduak dituen zehaztapenak finkatu egiten dira, beste batzuetan ostera, garapenerako beharrezkoa den planeamendua egitea proposatu da legokeen antolaketa xehatua zehazteko. Esku-hartzeen egikaritzea laurteko bitan banatzen da.

Bolingua eta Egazelai sektore urbanizagarriek -aurreko dokumentuetan "zedarritu gabeko lurzoru urbanizagarri"tzat zehaztutakoak-, bizitegi-erabilerarako lurzoru urbanizagarriaren sailkapena hartu dute, bakoitzari dagokio antolamendu xehatuarekin eta aurreneko laurtekoan egikaritzea aurreikusten da. Beste jarduera batzuk, Erisonoko II. aldia edo Amañako (Asolaigartza EU) bizitegi-garapena bigarren laurtekorako utzi dira.

Bestalde, Legarre-Arrajola sektoreak, hasierako lehen onespenerari zegokion dokumentuan antolamendu xehaturakoa zenak, amaierako testuan programatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren sailkapena jaso du.

1.8.- PLANAREN DOKUMENTUAN ATZEMANDAKO INFORMAZIO HUTSUNEAK

Ez da atzeman Dokumentuan informazio hutsunerik.



1.9.- ESKU-HARTZE PUBLIKOA: ESKU-HARTZE MAILA ETA ERABILITAKO PROZEDURA

1.9.1.- Esku-hartze maila

Herriaren ordenamendu orokorra egiteko HAPNa idazten hasi aurretik, Hirigintza Batzordean eztabaida ugari egin ziren, eta, horien ondorioz, konpromiso bat hartu zen, alegia, esku-hartzeari zegokionez, “Planifikazio Estrategikoa” deritzanean gehiago sakontzea. Eztabaida prozesu haren haritik, 1995eko maiatzaren 4ko Osoko Bilkuran, aho batez onartu zen “Eibarko Herriaren Ordenamendurako Plan Orokorraren Lanen Aurkezpena eta Idazketa Programa” Dokumentua. Hirigintza Batzordearen oinarritzko lau printzipioetako batek zioen prozesu osoaren helburuetako bat herri partehartzaile bat lortzea zela, hiritarrek “Hiri Eskubidea” erabil zezatela.

Ikuspegi horrekin hasi ginen Plan Estrategikoa egiten, eta garbi zegoen prozesu osoan herriko eragileen esku-hartzea lehenetsi behar zela. Prozesu hark helburuak eta herriaren etorkizuneko garapena bideratu eta finkatuko zituen irizpideak zehaztu behar zituen, eta, prozesuak, ondoren egingo zen hiri plangintzaren dokumentuarekin bat eginda, koordinatuta eta lotuta egon behar zuen. Plan Estrategikoa 1998ko apirilaren 27an onartu zen, eta Adierazpen Instituzionala urte bereko ekainaren 10ean izenpetu.

Plan Estrategikoa onetsi zenean, HAPNren Aurrerapena hasi ginen idazten, eta 2000ko irailaren 22ko osoko bilkuran, onartu egin zen publikoari azaltzea egindako lanak eta proposamenak. Esku-hartze publikoa hainbat eratara egin zen, eta oso parte-hartze aktiboa izan zen, bai deitutako ekimenetan esku-hartzeari dagokionez, bai proposamenak eta iradokizunak aurkezteari dagokionez. Epe hartan 134 iradokizun aurkeztu ziren, konponbide partikularrak agertzeko batik bat, baina ez zuten kolokan jarri proposatu genuen herri eredia. Iradokizunak Hirigintza Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, 2002ko uztailaren 8ko osoko bilkuran, onartu egin ziren Plan Nagusiaren Irizpideak, Helburuak eta Soluzio Orokorrak.

Horren ostean, HAPNren Hasierako Onespenaren Dokumentua edo agiria egin zen, udalbatzak 2004ko urriaren 26ko osoko bilkuran onartu zuena. Agiri hori jendaurrean utzi zen bi hilabetez (2004ko azaroan eta abenduan). Denbora horretan 120 alegazio aurkeztu zituzten, bai partikularrek, bai enpresek eta baita alderdi politikoek ere. Prozesu horrek Dokumentuaren aldaketa ekarri zuen, eta egindako aldaketak sakonak izatera beste hasierako onespen berri bat eman zitzaion, 2005eko abenduaren 19ko udalbatzak eman ziona; ondoren, dagokion bezala, hilabete batez egon da jendaurrean. Kontsulta-aldi berri horretan beste 44 alegazio berri aurkeztu ziren.



1.9.2.- Erabilitako prozedura

Plan Estrategikoak hainbat etapa bizi izan ditu, eta, bide horretan, indartzen joan da zenbait gizarte eragileren esku-hartzea. Hirigintza Batzordea osatzen duten talde politikoek gainbegiratuta, Planak izan behar zuen antolaketa egitura finkatu zen, eta onartu Batzorde Eragilean sartzea herrian lan egiten duten talde politiko eta kultural guztien, sindikatuen, enpresarien eta beste hainbat gizarte-eragileren ordezkariak, herriko, lurraldeko eta erkidegoko administrazioak barne.

Inkesta handi bat zabaldu zen “Delphi” metodoa erabiliz, eta, horrela, lan egiteko eta eztabaidatzeko lehenengo dokumentuak idatzi ziren. Handik aurrera, lantalde batzuk eratu eta, bertara, Eibarko gizartearen ordezkari batzuk gonbidatu ziren, eta, HAPNren Aurrerapenak dioenez, esku-hartzea “esanguratsua” izan zen. Lantalde haiek egin zuten lanaren ondorioz, eta gizarte eragileen eztabaida eta adostasunetan oinarrituta, herriari buruzko diagnostia egitea lortu zen.

Herrirako eredia zehaztu eta aukeratu ostean, eta hura Batzorde Eragileak onartu eta lantaldeek berretsi ondoren, beste etapa bati ekin zitzaion, eta, partaidetza handiz, definitzen eta zehazten hasi ziren beharrezkoak ziren proiektuak, jarritako helburuak lortu ahal izateko. Horretarako, beste lantalde batzuk eratu ziren, ardatz estrategikoen arabera osatuta, eta epe bat zabaldu zen Herriko Administrazioaren departamentu eta erakunde guztiek zuzenean esku har zezaten. Horren ondorioz, taldeek, gizarte eragileek, partikularrek eta udal arduradunek aurkeztu zituzten proiektuen artean, helburuak lortzeko egokienak zirenak aukeratu ziren lantaldeetan.

Batzorde Eragileak onartu egin zuen Plan Estrategikoa, eta, azkenik, Erakundearteko Konpromiso Dokumentu bat sinatu zuten inplikaturak zeuden hainbat herri administrazioetako arduradun nagusiek, talde politikoek, sindikatuak, enpresariak eta kultura, gizarte eta kirol elkarteak.

Onarpen haren ondoren, HAPBren Aurrerapena idazteari ekin zitzaion. Plan Nagusiaren edukia ezagutzera emateko, zabalkunderako hainbat agiri argitaratu ziren, herritar guztien artean banatu zirenak. "Hiri Proiektua"ren ardatz nagusiak ezagutarazteko erakusketa publikoa egin zen, eta jendearentzat bi hilabetez zabalik egon ondoren beste hilabete batez luzatu zen. Denbora tarte horretan hiriko auzo guztietan hainbat aurkezpen egin zen; herriko hedabideetan iragarki laburrak atera ziren (egunkari, irrati eta telebista bidez) eta eztabaida publikoak antolatu ziren, talde politiko guztiek parte hartu zutela.

Jardunaldi monografiko batzuk antolatu ziren, informazio osagarri gisa, honako gaien inguruan: `Sarbide Mekanikoen Plana`, eta `Hiria eta trenak`.Eta bi inkesta egin dira, etxebizitzari buruzkoa bata, eta industriari buruzkoa bestea.



Hasierako lehen Onarpenaren ondoren, Dokumentua jendaurrean utzi da bi hilabetez. Horren ondorengo Hasierako Onarpena ere jendaurrean utzi da hilabete batez. Dokumentua internet bidez kontsultatzeko aukera egon da, www.eibar.net webgunean. Horrez gain, Plan Nagusiaren Bulegoan, Dokumentuari edo agiriari buruzko argitasunak eta azalpenak eman dira.



2.- BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN ANALISIA

183/2003 dekretuak, uztailaren 22koak, eranskineko 2. puntuan dioen bezala, beste plan edo programekiko erlazio hierarkiko eta zeharkakoa finkatzea lortu nahi da, plan eta programa horiek eragin baitezakete ingurumenean, aurkako sinergiak eta efektu kaltegarriak sortuz.

4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, hiru tresna zehaztu zituen Autonomia Erkidegoaren lurraldea antolatzeko: Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak, Lurraldeko Plan Partzialak eta Lurraldeko Plan Sektorialak.

Eusko Jaurlaritzaren 28/1997 Dekretuak, otsailaren 11koak, onartu egin zituen, behin betiko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak, eta horiek dira informazioa eskuratzeko eta beste dokumentuak idazteko erreferentzia markoa.

Eusko Jaurlaritzaren 86/2005 Dekretuak, apirilaren 12koak, Eibarko (Deba Barrena) Gune Funtzionaleko Lurraldeko Plan Partzialaren behin betiko onarpena jasotzen du.

Lurraldeko Plan Partzialarekin batera, Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak garatzen dituzten Lurraldeko Plan Sektorialen helburua da, euskal administrazioen sektorekako ordenamendurako tresnak arautzea. Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari dagozkion onartutako Lurraldeko Plan Sektorialak hauek dira:

- ✓ LPS, Ibai eta Erreken Ertzak Ordenatzekoak. 15/1998 Dekretua.
- ✓ EAEko Errepideetako Plan Orokorra. (1999-2010). 250/199 Dekretua
- ✓ LPS, EAEko Trenbideetakoak. 41/2001 Dekretua.
- ✓ LPS, Lurzoru Publikoa Sortzekoak, Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamendu Komertzialetarako. 262/2004 Dekretua.

Lantze aldi ezberdinetan daudenak hauexek dira:

- ✓ LPS, Landa eta Basokoak, hasierako onespina jaso, 2005eko urtarrilaren 10ean.
- ✓ LPS, Etxebizitza Publikoaren Sustapenerako Lurzorua Sortzekoak
- ✓ LPS, Kultur Ondarekoak
- ✓ PTS, Gipuzkoako Errepideetakoak



Bestalde, Hirigintza Erreferentzia gisa, Udal Plangintza Orokorrak daude, eta, gure kasuan, Eibarko Udal Plangintzaren Arau Subsidiarioak ditugu, 1989ko abenduaren 30ean behin betiko onartu zirenak.

2.1.- LURRALDEA ANTOLATZEKO PLANEN JARRAIBIDEEN ZEHAZTAPENA, EIBARKO HAPNA BALDINTZATZEN DUTENAK

2.1.1.- Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak

EAEko Lurraldea Antolatzeko Jarraibideek (LAJ) zehaztu egin dute Deba Barreneko Gune Funtzionala antolatzeko marko orokor bat, bai euren jarraibideen bidez, bai guneari dagokion Lurraldeko Plan Partzialaren bidez, honek eskala ertainean finkatzen dituelarik jarraibideak.

LAJek, 8. kapituluan, hots, ingurune fisikoa antolatzeari dagokionean, 6.4 eta 6.5 ataletan dio *"Garapen plangintzek [Hiri Antolamendurako Plan Nagusiek] LAJek ezarritako Antolamendu Kategorien izen eta irizpideak jasoko dituen kalifikazio bera erabiliko dute lurzoru urbanizaezinentzat, eta, kalifikazio horri, azterketa gunearen ezaugarrien arabera, azpikategoriak erantsi ahal izango zaizkio (...). [HAPNek] araudi zehatzago bat ezarri ahal izango dute erabilpen eta jardueretarako Antolamendu Kategoria bakoitzean, betiere kontuan hartuta LAJen araudi orokorra eta dagokion gunearen ezaugarri bereziak"*.

13. kapituluan, alegia, garraio, komunikazio eta energia azpiegiturari dagokionean, eta, bereziki, trenen jarraibide zehatzei dagokienez, 6.3.3. atalak, ET/FVko trenetarako buruz, zera dio: *"Egungo azpiegitura ikusita, beraz hobetu egingo da, Ermua, Eibar eta Elgoibarren arteko trenaren erabilera bultzatzeko, herri hauen arteko lotura gisa"*.

LAJen 16. kapituluan, Hiri Berrikuntzarako Estrategiei buruzkoan, orientazioak ematen dituzte hiri berrikuntzarako, eta, horien artean, Eibar-Ermua eremua aipatzen dute *"funtsezko ekimena da, bai inplikaturak dauden udalerrien ikuspegitik, bai EAEko lurralde eredu kalifikatzeko helburu globalen ikuspegitik"*.



19. kapituluan, Udal Plangintzen Bateragarritasunari buruzkoan, eta, zehazki, bosgarren atalean, inplikatur dauden udalerrri multzo bakoitzaren osaketa eta ezaugarriak zehazten dira. Eibar – Ermua – Zaldibar – Elgeta multzoaz, zera dio: *"Ezaugarriak: Eibar – Ermua osatzen duten hirigunea, Eibarrek aurreko hamarkadetan izan zuen industrializazio azkarrak eragindako hazkunde handiarengatik sortu zen. Jende pilaketa handia duen hirigunea da, industria eta hiri jarduera nahasiarekin, eta ingurumen kalitate eskasarekin (...) [eta horrek] hiri berrikuntzarako, hirigintza neurri garrantzitsuak eta ekipamendu berriak eskatzen ditu, eta, horri, bi udalerrriak batera, integratuta, ekin behar zaio. Kontuan hartu behar da bi udalerrri hauentzako hiri diseinu integratuak Zaldibar eta Elgetako lur "zatirik" beharko duela, nahiz eta beste Gune Funtzional batzuei dagokien (...)."*

20. kapituluan, "Gune Funtzionalen Mugaketa" aztertzen denean, 4. puntuak zehaztu egiten du Eibarko Gune Funtzionala, eta gune honek ondoko udalerrriak biltzen ditu: Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze.

2.1.2.- Deba Barreneko Lurralde Plan Partziala. Eibarko Gune funtzionala

Lurralde Planak dituen helburu nagusietan aipatu egiten da, besteak beste, ingurumen alorrean jarrera aktibo eta konprometituago bat lortzea, eta, eraldatzea, lurraldean eragina duten ekimenak koordinatuz, hirigunea bera eta jarduera ekonomiko berria. Eibarko herriari dagokionez, Planak azaltzen dituen helburuetako bat bertako gain-saturazioa murriztea da, hazkundera, hiri kalitateari, ez kantitateari, begira egin dadin.

2.1.2.1.- Ingurune Fisikoa

Ingurune Fisikorako Lurralde Eredua, landa lurren zonifikazio bidez egin da. LPPk ondoko kategoriak proposatu ditu ingurune fisikoaren antolamendurako:

- ✓ Babes Berezikoko Zonaldeak
- ✓ Ingurumen Hobekuntzako Zonaldeak
- ✓ Mendiko Larre Zonaldeak
- ✓ Lurgaineko Ibilguak Babesteko Zonaldeak
- ✓ Baso Zonaldeak
 - Babes Baso Zonaldeak
 - Ekoizpen Baso Zonaldeak
- ✓ Nekazari eta Abeltzain Landazabaleko Zonaldeak



Aipatu diren kategoria horien gaineko baldintza batzuk zehaztu dira, eta baldintza horiek mugatu egingo dute hainbat jarduera garatzeko bidea, arriskua edo kasu bakoitzak duen egoera partikularra kontuan hartuta. LPPk finkatu dituen gainbaldintza hauek dira: Akuiferoen Zaurgarritasuna, Higadura Guneak, Gune Urpegarriak, Gune Natural Babestuak.

Higadurarengatik ahulak diren guneen artean, Eibarko udalerriri dagokionez, Arizbakar eta Otaolako hegala, eta Urko – Usartzako Parkea aitatzen dira. Ustiaketa estentsibo/selektibo eta txanda luzekoak izango duten babes basoak ezartzea gomendatzen da, bertako hosto-zabaleko espezieak leudekeen bezala.

Uholdeengatik ahulak diren guneen artean, LPPk uholde arriskua ikusten du Ego ibaiaren beheko partean, Deba ibaiarekin bat egiten duen lekuan, eta baita, parean, Deba ibaian bertan ere.

LEUren antolamendurako kategorietan; lurzoru horren zedarriztapen kartografiakoan, kontuan hartuko dira dauden natura- eta kultura-ondarearen elementuak zaindu eta gordetzeko xedez. ZLPea jasotakoetan artean hauek dira azpimarratzen direnak:

- ✓ Udal Ondareetako Natura-guneak, udal planeamenduetan jasotakoa hiri-parkeak eta aisialdirako natura-guneak: Arrate, Urko-Usartza gainak
- ✓ Interes geologikoko eta geomorfologikoko guneak: Urkoko tolestura, Ixuako ebakidura, Eibarko tolesturak.
- ✓ Interes kulturalako elementuak: Aztarnategi arkeologiko prehistorikoak.
- ✓ Hobetu edota berreskuratu beharreko guneak: Azpikategoria honetan, kokapen topografiko berezietan dauden bertako arboladiak eta, meatze, harrobi eta erabilpenik ez duten hondakindegia sartzen dira.

Helmena eta naturarekiko harremana errazteko asmoz, eta aldi berean, landa-ingurunearen sarkinkeria berezi gabea ekiditeko, eskualde aisialdirako natura-guneak ezarri dira. Eibarko udalerrian proposatzen direnak hauexek dira: Eibarko Parkea hirigunean, eta Arrate-Urko-Kalamuakoa eskualdeko gunetzat, Ermua, Eibar eta Elgoibarren artean banatua.

2.1.2.2.- Bizitegi lurzorua

LPPk dio jende pilaketa handi eta lur gutxiko udalerrietan, Eibarren, esate baterako, "hiri birmoldaketa eta urbanizazio lanak intentsuagoak izango dira, zaharkituta dauden industri guneetan batez ere, eta ordezkatu egingo dituzte dentsitate ertaineko bizitegi guneek (60-70 etx/ha).

Etxebizitza kopuruari dagokionez, LPPk, datozen 8 eta 16 urteei begira, ondoko aurreikuspenak egin ditu:



Etxebizitza beharrak Eibarko LPPren arabera				
	Etxebizitza beharrak 8 urtean		Etxebizitza beharrak 16 urtean	
	Minimoa	Maximoa	Minimoa	Maximoa
Eibar	705	1.488	938	1.979

Iturria: Eibarko LPPren Behin Betiko Onarpeneko Dokumentua

Bizitegi-kokatuen kokapenari dagokionez, LAPk guztira 27,20 Ha. proposatzen ditu Eibarrerako, ha. bakoitzeko 40/75 etxebizitzako dentsitate batekin. Ere horiek hartzeko duten gaitasunari esker, beti ere area bakoitza programatzerakoan ezartzen den intentsitatearen arabera, 1088tik 2056ra etxebizitzara artean egiteko aukera ematen dute. Edozein kasutan ere egiten uzten den gehieneko etxebizitza-kopurua 1979koa da. Proposatutako eremuak Txarakua, Ardantza, Asua Erreka, Murrategi, Txonta, Arane eta Alfandau kokatuta.

2.1.2.3.- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

LPPren iritziz, "lehentasun handiagoa du hutsik dauden lurzoru zaharkituak berriro erabiltzeak, berritzeak, eta ditugun poligono industrialak lurrez betetzeak, lurraldean leku berriak bilatzeak baino". Beraz, eta industri sareari dagokionez, LPPren arabera "Eibarko udalerriak, oraingo poligono industrialak hobetu, bete eta berurbanizatu baino ez du egin behar". Planak, gainera, gomendio bat egiten dio Eibarko udalari, alegia, has dadila Asua Erreka, Txonta, Arane, Matsaria, Ibagain eta Barrenenguako gunek birmoldatzen eta berriro urbanizatzen.

Industria garapen berriei dagokienez, proposamenak dio Herri Administrazioaren esku-hartzea esparru jakin batzuetara muga dadila, hau da, Mallabiako Goitondo, Areitio eta Urtia industrialdeetako inguruneetara, Eibar-Ermua eremuan. Hori dela eta, Planak, Goitondoko industrialdea (10-20 Biz) interes publiko eta sozialeko eremutat hartzea proposatzen du jarduera ekonomiko berrietarako. Hiri-berriztapenaren alorrean, ZLPk lehentasun osoa ematen dio Matxarian CEI bat garatzeari.

LPPren iritziz, jarduera ekonomiko berrientzako lurzoruak bilatzeko irizpidea, oro har, mendi hegalak asentamendu gune gisa erabiltzea izan daiteke, eta horrek ahalbidetu egingo luke ibaien eta erreken antolaketa babes gune, espazio libre, eta abarretarako. LPPk maila handiko urbanizazioaren alde, eta eraikinen tipologia berrien alde egiten du, aldaketaren ikur gisa. Era berean, duela gutxi eraikitako kalitate baxuko poligonoen ingurumen eta urbanizazio diseinuaren itxuraldaketa proposatzen du.

2.1.2.4.- Merkataritza eta herri dinamizazioa

LPPk Eibar aipatzen du merkataritza suspertu behar duten udalerrien artean. Jarduera horiek "laguntzak jaso behar dituzte (espazio libreak, aparkalekuak, oinezkoentzako gunek, eta abar), herriaren inguruneak hobetu ahal izateko".



2.1.2.5.- Azpiegiturak eta zerbitzuak

Bide azpiegiturei dagokienez, LPPk lehentasuna eman dio Maltzaga-Gasteiz autopista egiteari; jaso egin ditu EAeko eta Gipuzkoako Errepideen Plan Sektorialen proposamenak, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira Eibar-Markina (GI-3950) errepidea hobetzeko eta Eibarko (N-634) saihesbidea bukatzeko egindakoak.

LPPk Ermua-Eibar-Elgoibar eta Debaren arteko aldiriko tren sistema berri bat ezartzea proposatzen du. Horren barruan, geraleku bat aurreikusten du Azitainen.

Bestalde, eskualdean garraio motordunaren ordezkotako aukerarik ez dagoenez, LPPk oinezko eta txirrindularientzat zenbait bide-zati egiteari lehentasuna ematea proposatu du. Bide-zati horien artean, azpimarratzekoa da Gipuzkoa-Bizkaia lotura, zatirik garrantzitsua Eibar eta Ermua bitartean baitago, eta horrek erraztu egingo luke joatea, ibilgailu motordunik gabe, eskualdean interesa duen hezkuntza ekipamendu batera, hau da, Ingeniaritza Industrialeko ETra. Beste zati garrantzitsu bat Deba-Eibar da, eta ibilbide hori, N-634 errepidean egingo diren lanetan oinarritu behar lukete neurri handi batean.

Lan hidraulikoei dagokienez, LPPk proposatzen du urbanizazio berriak okupazio baxukoak izatea: zoladura jarritako lurzoru gutxi, eta espazio berde gehiago. Ibur errekaen arroa babes bereziko gunetzat jo du, eta baita urez hornitzeko drainatu egiten duten beste zenbait arro ere. Ur horniketaren sareari buruz, LPPk proposatzen du Mallabiak, Ermuak, Eibarrek eta Deba Barreneko arroan dauden Zaldibarko auzoek eremu bakar bat osatzea, eta eremu hori Aixolako urtegiak eta Iburreko ponpaketak hornituko lukete.

2.1.3.- EAeko ibai eta erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldeko Plan Sektoriala (Kantauri itsasoko isurialdea)

Eibarko udalerrinari dagokionez, ibaiertzeko landarediaren bi zati, ondo kontserbatu direnak, jaso dira. Lehenengoan, Saturixo erretenaren bide osoko bi ertzak ageri dira. Kartografiatutako luzera 2.900 metrokoa da, gutxi gorabehera. Bigarrena Gorosta erretenari dagokio, eta 315en bat metroko luzera du.

LPSren araudiak atzeratze lan berezi bat aurreikusi du, eta atzeratze hori bi osagaiek (ingurumenekoak eta urbanistikoak) ezarritako kategorien arabera egingo da, eta, horrez gain, baita bere ibai adarrak ere zehazten duen zatiaren kategoriaren arabera. Atzeratzea, lurzoruan aldaketarik egin nahi denean aplikatu behar da (eraikinak, instalazio mugiezin zein desmuntagarriak, lur berdinketak eta lur mugimenduak, eta abar.), salbuespen direlarik herri lanak eta azpiegitura instalazioak, edo kultur ondarea babesteko ondo justifikatutako jarduerak.



2.1.4.- Jarduera ekonomiko eta ekipamendu komertzialetarako lur publikoa sortzeko Lurraldeko Plan Sektoriala

LPS honek zenbait irizpide finkatu ditu, jarduera ekonomikoetarako lurra arautu eta antolatzeko. Garapen iraungarriaren ikuspegi zehatzetik, LPSk hainbat hausnarketa eta gomendio egin ditu jarduera ekonomikoetarako lurrak aukeratzeko.

Prebentzioari buruz, LPSk azpimarratzen du sendotu egin behar direla ekonomia eta ekoizpen jardueretatik babestu behar diren eremuak. Planak onartu egin du garapenaren exigentzia berrien eta babes politikaren arteko desadostasun puntuetako bat, alegia, uraren ibilbideena, saihestezina baita horrek, handiagoa edo txikiagoa, eragina izatea, jarduera ekonomikoetarako izango diren lur urbanizagarriko plataforma horizontal berriak sortzerakoan. Kasu horietan, LPSk Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSren araudira jotzen du. Planak, bestalde, lurzorua betetzeko beste aukera batzuk ere aztertu ditu, esate baterako, materia bizigabeak dituzten zaborteziak zigilatu ondoren, berriro erabil daitezkeen degradatutako espazioak hartzea, edo azpiegitura handiak egiterakoan sortu diren betegarriekin egindako plataformak baliatzea. Lurzoruak horrela betetzea, tradiziozko ohituraren aurrean, hau da, haranetako lur lau urriak erabiltzearen aurrean, alternatiba bat izan daiteke.

Eibarko Gune Funtzionalari (Deba Barrena) dagokionez, LPSk dio Elgoibar, Eibar, Ermua eta Sorluzek osatzen duten eremua "Gune Estrategiko" baten barruan dagoela, jarduera ekonomikoak ezarri eta garatzeko. Eskualdeko udalerrri guztiak "Lehentasunezko Interesa duten Udalerrriak" kategorian sartu dira, eta jarduera ekonomikoetarako ondoko lurzoru politika proposatzen da:

- ✓ Sendotutako lurzorua hobetu.
- ✓ Zaharkitutako guneak birmoldatu, enpresen leku aldatzea erraztuz eta jarduera berrietarako espazio hutsak berreskuratuz.
- ✓ Dauden poligonoak sustatu, desblokeatu eta indartu.
- ✓ Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa egin, interes estrategiko orokorreko lekuetan.

Ermua-Eibar eremua "Sustapen Gune" kategorian sartu da, ekonomia berreskuratzeko eta industri birmoldaketetako zonaldeetan urbanismoa berritzeko.

LPSk hainbat operazio zehazten ditu jarduera ekonomikoetarako lurzorua lortzeko, eta operazio horiek EAEko garapen ekonomikorako Interes Estrategikotzat hartu behar dira. Eibarko Gune Funtzionalan zehaztu egiten dira "Jarduera Ekonomiko Orokorreko Poligonoen Sare" tipologian kokatzen diren zenbait jarduera, nahiz eta poligono horietako bat ere ez egon Eibarko udalerrian, eta hurbilenak hauexek dira:

- Albitxuri Eskualdeko Poligono Berria (Elgoibar): 20 Ha.
- Mallabia Eskualdeko Poligono Berria: 20 Ha.



Hiri erdiguneetan egingo diren eraikin ugariako Ekipamendu Komertzial Handien araudi urbanistikoa, udal Plangintzak zehaztuko du. Ekipamendu Komertzial Handiek, gainerako tipologiakoekin batera (hau da, bai gune zaharkituak birmoldatzeagatik, bai industri espazio hutsak bete edo lursailak eman izanagatik zabalguneeetan ezarritako EKHeK, edo herrien kanpoaldean ezarritako EKHeK), izango duten araudi urbanistikoak ondorengo arautegia bete beharko du:

- Haien kokapena eta tamaina EAeko udalerrri sailkapen batek arautzen ditu. Eibarko Gune Funtzionalean, Eibar eta Elgoibarko udalerrriak "B" kategorian daude: Eskualde Erdiguneko Udalerrriak. Udalerrri horietan, plataformaren gehienezko azalera garbia 40.000 m²-koa da, eta eraikitako sabaiaren gehienezko azalera 13.000 m²-koa.

2.1.5.- Ingurune naturalaren eta landa eta basoaren LPSa

LPS honek ondorengo antolamendu kategoriak zehaztu ditu Eibarko Udalerrriaren Lur Urbanizaezinarentzat:

- Nekazaritza, Abeltzantza eta landazabala: hainbat jardueratako lurak biltzen ditu. LPSk Trantsizioko Landa Paisaia azpikategorian sartu ditu Eibarko lurak, ahalmen agrologiko txikiko lurak alegia. Zonalde hauetarako, arau orokorra Landa Azalera Erabilgarria mantentzea da, eta, era berean, lurren landa ahalmenari eustea.
- Mendia: kategoria honetan zuhaitzak, zuhaixka erako espezieak, eta sastrakak dituzten landa lurak sartu dira, betiere kontuan hartuta ez direla laborantzako edo herrietako parke eta lorategietako lurak.
 - ✓ Basokoa: zuhaitzak izaten jarraituko duten lurak.
 - ✓ Mendi Urria: zuhaitzik gabeko, edo zuhaitz urri edo degradatutako lurak.
 - ✓ Mendiko Larreak: kota altuko soropil arrasoak, urtaroko abere ustiapen intentsukoak.
 - ✓ Harkaitz Multzoak: hormatzar handi arrokatsuak.
 - ✓ Ingurumen Hobekuntza: zonalde degradatuak, lur gutxikoak edo higadura izandakoak.
 - ✓ Lurgaineko Uren Babesa: ibaiak eta errekek, eta haien babes zonaldea.

LPSk higadura izan dezaketen guneak gehitzen ditu, eta gune horiek, beren ezaugarri litologikoengatik eta erliebearengatik, higadura izateko arrisku handia duten eremuak biltzen dituzte. Eremu horietan, landarediari eustea edo, urria denean, sartzea proposatzen da.



2.1.6.- Etxebizitza publikoa sustatzeko lurzorua LPSa

Lurraldeko Plan Sektorial honek, Aurrerapen fasean, bizitegi lurzorua antolatzeko eredu gisa, Lurraldeko Plan Partzialaren Aurrerapen dokumentua hartu du. LPSk proposatzen du Eibarko udalerririk lehentasuna izatea babes publikoko etxebizitzaren lurzorua antolatzeko, sustatzeko eta kudeaketa urbanistikoa egiteko, eta, horrekin batera, daukan bizitegi parkea zaindu, hobetu eta berreskuratzeko oinarritzeko politika bat egitea, eta urbanizatzea eta garatzea horretarako erabiliko diren lurzorua. Neurri horiez gain, Planak Eibarko gune zaharkitu eta degradatuak berritzeko, birmoldatzeko eta eraldatzeko, politika zehatz bat egitea proposatu du.

Politika berezien artean, LPSk proposatzen du sustatzea, Eibarren, etxebizitza hutsak alokatzeko eta kalifikatutako lurrak kudeatzeko eta garatzeko politikak (Txonta), eta bultzatzea, bestalde, berreskuratzeko eta/edo eraldatzeko operazioak (Alfa, Txonta, Asua-Erreka, Errekaxu, Ardantza eta Electrolitos). Udalerrian Babes Ofizialeko 900 etxebizitza egitea (16 urtean) proposatu du LPSk, eta, horietatik, 178 jada kalifikatuta zeuden (2000).

2.1.7.- Euskal kultur ondarearen LPSa

Euskal Kultur Ondarearen LPSk udal plangintzari buruzko zenbait zehaztapen egin ditu:

- 1.- Plangintzak araudia, orokorki nahiz zehazki, betetzeko, eremuka zatituko du lurraldea, eta, horretarako, Kultur Intereseko Guneak ezarriko ditu, eta horien mugak bat etorriko dira ondasun higiezinekin.
- 2.- Plan Nagusiak LPSren dokumentuetara egokitzean, aurreikusi egingo da, Antolamendu Kategorien barruan, lurzoruen edo kultur intereseko guneen kalifikazioa, bai Hiri Lurzoruan eta Lurzoru Urbanizagarrian, bai Lurzoru Urbanizaezinean, eta kalifikazio hori bat etorriko da LPSren 2.2. epigrafeak dakarren kategorizazio nagusiarekin, eta, hartara, honako zonaldeak bereiziko dira:
 - Eraikin eta Monumentuen Espazioen zonaldeak.
 - Eraikitako Monumentu Multzoen zonaldeak (MME).
 - Ustezko Arkeologia zonaldeak (UAZ).
 - Arkeologia zonaldeak (ZA): (ZA-1) Kobazuloetako historiaurreko santutegiak, (ZA-2) Herrixkak, (ZA-3) Beste Aztarnategiak edo tokiak.

Hiri kalifikazio hau aipatutako babes guneetarako plangintzaren gainekoa izango da, eta, kontraesanik balego, bera izango litzateke nagusi, eta antolamendutik at geratuko lirateke bai LPSk debekatutako erabilerak, bai ondasunak babestearekin bat ez datorren plangintzako edozein zehaztapen.



3.- Udal plangintza LPSra egokitzeak, gainera, honako edukiak sartzea ekarriko du:

- a.- Hiri legediak hala aginduta, babestu beharrekoak diren ondasunak zehatz identifikatu, Kultur Ondare Higiezinaren Katalogoaren bidez. Katalogoa LPSren zerrendaren arabera egingo da, behin-behineko eta behin betiko mugak adieraziz, eta, era berean, ondasunen oinarritzko babes mailen kategorizazioa agertuko du: Kalifikatuak, Inbentariatuak, Aurrekalifikatuak, Aurreinbentariatuak, Kalifikagarriak, Inbentariagarriak eta Bertakoek Babestekoak.
- b.- Babes Erregimenak ondoko edukiak, gutxienez, garatu:
 - Lurzoruaren erabilera eta babestu beharreko elementuen erregimena.
 - Arkeologia lanetako eraikuntza jardueren erregimena.
 - Partzelazio erregimena.
 - Esku-hartze zuzeneko erregimena.
 - Garapen plangintzako erregimena.
- c.- Zonaldeen, eta are inguruneen, behin betiko mugak zehaztu, beharrezkoa edo komenigarria denean haiek definitzea, zuzentzea eta arautzea.

2.2.- BESTE PLAN ETA LEGEDI BATZUEN ERAGINA AZTERKETA HONETAN

2.2.1.- Uraren Legea eta jabetza publiko hidraulikoaren araudia

29/85 Uraren Legeak, eta berau garatzen duten Araudiek, aldaketa batzuk izan dituzte, eta aldaketa horiek 1/2001 Errege Lege Dekretuak, uztailearen 20koak, jaso eta Uraren Legearen Testu Bateratua onartu zuen.

Lege horretan, urek, ohiko ur goraldietan, estaltzen dituzten lurrek egindako ibilguak zehazten dira. Ibilguen ibaiertzak publikoak erabiltzeko eremuak dira, eta 5 m-ko zabalera izan behar dute. Lege horrek polizia gunea ere, hau da, 100 m zabalera hegalek osatzen duten gunea, finkatzen du, eta bertan egingo diren lur erabilera eta jarduerak mugatuta daude.



2.2.2.- 60/2000/CE Uraren Zuzentarau Markoa (UZM), Hidrologia Plan Nazionala eta III Ipar Hidrologia Plana

Uraren Zuzentarau Markoak (UZM) egoera ekologikoaren bost kalitate maila bereizten ditu: Oso Ona, Ona, Moderatua, Kaskarra eta Txarra. Zuzentaruaren irizpideen arabera, zaindu egin behar dira Osa Ona eta Ona maila duten ur masak, eta lortu egin behar da besteek Ona maila, behintzat, iristea. UZMk dio, gainera, gizakiaren eragin handiaren ondorioz oso aldaketa nabarmenak izan dituzten ur masa batzuk, ezingo direla teknikoki eta/edo ekonomikoki beren onera ekarri. Ur masa horientzat, beren ahalmen ekologikoa kalkulatu behar da, eta, ez dutenentzat, hori izango da helburua. UZMren iritziz, "egungo egoera edo ahalmen ekologikoa ezin da kalitate gutxiagoko mailara jaisten utzi". Hori dela eta, garatu beharreko azpiegiturak eta hiri lanak egiterakoan, saihestu egin behar da kanalizatzea, estaltzea, betetzea, eta ibilguen egitura, barne hartuta ibaiertzena eta isurbide handiko gune urpegarriena, aldatzea. Eibarko udalerrriaren kasuan, Ego ibaia aztertu da, eta berau "oso aldatuta dagoen ur masa" kontsideratu da. Ibilgu horren ahalmen ekologikoari "Txarra" maila ezarri zaio.

Estatuko legediak eta 2000/60/CE Uraren Zuzentarau Markoak, Hidrologia Plan Nazionala eta III Ipar Hidrologia Plana erabiltzen dituzte finkatutako helburu orokorrak lortzeko. III Ipar Hidrologia Planean, ibilguentzako kalitate helburuak adierazten dira. Indarrean dagoen plan horretan, Ego Ibaiaren kalitate helburua, luzaroan, "Salmonidoak" eta "A3" mailak lortzea da.

2.2.3.- Gune urpegarrien gaineko legedia

Jabetza Publiko Hidraulikoaren (JPH) araudiaren 14.3 artikulua gune urpegarritzat jotzen ditu ez-ohiko uraldiek urperatutako guneak, eta gune horiek, 500 urte barruko maila teorikoak mugatzen dituzte, epe hori baita guneak beren onera itzultzeko estatistikak ematen duena. Ibilgu bakoitzeko Hidrologia Planak adierazi egin behar ditu azterketa, jarduera eta lanei buruzko irizpideak, uholdeek, uraldiek eta beste hidrologia fenomeno batzuek eragiten dituzten kalteak saihesteko eta aurreikusteko.

2.2.4.- Euskal Herriko lurzorua kutsadura ekidin eta zuzentzeari a

1/2005 Legea, otsailaren 4koa, EAEko lurzorua kutsadura ekidin eta zuzentzeari buruzkoa, 2005eko maiatzaren 16an sartu zen indarrean, hau da, EHAAn (32. zk., 2005eko otsailaren 16koan) argitaratu zenetik hiru hilabetera.

Legeak hirigintzako espedienteak izapidetzerakoan duen eraginari erreparatuz gero, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:



- 1/2005 Legearen 17. artikulua dioenaren arabera, “Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari dagokio lurzuaren kalitateari buruzko adierazpena egitea, titulu honetan araututako prozedurarekin bat etorritik, hurrengo gorabeheratakoen bat gertatzen denean:
 - a) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioaren bat duen edo izan duen lurzuaren jardueraren bat instalatu edo handitzen denean.
 - b) Lurzua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioaren bat izan duen eta egun jardunik gabe dagoen kokapenen batean lurrak mugitzeko proiektuak gauzatzen direnean.
 - c) Lurzua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioaren bat behin betiko bukatu edo ixten denean.
 - d) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioaren bat duen edo izan duen lurzuaren kalifikazioa aldatzen denean.
 - e) Lurzuaren jabe edo edukizailerik diren pertsona fisiko edo juridikoen kabuz, kutsa dezakeen jardueraren bat egiten denean (...)”.
- 17. artikulua, halaber, honako hau ere adierazten du: “(...) 5.- Artikulu honetako lehenengo paragrafoko d) idatz-zatian jasotako kasuan, lurzua kalifikazio-aldaketa behin betiko onartu baino lehen, ingurumen-organoak eman behar du lurzuaren kalitateari buruzko adierazpena, sustatu duen udalak aurrez eskatuta (...)”.
- Aurrerago, artikulua horrek berak honako hau ezartzen du 8. epigrafean: “Lege hau indarrean sartu baino lehen eskatuak ez badira behintzat, erabat deusezak izango dira lurzuaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozedura aurrez bete gabe emandako lizentzia, baimen eta gainerako ebazpenak, prozedura hori bete beharrekoa denean.”
- 18. artikulua, “Aldez aurreko kontsulta eta informazioari” buruzkoa, honela dio: “(...) ingurumen-organoari bertan zehaztutako jarduerak burutzeko asmoaren berri eman ondoren, jardura horien sustatzaile diren pertsona fisikoek zein juridikoek aldez aurreko kontsulta egin ahal izango diote ingurumen-organoari informazioa eman diezaien lurzuaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko betekizun tekniko eta juridikoez eta Ingurumen-organoak gehienez hilabeteko epean eman behar die informazio sustatzaile diren pertsona fisiko edo juridikoei, artikulua honetako lehenengo paragrafoan aipatutakoarekin bat etorritik (...)”. Epe hori igaro eta ingurumen arloko organoak ez badu beren beregi erabakirik eman, sustatzaileak 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik jokatuko du (artikulu horretan, lurzuaren kalitatea adierazteko prozeduraren hasierari buruzko xehetasunak jasotzen dira).



2.2.5.- Zarataren kontrako legea

Europako Elkarateak ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentaraua onartu zuenez ingurune-hotsaren edo zarataren neurketa eta kudeaketari buruzkoa (Ingurune-hotsaren Zuzentaraua), eta hori kide diren estatu guztietan ezarri beharrekoa denez, azaroaren 17ko 37/2003 Legea egin da, Zarataren kontrakoa, arautu eta autonomia erkidegoaren legedian txertatu behar dena.

Kutsadura akustikoari aurrea hartzeko eta kutsadura hori zuzentzeko, Legeak dio "lurralde-plangintzak eta hirigintza-planeamenduak, lurrazen edozein sailkapeni ekiterakoan, planeamendua onartzerakoan edo antzeko neurriak hartzerakoan, kalitate akustikoaren helburuak beti eduki behar dituzte kontuan". Aldi berean, prebentzio-ekintza gisa, legeak hauxe ezartzen du: "Inmisio-indizeek ez badituzte betetzen legokeen gune akustikoei aplikatu dakizkiekeen kalitate akustikoaren helburuak, debekatuta dago etxebizitza, ospitale-erabilera, hezkuntza-erabilera edo kultura-erabilerarako eraikinak jasotzeko lizentziak ematea salbuespenak salbuespen."

Legeak, bere 6. artikulua hauxe ezartzen du: "lege honen xede diren gaien inguruko ordenantzak onartzea udalei dagokiela." Aldi berean, udalek, dituzten ordenantzak eta hirigintza-planeamendua lege honen xedapenetara eta bere garapen-arauetara egokitu beharko dituzte". Area akustikoen motak ezartzen dira (7. artikulua) eta legeak dio Gobernuak zehaztuko dituela area akustikoko mota ezberdinei aplikatu dakizkiekeen kalitate akustikoaren helburuak, zarata-botatzearen eta zarata-inmisioaren neurketak kontuan hartuta, biztanleriak duen zarata-maila, zaratapean dagoen ondare historikoa... (8. artikulua). Aldi berean, etxebizitza, ospitale, hezkuntza edo kultura-erabilerarako eraikinek barruko alde bizigarriari aplikatu dakizkiekeen kalitate akustikoaren helburuak finkatuko ditu.

2.2.6.- Agenda 21

Nazioarteko erreferenteek bultzatu egin dute, Ríoko Adierazpenean oinarrituta, esku hartze prozesu bidez udal planen idazketa lanak indarrean jartzea udalerrietan, garapen iraungarria lortzeko.

2001. urtean, Agenda 21 Eskualde Batzordea (Deba Barrena) sortu zen, udal bakoitzeko tekniko eta politikariek osatuta; eta, hurrengo urtean, herritarrek esku hartuta, Eskualdeko Ingurumen Foroa sortu zen. 2002ko maiatzean Udaltalde 21 "Debabarrena" sortzeko hitzarmena sinatu zen, eta, talde hura, eskualdeko udalerriek, "Debegesa" Garapen Agentziak, Gipuzkoako Diputazioak, eta Lurralde Antolaketa eta Ingurumeneko Departamentuak, IHOBE elkarte publikoaren bidez, osatu zuten.



Taldea eratu zenetik 2003ko amaiera arte lana sendo egin zen, eta horren emaitza, Deba, Eibar, Ermua, Mallabia, Mutriku eta Soraluze herriak Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko kide izatera heldu ziren 2003ko abenduan sarea hedatu zenean.

Marko horren barruan egin da "Eskualde Diagnostikoa", eta, horrez gain, baita udalerrietako diagnostikoak ere, besteak beste, "Eibarko udalerrriaren ingurumen Diagnostikoa". Dokumentu horretan, Eibarko ingurumen ezaugarrien azterketa sakon bat egin da, eta, horren ondoren, Ekimen Planak hasi dira egiten, eskualderako nahiz udalerrietarako.

2003ko otsailaren 20an Eskualdeko Agenda 21 Batzordean aurkeztu zen Eskualderako Ekintza Planaren zirriborroa. Dokumentu horren arabera eta udal diagnostikoetan oinarrituta, udalerrri bakoitzeko Ekintza Planak zehaztu ziren hurrengo aldi baten.

Prozesu horren barruan, datozen hilabeteetan udalerrriaren mapa akustiko bat egingo da, eta, bertan, zonalde bakoitzeko soinu mailak agertuko dira. Horretan oinarrituta, HAPNk, dagozkien ordenantzen bidez, neurri bereziak zehaztuko ditu, finkatuta dauden maila akustikoak gainditzen dituzten edo gaindi ditzaketen guneei eragiten dituzten efektuak murrizteko, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Garapen Iraungarrirako Departamentuak idatzitako Ingurumen Eragineko Aurretostenak dioenaren arabera.

2.3.- ERKIDEGOAN, ESTATUAN, EUROPAN ETA NAZIOARTEAN EZARRI DIREN INGURUMEN HELBURU ETA KONPROMISOAK, HAPNK NOLA LANDU DITUEN AZTERTU

Europar Batasunean orain dela hamarraldi bat baino lehenago hasi ziren urratsak ematen hiriko ingurumenari buruzko europar politika lantzeko. Hiriko ingurumenari buruzko 1990eko Liburu Berdeak (COM(90)218 amaiera) hiriko ingurumenak zituen erroka guztien deskribapen zehatza eta etorkizunari begirakoa aurkeztu zuen. 1991ean sortu zen Hiriko Ingurumenari buruzko EBren Adituen Taldea. 1993. urtean hiri iraunkorren aldeko proiektua martxan ipini zen. 1996. urtean, EBko aditu talde batek "Hiri iraunkor europarrak" izeneko txostena egin zuen, hiri-kokapenei buruzko garapen iraunkorren printzipioak edo hatsarreak mintzagai eta hizpide dituenak.

Geroztikakoak dira "Europar Batasunarentzako hiri-politikaren alde" (COM(97)197 amaiera) eta "Hiri-garapen iraunkorrerako jarduera esparrua Europar Batasunean" (COM(98) 605 amaiera). 2001. urtean EBko aditu taldeak "Hirilurraren erabilera iraunkorrago baten alde" izeneko txostena egin zuen. Europako Batzordeari ematen zaizkion gomendioak bere politika eta ekintzei begira". Aurrekari guzti horiek azkenean "Hiri-ingurumenari buruzko estrategia tematikoaren alde" dokumentuan laburbildu dira (COM(2004)60 amaiera), tokietako hirigintza-planeamenduetan iraunkortasunezko irizpideak sartzea sustatzen duena.



Aipatutako erreferentziak, eta nazioarteko konpromisoetatik jasotakoak (1992ko Ríoako Adierazpena), zehaztu egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Programa Markoak (2002-2006). Programa honen 4. helburuak, "Lurralde Oreka eta Mugikortasuna", dio *"sendotu lurralde orekatuago eta iristerrazago bat, ahalbidetzeko interes orokorreko jarduera sozial eta ekonomikoak gauzatu daitezzen, eta, aldi berean, zaintzeko landa, herri eta kostaldeen ondarea, dibertsitatea, aberastasuna eta erakargarritasun natural eta kulturala"*. Era berean, konpromiso batzuez gain, hiru helburu nagusi finkatzen ditu: lurraldearen erabilera iraungarria lortu, hainbat erabilera eta jardueratarako (bizitegikoak, jarduera ekonomiko eta aisialdikoak) garapen iraungarria erdietsi, eta, azkenik, bereizi garapen ekonomia eta garraio motordunen gero eta eskaera handiagoa.

Eibarko Plan Nagusiak jaso egin du, oro har, hiri garapen iraungarriaren filosofia, hau da, "lurraldea eta ingurumena taxuz erabiltzea, eta horrek bateragarri egin behar ditu, batetik, hazteko beharra, eta, bestetik, zaintzea baliabide naturalak eta paisaia, arkeologia, historia eta kultur baloreak, oraingo eta ondorengo belaunaldien bizi kalitatea bermatzeko".

HAPNren proposamenen artean, azpimarragarria da hiri espazio zaharkituak lehenera ekarri eta berrerabiltzekoa, bazterrean utziz garapen berrietarako lurzoru berriak agortzekoa. Alde horretatik, dentsitate baxuko bizitegi garapenerako Aurrerapen Dokumentuan sartu ziren proposamenak (Txara, Arrajola) atzera bota ditu HAPNk. Beste ekimen aipagarri bat, hiriguneko erabilerak bateratzea eta nahastea da, garraioaren beharra murrizteko edo babestutako espazioak sortzeko, Espazio Librean Sistema Orokorraren ildoari jarraituz, eta horrek ahalbidetu egingo du baliabide naturalen eta paisaiaren baloreak babestea, bai landa eremuetan, bai hiri kanpoaldean.

Ondorengo ataletan, Plan Nagusiak proposatu dituen jarduera aipagarrienen balorazioa egin da, eta, horietan, aipatutako irizpideen onarpen maila ezberdinak jaso dira.



3.- PLAN NAGUSIAK LANDUTAKO INGURUMEN ANALISI, DIAGNOSTIKO ETA BALORAZIOA

3.1.- AZTERKETA EREMUAREN DEFINIZIOA. KOKAPENA

3.1.1.- Azterketa eremua

Azterketa eremua Eibarko udalerria da, udalaren Lurralde Antolamendurako Plan Nagusiak agintzen duena, eta, bertan oinarrituta, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterketa egin da.

3.1.2.- Kokapena

Eibarko udalerria Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago, mendebal muturrean, muga Bizkaia duelarik. Eibar, Deba Barreneko Eskualdearen hiri nagusia da, eta baita izen bereko Gune Funtzionalarena ere. Iparraldean, Mallabia, Markina-Xemein eta Elgoibar ditu; ekialdean, Elgoibar eta Sorluze; hegoaldean, Bergara eta Elgeta; eta mendebaldean, Zaldibar eta Ermua. Ekimen eremua kokatzeko **IA-01KO Planoa** kontsulta daiteke.



Eibarko udalerria Gipuzkoako Foru Diputazioaren ondorengo orriek jasotzen dute (1:5000 eskala): KSI, KSII, KSIII, KSIV, KRI, KRII. Udalerriaren azalera, 2.474 Ha dira. Herria 120 metroko kotan dago, Ego ibaiaren bailaran, bailara estua, sartua, eta orografia malkartsukoa izanik. Herriaren erdigunea Urko-Akondia-Arrate mendiek inguratzen dute iparraldean, eta Laupago-Galdaramiño-Illordo mendiek hegoaldean.


3.2.- INGURUNE FISIKOA

3.2.1.- Klima

Eibarko udalerririk Epel ozeaniko izeneko klima du. Ezaugarri nagusiak hauek dira: tenperatura bitarte eskasa, urteroko prezipitazioak 1.000 mm ingurukoak izaten dira, haize handi samarrak, eta askotan ekaitzak, hodei ugari, eta, horren ondorioz, intsolazio baxua.






EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 1.- KOKAPENA ETA SARBIDEAK

IA-01KO
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 1.- LOCALIZACIÓN Y ACCESOS

1:500.000 (A3)  5000 0 5000 10000 m **2007**




3.2.2.- Geologia

Azterketa, Kantauriko arroaren "euskal arku" barruan kokatzen da, erdi-ekialdeko sektorean. Azterketak landu dituen mota litologiko nagusien ezaugarriak eta arazoak ondokoak dira:

Kuaternarioko litologiak. Material berriak eta sorrera ezberdinekoak dira, hala nola, hondarrak, lohiak, legarrak eta buztinak. Sorreraren arabera, hainbat kategoria egin daitezke:

- ✓ Ibai Kuaternarioa: Finkatu gabeko materialak, heterogeneoak. Iragazkortasun ertain-altua. Metaketa alubialak hiri gune azpian. Ezpondak, oso ezegonkorak. Uholdeek eta putzuek eragiten dituzte ohiko arazoak.
- ✓ Hegal edo kolubioi metaketak: Finkatu gabeko materialak, heterogeneoak. Zulagarriak, ezponda ezegonkorak. Deformazio prozesu ugari irristaketengatik. Ohiko arazoak lurak eramateko ahalmenek eta hegalean ezegonkortasunak eragiten dituzte.
- ✓ Betetze artifizialak: Sorrera heterogeneoa duten finkatu gabeko material detritikoek betetako zabortegeiak edo hondakindegia. Erraz zulatzekoak. Oso irristakorak, lur naturalean oinarri sendorik ez dutelako. Ohiko arazoak putzuak, karga ahalmena eta ezegonkortasuna dira.

Harri karbonatatuen artean, tuparriak, tupakareharriak eta kareharriak daude, eta Urko mendiaren ipar eta ipar-ekialdeko hegalak osatzen dituzte. Ipar-ekialdeko hegalean, mota litologiko honek tupa nahasketa du, eta, harrobietan, ustiatu egin izan da. Eibarko erdigunearen ipar eta hegoko hegalak ere osatzen ditu. Tupa estratifikatuek ipar-ekialde/hego-ekialde banda osatzen dute, udalerriaren erdigunean. Azkenik, tupakareharriak eta kareharriak, tupa paketeekin, Urko mendi gaina osatzen dute.

- ✓ Tupak, tupakareharriak eta kareharrien arteko alternantzia: Hondakin eta kolubio lurak. Gogortasun ertain-altuko arroka. Karga altuko ahalmena. Material iragazgaitza. Ohiko arazoak irristaketek eta maldetako etenaldiek sortzen dituzte.
- ✓ Estratifikatutako tupak: Oro har, hondakin lurak, buztintsuak. Gogortasun ertaina. Lurak eramateko karga ahalmen ertain-altua. Ezpondak malda moderatu-altua onartzen dute. Iragazgaitza.
- ✓ Tupakareharriak eta kareharriak tupa pakete puntualekin (kareharri ezpuruak): Hondakin lur buztintsuak. Arroka gogorra, normalean. Lurak eramateko karga ahalmen altu-ertaina. Malda handiko ezpondak onartzen ditu. Iragazkortasun baxua. Azaleko karstifikazioa tarteka. Ezegonkortasun handia tarteka.



Harri bolkanikoak ere ageri dira, eta Arrateko guneko bolkanikoa osatzen dute, udalerriaren ipar-ekialdean. Harri bolkaniko piroklastikoak eta koladetan.

- ✓ Harri bolkaniko piroklastikoak: Harri gogorra, karga ahalmen handikoa. Iragazgaitza. Hegaletan desitxuragarria, narraste sakonarengatik. Ezponda altuak eta malda handikoak onartzen ditu. Aldapa biziak.
- ✓ Harri bolkanikoak koladetan: Harri gogorrak, karga ahalmen handikoak. Iragazkortasun txikiko materiala. Bloke jausiak. Malda biziko eta altura handiko ezpondak onartzen ditu.
- ✓ Harri igneoak: Harri gogorrak, karga ahalmen handikoak. Egonkortasun arazorik gabekoak. Malda biziko ezpondak onartzen ditu. Barne haustura.

Interes geologikoko osaketa garrantzitsuenak honako hauek dira: Urkoko Tolestura, Ixuako Ebakidura, Eibarko Tolesturak eta Maltzagako Kolada Trakitikoak. Lau osaketek hauskortasun maila baxua dute, eta balorazio baxua dute lehen hiru kasuetan, eta ertaina Maltzagako Koladetan. Gaur egun, ez dago larrialdietako neurririk, eta ezta erabilera berezirik ere babesteko.

Mota litologikoak, eta interes litologikoa duten puntuak, **IA-02LI Planoa: Litologia** delakoan kontsulta daitezke.

3.2.3.- Geomorfologia


Bertako osaketa geomorfologiko garrantzitsuenak hauek dira:

- ✓ Ibai osaketak, bailara eta ibarretako alubialek osatzen dituzte.
- ✓ Hegal osaketak: osaketa kolubialak, metaketek edo biltegiek osatzen dituztenak (blokeak, jausiak, lokatz koladak), edo higidura prozesu aktiboa duten osaketak (hasierako pitzadura, higakinak dituen erlaitza, higidura prozesu aktiboko gunek).

Osaketa geomorfologikoak **IA-03GE Planoa: Geomorfologiko** delakoan kontsulta daitezke.

3.2.4.- Maldak

IA-04MA Planoan, zortzi multzotan bilduta, luraren hainbat malda mota agertzen dira, portzentajetan adierazita, eta horiek aukeratu dira aztertu den lurraldearen erabilera ohikoenei begira, eta erabilera horietarako mugak kontuan hartuta.



LITOLOGIA / LITOLÓGIA

- Y Interes Geologiko duten Guneak
Puntos de Interés Geológico
- Interes Geologiko duen Eremua
Área de Interés Geológico

LITOLOGIA / LITOLÓGIA

- Ale Larriko Harri Detritikoak (Hareharriak)
Rocas Detríticas de Grano Grueso (Areniscas)
- Ale Xeheko Harri Detritikoak (Lutitak)
Rocas Detríticas de Grano Fino (Lutitas)
- Azaleko Metaketak
Depósitos Superficiales
- Harri Bolkaniko Piroklastikoak
Rocas Volcánicas Piroclásticas
- Harri Bolkanikoak Isurian
Rocas Volcánicas en Coladas
- Harri Igneoak
Rocas Igneas
- Kare-Harri Ez-Puruak eta Kalkarenitak - Dolomiak
Calizas Impuras y Calcarenitás / Dolomias
- Margokare-Harriak, Margak, Kare-Harriak eta Kalkarenitak Txandaka
Alternancia de Margocalizas, Margas, Calizas y Calcarenitás



EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR




INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA


ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

INGURUMENAREN ANALISIA 2.- LITOLÓGIA

IA-02LI

ANÁLISIS AMBIENTAL 2.- LITOLÓGIA





**GEOMORFOLOGIKOA
GEOMORFOLÓGICO**

GEOMORFOLOGIKOA / GEOMORFOLÓGICO

- Alubiala
- Alubiala Errekagunean
- Alubial en Vaguada
- Askatze-Orbaina
- Cicatriz de Despegue
- Bloke-Kolubioiak
- Coluvial de Bloques
- Erosio Aktiboko Zona (Erretenak)
- Zona de Erosión
- Hegaleko Metaketa Ale Xehekoa
- Acúmulo de Ladera
- Informazioz Gabea Zona
- Zona Sin Información



**EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR**




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**


**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**

**INGURUMENAREN ANALISIA
3.- GEOMORFOLOGIKOA**

IA-03GM

**ANÁLISIS AMBIENTAL
3.- GEOMORFOLÓGICO**





MALDAK / PENDIENTES

- MALDAK / PENDIENTES
- Malda < %3
Pendiente inferior al 3%
 - Malda %3-5
Pendiente entre 3 y 5%
 - Malda %5-10
Pendiente entre 5 y 10%
 - Malda %10-20
Pendiente entre 10 y 20%
 - Malda %20-30
Pendiente entre 20 y 30%
 - Malda %30-50
Pendiente entre 30 y 50%
 - Malda %50-100
Pendiente entre 50 y 100%
 - Malda > %100
Pendiente superior al 100%



EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**


INGURUMENAREN ANALISIA
4.- MALDAK

IA-04MA

ANALISIS AMBIENTAL
4.- PENDIENTES



1:20.000 (A3)



2007



3.2.5.- Hidrologia

3.2.5.1.- Sare hidrografikoa

Drainatze sarea **IA-05HI Planoa: Hidrologia** delakoan kontsulta daiteke. Udalerrriaren azalera bi Hidrologia Unitatetan banatzen da. Eibarko udalerrriaren %80, gutxi gorabehera, Debako HURi dagokio. Artibaiko HUK, bestalde, udalerrriaren %20ko urak drainatzen ditu, ipar-mendebaleko muturrean.

Debako UHK 533,8 km²-ko azalera du. Arro honetako ibai nagusia Deba ibaia da, eta ibilguak 60,31 km luzera du. Eibarko hiri erdigunea eta udalerrriaren zati handi bat, 17 km² gutxi gorabehera, Ego ibaiaren azpiarroan kokatuta daude, hau da, Deba ibaiaren ezker aldeko ibaiadarrean.


Ego ibaiak 42,01 km²-ko arroa du, eta ibilguaren luzera 14,1 km-koa da. Deba ibaian isurtzen ditu urak, Ermua eta Eibarko erdiguneak zeharkatu ondoren. Bokalean, Maltzagan, I maila du LPSren ibai zatien antolaketaren arabera, eta 3. lekua Strahlerren antolaketa hierarkikoaren arabera. Ego ibaiaren adar nagusiak dira:

- Pagei edo Matsaria Erreka, 2,7 km²-ko azalera.
- Gorosta Erreka, 2,9 km²-ko azalera. Baileraren beheko aldea zabortegi gisa erabili izan da. Berririo erabili da Azitaingo industri Poligonoa eraikitzeke, eta bere ibilgua desbideratu eta zuzendu egin da.
- Unbe Erreka, 1,2 km². Kanalizatu eta desbideratu egin da, zabortegi gisa erabili izan delako. Zabortegia itxi egin da, eta kirol gunegisa erabiltzen da.
- Txonta Erreka, 2,1 km². Kanalizatuta dago, eta industri garapenerako estali egin da.
- Murrategi Erreka, aurrekoaren ekialdean, drainatzeko 1,9 km² dituela.

Beste ibai ibilgu batzuk daude, Ego ibaiaren adarrak direnak, eta 1 km² baino gutxiagoko errekek osatzen dituzte. Horien artean daude: Abauntzaga, Amaña, Arana, Ardantza, Arginao, Artegialdeko, Asua, Errialtzu, Galartza, Ibur, Ipuruagako, Katamengako, Oregi, Sansaburu eta Zubiaga Errekak.

Udalerrriaren ipar-ekialdeko mugan Saturixo Erreka errekatxoa dago, eta honek urak Deba ibaira isurtzen ditu zuzenean. Bere drainatze arroa 4,2 km²-koa da.

Udalerrriaren iparraldean, eta Artibaiko Hidrologia Unitatearekin bat eginda, hainbat erreka txiki daude, eta Urko ibaiaren goi-ibarra osatzen dute. Urko, Artibai ibaiaren adar bat da, eta izen bereko Hidrologia Unitatearen ibai nagusia. Urko ibaiak 34,7 km²-ko azalera du, eta arroaren luzera 11,2 kilometrokoa da. Artibai ibaian isurtzen ditu bere urak, Markina-Xemeingo hiri erdigunean. Bere bokalean I maila agertzen du, LPSren ibai zatien antolaketaren arabera.



HIDROLOGIA / HIDROLOGÍA

UNITATE HIDROLOGIKOAK / UNIDADES HIDROLÓGICAS

- | | |
|-----------------------------------|---|
| U.H.-ren Muga
Límite de U.H. | Ilurburua
Manantial |
| ARROAK / CUENCAS | Gainazal Ur Hargunea
Captación Superficial |
| Arroaren Muga
Límite de Cuenca | Ustiapen Zundaketa
Sondeo de Explotación |
| DEBA (U.H. DEBA) | |
| EGO (U.H. DEBA) | |
| URKO (U.H. ARTIBAI) | |

AZPIARROAK / SUBCUENCAS (EGO)

- | | |
|--|--------------------|
| Azpiarroaren Muga
Límite de Subcuenca | GOROSTA ERREKA |
| ABAUNTZAGAERREKA | IBUR ERREKA |
| AMANA ERREKA | IPURUAGAKO ERREKA |
| ARANA ERREKA | KATAMENGAKO SAKONA |
| ARDANTZA ERREKA | OREGIERREKA |
| ARGINAO ERREKA | PAGEI ERREKA |
| ARTEGIALDEKO ERREKATXOA | SANSABURU ERREKA |
| AZUA ERREKA | TXONTA ERREKA |
| ERRAZTIKO ERREKA EDO MURR | UNBE ERREKA |
| ERRIALTZU ERREKA | ZUBIAGA ERREKA |
| GALARTZAERREKA | |

Proposatutako Hiri Antolamendua / Ordenación Urbana Propuesta

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

INGURUMENAREN ANALISIA
5.- HIDROLOGIA

IA-05HI

ANÁLISIS AMBIENTAL
5.- HIDROLOGIA





3.2.5.2.- Ibilguen tipologia eta ezaugarriak

Ego ibaia, Maltzagako bokaletik Ermuko hirigune amaieraraino, erabat aldatuta dago. Ia ibilbide osoan estalita doa, eta hormigoizko horma bertikal bidez kanalizatuta dago. Horrek guztiak degradatu egin ditu bere ibaiertzak, eta orain berreskurazekin dira.

Gauza bera gertatzen da Ego ibaian urak isurtzen dituzten erreken ibilgu baxuetan. Erreka hauek, Eibarko erdigunea zeharkatzean, estalita doaz ia ibilbide osoan, eta agerian dauden erreka urriak izugarri aldatuta daude.



1. Argazkia: Gorosta Erreka, Azitaingo poligonoan, kanalizatuta bere ibilgu baxuan.

Aipatutako erreken iturburuek basoak zeharkatzen dituzte. Oro har, zuhaitz ugari dute, zuhaitz landaketak ibilguetaraino zabaltzen diren zonaldeetan izan ezik.

Urko ibaia bere ibilgu altuan, eta bere ibai adarrak, oso sartua dagoen malda handiko leku batetik jaisten dira, baso ugari, koniferoak batik bat, zeharkatuz. Ibaiertzek zuhaitz asko erakusten dute, oro har. Hala ere, konifero landarediak ibairaino iristen dira askotan, eta horrek eragina izaten du ibaiaren bertako landaredian.



3.2.5.3.- Egoera eta ahalmen ekologikoaren zehaztapena

Atal honetan, Eibarko udalerria zeharkatzen duten ibilguen egoera ekologikoaren datuak komentatzen dira. Ego ibaiari buruzko datuak aipatzen dira, eta baita Urko iturburuari dagozkionak ere, horiek baitira oraingoz ezagutzen diren datu bakarrak. Ego ibaian urak isurtzen dituzten erreken iturburuaren kasuan, euren diagnostiko ekologikoa Urko ibaiaren iturburuari dagozkion datuen parekoa da.

Egoera ekologikoaren zehaztapena bi kalitate adierazle bidez egiten da. Adierazle biologikoa, makroornodunen fauna bentonikoan oinarritzen dena (ibilguaren kalitatea), eta ibaiertzeko basoaren kalitate adierazlea (QBR). Honen ondorioz, 5 kalitate maila daude: oso ona, ona, moderatua, eskasa eta txarra.

Kanalizazioarengatik eta ibaiertzak betetzeagatik ibaiaren habitataren aldaketa larriak eragindako zati eraldatueta, berreskurapena guztiz ezinezkoa da, eta, orduan, ahalmen ekologikoa aipatzen da, eta bere kalkulua ibilguaren kalitate adierazlea erabiliz lortzen da. Ahalmen ekologikoak 4 maila ditu: ona eta bikaina, moderatua, eskasa eta txarra.

EGOERA / AHALMEN EKOLOGIKOA 2002			
Ibaia	Kalitate mota	Egoera ekologikoa	Ahalmen ekologikoa
Ego	V		Txarra
Urko	III	Moderatua	

Ego ibaia oso degradatua dago. Bere ertzetan egin den hiri eta industri okupazio intentsuak oso eragin kaltegarria izan du ibilguaren kalitatean. Horren ondorioz, ahalmen ekologikoa txarra da. Bai "Lurgaineko ur masen ezaugarriak" txostenak, bai Zainketa Sarearen emaitzek, aurreikusitako saneamendu lanekin berehala hasteko beharra azpimarratzen dute, eta lan horiek, hondakinak jasotzeari dagokionez, oso zehatz proiektatu eta egiteko gomendatzen dute. Balorazio hau baliagarri izan daiteke ibaiaren adar nagusien ibilgu baxurako (Gorosta, Matsaria, Azitain, Asua, Txonta, Murrategi...), adar horiek antzeko ezaugarriak dituztelako.

Urko ibaiaren iturburuan, ibilguaren kalitatea ona da, eta ibaiertzen egoera onargarria; horrek guztiak egoera ekologiko moderatua erakusten du. Ego ibaiaren erreken iturburuak antzeko ezaugarriak dituzte, eta, beraz, beraien egoera ekologikoaren balorazioa, Urko ibaiaren iturburuaz egindakoaren antzekoa izan daiteke.

3.2.5.4.- Saneamendua

Plan Nagusiaren Dokumentuak Eibarko udalerrriaren Saneamendu Proiektua, Gipuzkoako Foru Diputazioak egindakoa, sartu du. Proiektu hori, Deba ibaiaren Saneamendu Planaren barruan dago, eta, Plan horretan, Elgoibarko udalerrirako Ur Zikinen Araztegi bat aipatzen da, une honetan eraikitzen ari direna.



Eibarren erabilitako ur emariei buruzko datuak (hiri eta industriakoak), GFDk bere Saneamendu Proiektua egiterakoan erabili zituenak, honako hauek dira:

EGUNGO HIRI UR-EMARIA - 1998					
Udalerria	Egungo biztanleria (biztanleak)	Egungo hornidura (l/s)	Egungo ur-emari ertaina eguraldi lehorrekin (l/s)	Infiltrazio ur-emaria (l/s)	Egungo ur-emari ertaina eguraldi lehorrekin (l/s)
Eibar	31.911	150	55,4	55,4	110,8

ETORKIZUNEKO HIRI UR-EMARIA - 2015					
Udalerria	Etorkizuneko biztanleria (biztanleak)	Etorkiz. hornidura (l/s)	Etorkiz. ur-emari ertaina eguraldi lehorrekin (l/s)	Infiltrazio ur-emaria (l/s)	Etorkiz. ur-emari ertaina eguraldi lehorrekin (l/s)
Eibar	30.000	200	69,4	55,4	110,8

INDUSTRI UR-EMARIA					
EZ KONTROLATUA					KONTROLATUA
Egungo azalera ez kontrolatua (Ha)	Egungo eta etorkizuneko hornidura (l/s)	Egungo industri ur-emaria (l/s)	Etorkizuneko azalera ez kontrolatua (Ha)	Etorkizuneko industri ur-emaria (l/s)	Egungo industri ur-emaria (l/s)
10,8	0,25	2,7	36,1	9,03	10,67

UR-EMARIA GUZTIRA	
Egungo ur-emaria guztira eguraldi lehorrekin (l/s)	Etorkizuneko ur-emaria guztira eguraldi lehorrekin (l/s)
124,17	144,54

Iturria: Oria eta Deba ibaien Arroen Saneamendu Sistemen Aurreproiektua. IKAUR.1998.

3.2.5.5.- Hornikuntza

Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzaren Hidrologia Plangintzarako Bulegoak adierazten du, Eibar, Axiolako sistemarekin, Gipuzkoako Ur Partzuergoak kudeatzen duen sistemarekin, hornitzen dela. Horrez gain, bi sistema txiki daude, Aginaga eta Arrate hornitzen dituztenak, eta udalak berak kudeatzen ditu. Bestalde, udalak bere hartuneak ditu.

Eibarko Agenda 21eko Ingurumen Diagnostikoak udalerriak dituen kontsumoetarako ur horniketen zerrenda bat sartu du. **IA-05HI Planoan** Eibarko udalerriko iturburuak, lurgaineko ur-bilketak eta ustiapen zundaketak jaso dira, Energiaren Euskal Erakundeak eskainitako datuetatik bilduta.



Eibarko udalerrian kontsumitzeko ur-bilketak				
Izena	Mota	Ur-emaria	Azterketa	Balorazioa
Aixola	Urtegia	50	A2	Kalifikatu gabe
Sagar Erreka	Urtegia	60	A3	Kalifikatu gabe
Txonta	Erreka	15	Kalifikatu gabe	Kalifikatu gabe
Unbe	Erreka	5	Kalifikatu gabe	Kalifikatu gabe
Otaola	Erreka	-	-	-
Matsari	Erreka	-	-	-
Txaltxakua	Erreka	-	-	-
Asua	Erreka	-	-	-
Txara	Erreka	-	-	-
Altru	Erreka	-	-	-
Tangote	Erreka	-	-	-
Subiska	Erreka	-	-	-
Galartza	Erreka	-	-	-
Ur-bilketak Arrate	Kalifikatu gabe	-	Kalifikatu gabe	Kalifikatu gabe

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

60/2000/CE Uraren Arau Markoak "Babestutako Zonalde" deitzen ditu "giza kontsumorako, ur-bilketarako erabiltzen diren ur masa guztiak, egunero 10 m³ baino gehiago emateko edo berrogeita hamar lagun baino gehiago hornitzeko ahalmena dutenean".

Ur kontsumoa, %75-80 etxerako izaten da, eta %20-25 industriarako. Bestalde, Agenda 21eko Ingurumen Diagnostikoak, 1998. urterako, eguneko eta biztanleko, 124 litroko kontsumoa jaso zuen etxerako, eta 34 litroko kontsumoa, eguneko eta biztanleko, industriarako, 29.000 biztanleko populazio batean.

Ur kontsumoen bilakaera erabileren arabera					
Urtea	Etxerako		Industriarako		Guztira (m ³)
	m ³	%	m ³	%	
1995	1.188.484	75,5	385.622	24,5	1.574.106
1996	1.365.841	79,6	350.173	21,4	1.716.014
1997	1.289.752	77,6	372.059	22,4	1.661.811
1998	1.312.920	78,4	361.723	21,6	1.674.643

Iturria: Agenda 21eko Ingurumen Diagnostikoa, Eibarko udalaren datuen arabera.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Hidrologia Plangintzarako Bulegoak aztertu egin du EAEko hornikuntza egoera, eta baita etorkizuneko eskaera ere, hornikuntza sistemetan izan dezaketen eragina jakitearren. Azterketa horrek 50 biztanle baino gehiagoko populazioak, edo eguneko 10 m³ baino gehiago ematen duten sistemak, bildu ditu.



EGUNGO EGOERA. Deba Barreneko arroa – Aixola – Kilimon hornikuntza sistema								
Erdigunea	Sistema	Pop. (biz.)	Hornikuntza ertaina (l/biz/egun)	Kontsumo baxua (m ³ /urte)	Kontsumo baxu-ertaina (l/s)	Hornikuntza altua (l/biz/egun)	Kontsumo altua (m ³ /año)	Konts. altu-ert. (l/s)
Eibar	Aixola	28.511	170,6	1.775.780	56,31	402,5	4.188.161	132,81
Aginaga	Autonom.	50	176,9	3.229	0,10	417,3	7.615	0,24
Arrate	Autonom.	75	176,9	4.843	0,15	417,3	11.423	0,36
Barreiatua		229	176,9	14.788	0,47	417,3	34.877	1,11
Kontrolatu gabeko ehunekoak (galerak)			%57,6					

Iturria: Ur Zuzendaritzaren Plangintza Hidraulikorako Bulegoa (Eusko Jaurlaritza)

ETORKIZUNEKO EGOERA. Deba Barreneko arroa – Aixola – Kilimon hornikuntza sistema								
Erdigunea	Sistema	Pop. (biz.)	Hornikuntza ertaina (l/biz/egun)	Kontsumo baxua (m ³ /urte)	Kontsumo baxu-ertaina (l/s)	Hornikuntza altua (l/biz/egun)	Kontsumo altua (m ³ /año)	Konts. altu-ert. (l/s)
Eibar	Aixola	28.511	189,1	1.967.597	62,39	252,1	2.623.463	83,19
Aginaga	Autonom.	50	189,9	3.466	0,11	253,2	4.621	0,15
Arrate	Autonom.	75	189,9	5.199	0,16	253,2	6.932	0,22
Kontrolatu gabeko ehunekoak (galerak)			%25					

Iturria: Ur Zuzendaritzaren Plangintza Hidraulikorako Bulegoa (Eusko Jaurlaritza)

Eusko Jaurlaritzaren Ur Zuzendaritzaren arabera, egungo eta etorkizuneko datuak ikusita, "biztanleko hornikuntza igoera, sistemak gaur egun dituen galera handiak murriztuz lortuko da batez ere, eta galera-atalase maximo onargarria, %25ekoa izan behar luke, ez egungo %57,6koa".

3.2.6.- Landaredia eta luraren erabilpena

Kapitulu hau osatzeko oinarrizko erreferentzia gisa, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzak 1990ean egindako **EHAeko Landaredi Planoaren** 63-III orria erabili da. HAPNren Agirian egindako proposamenen arabera eragina izan dezaketen alorretan eguneratu da material hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1/5.000 eskalan egindako ortoargazkia interpretatuz eta landa lana eginez.

Horrezaz gainera, HAPNren Agirian aurkeztutako lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa berraztertze, ortoargazkia interpretatu eta landa lanak egin dira, non habitat interesgarriak mugatu diren. Habitat horiek, gero, "Babes Berezik" kategoriatzat jo dira.



3.2.6.1.- Izan litekeen landaredia

Atlantikoko gainontzeko bailaren antzera, itsas mailaren eta 600 metroko garaieraren artean, muino zoruan, *Quercus robur* harizti azidofiloa izango litzateke nagusi, eta baita Atlantikoko harizti baso mistoa ere, tartean, karezko azaleratzeetan artadi txiki batzuk izan arren. Ibai inguru guztietan, berriz, haltzadi kantauriarra izango litzateke nagusi. Mendiko zoruan, Urko eta Kalamua mendien hegalean, 600 metrotik gora, pagadiak (azidofiloak nagusiki eta eutrofoak).

3.2.6.2.- Egungo landaredia

Egungo landarediak, jakina, oso zerikusi gutxi du aipatutako landaredi potentzialarekin. Konifero sailak, eta neurri txikiagoan, belartzak jabetu dira udal barrutian jatorrizko basoez. Hariztiak ziren lurretan, aldapa gutxi dutenetan batez ere, larreak dira nagusi. Hariztiei eta pagadieie dagozkien lurretan konifero sailak ageri dira. Jatorrizko basoak zokoraturik gelditu dira, eta antzinako landarediaren arrastoak lurraldean banatutako baso txikietan ikus daitezke.

Azterketa honetarako egin den landarediari buruzko azterlan zehatzaren ondorioz, honako landaredi-unitate hauek identifikatu dira:

- 1.- Pagadia (kaltzikolo-eutrofoa edo azidofiloa)
- 2.- Kareharrizko gailurrak eta amilburuak dituen baso mistoa
- 3.- Kantauriko artedia
- 4.- Harizti azidofiloa eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoa
- 5.- Harizti azidofiloaren eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoaren gazte fasea edo degradazio handikoa
- 6.- Kantauriko haltzadia
- 7.- Larre/Lahardia
- 8.- Konifero sailak
- 9.- Mendiko belardia
- 10.- Atlantikoko larre eta laborantzak
- 11.- Zakartegietako landaredi nitrofiloa



1. Pagadia

Eibarko udal barrutiko pagadirik gehienak pagadi azidofiloak dira.

Unitate honi dagozkion kartografiatutako esparru urri eta txikiak Urko eta Kalamua mendietako hegaletan daude kokaturik. 38,5 Ha-ko eremua osatzen dute.

2. Kareharrizko gailur eta amilburuetako baso mistoa

Baso mistoak edo kareharrizko pagadi harridunak izandako aldaera da, lur eskasiak, azaleko harri ugariak, argitasun bereziak edo lehortekak garapena baldintzatu diotelako.

Urko mendiaren ipar hegaleko esparru txiki bat, 1,84 Ha-ko azalera duena, kartografiatu dugu.

3. Kantauriko artadia

Artadia lurzoru lehorretan –sarritan argaletan–, muinoetan edo mendietako behe aldeko leku eguzkitsuetan hazten da. Oinarrizko substratuak ditu gogoko (kareharrizkoak nagusiki).

Urko mendiaren hego ekialdeko mazela aldapatsu batean dagoen esparru txiki bakar bat kartografiatu dugu. 2,5 Ha ditu.

4. Harizti azidofiloa eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoa

Kantauriko isurialdeko muinoetan nagusi izango liratekeen –argi, gainera– landaredi multzoak dira. Nagusiki haritz kanduduna (*Quercus robur*) duten basoez ari gara.

Eibarko udalerrian 36,1 Ha-ko azalera dute. Eremu txikietan mantentzen dira, nahiko hondatuak, eta aztertutako esparru guztian banatuak.

5. Harizti azidofiloaren eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoaren gazte fasea edo degradazio handikoa

Unitate honetan aurreko zatian aipatutako basoak izango dira mintzagai, baldin eta oso hondatuta edo degradatuta badaude. Sasiakaziak (*Robinia pseudoacacia*), zuhaitz apaingarri gisa kanpotik ekarritakoak, espezie inbaditzaileen portaera du sarritan.

Udalerrri osoan barrena ikus daitezke harizti degradatuaren arrastoak. 107,0 Ha-ko azalera duten 46 esparru kartografiatu dira.



6. Kantauriko haltzadia

Kantauriko isurialdeko ibai eta erreka guztietan haltza (*Alnus glutinosa*) litzateke ibai ondoko landaredi nagusi. Ibai txikiak edo ibai handiagoetako iturburuetan haltzadiak – oraindik iraunez gero– ia beti galeria moduko oso baso estuak osatzen dituzte.

Ego ibaiaren adarren iturburuetan, Urko ibaiaren iturburuan eta aldatu ez diren beste erreka batzuetan, Saturixon esate baterako, haltzadien zantzuak mantentzen dira. Agiña erreka (Urko ibaiaren adarretako bat) iturburuan dagoen haltzadi bakar bat kartografiatu da, 5,30 Ha-koa. Kontuan eduki behar dugu Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzak egindako EHAeko landarediaren plano (1990) 1:25000 eskalan egina dagoela, eta haltzadiak izan ohi duten hedadura txikia dela-eta, haltzadi asko ezin izan zituztela kartografiatu.

7. Larre/Lahardia

Landaredi unitate honetan lahardiz edo belarrez osatutako landare multzoak bildu dira. Landare multzo horiek orban homogeenak edo elkarrekin osatutako mosaikoak eratzen dituzte. Txilardi-otadi-Atlantikoko iratze sailez osatua da lahardirik ugariena.

Eibarko udalerriko Urko eta Kalamua mendien hegaletan hainbat orbain nabari dira kartografiatuta. Orban horietan mendiko belardiak, basoak edo hostogalkorren basoak daude. Guztira 168,7 Ha-ko azalera dute.

8. Konifero sailak

Formazio homogeenak dira eta espezie bakarrekoak. Azpimarratzekoa Monterreyko pinuak (*Pinus radiata*) duen hedadura; beste espezie batzuk, oster, eremu txikiagoa dute, hala nola, laritzak (*Larix kaempferi*).

Udalerrian landare formaziorik hedatuena da, eta egungo paisaiaren funtseko elementua. 1.445,8 Ha-ko eremua hartzen dute; beraz, udalerriko osoko azaleraren ehuneko 60.

9. Mendiko belardiak

Mendiko belardiak soropil arrasoak dira, ardiek, zaldiek eta behiek urteko zenbait garaitan bazkalekutzat erabilitakoak.

Urko mendian 0,9 Ha-ko eremu txiki bat kartografiatu da. Hala ere, mendiko belardiak, bigarren mailako landa talde direlako, beste landaredi unitateen parte izan ohi dira, batez ere larre/lahardi unitatearenak.



10. Atlantikoko larre eta laborantzak

Kartografiatutako esparruek mosaiko bat dirudite, belartzaz, baserriz, barazki eta fruta-arbolez betetako lur sail txikiez, baso txikiez... osatutako mosaikoa. Erdi mailako aldapa duten bizkar eta mazelak dira nagusi eta sarri baita ehuneko 35etik gorako pendiza duten mazelak ere.

Baso landaketekin batera landaredi unitate hau da paisaiaren osagairik garrantzitsuenetako bat. 483,0 Ha hartzen ditu, udalerraren ehuneko 20 inguru, beraz.


11. Erruderal landaredi nitrofiloa

Erabat hondatutako edo gizatartutako aldeak kartografiatu dira unitate honetan: herriak, komunikabide handiak, harrobi eta zabortegiak, industriguneak, lugorriak, eta abar. Atal honetan jasotako zati askotan landaredia oso eskasa da edo apenas dagoen (herriak eta abar).

191,1 Ha-ko azala hartzen dute; hain zuzen hirigunea hartzen duen lurrari dagokiona, eta udalerrri osoko azaleraren ehuneko 8 edo da.

Udal eremuaren banaketa landaredi unitateen arabera	
Landaredi unitateak	Eremua (HAK)
Pagadia	38
Kareharrizko gailurrak eta amilburuak dituen baso mistoa	2
Kantauriko artadia	2
Harizti azidofiloa eta hariztia-Atlantikoko baso mistoa	36
Harizti azidofiloaren eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoaren gazte fasea edo degradazio handikoa	107
Kantauriko haltzadia	5
Larre/Lahardia	169
Konifero sailak	1.446
Mendiko belardiak	1
Atlantikoko larre eta laborantzak	483
Erruderal landaredi nitrofiloa	191

IA-06LA Planoan argi ikus daiteke Landaredi Unitateen banaketa.



LANDARETZA / VEGETACIÓN

- P** Zuhaitz Berezia (Eibarko Artea)
Árbol Singular (Encina de Eibar)
- Artadi Kantauriarra
Encinar Cantábrico
- Baso Landatuak
Plantaciones Forestales
- Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak
Prados y Cultivos Atlánticos
- Belardi Menditarra
Pradera Montana
- Haltzadi Kantauriarra
Aliseda Cantábrica
- Harizti - Baso Misto Atlantikoa
Robledal - Bosque Mixto Atlántico
- Hariztiren Gazte-Fasea edo Fase Anderatua
Fase Juvenil o Degradada de Robledal
- Kararrizko Gailurreko eta Haitzebakien Oineko Landaredia
Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo
- Landaredi Erruderal-Nitrofiloa
Vegetación Ruderal-Nitrofila
- Pagadi (Kaltzikola Eutrofiako eta azidofioloa)
Hayedo (Calcícola Eútrofo y Acidófilo)
- Txilardi - Otadi - Iratzedi Atlantikoa
Brezal - Argomal - Helechal Atlántico



EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR




INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL

INGURUMENAREN ANALISIA
6.- LANDARETZA

IA-06LA

ANÁLISIS AMBIENTAL
6.- VEGETACIÓN



1:20.000 (A3)



2007



3.2.6.3.- Zuhaitz bereziak

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak 1990ean argitaratutako "Árboles singulares de Euskadi" liburuak zuhaitz berezien katalogo bat dakar. Katalogo hartan Eibarko udalerrian dagoen arte bat (*Quercus ilex ilex*) ageri da. Otaolaerdikoa baserriaren inguruan dago, eta etxe hori hirigunean dago, industrialde batean, eta baserri hori da, hain zuzen, Ego ibaiko ibarrak nekazaritzarekin izan zuen loturaren aztarna bakarra. Arteak 12 metroko garaiera du eta 3,3 metroko diametroa.

Otaolaerdikoa baserriko arteak duen kokagunearen koordenadak honako hauek dira:

X: 542028

Y: 4781270

Bizirik irauteko arazoak ditu, hirigunean industriaz inguratutako dagoelako eta industria handitzeko edo etxebizitzak egiteko lur urria duelako. Bereziak dira, bai artea eta bai baserria. Zergatik? Erabat industrializatuta dagoen eta berebiziko zirkulazioa jasaten duen inguru batean daudelako.



2. argazkia: Otaolaerdikoa baserriko artea, industria pabiloiz eta errepidez inguratua.



3.2.6.4.- Arriskuan dauden flora espezieak

Arriskuan dauden Faunako eta Florako Espezien Euskal Katalogoa erregistro publikoa da, 16/94 Legeak, Euskal Herriko Natura Babesten duenak, sortua. Babesteko neurri bereziak behar dituzten espeziez, subespeziez eta populazioez osaturik dago. Ondoren, Katalogoan bildutako espezieak aipatuko ditugu, UTM 30T WN 48 laukian –ia Eibarko udalerrri osoa bertan dago– daudenak. 167/1996 Dekretuan araututako Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan ezarritako kategorien arabera sailkatuta dago gainera espezie bakoitza.

Lycopodium clavatum L.: Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan "bitxi"tzat jota dago. 19/1997 Errege Dekretuaren arabera, V. kategoria, naturan biltzeko eta ustiatzeko kudeaketa neurriak izan ditzaketen espezieak biltzen dituen, dagokio. Habitat Zuzentarauak kudeaketa neurriak izan ditzaketen sailen artean ipini du.

Ura darion txilardi, iratze sail, bazkaleku eta ertzetan izaten da. Populazioak txikiak izaten dira eta urriak banakoak. Eibarko udalerrian, Kalamua mendian ageri da, 650 metroko garaieran. Dagokion habitata 650-1450 metrokoa da.

Arriskuan dauden hurrengo espezieak Eibarko udal barrutiari dagokion laukian daude markatuta, udalerrian ditugula zehazki ez dioen arren. Nolanahi ere, litekeena da gure barrutian izatea.

1.- *Narcissus bulbocodium L.*

"Interes Berezikotik" estatusa dagokio Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan. 19/1997 Errege Dekretuaren arabera, V. kategoria dagokio, naturan bizitzeko kudeaketa neurriak izan ditzaketen espezieak biltzen dituen. Era berean, Habitat Zuzentarauak kudeaketa neurriak izan ditzaketen sailen artean ipini du. Lur hezea duten bazkaleku, erlaitz, ihitoki eta txilardietan izaten da. Ez dirudi populazioa arriskuan dagoenik. Hala ere, makineria astunez egindako drainatze eta iraultzeek erabat apur ditzakete uholdeak izaten dituzten ibarretako sakonguneak, eta horietan bizi ohi da, hain zuzen, espezie hori.



2.- *Narcissus asturiensis* (Jordan) Pugsley

"Interes Berezikiko" estatusa dagokio Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan. 19/1997 Errege Dekretuaren arabera, II. kategoria dagokio, Iraunarazteko Gune Bereziak izendatu behar zaizkien espezieak biltzen dituen. Habitat Zuzentarauak habitatari eusteko neurri bereziak behar dituzten sailen artean ipini du. Iberiar Penintsulako ipar-mendebaldeko koadranteko liliazeo bat da, bertakotzat jotzen dena. Gailurretako larre, pagadi arraso, erkamezti eta hariztietan, tuparri eta kareharri gainetan. Populazio handia dago, hainbat milaka banakoz osatua.

3.- *Ilex aquifolium* L.

"Interes Berezikiko" estatusa dagokio Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan. Lurralde osoan barrena banatutako populazio handia dago, gehienetan banako sakabanatuez osatua. Harizti, pagadi, baso misto eta abarretan izaten dira, lurzoru azidotuetan. Substratu egokiek duten hedadura mugatutik dator arriskua, eta, batez ere, basogintzan erabilitako "matarrasa" teknikak oihanpea mantentzea eragozten duelako.

4.- *Taxus baccata* L.

"Interes Berezikiko" estatusa dagokio Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan. Arkaitz iritsiezinetan, amilburu oinetako baso mistoetan aurki genezake, eta gutxiagotan pagadi eta hostozabalen baso mistoetan. Oro har, zuhaitz bakanak izaten dira. Garai batean oso zigortua izan arren, egun indartzen ari da pixkanaka. Gipuzkoan 4/1990 Foru Dekretuaren arabera gauzatuko dute haren kudeaketa.

3.2.7.- Fauna

Atal hau egiteko, liburuok erabili ditugu erreferentzia moduan: EHAeko Ornodunen Azterketa (Aranzadi Zientzia Elkarte, 1985), Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Ornodun Kontinentalen Atlas (Eusko Jaurlaritza, 1985) eta Ornodun Kontinentalen azterketa. Egungo Egoera EHAEn (Eusko Jaurlaritza, 1998). Eta informazioa berariazko argitalpenez osatu dugu, bereziki Gipuzkoako Hegazti Habia Egileen Atlas (Munibe, 52.a, 2001) eta berariazko beste ikerketa batzuk.



Bertan ditugun espezieak jakiteko, EHAeko Ornodunen Azterketaren 30T WN 48 laukia erabili dugu; horrexek jaso baitu lan honen azterketa eremu ia osoa. Osagarri gisa, eta behar izan dugunetan, eskualdeko oihan zaindareiei eta adituei galdetu diegu. Lortutako informazioa I. Eranskinen eskainitako fauna zerrendan bildu dugu. Zerrenda horretan aipatutako UTM laukian ageri diren espezieak eskaini ditugu. Izen zientifikoez gainera gaztelaniazkoak eta euskarazkoak dakartza. Espezie bakoitzari, Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan ezarritako kategoria, 167/1996 Dekretuaz arautua, ematen zaio gainera.

Zerrendan aipatutako espezie guztiak ez dira ageri azterketaren eremuan. Bestalde, zerrendan aipatu ez diren espezie batzuen presentziaz jabetu gara. Hori guztia ornodun taldeak biltzen dituzten hurrengo ataletan aipatuko dugu. Katalogatutako espeziei interes berezia eskaini diegu.

3.2.7.1.- Arrainak

UTM 30T WN48 laukiak 5 arrain espezie jaso ditu. Fauna-zerrendan ageri diren arrain espezie guztiek "arriskurik gabeko" estatusa dute. Hauek dira fauna zerrendan ageri diren espezieak: amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*), loina (*Chondrostoma toxostoma*), ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), mazkar arantzagabea (*Barbatula barbatula*) eta aingira (*Anguilla anguilla*). Hauetako espezie batzuk baldintza onargarriak dituzten zatietan zokoratuta daude, gehienetan Ego ibaira isurtzen duten erreketako iturburuetan eta Urko ibaiaren iturburuan.

3.2.7.2.- Anfibioak

UTM laukian 6 anfibio espezie ageri dira: arrabio arrunta, uhandre palmatua, txantxikua, txantxiku iberiarra, ur igel arrunta eta baso igel gorria. "Arriskurik gabeko"tzat jotako espezieak dira guztiak.

3.2.7.3.- Narrastiak

UTM laukian erregistratutako narrasti espezieak 7 dira: musker berdea, sugandila bizierrulea, sugandila iberiarra, horma sugandila, zirauna, Eskulapioren sugea eta sugedorri kantauriarra. Eskulapioren sugea (*Elaphe longissima*) "Interes Bereziko"tzat joenezake. Gainontzeko espezieak "arriskurik gabeko"tzat.

"Interes bereziko"tzat katalogatutako Eskulapioren sugeak habitat nahiko hezeak ditu gustuko, baso misto hozkirria eta hostogalkorren basoa esate baterako, eta baita baso ondoko landazabalak, hesiak eta abar. Populazio urria du.



3.2.7.4.- Hegaztiak

UTM 30T WN48 laukian 51 hegazti espezie daude jasota 1985. urtean egindako EHAeko Ornodun Kontinentalen Ikerketan. Horietako sei neurri batean edo bestean arriskuan dauden espezieetat katalogatuta daude. Zerrendan ageri diren espezie guztiak ez daude gure proiektuaren eremuan. Eskaintako datuen arabera, esanenezake Gipuzkoan habiak egiten dituzten hegaztien Atlasean, (Munibe 52.a, 2001), faunaren zerrendan ageri diren espezie guztietatik 21ek egiten dutela *ziur* ugalketa lauki horretan. Beste 19 espeziez, esanenezake *segur aski* egiten dutela ugalketa. Eta beste sei espeziek *litekeena* dela ugalketa egitea. Eta gainontzeko 5 espezieez, egindako behaketen arabera, ezin esan daiteke ugalketa laukian egiten dutenik. Faunaren zerrendan ageri ez diren bost espezie bildu ditu Atlasak, eta gauza ziurra da denek egiten dutela ugalketa laukian. Honako hauek, hain zuzen: basahateak, suge harrapatzaile europarrak, uroiloak, urubiak eta haitz enarak.

Katalogatutako espezieen artean bat "Arraro"tzat jo da: *zuhaitz belatza (Falco subbuteo)* espezie urria da. Goi aldeetan ibiltzen da, koniferoak desagertu eta otalurrak, txilardiak edo larreak hasten diren eta gizakiaren presio handiegia ez duten lekuetan. Gipuzkoan habiak egiten dituzten hegaztien Atlasak "segur aski" egingo duela dio eta argi eta argi ugaltzen ari dela.

Beste hauek ere "Interes Berezia" duten espezieetat katalogaturik daude: mirotz zuria (*Circus cyaneus*), Gabiraia (*Accipiter nisus*), zata (*Caprimulgus europaeus*), lepitzulia (*Jynx torquilla*) eta erroia (*Corvus corax*).

Ez dago garbi mirotz zuriak eta gabiraiak aztertzen ari garen eremuan egiten duten ugalketa. Nolanahi ere, udal barrutiaren zati bat, seguruenik, hurrena habiak egingo dituzten bikoteen larre-eremua da. Pinu landatzeak habitat egoki ugari kendu dizkio mirotz zuriari, otalurrak eta lur zabalak baititu habitat egokiak. Gabiraiarentzako habitatik egokiena konifero eta hostogalkorren basoa da, baina ez oso itxia, edo/eta inguruan lur zabala duten baso bakartuak.

Zatak, segur aski, eta Atlasak (2001) dioten moduen, eremu honetan egingo du ugalketa. Atlasaren arabera, espezie hau ugaltzen ari da Gipuzkoako lurraldean. Bikoteek bakarturik hazten dituzte umeak otalurretan eta pagadi eta hariztietan. Lepitzuliak Atlantikoko landazabala du habitatik nagusiena. Erabat banaturik dago Gipuzkoan. Habiak egiten dituzten hegaztien Atlasaren arabera, litekeena da habiak eremu barnean egitea. Azkenik erroia espezie generalista da, eta abere estentsibo ugari dabilen otalur-larreak atsegin ditu gehien. Aipatutako Atlasak ziurtzat jotzen du habiak eremu honetan egiten dituela.



3.2.7.5.- Ugaztunak

30T WN48 laukiko mastofauna komunitatea 18 ugaztun espeziez osaturik dago. Zerrenda I. Eranskinean ikus daiteke.

Espezie horietatik guztietatik, bat bakarra dago katalogaturik: ipurtatsa (*Mustela putorius*), hain zuzen "Interes Berezik"en artean. Bere habitat nagusia ura da, urarekin duen lotura beste mustelido batzuek duten adinako ez izan arren. Gainontzeko espezieak ugariak dira Gipuzkoan, eta gehienak aztertzen ari garen eremuan ere bizi dira.

3.3.- PROZESUEN ETA IZAN LITEZKEEN ARRISKUEN AZTERKETA

3.3.1.- Mazeletako prozesuak eta izan litezkeen arrisku elkartuak

Eibarko udal barrutian izan litezkeen arriskuez, bi alde bereiz daitezke, dituzten ezaugarri geologiko eta morfologikoen arabera.

- Lehenengoa, udal barrutiaren hego-ekialdekoa, flyshoide motako materialez eratua dago: tuparriz, tuparri-kareharriz eta kareharriz. Maldarik ugarienak %50 eta %100 artekoak dira. Gune horiek, definizioz, arrisku handikoen artean daude sailkatuta. Gune horretan eremu asko daude behar bezalako landare-babesik gabe.
- Bigarrenak, udal barrutiko ipar-ekialdea hartzen du. Hainbat litologiari dagozkion materialez eratua dago: kolada bolkanikoak, bolkaniko piroklastikoak, tuparri geruzatuak. Maldarik ugarienak %50 eta %100 artekoak dira; duen kategoria, beraz, arrisku ertainekoa da. Dena dela, labaintzea errazten duen egitura geologikoa duten eremuak arrisku handikoak dira, eta %50tik beherako malda duten guneak arrisku gutxiak edo arriskugabeak.

Eibarren, Otoalako mazalak, eta Urko-Usartza Parke aldeak jotzen ditu Deba Barreneko LPPk higatzeko arriskua duten eremutzat. Lur horientzako arreta berezia eskatzen du (herri lanetan, nekazaritza eta abeltzaintza lanetan eta batez ere basozaintzan) azaleko eta azpiazaleko drainatze-sareak alda ez ditzaten, edo lurra babesten duen landare-estalkia apur ez dezaten. Babesteko, txanda luzeko ustiaketa estentsibo/selektiboa izango duten basoak sortzea gomendatzen du, hori bailegokioke hostozabal autoktonoez estalita balego.




3. argazkia: Urko mendiaren gailurra eta hegalak, LPPn higitzeko arriskua duten eremutzat jotakoak.

3.3.2.- Akuiferoen ahultasuna

Isurkari kutsatzaileen aurrean akuiferoak izan ohi duten ahultasun ezberdinak bi arrazoi izan ohi ditu: akuiferoen ezaugarriak eta azalaren eta lurpeko uraren arteko gunearen ezaugarriak. Eibarren ditugun litologiak hurrengo sailkapenaren arabera elkar daitezke:

- Zaugarritasun handia: Azaleko putzu kuartenarioak eta kareharri lohiak –axaleko karstifikazioa dutenak–, Urko mendiaren inguruan daudenak.
- Zaugarritasun txikia: Harkaitz bolkanikoak koladan, dituzten pitzaduren arabera irazkortasun aldakorra dutenak.
- Zaugarritasunik eza: Tuparri geruzatuak, ia irazgaiztat jo ditzakegunak. Azaleko urak soilik kutsatzen dira..

Zaugarritasun mailaren araberako banaketa **IA-O7AH Planoan** ikus daiteke: Zaugarritasuna "Plano de Vulnerabilidad a la Contaminación de Acuíferos de la CAPV"tik ateratako informazioa.



**AKUIFEROEN HONDAKORTASUNA
VULNERABILIDAD DE ACUÍFEROS**

**AKUIFEROEN HONDAKORTASUNA
VULNERABILIDAD DE ACUÍFEROS**

- Hondakortasun Nabaririk Gabea
Sin Vulnerabilidad Apreciable
- Hondakortasun Oso Txikia
Vulnerabilidad Muy Baja
- Hondakortasun Txikia
Vulnerabilidad Baja
- Hondakortasun Ertaina
Vulnerabilidad Media



**EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR**




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**

**INGURUMENAREN ANALISIA
7.- AKUIFEROEN HONDAKORTASUNA**

IA-07AH

**ANÁLISIS AMBIENTAL
7.- VULNERABILIDAD DE ACUÍFEROS**





Zaurgarritasun handiko tokietan babestu egin behar da lurpean dagoen ura eta horretarako debekatu egin behar dira akuiferoak kutsatzeko arriskua izan lezaketen erabilpenak, bai gunean bertan, bai inguruko 200 metrotan, eta, batez ere industria, hirugarren sektorea, hornidurak eta azpiegiturak; eremu horri zerbitzu zuzena eskaintzen diotenak izan ezik. Nekazaritzak, basogintzak eta abelazkuntzak izan beharko lukete lehentasuna gunehorietan, haztegi intentsiboek izan ezik. Kutsatzeko arriskua izan lezakeen edozein botatze edo isurtze egiteko, aintzat hartu beharko litzateke isurtzea edo botatzea egiten den tokitik behera lurrek duten zaurgarritasuna.

3.3.3.- Uholdeak izateko arriskua duten aldeak


Uholdeei Aurrea Hartzeko Euskal Herriko Plan Integrala (PIPIPV) eta Eibarko (Deba Barrena) Lurralde Plan Partziala ez datoz bat uholdeak izateko arriskua duten lurraldeak mugatzean. Egun, 2004. urtean, Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritza uholdeak izateko arriskua duten zonaldeak mugatzeko azterketa bat egiten ari da EHAEn, 500 biztanletik gorako herrietan, eta uholdeak izateko arriskua duten gunek finkatu ditu herri horietan (Ur Jabetza Publikoaren Araudiak dio estalitako ibilbideak direla uholdeak izateko arriskua duten gunek eta uholdea itzultzeko estatistika aldia 500 urtekoa dutela). Diseinu berrietan eta hiri-planteamenduetan –baita lehen egindakoetan ere– etxeak zenbat atzeratu erabakitzerakoan oinarritzko informazio gisa balio dezaten nahi da.

Aldi ezberdinetan (10, 100 eta 1.000 urte) uholdeak berriz izateko PIPIPVn arriskutsutzat jotako eremuak **IA-08UR Planoan** jasota daude kontsulta eta informazio gisa erabiltzeko.

3.3.4.- Lur kutsatuak

1998an, Ingurumen Kudeaketarako Konpainia Publikoak (IHOBE) "EHAeko lurzorua kutsa lezaketen jardueren kokaguneen Inbentarioa" egin zuen. Lurra kutsa lezaketen jardueren kopurua 602koa da. Lurra kutsa lezaketen jardueren kokagunea **IA-09LK Planoan: Lurra kutsa lezaketen jarduerak** dioenean ikus dezakezue.

Lan horiek 35,8 Ha. hartzen duten 174 lekutan egiten dira. Inbentarioan jasotako lan-mota gehienak honako guneeetan daude kokaturik: Otaola, Txonta, Matsaria, Barrena, Azitain, Maltzaga, Asua-erreka, Iparraguirre eta Legarre.



**URPEGARRITASUNA
INUNDABILIDAD**

URPEGARRITASUNA
INUNDABILIDAD

- █ 10 Urteko Uholde Muga
Límite Inundación 10 Años
- █ 100 Urteko Uholde Muga
Límite Inundación 100 Años
- █ 1000 Urteko Uholde Muga
Límite Inundación 1000 Años

Proposatutako Hiri Antolamendua / Ordenación Urbana Propuesta



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**


**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**




INGURUMENAREN ANALISIA
8.- URPEGARRITASUNA

IA-08UP


ANÁLISIS AMBIENTAL
8.- INUNDABILIDAD



E:1/12.500 (A3)



2007



**LURZORUEN POLUITZAILE IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK
ACTIVIDADES POTENCIALMENTE CONTAMINANTES DEL SUELO**

- Industrial / Industrial
- Geldirik dagoen Industria / Inactivo
- Aurriak / Ruina
- Orubea / Solar
- Zabortegia / Vertedero

Proposatutako Hiri Antolamendua / Ordenación Urbana Propuesta



**EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR**




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**



**INGURUMENAREN ANALISIA
9.- LURZORUEN POLUITZAILE
IZAN DAITEZKEEN JARDUERAK
IA-09LK**

**ANÁLISIS AMBIENTAL
9.- ACTIVIDADES POTENCIALMENTE
CONTAMINANTES DEL SUELO**



E:1/12.500 (A3) **2007**



Lurra kutsa lezaketan jardueren kokaguneak			
Kokagune mota		Inbentarioan jasotako sail kopurua	Azalera Ha
Aktiboak	Etxepea	44	2,3
	Industria erabilpena	94	17,9
Jardueragabeak	Orubeak	1	0,1
	Hondakinak	8	1,2
	Industria	1	0,04
Zaborteziak		1	2,4
Aldatuak	Zaborteziak	3	9,6
	Jarduerak	22	1,9
Guztira		174	35,8

Iturria: IHOBE.1998

Arreta handiagoa behar duten kokaguneak "a priori" jardueragabeak eta zaborteziak dira. Jardueragabekoen artean orubeak, hondakinak eta jarduerarik gabeko industriak daude. Eibarren orube bat, zortzi hondakin eta jardueragabeko industria bat aurkitu dira. Lur zati horien batez besteko tamaina 1.271 m²-koa da.

Lurra kutsa lezaketan jardueragabeko kokaguneak				
Izena	Mota	Azal. (m ²)	Hirigintza kalifikazioa	OHARRAK
Hijos Arambarri, CIA	Orubea	804	Hiri bizitegia	Antzinako arma fabrika
Gonzalez Gutierrez	Hondakina	617	Hiri bizitegia	Metalen tratamendua eta tresnagintza
Irazola, S.A.	Hondakina	832	Hiri bizitegia	Antzinako arma fabrika eta tresnagintza
Industr.Mendizabal, S.A.	Hondakina	2.104	Hiri bizitegia	Burdinkiak egiten zituen antzinako fabrika
Andonegi Belaustegi	Hondakina	1.383	Hiri bizitegia	Produktu metalikoak egiten zituzten enpresak
Arruebarrena y CIA.	Hondakina	653	Hiri bizitegia	Antzinako zerrategia eta arma fabrika
Jata Electrodomésticos	Hondakina	2.537	Hiri bizitegia	Etxetresna elektrikoaren antzinako fabrika
Transf. Metal. Norma, S.A	Hondakina	1.730	Hiri industria	
Super Ego Tools	Hondakina	1.667	Hiri industria	Antzinako tresna fabrika
Oye, S.A	Industrialak aktiboa	385	Hiri industria	Antzinako forja eta metal estanzazio fabrika



IHOBEren 1998ko inbentarioak lau zabortegei jaso ditu Eibarko Udalean. Hurrengo taulan ezaugarri nagusien laburpena egingo da:

Lurra kutsa lezaketen zabortegeiak				
Izena	Errekupe. Maila	Aritzeko egoera	Azal. (m ²)	Egungo erabilera
Estación de Transferencia Antigua cantera Otaola	Errekuper.	Jarduerarik gabea	4.142	Hiri hondakin solidoak. Egungo transferentzia estazioa. Urbanizatu ezin den lurra.
Azitain Zabortegeia	Errekuper. 1990	Jarduerarik gabea	20.544	Industria hondakinak. Hiru lurra. Azitain poligonoa egin da lehengo zabortegeiaren lurretan.
Arrillaga (Azitain)	Errekuper. 1990	Jarduerarik gabea	71.404	Gorostako erretena estali du zabortegeiak. Hiri lurzorua. Azitain poligonoa egin da lehengo zabortegeiaren lurretan.
Azitain III	Errekuper.	Jarduerarik gabea	24.059	Hodakin bizigabeak: obra-hondakinak, hiri zaborrak. Hiri lurzorua. Azitain poligonoa egin da lehengo zabortegeiaren lurretan.

IHOBEk (1998) jasotako zabortegeiez gainera, "Ingurune"k egindako Eibarko Ingurumen Diagnostikoak (2002) dio obra-hondakinen zabortegei bat dagoela Ubitxa latsan edo Unbe errekan. Lurrez betetako eremuak 100 metroko zabalera du eta 400 metroko luzera. Errekuperatu eta egonkortu egin da kirol lekutzat erabiltzeko.

Eibar-Elgeta errepidearen ondoan erdi tamainako hainbat betelan artifizial egin dela dio Ingurumen Diagnostikoak eta egonkortasun aldakorra dutela. Beste betelan bat Txontako ipar-ekialdean aurkitu da, autobidearen ondoan.

3.3.5.- Zelaitze lanak

Bilbo-Behobia autobideak Eibartik pasatzean hainbat lur-berdinketa egin zituen, 20 eta 45 metro artekoak. Udalerriaren ekialdean daudenak izan ezik, gainontzekoak flyschoide izaera duten formazio litologiakoetan induskatuak daude, hau da tuparriaz, tuparri-kareharriaz eta kareharriaz eratuak dauden formazioetan, eta oso egonkortasun gutxi dute egitura baldintzak onak ez baldin badira. Horren antzeko arriskua dago orain dela gutxi Eibarko saihasbidea egiterakoan egin ziren lur-berdinketa edo erauzketetan, hain zuzen ere udalerriaren mendebaldeko erdialdean.



Eibar-Markina errepideak gunerik gabe utzi behar dira ezpandek falka egongaitzak mozten eta etengabeko bloke erorketak sorrarazten dituzten. Errepideak Urko mendiaren hegala mozten ditu, hots, flichoide izaera duten formazioak, eta, beraz, eremu horrek egongaitzasun handia izan lezake.

3.3.6.- Harrobiak

Eibarko Ingurumen Diagnostikoak, "Ingurune"k egindakoak (2202), lau harrobi kokatu ditu Eibarko udal barrutiak.

- Arrazolako harrobia: Bertan behera utzitako harrobia. Eibar-Markina errepide ondoan dago, Arrateko bidean. Aurrealdeak 35 metroko luzera du, 25 metroko garaiera eta 15 metroko plaza-sakonera. Aurrealdea oso gaiki dago eta harri mordoa erortzen da.
- Errastiko harrobia: Bertan behera utzitako harrobia. Eibar-Markina errepidearen hasieran dago. Aurrealdeak 45 metroko luzera du eta 30 metro garaiera. Ez du egonkortasun arazo larrik.
- Maltzagako harrobia: Bertan behera utzitako harrobia. Maltzagan dago. Basaltoa ateratzen zen agregakinak egiteko. Aurrealdearen luzera 90 metrokoa da eta garaiera 30 metro ingurukoa.
- Kaminondoko harrobia: bertan behera utzitako harrobia- Eibar-Elgeta errepidearen ondoan dago. Aurrealdeak 25 metroko luzera du eta 15 metroko garaiera. Egongaitzasun arazoak daude bloke txikiak erortzen direlako.

3.4.- KULTURA INGURUNEA

3.4.1.- Historia-Arte Ondarea

3.4.1.1.- Historia-Arte Ondarearen katalogoa

Uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, Euskal Kultura Ondareari buruzkoak, eta indarrean dagoen Lur Legeriak Kultura interesa duten Ondasunak Babesteari buruz agindutakoa betetzeko, Plan Orokorrak "Kultura eta Historia Ondarearen Katalogoa" egin du. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraungarrirako Departamenduak egindako Ingurumen Eraginaren Atariko Txostenak erabakitakoa bete du Katalogo honek. Honakook jaso dira katalogo honetan:



- 1.- Eibarko Hirigune Historikoko Gune Arkeologikoa, Kultura sailburuaren 1998ko otsailaren 12ko Agindua betez, Monumentu Multzo kategoriaz Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean inskribatua, Kultura Ondasun gisa. 7/1990 Legeak dioena betetzeko Plan Orokorrean txertatu zen.
- 2.- Balio arkeologikoa izan lezaketen Eibarko Guneak, 1997ko urriaren 14ko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenean jasotakoak. Aipatutako Ebazpenean jasotako elementu bakoitzerako ezarri diren Babesguneen mugak eta tipologiak erantsi zaizkio Plan Orokorrari. Honakook:

Balio arkeologikoa izan lezaketen guneak	
Fitxa	Izena
1	Areta edo Arrieta baserria (A)
2	Eguren edo Egiguren baserria (A)
3	Eguren dorrea (ageriko egiturarik gabe) (E)
4	Azitaingo ama birjinaren eliza (B)
5	Unzuetako dorrea (A)
6	Apalategi errota (ageriko egiturarik gabe) (E)
7	San Martín Gotzainaren ermita (A)
8	Kutunegieta Erdikoa baserria (A)
9	Kutunegieta Guenetxe baserria (A)
10	Kutunegieta Barrena baserria (A)
11	San Juan baserria (A)
13	Ezkaregiko errota (hondakinak) (D)
14	Arrateko Ama Birjinaren eliza (B)
15	Arrateko ostatua (Partxua baserria) (A)
16	Santa Maria Magdalenaren ermita (A)
17	Akondiako San Pedroren ermita (B)
18	San Romanen ermita (A)
19	Suinaga baserria(A)
20	San Migel Goiaingeruaren eliza I (B)
21	San Migel Goiaingeruaren eliza II (A)
22	Pagei baserria (A)
23	Aretxuloeta baserria (A)
25	Amaña errota, Olakua Isasi ola, Olakua baserria (ageriko egiturarik gabe) (E)
26	Isasi dorrea (Markeskua Jauregia) (A)
27	Isasineko komentua (ageriko egiturarik gabe) (E)
43	Takillangua dorre-etxea edo Urkidi dorrea (A)
45	Unzeta dorrea (A)

(A) Eraikinaren barneko gunea

(B) Eraikinaren barneko gunea + inguruko 15 metro, kanpoaldeko ertzetatik abiatuta.

(C) Eraikinak osatzen duen eremua + inguruko 5 metro, kanpoaldeko ertzetatik abiatuta.

(D) Eraikinak eta eranskinak osatzen duten eremua.

(E) Planoan zehaztutako eremua.



3.- Ondasun Higiezinak, zenbait arrazoiengatik nolabaiteko babes behar dutenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egindako inbentarioen azterketa izan du abiapuntu Katalogoak. Aintzat hartu dira, bestalde, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan bildutako proposamenak. Hauek izan dira eraikinak eta multzoak aukeratzeko erabilitako irizpide garrantzitsuenak: garrantzi historikoa, eraikuntza eta estilo ezaugarriak, originaltasuna, kontserbazio egoera eta duten kokagunea. Hiru babes erregimen proposatu dira:

- Babes bereziko erregimena (BBE): interes historiko artistikoarengatik, hiri-egituran eta balio arkitektonikoetan duten garrantziagatik, babes berezia behar duten eraikinak daude talde honetan. Kultura Ondasun Kalifikatutzat aitortutako ondasun higiezin guztiak daude taldean.
- Oinarrizko babes erregimena (OBE): Aparteko balio arkitektonikoa ez duten arren, Tipologiagatik esanguratsuak direlako, eta garai bateko irudia itxuratzen dutelako, eraikitako ondarearen zati garrantzitsu diren eraikinak biltzen ditu.
- Udal babeseko erregimena (UBE): Leku jakin batean (plaza edo leku publiko) dauden eta leku horien hiri irudia itxuratzeko balio duen Ondasun Higiezin multzoa biltzen du.

3.4.1.2.- Eusko Jaurlaritzaren inbentario historiko arkitektonikoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak (Euskal Kultura Ondarearen Zentroa) honako hau dauka Eibarko Udaleko inbentario historiko arkitektonikotzat:

EHAek Ondasun Higiezintzat deklaratuak edo abiaraziak
San Andrés parrokia, 1984/08/04ko EHAOn kalifikatua
Sagartegieta etxe jauregia
Aldatze jauregia
Udaletxea, 1984/08/04ko EHAOn kalifikatua
Unzueta etxea, 1964/02/29ko EHAOn kalifikatua
Isasi dorrea, 1964/02/29ko EHAOn kalifikatua




EHAEko Monumentu/Monumentu multzotzat deklaratzeko proposatutako ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
Untzeta baserria	Arrate
Zozola baserria, inbentarioa 2000/10/03an egina	Mandiola
Kutunegieta Goengoa baserria	Arrate
Kutunegieta Erdikoa baserria	Arrate
Zelaikoa baserria (Baserria eta Abeletxea)	Arrate
Arrateko santutegia	Arrate
Andra Mariren ermita	Azitain
San Migel eliza	Aginaga
Eibarko geltokia	hirigunea

Udalak babesteko proposatu diren Ondasun Higiezinak	
Izena	Auzoa
Gisasola baserria	Mandiola
Ezkaregi baserria	Gorosta
Barrenetxe baserria	Arrate
Agerre Bekoa baserria	Gorosta
Magdalena ermita	Mandiola
San Salvador ermita	Otaola
San Roman ermita	Aguinaga
San Pedro Akondia ermita	Mandiola
BOJ (metalgintza)	
Aurrera (metalgintza)	
Soroa	Matxaria
Hilerriko kapera	Armagin Kalea, 4
Santa Cruz ermita	Mandiola Balle, 1
San Martín ermita	Arrate, 28

EHAEk sailkatzeko zain dauden ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
Antzinako sindikatu etxea	Isasi Kalea, 2
Coliseo zinema	Merkatu Kalea, 2
Etxebizitza etxea	Merkatu Kalea, 1
Etxea	Txirio Kale, 6
Iturri publikoa	Urkizu pasealekua
Etxea	Isasi Kalea, 4

Kultura aldetik interesgarritzat jotako eraikin katalogatuen kokagunea eta duten babes maila jasotzen du **IA100K PLanoak**



**INTERES KULTURALEKO
ELEMENTU KATALOGATUAK**

**ELEMENTOS CATALOGADOS
DE INTERÉS CULTURAL**

BABES MAILAK / GRADOS DE PROTECCIÓN

- OINARRIZKOA / BÁSICO
- BEREZIA / ESPECIAL
- BEREZIA-HERRIKOA / ESPECIAL-LOCAL
- HERRIKOA - LOCAL



EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

**EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR**




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**

**INGURUMENAREN ANALISIA
10.- INTERES KULTURALEKO
ELEMENTU KATALOGATUAK**

IA-100K

**ANÁLISIS AMBIENTAL
10.- ELEMENTOS CATALOGADOS
DE INTERÉS CULTURAL**





3.4.2.- Paisaia

Eibarrek luzea du benetan hiri egitura. Jatorrizko garapena bailara ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duten bi ardatz luzeren inguruan gauzatu da. Alde batetik Ego ibaia, eta geroago, norabide paraleloa jarraituz, N-634 errepeidea. Egun, eta Ego ibaia elementu egituratzaile gisa ia erabat desagertu ondoren (hiriaren garapenak estalia), udalerrria ibaiarekiko nahiko paralelo zeharkatzen duten bi ardatz luzeren artean ahokatua gelditu da hiriaren egitura. Iparraldetik hegoaldera doaz Eibarko ingurabidea, Bilbo-Donostia trenbidea, N-634 errepeidea eta A-8 Autobidea (Behobia-Bilbo).


Jatorrizko landaredia haritz azidofiloz eta harizti-baso mistoz osatua egongo litzateke nagusiki. Kantauriko haltzadiak ibai eta erreka ertzak bete eta baso estuak osatuko litzuzke erriberetan. Urko eta Kalamua mendien hegalek, pagadiz beteak leudeke. Egungo paisaia gizatartua guztiz ezberdina da. Hariztiak oso eskasak dira eta neurriren batean hondaturik daude. Haltzadiak oso urriturik daude, eta ez dago bat bera ere Ego ibaian, ezta ibaiadar gehienetako behealdeetan ere. Antzinako pagadia ia erabat desagertu da, eta lur zati txiki bakartuetan baino ez da ageri horrela landaredia. Artadia, bestalde, Urko mendian ageri da, nahiko hondatua badago ere.

Egun konifero basoak ageri dira, eta paisaiaren ezaugarri dira. Gutxiago badira ere, hor ditugu larreak baserri inguruetan. Hiria, industriak eta azpiegiturak osatzeko erabiltzen dira ibarretako behe aldeak. Erabilpen horiek goraka doaz eta behe aldeak bete ahala, gero eta goragoko kokaguneak hartzen dituzte.

IA-11PA Planoan ikus daitekeen espazio banaketa duten paisai unitateok finkatu ditugu udal barrutian

1. Hiritarra eremu antropogenikoan

Eraldatutako paisaia da, osagarri hiritarrak nagusi dituen. Unitatearen barruan hainbat tipologiako bizitegi garapena eta zenbait industri garapen elkarrekin dihardutela azpimarratu behar da. Hiriak Ego ibaiaren ibar guztia bete du, eta, baita, inguruan dituen mazelen behealdeak ere. Era berean, unitate honi dagozkio Ego ibaiaren adar diren erreketako ibarrak ere. Hirigunearen eraldatutako paisaiaren marko moduan, Unitatea mugatzen duten garraio azpiegitura garrantzitsuak ageri dira. Hiriaren garapenak Ego ibaiaren ibarra leporaino bete izanak bailararen jatorrizko paisaiaren funtsezko osakin bat ezkutarazi du: ibaia. Gaur egun ia ikusi ere ez da egiten Eibarko udalerrian barrena duen ubide osoan, hirigunean estalita baitoa.



**PAISAIA
PAISAJE**

PAISAIA / PAISAJE

- Ereku antropogenikoan hiria
Urbano en Dominio Antropogénico
- Ereku antropogenikoan industria
Industrial en Dominio Antropogénico
- Ereku flubialean baso landaketak
Plantaciones Forestales en Dominio Fluvial
- Ereku flubialean baso landaketak dituen nekazar mosaikoa
Mosaico Agrario con Plantaciones Forestales en Dominio Fluvial
- Ereku flubialean baso mosaikoa
Mosaico Forestal en dominio Fluvial
- Ereku flubialean belardi eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza
Agrario con Dominio de Prados y Cultivos Atlánticos en Dominio Fluvial
- Ereku flubialean harritza
Roquedo en dominio Fluvial
- Ereku flubialean mosaiko mistoa
Mosaico Mixto en Dominio Fluvial
- Ereku flubialean sastrakadia
Matorral en Dominio Fluvial



EKOLUR
ASESORIA AMBIENTAL

**EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR**



**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**


INGURUMENAREN ANALISIA

11.- PAISAIA

IA-11PA

ANALISIS AMBIENTAL

11.- PAISAJE



1:20.000 (A3) 200 0 200 400 m 2007



2. Baso landaketen sailak ibai eremuan

Unitate honek udalerrriak duen azaleraren zatirik handiena hartuko du, batez ere udalerrriaren hego ertzean eta ipar-mendebalde aldean. Horixe da Eibarko paisaia argi eta garbi zehazten duen osagarrietako bat, hiriarekin eta nekazaritza-mosaikoarekin batera. Paisaia monotonoa da, kolore bakarrekoa, eta barne aniztasun bakarra du: landaketen adinek sortutako zuhaitz sailen arteko tamaina ezberdinak. Unitate honetan sartu dira, bestalde, bestelako erabilpen txiki batzuk ere: larreak, hariztiak, haltzadi arrastoren bat, lahardi sailak; unitateari nolabaiteko kolorea erantsi diotenak.

3. Baso landaketak dituen nekazaritza mosaikoa ibai eremuan

Unitate honen ezaugarria mosaikoa izatea da, nekazaritzak eta abeltzaintzak (larreak eta laborantza) eta aurreko atalean aipatutako baso landaketek osatutakoa. Hostogalkorrezko baso txiki batzuk ere, kolore apur bat ematen diotenak, ageri dira. Unitate hau hirigunearen iparraldean Urko eta Kalamua inguruetatik behera doazen mazeletan kokaturik dago batez ere.

4. Larreak eta Atlantikoko laborantza nagusi dituen nekazaritza ibai eremuan

Zergatik berezi da unitate hau aurrekoarengandik? Larreak eta laborantza guztiz nagusi dituelako. Bi alde kartografiatu dira unitate honetan.



4. argazkia: 3. eta 4. unitateak. Argazkiaren ezker aldean hasiko da "Larreak eta Atlantikoko laborantza nagusi dituen nekazaritza" izeneko unitatea. Hegoalderantz, argazkiaren eskuinaldean, 3.a da unitate nagusia, hots "Baso landaketak dituen nekazaritza mosaikoa".



5. Zuhaitz mosaikoa ibai eremuan

Unitate sakabanatua da, hostogalkorren baso zatiez osatua. Ikuskizun aldetik kalitate handikoa da urtaro bakoitzak damaion kontraste kromatikoari esker, nagusitzen den zuhaitz sail horren monotonia apurtzen uzten duena.

6. Lahardia ibai eremuan

Kota garaietan, batez ere Kalamua mendi inguruan dauden bizkar eta hegaletara mugatuko da unitate hau. Elkarrekin bizi diren landare taldeen aniztasunari esker, nolabaiteko ikuskizun maila izango du.

7. Harkaitz multzoa ibai eremuan

Unitate honek Urko mendiaren gailur ingurura mugatuko den substratu litologikoa izango du ezaugarri. Unitate honetan ageri diren landare taldeen ugaritasunak –aurreko bi unitateetan bezala– ikuskizun ederra eskainiko digu, Eibarko udalerriko basoen kolore bakarra apurtzeko modukoa.

8. Mosaiko mistoa ibai eremuan

Arrateko santutegiaren inguruan kartografiatutako unitate honen ezaugarria erabileren ugaritasuna da, horietako bakar batek nagusitasun argirik ez badu ere.

3.4.2.1.- Paisaiaren ikuspegitik interesa duten eremuak

Paisaiari dagozkion unitateetan erabilitako kartografia tematikoaren zehaztasun maila dela eta, ezin ditugu Eibarko udalerrian paisaiaren ikuspegitik interesa duten eremuak zorrozki mugatu. Mugatze horrek, landarediaren unitatean bezala, erabili den baino eskala handiagoan egindako berariazko azterketa eskatuko luke.

Nolanahi ere, gaingiroki adieraz genezake, 4., 5., 6., 7. eta 8. Paisaia Unitateek osatutako esparruak (zuhaitz mosaikoa ibai eremuan, lahardia ibai eremuan eta Harkaitza ibai eremuan), Urko eta Kalamua mendien gailur ondoan eta inguruko mendietan (Arrate aldea) kokatuak, paisaiaren ikuspegitik interesgarritzat jo ditzakegun eremu asko dituela. Arrate inguruko eremuen parte izateko proposatutako esparruetan, eta Urko eta Kalamuako atsedenekuetan barne hartuta daude eremu horiek.

Interesa duten eremu horiei beste batzuk ere erantsi behar zaizkie, hain zuzen, abeltzaintza nagusi edo indartsu duten eremuak, 3. eta 4. unitateei dagozkienak, zuhaitz sailen unitateak duen gehiegizko nagusitasunaren kontrapuntutzat balio baitute.



Unitate hauek definitzeko erabilitako eskalak ez du utzi ibaien ibilgu eta ibaiertzek osatzen dituzten barrutiak kartografiatzen. Inguru horiek "zuhaitz mosaikoa ibai eremuan" izeneko unitatearen parte izango lirateke, eta paisaiaren ikuspegitik interesa duten eremutzat jo behar dira.

3.5.- INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA

Datu hauek Eskualdearen Azterketatik eta Eibarko biztanleriaren bilakabidearen eta ezaugarri demografikoen Diagnostikotik atera dira, dokumentu biak, Plan Nagusiaren Bulegoak eskura ipinitakoak. Era berean, "Eibarko Ingurumen Diagnostikoa -2002"tik ere datuak atera dira. Datu horietako batzuk eguneratu egin dira EUSTATetik iritsitako informazioari esker.

3.5.1.- Demografia eta biztanleria

Ia 64.000 gizabanakoz osatutako herri-taldeko (Eibar, Ermua, Elgoibar, Mallabia eta Soralue) Udal nagusia da Eibar. Deba Barrena Eskualdeko biztanleen %71 bizi dira barruti honetan, eta Eskualde osoko gunea zentrala eta dinamizatzailea da.

2001eko eroldaren arabera, Eibarrek 28.219 biztanle ditu. Biztanleriaren batez besteko dentsitatea 11,4 biz/Ha-koa da. Biztanleria hirigunean bizi da; hots, lurralde osoaren %10 inguru den hirigunean biztanleen %98 bizi dira, eta zenbait auzotan biztanleria dentsitatea 400 biz/Ha izatera heldu da.

Eibar biztanleria galtzen ari da. Eta horretarako bi arrazoi daude: mugimendu naturalaren indize negatiboa eta migrazio mugimendua. Eskualdeko beste udal batzuen antzera, urtero balio negatiboak ditu 1980. urteaz geroztik.

Izatezko biztanleriaren bilakaera 1900-1996										
Udala	1900	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001
Eibar	6.583	11.888	12.874	11.772	16.318	31.725	37.073	36.494	32.108	28.219

Iturria: "Biztanleriaren Bilakaera". EUSTAT.

Azken eroldako datuen arabera, biztanleria atzeraka doa oraindik (27.841 biztanle 2003ko abenduan). Azken bost urteotan izandako atzerakada 4.150 biztanle ingurukoa izan da, beraz, urteko 415 biztanle inguruko kontrako balantza, batez beste.



Biztanleriaren bilakaera 1970-2001						
Urtea	Eibar		Deba Barrena		Gipuzkoa	
	Biz. kop.	Indizea	Biz. kop.	Indizea	Biz. kop.	Indizea
1970	37.229	100	81.821	100	626.049	100
1981	36.919	99	86.578	106	694.681	111
1991	32.362	87	79.050	97	676.231	108
2001	28.219	76	54.228	66	673.563	108

Adinen egituraren bilakaerak biztanleriaren etengabeko eta mailakako zahartzea adierazten du. Zahartze tasek (1996. urtean 1,53koa) erabat gaintzen dituzte beste edozein herritakoak, eta ohiz kanpoko mailara heldu dira. Biztanleriaren zahartzea larriagoa izan da Amaña-Legarre eta Errebal-Jardiñeta auzoetan, "berealdiko zahartzea" izan baitute (zahartze indizea > 1,80).

Aurreikusitako egoera demografikoetatik ondorio hau atera daiteke: litekeena da 2006. urtean 25.500-26.500 biztanle izatea, eta 2011. urtean 22.500-24.000. Balantza naturala negatiboa izango da. Inmigrazioa oso urria izango da, eta biztanleriak behera egingo du emigrazioa dela-eta; balantza, beraz, negatiboa izango da. Zahartzea areagotu egingo da. Gehitu egingo dira pertsona bakarreko edo biko familiak.

3.5.2.- Etxebizitza

Eibarko udalerrriak hiri morfologia konplexua du. Batetik bizitegi eta industria erabilpenak nahasirik dituelako eta, bestetik, ibaiaren, errepideen eta trenbidearen artean toki gutxi duelako.

Udalerrian eraikitako azaleraren %45,6 (2.273.437 m²) bizitegiatarako da. Udalerriko etxebizitzak 11.780 dira.

Bizitegiatarako azalera eta etxebizitza kopurua auzoka			
Area mota	Bizitegiatarako lurzorua (m ²)	Etxebizitza kopurua	Azalera totala (m ²)
Hiri barrua	1.006.599	11.524	2.231.342
Landa eremua	29.591	256	42.095
Eibar	1.036.190	11.780	2.273.437

Iturria: Eibarko HAPNren dokumentua.

1996. urteari dagozkion Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) datuen arabera, orduan zeuden 11.470 etxebizitzaren artean, %88,3 etxebizitza nagusiak ziren, %1,5 bigarren mailako etxebizitzak ziren eta %10 hutsik zeuden. Iturri horrek berak dio 1998-2003 aldian etxebizitza berrien zenbatekoa 514koa zela, eta horietatik 88 etxebizitza sozialak zirela eta 115 babes ofizialekoak.



3.5.3.- Berdeguneak eta leku libreak

Espazio libreen urritasun ikaragarria dago Eibarren. Defizit hori orokorra da auzoetan, hain zuzen, %75-80 ingurukoa, hiri kalitatearen estandar aurreratuenen arabera. Nola konpentsatu nahi izan dira behar horiek? Herrian eta herri inguruan, hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian parke gehiago jarritz, eta Lurzoru Urbanizaezinetan herri inguruko parkeak eta atsedenlekuak sortuz.

3.5.4.- Jarduera ekonomikoa

Biztanleria langilearen banaketak, jarduera sektoreka, honako datuok zituen 1996. urtean: %49,7 zerbitzuen sektorean, %45,95 industrian; %4,7 eraikuntzan; %0,5 lehen sektorean.

Eibarren lana duten biztanleen %49k (5.763 pertsona) hirugarren sektorean egiten du lan. Udalerrian xehekako 88 saltegi daude eta handizkako 18 saltegi. Eibarrek ez du merkataritza eremu handirik. Nolanahi ere, Alfaren orubean, hiriaren erdialdean, merkataritza zentro handi bat jartzeko asmoa dute.

Udalerrian nagusi den industria jarduera metalen transformazioa eta doitasun mekanika da. Industria sektorean ari diren 3.406 pertsonatik %95ek dihardute lan horretan.

Udalerriko langabezia tasa biztanleria aktiboaren %21,5ekoa zen 1986. urtean. Hamalau urte geroago, langabezia tasa %6,65eraino jaitsia zen. 2002. urtean INEMeko zerrendetan izena emandako emakumeak 619 ziren, eta gizonezkoak, berriz, 289.

Udalerriko ekonomiaren eta bertan sortutako lanaren arabera, garrantzi txikia du lehen sektoreak Eibarren. Hala ere, herrian ditugun 178 nekazal ustiatuek 2.103 Ha kudeatzen dituzte, gehienak udal barrutian.



4.- HAUTABIDEEI BURUZKO AZTERKETA. KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA. KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

5. kapituluan, hau da, "Eraginen identifikazioa eta balorazioa" izenekoan, HAPNk dakarren lurraren sailkapenari buruzko balorazio orokor bat sartu da. Kapitulu honetan, HAPNren tramitazio-prozesuan kontuan hartu diren sektore-garapenerako hautabide guztien berri ematen da, hau da, Aurrerapenaren eta Hasierako Onerpenaren aldietan.

4.1.- INDUSTRIA ERABILERA KO LURZORUA SORTZEKO ERAGIKETAK

HAPN egiterakoan, industria-erabilerarako lurzoru berriak garatzeko hainbat lan edo eragiketa egin dira, hiri-erregeneraziorako eragiketen eraginpean geratuko diren industrietako instalazioak hartzen utziko zituztenak, lehendik dauden instalazioak handitzeko edo enpresa berriak jartzeko. Landutako hautabide edo aukera horien artean, azkenean, indarrean dauden Arau Ordezkatzaileetan eremu jakin batzuen aldaketa bidez onartu diren garapenak daude, eta horren ondorioz, HAPNn txertatuta geratu direnak. Horixe da Matxaria, Azitain-Erisono (Igo. aldia edo fasea) eta Iburrerrekaren kasua, Plan Partzial garatuak baitituzte.

Bestalde, HAPNk beste hautabide edo aukera batzuk hartu ditu kontuan industria-erabilerarako lurzoria sortzeko. Aukera azpimarragarrienak, Txonta eta Azitain-Erisono aldeetan industrierako lurzoria sortzea edo lehendik zegoena zabaltzea izan dira.

Txontari buruzko proposamena, HAPNren Hasierako Onerpenaren lehen Dokumentuan agertzen zena, azkenean atzera bota da. Garapen horrek, aurreko fase batzuei buruzko Ingurumenaren Eragina neurtzeko aztertu zena, eragin kritikoa zekarren herri-jabari hidraulikoari zegokion atalean.

Azitain-Erisonorako proposatutako garapena aldatzen joan da HAPN egiten joan denean. Behin betiko formulazioak aurreko faseetako esparrua baino esparru zabalago bat hartu zuenez, oraingo dokumentu honetan azterketa gaurkotu egin da. Eragiketa horrek eraginari buruzko azterketa zehatza 5.3.3.2. atalean ikus daiteke, "Industria erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitainen" izenekoan.

GFAk Ingurumenaren Eraginari buruz egindako aurretiazko txostenak hainbat zehaztapen dakartza aipatu diren industria-garapen horiei buruz 3.5 atalean "Industria izaerako lurzoru urbanizagarri berriaz" izenekoan.



4.2.- BARNE ERABERRIKETARAKO EDO HIRI-ERREGENERAZIORAKO ERAGIKETAK

HAPN tramitatzekoan, barne eraberritzerako edo hiri-erregeneraziorako hainbat proposamen hartu dira kontuan. Kasu batzuetan, egindako proposamenak azkenean baztertu egin dira, esate baterako Aasuaerrekan edo Barrenen egitekotan zeudenak. Ostera, beste esparru batzuk onarpena jaso dute eta gaur egun beraien garapenerako planeamendua onarpen aldian aurkitzen da. Horixe da Alfa-Star eremuaren birmoldaketaren kasua, Barne Eraberritzerako Plan Berezi baten bidez garatu dena eta zegokion IENA (ingurumenarekiko eragina neurtzeko azterketa) jaso duena.

HAPNren behin behineko onarpenerako Dokumentu honetan, aintzat hartu diren beste jarduera puntual batzuen artean, eutsi egin zaie Txontako industria-eremuaren erregenerazioari, Matxaria-Estaziño aldearen eraberritze osoari eta hilerria Altamirara eramateko asmoari.

IENA honetan, Txontan eta Altamiran aurreikusten diren jarduerak ingurumenarekiko izango duten eragina aztertu egin da; eta emaitzak 5.3.3.8 "Txontako eremuaren berrantolaketa" eta 5.3.3.9 "Hilerria Altamirara lekuz aldatzea" ataletan kontsulta daitezke. Proposatu diren neurri zuzentzaileak GFAk horren gainean egin zuen aurretiazko txostenaren 4.1. atalean ezarri ziren zehaztapenekin osatu dira.

4.3.- BIZITEGI GARAPENERAKO ERAGIKETAK

Industriarako garapenen kasuan bezala, hiri-erregeneraziorako hainbat eragiketa daude (Ardantza, Saratsuegi), HAPN egiterakoan aintzat hartu eta indarrean dagoen planeamenduari aldatzea puntual edo jakin batzuen bidez garatu izan direnak. Kasu horietan HAPNk onetsitako garapenaren planeamendua bere gain hartu duenez Dokumentu honetan ez dira aztertuak izan.

Dentsitate txikiko bizitegi-garapenerako proposamen batzuk, HAPNren tramitazioko hasierako faseetan planteatu zirenak, azkenean berriz aztertu eta atzera bota dira. Horixe da HAPNren Aurrerapenari zegokion Dokumentuan agertzen ziren Txara eta Arrajola-Amaña aldeei buruz zeuden proposamenekin gertatu dena. Kasu bietan, GFaren Garapen Iraunkorrerako Departamentuak egin zuen Ingurumenarekiko Eraginari buruzko aurretiazko txostenean, berriz aztertzea edo atzera botatzea proposatzen zuen, hiri-eredu sakabanatu eta lauso bat indartu ez zedin.

HAPNn bizitegi-garapenari begira dauden eragiketa esanguratsuenak hiri barruko (Azitainbide, Txonta eta izaera puntualeko beste batzuk) erabilera birmoldaketa-eragiketen bidez ia soilik garatu dira, eta hori aztertu egin da adibide gisa aipatutako alde edo gunen horien birsorkuntza edo erregenerazioa hartuta -5.3.3.3 eta 5.3.3.8 atalak hurrenez hurren-, gainontzeko jardueretarako azterketa gisa balio dezaketanak.



Bestalde, HAPNk garrantzi gutxiagoko beste hainbat proposamen jaso ditu, Bolingua, Egazalei eta Amaña eremuetan garatuko direnak; ingurumenarekiko horiek duten eragina 5.3.3.5., 5.3.3.6. eta 5.3.3.7 ataletan aztertu dira, hurrenez hurren.

4.4.- KOMUNIKABIDE-SISTEMA OROKORRA

HAPNren Aurrerapen Dokumentuak hautabide edo aukera bat proposatu zuen saihesbidearen 3. faseari begira: aldameneko herriraino, hau da, Ermuraino, tunela egitea, Mallabiako eskualdeko industrialdearekin lotura zuzena egon zedin. GFAk ez du onartu aukera hori; ezta Ermuko udalak ere, horregatik, azkenean, HAPNk onetsitako trazatuaren proiektua jasotzen du. 3/98 Legeak ezarri bezala behin-betiko proiektuak Ingurumenarekiko Eragina Neurtzeko Azterketa jasoko du, hor azterketuko da duen eragina eta bidezkoak diren neurri zuzentzaileak ezarriko zaizkio.

GFAk Ingurumenaren Eragina Neurtzeko aurretiazko txostenean dioen bezala, trenbidearen trazatua aldatzeko eta trenbidea lurperatzeko proiektua ere ingurumenarekiko eraginaren neurtzeko azterketa bateratuaren prozedurapean dagoenez, prozedura hori izango da neurri zuzentzaileak eta zehaztasuneko neurri zuzentzaileak ezarriko dituen. Edozelan ere, Dokumentu honetan aurreikus daitezkeen eraginen inguruko aurrerapen bat egin da, 5.3.3.10 atalean kontsultagai daudenak.

4.5.- LURZORU EZ URBANIZAGARRIA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA

HAPNk Lurzoru Urbanizaezina antolatzeko proposamen zehatz bat egin du. Antolaketa horretan lurralde-antolamenduaren gidalerroek (LAG) proposatutako kategoriak ezarri dira, nekazaritza eta basolurren lurralde-egitura, paisaia-egitura eta funtzionala bere horretan utzita. HAPNk kategoria eta azpikategoria hauek ezartzen dizkio Lurzoru Urbanizaezinari edo ez urbanizagarriari:

- Babes berezikoa
- Paisaia eta aisia interes bereziko eremuak
- Izadi intereseko eremuak
- Fauna intereseko eremuak
- Ingurugiroaren hobekuntza
- Basoak
- Nekazaritza eta abeltzaintzako aldea eta landa zabala
- Lurrazaleko uren babesguneak
- Baldintza gainjarria: Area higagarriak



HAPNk modu nabarmenean hedatu du Babes Bereziko kategorian Urko mendiaren gainak eta magalak paisaia eta aisia intereseko gunetzat sartzerakoan. Eremu berri hori Kalamua atsedentzeko zedarriztapenaren zati izatera heldu da. Bestalde, egoera onean eta zainduta dauden baso hostozabalak zehatz-mehatz kartografiatu eta natura intereseko guneen edo areen kategorian barruan sartu dira. Azkenik, Saturixo erreka ere sartu egin da "Babes Berezi"ko kategorian, iturburua, Urko-Kalamua mendigainen eta mendikate adarrek osatzen duten gunek zabal babestuan baitago, intereseko habitaten artean igarobide ekologikoak ezartzerakoan horrek dakarren aurrerapausoarekin.

Ingurumen Hobekuntzarako gunek edo area gisa alde handi eta zabal bat zedarriztatu da Babes Bereziko Arearekin mugakide dena, Urki mendiaren magalean eta inguruetan aurkitzen dena. Alde horretako ingurumena hobetzen bada, HAPNk proposatutako herri inguruko parke-sarearen eta babestutako area periferiko babestuen arteko lotura ekologikoan aurrera egiteko modua izango da.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako aldeak edo gunek eta Landa zabalak bederatzi eremu handi hartzen ditu bere gain, udalerririk osoan banatutakoak, nekazaritza eta abelazkuntza ustiapen nagusienak dauden lekuak biltzen dituztenak. Hori zedarriztatzeak egitura funtzionala eta paisajistikoa mantentzea erraztuko du, eremu horietan nekazaritza-jarduerak babesteko eta sustatzeko neurriak ezartzen badira behintzat.



5.- ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALIOESPENA

5.1.- PLANAREN EDO PROGRAMAREN HELBURUEK INGURUMENEAN ERAGIN LITZAKETEN ONDORIOEN AZTERKETA

Azterketa honen 1.2 atalean ezarri den moduan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren helburua –garapen iraunkorraren ikuspuntutik–, lurraldeen arteko berrorka lortuz, herriaren bizitza kalitatearen hobekuntza nabarmena lortzea da. Bai helburu nagusi hori, bai hori lortzeko garatu diren jardunbideak, bateragarriak dira plan nagusiagoetan ezarritako arauekin edo HAPNn (LAJ, LPS, 21 Agenda, Programa Markoa) eragina dutenekin eta azterketa honen 2. atalean garatu direnekin.

5.2.- ACTUACIONES DEL P.G.O.U. Y EFECTOS AMBIENTALES DE LAS MISMAS QUE HAN SIDO OBJETO DE ECIA EN NIVELES JERÁRQUICOS SUPERIORES

Ez da aurkitu HAPNk proposatutako jardueren artean hierarkia maila goragoetan IENA azterketa hartu duten jarduerarik.

5.3.- HAPNK PROPOSATUTAKO JARDUEREN INGURUMEN ONDORIOAK, GOIKO MAILA HIERARKIKOETAN ECIAREN HELBURU IZAN EZ DIRENAK

5.3.1.- Aztertutako ekintzak

Plan Nagusiaren ekintzetan lurralde eta ingurumen eragina izan duten inpaktuen identifikazioa egin da. Lehenik, Plan Nagusiak proposatutako lurraren sailkapenaren eta kalifikazioaren ezaugarri eta balioespen orokorra egin da, eta, ondoren, proposatutako ekintzak herriko eremu jakinetan egin dira.

Aztertutako ekintzen hautaketa, irizpideon arabera egin da:

- Lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako eremuetan (Erisono, Bolingua, Egazelai, Legarre - Arrajola...) proposatu diren ekintzen azterketari eman zaio lehentasuna.
- Hirilurtzat sailkatutako area edo alde handiagoak aztertu dira, lehen urbanizaezintzat (Amaña) sailkatutako lurzoruei eragiten dizkietenak.



- HAPNk leheneratze edo berrantolatze lanak egiteko proposatu dituen eremuen artean batzuk aukeratu ditugu (Azitain Bide, Txonta), hain zuzen, dagozkien garapen planteamenduak (PERI) egiteko balioko duten irizpideak definitzeko. Kontuan eduki behar da Plan Berezi guztiek izan behar dutela dagozkien Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoa, ingurumenean duten eragina sakon aztertu ahal izateko.
- Lurzoru urbanizaezinetan ekipamenduak ezartzeko aukera aztertu da (Altamirako Hilerria).
- HAPNk jaso dituen hiri barruko mugikortasunarekin zerikusia duten proposamenen artean, Plan Nagusiak proposatu eta herriaren antolaketan eraginik handiena duten ekintzak aztertu dira.
- Azkenik, hiri barruan eta lurzoru urbanizagarrian parkeak egiteko proposamena aztertu da bi ataletan, eta baita lurzoru urbanizaezinetan parkeak eta atsedenlekuak egitekoa ere.
- Ez dira aztertu HAPNn planteamendu erantsizat jasotako ekintzak.

Hona aintzat hartutako ekintzak:

1. Lurzoruaren sailkapena
2. Industria-erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitain-Erisonon
3. Berantolaketa eta bizitegi garapena Azitain Bidean
4. Lurzoru urbanizagarri programatugabea Legarre-Arrajolan
5. Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Bolinguan
6. Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Egazelain
7. Bizitegi-erabilerarako hiri-lurzorua handitzea Amañan
8. Berrantolamendua eta bizitegi-garapena Txontan
9. Hilerria Altamirara eramatea
10. Trenbidea lurperatu eta bitan banatzea
11. Hirigunean mugikortasuna hobetzeko proposamena
12. Hirian eta hiri inguruan parkeak sortzea
13. Herriaren kanpoaldean parkeak eta atsedenlekuak egitea.

5.3.2.- Ikuspegi metodologikoa

Lehenik, Plan Nagusiak proposatutako jarduerak ingurumen fisikoan eragindako aldaketak identifikatu dira. Bigarrenik, eraginaren ezaugarriak finkatu dira, otsaileko 3/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duenak, 45. artikuluan erabakitakoa, eta ekainaren 28ko 1302/1986ko EDL, Ingurumen Eragina ebaluatzekoa, gauzatzeko Araudia betez.



Eraginen ezaugarriak jasotzeko hainbat eragin adierazle erabili ditugu. Horiei esker ebaluatu izan ahal dugu ingumenean duten eragina. Adierazle horiek adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzailak, kuantifikagarriak eta identifikatzeko errazak izan behar dute. Hauexek dira erabilitako adierazleak.

- Landaredia / Lurzoruaren erabilpenak: eragindako azalera, espezieen bitxitasuna, masen egoera.
- Geologia / Geomorfologia: materialak, zonaldeko arriskuak.
- Hidrologia / Hidrogeologia: ubideen gertutasuna, lurraren irazkortasuna, maila freatikoa, uren kalitate indizea, baliabideen erabilgarritasuna.
- Fauna: eragina jasan duten espezieen kopurua, duten arriskua.
- Paisaia: Hirigintzaren ikus-intrusioak eragindako ikus-arroak, azalera hondatuak eta eragina jasandako paisaia unitateen balioespena.
- Sozioekonomia: sortutako lan maila, lurraren erabilpenean izandako aldaketak, soinu maila.

Eraginak identifikatu ondoren, 113/88 Errege Dekretuan adierazitako irizpideen arabera ezaugarriak ipini ditugu: era, ekintza mota, iraupena, eta abar. Ondoren sailkatu egin ditugu izandako eraginak eta bakoitzari dagokion balioa eman diogu: bateragarria, apala, larria, kritikoa. Atal hori egiteko "Leopold-en Matrizea" izenekoa erabiliko da. Metodo horren bidez aurrez aurre jar daitezke, alde batetik ingurumen fisiko, biologiko eta soziala, eta, bestetik, Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Dokumentuko proposamenak. Aldaketak eragin ditzaketen proiektuko ekintzak eta eragina pairatutako ingurumeneko elementuak erlazionatzen dira matrize batean. Horrela, ekintza bakoitzak eragindako ingurumen inpaktuak identifikatzen dira. Ondoren, ingurunean eragindako alterazioen ezaugarriak ipintzen dira, eta azkenik, sortutako eragin bakoitza balioesten da.

Eraginen ezaugarritzea 1131/1988 Errege Dekretuak dioenaren arabera egin da, eta honako irizpideak erabili dira

- IZAERA: Jardun aurretik zegoen egoera positiboaz edo negatiboaz ari da. Jarduera ona ala kaltegarria den dio. Elkarrekin teknikoak eta zientifikoak eta herritarrek berez positibotzat hartu dutena jo da eragin positibotzat, kostuak, onura orokorrak eta osatutako jardueraren kanpokotasuna kontuan hartuta. Zein jotzen da eragin negatibotzat? Balio naturalistak, estetiko kulturalak eta paisiarekin eta emankortasun edo produktibitate ekologikoarekin zerikusia dutenak galarazten dituenak; kutsadurak, higadurak edo betelanak eragindako kalteak areagotzen dituenak; herri baten egitura ekologiko geografikoarekin, izaerarekin eta pertsonalitatearekin bat ez datozen gainontzeko ingurumen arriskuak
- EKINTZA MOTA: ekintzak, ingurumen ezaugarrietan edo elementuetan izandako ondorioa gauzatzeko, izan duen modua deskribatzen du: eragina zuzena den, zeharkakoa, edo sinergiazkoa beste batzuekin.



- **IRAUPENA:** Eraginak irauten duen denboraz ari da irizpide hau; aldi baterakoa izan daiteke (behin-behineko aldaketa izaten da, finka daitekeen edo kalkula daitekeen denbora-muga duena nabarmentzeko) edo iraunkorra (leku jakin bateko ekologia eta ingurumen erlazio-sistemen egituran edo funtzioan nagusi diren ekintza faktoreen amai mugatugabeko alterazioa)
- **UNEA:** Eragina nabarmentzen den uneaz ari da. Eragina epe laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa izan daiteke. Eragina urtea baino lehenago nabarmentzen bada, epe laburrekoa izango da, bost urte pasa aurretik nabarmentzen bada, epe ertainekoa, eta gerora nabarmentzen bada, epe luzekoa.
- **SINERGIA:** ondorio handiago bat eragiteko ondorioen konbinaketaz ari da; hori dela eta, eragin sinpleak, metatzen direnak eta sinergiazkoak izango ditugu. Ondorio sinplea ingurumen osagarri bakar batean nabarmentzen dena da, edo ekintza modua banakakoa duena, beste ondorio batzuk eragin gabe, edo metatu gabe, ezta sinergian ere. Metatzen den ondorioa: eragilearen ekintza denboran luzatzen denez gero, ondorioak gero eta larriagoak dira, ondorioa deuseztatzeko ez duelako kaltea eragiten duen agenteak kaltea areagotzeko duen adinako denbora-eraginkortasunik. Zein da sinergiazko ondorioa? Hainbat eragileren aldi bereko presentziak eragindako talde ondorioak, banaka eragindako ondorioen batuketak baino ingurumen-eragin handiagoa eragitea.
- **ITZULGARRITASUNA:** Ekintza aurreko egoerara itzultzeko aukera, eragozpena edo ezintasuna ditu kontuan.
- **BERRESKURAGARRITASUNA:** Zein da berreskura daitekeen eragina? Eragindako aldaketa edo kaltea deusezta daitekeena. Aitzitik, ezin berreskura daitekeen aldaketa edo kaltea ezin da konpondu edo lehenera itzularazi, ez naturaren eraginez, ez giza eraginez.
- **NEURRI ZUZENTZAILEAK:** Eragina gutxitu edo deuseztatuko duten neurri zuzentzaileak noiz har daitezkeen du kontuan

Eraginen ezaugarriak ipini ondoren, eragin negatiboak balioetsi dira, eraginaren maila eskala hauen arabera:

- **BATERAGARRIA:** Eraginik eza, edo berehala leheneratzea ekintza bukatu ondoren. Ez du babes edo zuzenketa neurririk behar.
- **NEURRIZKOA:** Leheneratzeak ez du behar babes edo zuzenketa neurri intentsiborik, eta hasierako ingurumen egoera berreskuratzeke denbora behar da



- **LARRIA:** eraginaren tamaina dela eta, ingurumenak, aurreko egoera berreskuratzeko, babes-praktikak egitera behartzen du. Errekuperazioak denbora luzea behar du, praktika horiek egin arren.
- **KRITIKOA:** Eragina atalas onargarriaren gaitetik dago. Ingurumena betiko hondatuta geldituko da, eta ezingo da errekueratu, ezta babes eta zuzenketa neurriak hartuta ere.

Eragin POSITIBO edo onuragarriak ere jaso dira. Horrelako eraginez egindako balioespena hor daudela esatera mugatu da, tamainak edo onura mailak neurtu gabe.

Jarduera bakoitzean izandako eraginen ezaugarri eta balioespenen tauletan, eragin bakoitzaren garrantziaren arabera, kolore desberdinetan adierazita daude eraginak. Eragin positiboak beste sinbolo batez (+) adierazi dira.

Eraginak	Mailak			
	Bateragarria	Neurritzkoa	Larria	Kritikoa
Eraginaren balioespena	Bat.	Neur.	Lar.	Krit.

5.3.3.- Aztertutako ekintzen eraginen identifikazioa eta balioespena


5.3.3.1.- Lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari buruzko zehaztapenak




HAPNak legeetan ezartzen diren hiru kategorietan sailkatzen ditu lurzorua: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina. Kategoría bakoitzaren barruko azalerak ondokoak dira:

LURZORUAREN SAILKAPENA			
Kodea	Lurzoru-mota	Azalera	%
SU	Hiri-lurzorua	2.023.210 m ²	%8,18
SUB	Lurzoru urbanizagarria	216.016 m ²	%0,87
SNU	Lurzoru urbanizaezina	22.503.482 m ²	%90,95
UDALERRIAN GUZTIRA		24.742.708 m ²	%100,00

Iturria: Eibarko HAPNaren agiria

HAPNaren agirian, bost sektore proposatu dira lurzoru urbanizagarri modura (Azitain – Erisono, Legarre, Arrajola, Bolingua, eta Egazelai). Eskualdeko teknologia-zentroa hartzen duen Azitain – Erisonoko eremuan izan ezik, gainerako sektoreetan bizitegi-erabilerak eta espazio libreetakoak elkartzen dira. Espazio libre horiek hiri-inguruko parkeen multzoan barneratzen dira. Lurzoru urbanizagarri modura sailkatzeko proposatu diren sektoreen kokapena **EI-01: Lurzoruaren sailkapena planoan kontsulta daiteke.**




 Udalerri Mugak
 Límite del Término Municipal
 Lurzoruaren Sailkapena / Clasificación del Suelo
 Hiri Lurzoria
 Suelo Urbano
 Lurzoru Hiribarra
 Suelo Urbanizable

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 1.- LURZORUAREN SAILKAPENA
EI-01
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 1.- CLASIFICACIÓN DEL SUELO



E:1/15.000 (A3)

2007





HAPNren behin betiko Dokumentuak tramitazioaren aurreko aldietan edo faseetan egindako Dokumentuekiko (Aurrerapena; Hasierako Onarpena) dituen aldeak edo ezberdintasun nagusienak hauek dira:

- Matsaria eta Azitain-Erisono aldeak (1.fasea), Aurrerapen Dokumentuan Industrian erabiltzeko lurzoru urbanizagarritzat sailkatuak, hiri lurzorutzat jo dira, HAPN-n txertatutako garapen eta urbanizazio planteamenduak (Plan Partzialak) amaituak izateagatik.
- Ibur Errekako eremua, Aurrerapen Dokumentuan lurzoru urbanizaezintzat sailkatua, industrian erabiltzeko hiri-lurzorutzat jo da, HAPNri erantsitako garapen planteamenduari (Plan Partziala) esker.
- Egungo agiriak ez du onartzen Txontako ibarbidean industria-garapena egiteko proposamena, lehenengo hasierako onespenean onartua zena.
- Txarako eremua, Aurrerapen Agirian etxebizitzak egiteko (dentsitate apalean) lurzoru urbanizagarri gisa sailkatua, lehenbiziko proposamena berriz aztertu eta aurkeztutako argudioak onartu ondoren, lurzoru urbanizaezintzat jo da, eta bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Eraginaren Atariko Txostenaren edukiarekin.
- Era berean, berriz aztertu dira Amaña eta Arrajola aldeetan etxebizitzak (dentsitate apalean) egiteko proposamenak. HAPNren Dokumentuak lurzoru urbanizagarri gisa mantendu ditu Legarre-Arrajolako eremu txikiago batzuk, eta zabaldu egin du Amañako hiri lurzoru. Aldez aurretik egindako bideetan babestutako bloke irekiko etxebizitzak egitea proposatu du Amañan.
- Sektore berri bat sailkatu da industria-erabilerarako lurzoru urbanizagarritzat, Azitain-Erisono aldean aurkitzen dena. Proposatutako eremu berri horrek Erisonon lehendik dagoen industrialdea handiagotu egiten du, eta hegoalde-hego-sortaldera garatu. Aurrerapenean eta lehen Hasierako Onarpenean jasotako proposamenari zegokionez, orduan proposatutako esparru hura aldatu egin da: Sumendiaga baseritik urrundu da eta Lezetako behe-ibarrera zabaldu.
- Bolingua eta Egazelai sektoreak bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarritzat sailkatu dira; horiek, Aurrerapenaren Dokumentuan, lurzoru urbanizaezintzat sailkatu ziren, eta lehenengo Hasierako Onarpenaren Dokumentuan, lurzoru urbanizagarri ez programatutzat zeuden hartuta.

Esan liteke HAPNko Dokumentuan proposatutako eremuak, lehendik dagoen gunean dutela oinarri, eta saihestu egin duela lurzoru bakartuak erabiltzea. Dentsitate apaleko etxebizitza-garapena (Txara, Amaña-Arrajola) berriz aztertu izanak hiri-egitura inolako beharrik gabe hedatzea eta hiri-eredu sakabanatu bat egitea saihestu du. Ez da onartu Txontako ibarbidean industria-area jartzeko proposamena. Jardun hori hasieran onesteko lehenengo agiriari zegokion Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko Azterlanean ikusi zen eta, bertan, ingurumenean ondorio negatibo nabarmenak zituela adierazi zen.



Industria eremu zaharrak (Alfa, Txonta) berritzeko aurreikusitako ekintza garrantzitsuak, egungo hiri-sarea birmoldatzeak eta hirigunean erabilpenak nahasteak hiri egitura trinko bat sustatzeko aukera eskainiko dute, funtzioak nabarmen hobetuko ditu eta baita hiri-kalitatea ere, aipatutako puntuez oso-oso egoera txarretik abiatu behar bada ere.

5.3.3.2.- Industria-erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitain - Erisonon

Azitain auzoak hiru area barne hartzen ditu: Azitaingo industrialdea, Azitain auzoa bera eta Murrategi auzoa.

Azitain I zonan, industrialdeari dagokionean, bertan dauden eraikinak eta urbanizazio-elementuak finkatzea planteatu da eta jada onetsi eta bidean den Erisono I eremuaren Plan Partzialak industria-erabilerako sortutako plataforma barneratu da. Horrez gain, industrialdea hegoalderantz – hego-ekialderantz zabaltzea planteatu da eta, horretarako, 134.718 m²ko azalera duen sektorea lurzoru urbanizagarri modura sailkatu da.

HAPNak 61.821 m²c-ko azalera produktiboa ezartzen du, B+1 profilarekin (2 solairu sestra gainean) azpiko bide aldera eta B+2 (3 solairu sestra gainean) goiko bide aldera. Horrez gain, honako azalera hauek aurreikusten ditu: 36.833 m² bide-sistamarako, 25.364 m² espazio libreetarako eta 1.342 m² ekipamenduetarako.

HAPNak dio dagokion plan partzialaren bidez antolatuko dela sektorearen garapena. Proposatuko antolamenduaren eskema **EI-02-01** jarduketa-planoan jasotzen da. Jarraian, inpaktu esanguratsuenak aipatzen dira.

5.3.3.2.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonen gaineko eragina

Nola lanen fasean hala ustiapen-fasean gainazaleko uren (Gorosta erreka) kalitatean izan dezakeen eragina garrantzitsua ez dela ikusi da.

Esku-hartzeak Lezeta errekan izan du eragina, horren tarte bat aldatu eta/edo estali egingo baita soberakinak bildu eta urbanizazio-plataforma sortzeko. Errekan drainatu beharreko ibilgu-zatia gutxi gorabehera 0,20 km²-koa da. Aldikazkoa izan daitezkeenez, beharbada ez da jabari publiko hidraulikora atxikiko eta, beraz, ezta ingurumenaren aldetik sentikorra den zonatzat hartuko ere.

5.3.3.2.2.- Baliabide naturalen galera (landaredia eta fauna)

Eremuak landaredia izan lezake; gizakiaren eraginik ez balego, mota ezberdinetako hostozabalen basoak aurkituko genituzke. Batez ere, hariztiak/baso misto atlantikoak nagusituko liriateke, nahiz eta eremuaren orientazio eta ezaugarri edafologikoek hedadura ezberdineko artadiak egotea eragingo luketen.



Arearen zatirik handienean, egitura horiek ordeztu egin dira. Azaleraren %62 belardietarako erabiltzen da eta %19 baso landaketarako. Naturaren aldetik balio gehien duten unitateak (artadiak eta hostozabalen baso mistoen zatiak) malda handiagoko zonetan, eremuaren mugetan, bakarrik aurki daitezke orain, **EI-02-02** planoan ikus dezakegun bezala. 5. unitatean (hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea), zuhaitz eta zuhaixken (heskaiak) egitura linealak barneratu dira; horien artean, eite nabarmeneko ale interesgarriak aurki daitezke (arteak, intxaurreondoak, haritzak, lizarrak ...).

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparru-kop.
3. unitatea	Artadia	2.301	1.7	2
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren degradazio-fasea	11.659	8.7	8
7. unitatea	Larrea / Sasia	8.055	6.0	3
8. unitatea	Baso-sailak	26.123	19.4	1
10. unitatea	Belardi eta landatze atlantikoak	84.249	62.5	2
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	2.331	1.7	3
Guztira		133.589	134.718	100.0

Industrialdea eraikitzen bada, eremu osoan dagoen landaredia zuzenean suntsituko da. Aipagarriena artadi-orbanak eta eite nabarmeneko hostozabalen ale isolatuak desagertuko direla da, udalerrri mailan garrantzitsuak direlako eta urte askoko ale interesgarri batuk dituztelako (arteak, haritzak ...).

Faunari dagokionez, jarduna burutzeak landazabaleko habitata murriztea dakar (10 hab); hala ere, udal-mugarteren testuingurua aintzat hartuta, esan dezakegu azalera hori nahiko txikia dela. Obren fasean, mugikortasun gutxiko fauna-taldeek zuzeneko eragina jasango dute (anfiboak, narrastiak ...). Beste animalia-talde batzuek, batez ere hegaztiekin, ez dute zuzeneko eraginik jasango, hurbileko zonetara mugituko baitira.

5.3.3.2.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eragina

Proposatutako eremua Gorosta errekek zeharkatzen duen bailaratik Ego ibaiak gurutzatzen duen bailararaino zabaltzen da. Lehenaren azken tartean, Azitaingo egungo industrialdea dago eta bigarrenaren beheko zonetan hiri-garapena eta garraio-azpiegiturak daude. Aurreikusitako garapena bi hegaletan egingo da, hego-mendebalderantz eta hego-ekialderantz, hurrenez hurren, Azitaingo egungo industrialdetik Arrateko landa-auzoraino zabaltzen den zonan. Malda handiko hegalak dira; horietan, eremuaren azaleraren %95ak baino gehiagok %30eko malda gainditzen du eta lur-eremuaren ia erdiak %50etik gorako maldak ditu (**EI-02-02**).



Obren fasean zehar, paisaiaren kalitateak eragina jasango du, sasi-garbitzeengatik eta, nagusiki, lur-mugimenduengatik, hauek zonaren morfologia nabarmen aldatzea eta erliebe naturala intxuraldatzea ekarriko baitute. Aldaketa fisiografiko hori ustiapen-fasean ere gertatuko da.

Garapena paisaia-kalitate gutxi duen bailararen beheko aldean kokatuko litzateke; kalitate eskasa izatearen arrazoi nagusiak honako hauek dira: elementu antropogenikoen ugaritzea (bideak, pabiloiak, ezpondak...), erliebe naturalaren aldaketa, bailarako eta hegaletako landarediaren desagertzea, ibilgu nagusiaren artifizializazioa... Beste erdia, ekialdekoa, paisaiaren kalitate oso handia duten arean daude kokatuta eta landa-izaera du; bertan, larreak dira nagusi eta horien artean, tartekatuta egiten dira hostozabalen heskaiak eta koniferoen baso-landaketa batzuk.

Plangintzaren aurreko faseekin alderatuta sektorearen hego-ekialdean (Sumendiaga) egin den murrizketak zertxobait gutxitzen du hirigunetik eta bide-azpiegituretatik (A-8) begiratuta okupazioa berriak duen ikuspena. Hala ere, sektorea Arrateko landa-auzorantz zabaltzeak hegalean elementu antropogenikoak barneratzea dakar; izan ere, hegalean landa-izaerari esker, paisaiaren kalitateak nabarmena izaten jarraitzen du eta bailararen beheko aldetik doazen bide-azpiegituretatik garbi asko ikus daiteke.

5.3.3.2.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Jarduketa hau burutuz gero, obrek okupatzen duten zona osoko lurzorua (gutxi gorabehera 13,2 ha) ahalmen ekologiko galduko du, eta hori ezingo da itzuli, ezta berreskuratu ere. Eremua artifizializatuz gero, bi azpiarrok ura iragazteko duten ahalmena murriztu egingo da.

Lurzoruaren erabilera-ahalmena txikia da, nagusiki, bi faktore mugatzaile direla medio: malda handiak (>%30) eta lurzorua sakontasun eskasa. Hortaz, nekazaritzako produktibitate ekologikoaren gaineko eragina nahikoa txikia da, abereak elikatzeaz azalera handia galtzen baita (nagusiki, belardiak).

HAPNaren aurreko agirietan proposatutako eremua aldatuz gero, %30tik beherako maldak dituen hegala bere horretan mantentzea lortu da. Gaur egun, eremu hori Sumendiagako ustiategiak erabiltzen du baratze-laboreak eta bazka-laboreak eskuratzeko.



5.3.3.2.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Ez dira ezagutzen alderdi hauen inguruan eraikuntza-proiektuak izan ditzakeen ezaugarriak. A priori, esan dezakegu, eremuaren ezaugarri fisiografikoak ikusita, eta egingo diren pabiloiak kokatzeko plataformak sortze aldera, lur-mugimendu handiak egin beharko direla obren fasean; lurren balantzea positiboa izango da. Horrek esan nahi du soberakin ugari sortuko direla eta, beraz, horiek oraindik zehaztu gabe dagoen hondakindegira eraman beharko direla.

Gerta liteke soberakinak Lezeta baserriaren ingurua zeharkatzen duen ibarbidean kokatzea. Aldizkako erreka horrek, gutxi gorabehera 0,20 km²-ko ibaiadarra du. Esku-hartze horretan, erreka estali egingo da, gutxi gorabehera 400 m-tan zehar.

Bestalde, ustiapen-fasean, industria-hondakinak eta hiri-hondakin solidoak sortuko dira. Horiek enpresa jarduleek edo udalerriko hondakinen tratamenduaz arduratzen den erakundeak kudeatuko dituzte.

5.3.3.2.6.- Hiri-inguremenaren gaineko eragina

Obrak burutzerakoan, obra-makina eta ibilgailuen motoreek errekontzako gasak isuriko dituzte. Gainera, solido esekien lainoak ere sortuko dira (hauts-lainoak). Isuri horiek obrako langileengan eurengan, inguruetakoko biztanleengan eta, neurri txikiagoan, mugakide diren pabiloietakoko erabiltzaileengan izango dute eragina. Halaber, bertako landarediari ere erasango diote. Eremutik gertu, nekazaritza eta abeltzaintzako zenbait ustiategi dago (Lezeta – Abeletxe, Sumendiaga, Lezeta, Mendigoiti eta San Martin).

Eremuan bertan eta bere inguruetan, soinu-igorpenak sortuko dira; obren fasean, soinu horiek makineria astunaren funtzionamenduak eta lur-mugimenduko lanek eragingo dituzte. Gertuen dagoen industria-zonari eta aurreko paragrafoan aipatutako etxebizitzetara erasango diete.

Ustiapen-fasean igorpenak eremuan ezartzen diren jarduera ekonomikoetatik eta horiek burutzeko beharrezko trafiko motorizatutik etorriko dira. Faktore horiek, gainera, airearen kutsadura gehitzea ere badakarte. Plangintzak ez du zehazten zein motatako instalazioak dauden eremuan, baina teknologia-zentrotzat hartzen denez, ez dirudi bertan garatuko diren ekoizpen-prozesuek kutsadura akustiko handia sortuko dutenik. Nolanahi ere, eremuak sakabanatze irekia duela ikus daiteke.



Irisgarritasunari eta mugikortasunari dagokienez, esan dezakegu, eremua hirigunearen kanpoaldean kokatuta dagoenez, garraio motorizatu pribatua gehitu egingo dela. Gehikuntza hori nolabait mugatu egin daiteke HAPNaren proposamenetako bat gauzatzen bada; zehazki, Azitainen trenbidearen (Euskotren) geltokia egitearena. Proposatutako geltokia aztertzen ari garen eremuaren alboetatik gutxi gorabehera 900 – 1.400 m-ra egongo litzateke eta geltokitik eremura kotak nabarmen aldatuko lirateke (batez beste, 120 m-ko alde egongo litzateke kota batetik bestera). Inguruabar horiek ez dute errazten ibilgailu pribatua ez den beste garraiobide bat erabiltzea, garraio-neurri osagarriak aztertzen ez badira behintzat.

5.3.3.2.7.- Eragin sozioekonomikoa

Erisonoko industrialdea zabaltzeak eta enpresa berriak instalatzeak industria-sektorean enplegu-kopuru mugagabea sortuko du. Egoera horretatik ondoriozta dezakegu garapen horrek biztanle aktiboen eta udalerrian sortzen diren enpleguen arteko oreka bultzatzea ahalbidetuko duela. EUSTATen 2004ko datuen arabera, Eibarren 2.298 establezimendu daude eta horiek 9.012 enplegu sortzen dituzte. Lana duten 11.744 eibartarren %53ak baino ez du udalerrian lan egiten.

Okupatutako lurak gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzako zenbait ustiatetik (Sumendiaga, Lezeta – Abeletxe...) erabiltzen dituzte, inguruan baitituzte, eta, beraz, haiek galtzearen eragina jasango dute. Sumendiagaren kasuan, aurreko proposamenetan ezarritakoarekin alderatuta eremua aldatzea erabakiz gero, baserriarekin mugakidea den luraren 5.700 m² mantendu ahal izango ditu gutxi gorabehera.

5.3.3.2.8.- Ondoriozko arriskuen analisisa

Obren fasean, eta eremuko malda handien ondorioz, beharbada higadura-mailak gehitu egingo dira, nahiz eta, arearen ezaugarri ekologikoak aintzat hartuta, irristatzeko arriskua ez den handia.

Ustiapen-fasean, eremua urbanizatu ondoren iragazgaiztu den azalera gehitzeak ura iragazteko ahalmena murriztea dakar eta horrek ez du oso eragin handia izango beheargoko kotetan dauden eremuek urpean geratzeko duten arriskuan. Nolanahi ere, eragin hori are gehiago murriztu daiteke kasuan kasuko neurri zuzentzaileak kontuan hartzen badira.



5.3.3.2.9.- Hierarkian gorago dauden planetako ikuspegiak

Eibarko LPPak dio jarduera ekonomiko berrietarako lurzoruak kokatzeko hegala erabili behar direla; horrela, babes-eremu, espazio libre, eta. Modura antolatu ahal izango dira ibaiak eta errekek. LPPak urbanizazio-maila handiaren eta eraikin-tipologia berrien alde egiten du, aldaketaren irudiarekin bat etortze aldera. LPPak beren beregi horretarako zehaztutako eremuetatik kanpo egiten diren garapen berrien antolamenduari dagokionez, Plan horrek honako hau ezartzen du: *“Artikulu honen arabera [24. art.], HAPNak proposatzen duen ekonomia-jardueretarako lurzoru berriak helburu bakar batekin soilik mugatu ahal izango dira: hiri-birsortzearen arloko eragiketa integralen esparruan sustatutako industria-ehun zaharkituak esku-mailako industrialdeak eraldatzeko esku-hartzei ordezko beste erantzun batzuk emateko helburuarekin, batik bat, betiere, aurretik erabilera publiko eta gizarte-interesekotzat hartu badira”*.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko LPPak jarduera ekonomikoetarako lurzoru hautatzeko gomendioen artean dio landa-inguruan ezin burutu daitezkeela jardun zehatzak eta berriz erabil daitezkeen espazio andeatuak erabiltzea proposatzen du, bailararen beheko lurretan dauden zelai urriak okupatu ordez.

EAEko Ibaian eta Erreken Ertzeak Antolatzeko LAPak honela dio E.2 idatz-zatian, *“Jarduketa Hidraulikoei buruzko berariazko araudian”*: *“1 Km² baino gutxiagoko arro drenatzailea duten ibaibideei eragiten dieten urbanizazio-prozesuetan edo ibarretako betelanerako eta lur-berdinketarako jarduketetan ubidearen trazaduraren errektifikatzea edo, hala badagokio estaltzea, planteatzen bada, beharrezkoa izango da alternatiba hidraulikoei eta ingurugiroaren eraginen zuzenketari buruzko azterketa bat, adar-arro guztia kontuan izango duena, egitea”*.

5.3.3.2.10.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Ustez, ezarriko den industria-jarduerak zenbait elementu komun izango ditu, horien artean, industrialde urbanizatuaren presentzia fisikoa, gaueko argiztapena, trafikoa eta zerbitzu orokorren ur-kontsumoa. Elementu horiek kuantifikatzea zaila da, ez baitugu ezagutzen eremuan kokatuko diren enpresen tipologia. Baloratzeko zailak dira baita ere beste zenbait inpaktu ere, besteak beste, kutsadura akustikoa, efluentek ibilgu publikora isurtzea, gasak eta partikula esekiak botatzea... Ikus dezakegun bezala, plangintzaren fase honetan ez dago aipatutako faktoreei buruzko daturik eta, beraz, balorazioa gutxi zehaztutako aurreikuspen orokorrez baliatuta egin da.



5.3.3.2.11.- Inpaktu esanguratsuenen ezaugarriak

Intereseko landaredia suntsitzearen inpaktua obren fasean zehar antzemango da. Negatiboa, zuzena, iraunkorra, sinergikoa, itzulezina eta berreskurazina izango da. Babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke, jarduketaren eragina negatiboa murrizteko.

Obren fasean, paisaiaren gaineko eragina ere antzemango da, ustiapen-fasean ere ikusiko dena. Negatiboa, zuzena, sinplea, itzulezina eta berreskurazina da. Neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke.

Area urbanizatzean, ura iragazteko ahalmena murriztu egingo da. Eragin hori obren fasea hasten denetik ustiapen-fasera heldu arte antzemango da eta neurri zuzentzaileen bidez murriztu daiteke. Inpaktua negatiboa, zuzena, iraunkorra, sinergikoa, itzulezina eta berreskurazina da.

Lur-soberakinak obren fasean sortuko dira. Inpaktu hau negatiboa, zuzena, aldi baterakoa, metagarria, itzulezina eta berreskurazina da. Soberakin horiek behar bezala kudeatuko dira, neurri zuzentzaileen kapituluaren zehazten den moduan.

Inpaktu garrantzitsuenen artean aipatu beharrekoa da aita ere obren fasean eragingo den kutsadura akustikoa da. Inpaktu hau negatiboa, zuzena, aldi baterakoa, metagarria, itzulezina eta berreskurazina da. Lehen aipatutako beste inpaktuei bezalaxe, honi ere neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke, ondorioak murrizteko.




5.3.3.2. taulan inpaktuen ezaugarriak adierazteko ezartzen den matrizeak zehatz-mehatz jasotzen ditu aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa.







5.3.3.2. INGURUMEN ERAGINAK BALORATZEKO ETA EZAUGARRITZEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK														OBREN FASEAN		USTIAPIEN FASEAN			
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOAK	ALDI BATERAKOAK	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOAK	EPE ERTAINEKOAK	EPE LUZEKOAK	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOAK	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILLEAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE
Baliabide naturalen galera	Landaredia		x	x			x	x				x		x		x	x	Neur.	Bat.		Bat.
	Fauna		x	x			x	x		x				x		x		Bat.		Bat.	
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea		x	x			x	x		x				x		x	x	Lar.	Neur.		
	Akuiferoen urrakortasun handia																				
	Intereseko espazio katalogatuak																				
	Kultura-ondare katalogatua																				
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia		x	x			x	x		x				x		x	x	Lar.	Lar.	Lar.	Neur.
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa		x	x			x	x				x		x		x	x	Lar.	Neur.	Lar.	Neur.
	Gaitasun handiko lurzoruen galera		x	x			x	x				x		x		x		Bat.			
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x	Lar.	Neur.		
	Hondakinen sorrera		x		x		x		x		x		x		x		x	Neur.	Bat.	Bat.	
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x	Neur.	Bat.		
	Airearen kutsadura. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x		x		x			Bat.	Bat.
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x	Lar.	Neur.		
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x		x		x			Bat.	Bat.
	Mugikortasuna - irisgarritasuna		x		x		x		x			x	x		x		x			Lar.	Neur.
Sozioekonomia	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzearen galera		x	x			x	x		x				x		x		Lar.			
	Biztanleria aktiboaren eta enpleguaren arteko oreka	+																			
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																				
Mugaz haraindiko ondorioak	Mugaz haraindiko ondorioak																				
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua		x		x		x	x			x			x		x				Neur.	Bat.
	Arrisku geoteknikoak		x	x		x		x				x		x	x		x	Neur.	Bat.		
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak																				




 Udalerri Mugak / Límite del Término Municipal
 Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación
 Lurzoru Urbanizagarri eta Industri Garapena Azitain-Erisonon / Suelo Urbanizable de Uso Industrial en Azitain-Erisono


Eraikuntza / Edificación
 Eraikin Finkatuak / Edificios Consolidados
 Proposatutako Industri Eraikinak / Edificios Industriales Propuestos
 Burutzen Ari Diren Eraikinak / Edificios en Ejecución
 Proposatutako Ordenazioa / Ordenación Propuesta


EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
 PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR


INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL



ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
2.- LURZORU URBANIZAGARRI ETA INDUSTRI GARAPENA AZITAIN-ERISONON
EI-02-1
IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
2.- SUELO URBANIZABLE DE USO INDUSTRIAL EN AZITAIN-ERISONO



E:1/2.500 (A3)  2007



Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

— Udalari Mugak / Límite del Término Municipal

— Lurzoru Urbanizagarri eta Industri Garapena Azitain-Erisonon / Suelo Urbanizable de Uso Industrial en Azitain-Erisono

— Proposaturiko Ordenazioa / Ordenación Propuesta

Maldak / Pendientes

— Malda %50-100

— Pendiente entre 50 y 100%

— Malda > % 100

— Pendiente superior al 100%

Landaretza / Vegetación

- 1 Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) / Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidoiflo)
- 2 Kararizko Gallurreko eta Haitzebaki Oineko Landaredia / Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo
- 3 Artadi Kantauriarra / Encinar Cantábrico
- 4 Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa / Robledal Acidoiflo y Robledal-Bosque Mixto
- 5 Hariztiren gazte-fasea edo fase nderatua / Fase Juvenil o Degradada de Robledal
- 6 Haltzadi Kantauriarra / Aliseda Cantábrica
- 7 Belardia / Sastraka / Pastizal / Matorral
- 8 Konifera Landaketak / Plantaciones de Coníferas
- 9 Belardi Menditarra / Pradera Montana
- 10 Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak / Prados y Cultivos Atlánticos
- 11 Landaredi Eruderal-Nitrofila / Vegetación Ruderal - Nitrofila

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINeko ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

2.- LURZORU URBANIZAGARRI ETA INDUSTRI GARAPENA AZITAIN-ERISONON

EI-02-2

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS

2.- SUELO URBANIZABLE DE USO INDUSTRIAL EN AZITAIN-ERISONO

E:1/2.500 (A3) **2007**



5.3.3.3.- Berantolaketa eta bizitegi-garapena Azitain Bidean

Azitain Bide 2B eremua (UE 140.01) Azitain auzoan dago. 6.005 m²-ko azalera du.

HAPNak eremua berrantolatzea proposatzen du, bide-sistema hobetzeko (besteak beste, banaketa-glorieta eta Murrategirako sarrera berria egitea, eta Azitain auzoaren erdiko gunek oinezkoentzat jartzea) eta 41 etxebizitza eraikitzea, babes ofizialeko erregimenaren pean (BOE).

HAPNak dio eraikinak bloke irekiko tipologia izan dezakeela (S+BS+6) eta linealki kokatuta egon daitekeela, oinezkoentzat izango den kalearen arabera antolatuta.

Proposatutako antolamenduaren eskema **EI-03-01** jarduketaren planoan jasotzen da.

5.3.3.3.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonen gaineko eragina

Aurreikusitako jarduketak Ego ibaiko uren kalitateari erasango dio obren fasean, solido esekiak gehitu egingo direlako eta, behin-behinean, lurra atara eta biltegitratzeko lanak garatzen dituen makineria astunak isuriak eragin ditzakeelako. Gaur egun ibaiaren egoera ikologikoa txarra den arren, horrek ez du esan nahi jarduketak ez duenik aldi baterako inpakturik; hala ere, honen ezaugarriak ikusita, esan dezakegu inpaktua ez dela esanguratsua.

5.3.3.3.2.- Baliabide naturalen galera

Eremuak landaredia ere izan lezake; bertan, hariztiak/baso misto atlantikoak aurkituko genituzke. Ego ibaiaren aldeetan haltz kantauriarren egituretan aurkitu ohi diren espezieak egongo lirateke.

Eremuaren zati batean egitura horiek ordeztu egin dira. Arearen %80 urbanizatuta dago (bide-azpiegiturak, ekipamenduak, biltegiak...). Toki batzuetan, ez dago landaririk, eta beste batzuetan zona hauei dagokien landaredi erruderal-nitrofiloa aurki dezakegu. Lorategi-zona gutxi horietan, zenbait egitura apaingarriak dira eta ibaiaren ezpondan, haltz- eta lizar-ale batzuk agertu dira. Eremuaren gainerakoan, area urbanizatuaren eta A-8 autobidearen artean, malda handiko hegala dago eta, bertan, hostozabalen baso mistoa dago, espezie ezberdinei dagozkien eite nabarmeneko aleez osatua (gaztainondoa, lizarra, intxaurrondoa, astigarra, urkia...) eta zuhaixka-geruza trinkoarekin (zuhandorra, ereinotza, hurrondoa, sahatsak, sasiak...). Naturaren aldetik balio gehien duen unitatea da eta eremuaren %11 hartzen du. Eremuaren gainerako zonak sasiz (nagusiki, iratzeez) estalita daude edo Ego ibaiaren igarobidea dira.



Area honela banatzen da landaredi-unitateen arabera (banaketa hau **EI-03-02** jarduketa planoan ere kontsulta daiteke):

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparrukop.
4. unitatea	Hostozabalen baso mistoa	684	11.4	2
7. unitatea	Larrea / Sasia	204	3.4	1
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	4.723	78.7	1
Ibilgua		523	8.7	1
Guztira		6.005	100.0	

Obren fasean, eragin zuzena jasango dute mugikortasun gutxiko fauna-taldeek. Animalia-taldeek, batez ere hegaztiak, ez dute zuzeneko eraginik jasango, inguruko zonetara mugituko baitira.

5.3.3.3.- Baliabide estetiko eta kulturalaren gaineko eraginak

Area hirigunearen ekialdean dago, Azitain auzoan. Ingurua urbanizatuta dago, dentsitate altuko bizitegi-garapenak ditu eta bide-azpiegitura ugariaren kokalekua da (hiri-bideak eta A-8 autobidea eremuaren hegoaldean). Bertan dagoen zuhaitzia ikus-pantaila modukoa da egungo bizitegi-garapenaren eta autobidearen artean.

Lanek oro har aurkako inpaktua izango dute eremuaren ikus-kalitatean, horiek burutzerakoan, egungo landarediaren zati bat desagertu egingo delako eta, batez ere, erliebelerroak (erauzketa, ezpondak...) sakon-sakonetik aldatu beharko direlako Murrategi auzorako sarbidea egiteko. Ikuspen handiko eremua da (hirigunerako sarbidea da) eta hori aldatzeak nagusiki inguruetako eraikinetan bizi direnengan izango du eragina. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar jardunak hiri-paisaia hobetu dezakeela area hori antolatu ondoren; izan ere, gaur egun area horretan guztia nahasia dagoela dirudi eta ikus-kalitatea murrizten duten hiri-elementuak (pabiloiak) daude.

5.3.3.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Arearen %80 urbanizatuta dago eta, beraz, lurzoru artifizializatua 0,1 ha baino gutxiago haziko da. Ahalmen agrologiko gutxiko lurzoruak dira, maldatsuak baitira; landaredi iraunkorra izateko dira egokiak.



5.3.3.3.5.- Lur-soberakina eta hondakinen sorrera

Egingo den bidearen plataforma sortzeko, lur-mugimendu ugari egin beharko dira obren fasean. A priori, eremuaren ezaugarri fisiografikoak ikusita, lurren balantzea positiboa izango dela uste da. Horrek esan nahi du soberakin ugari sortuko direla eta, beraz, horiek oraindik zehaztu gabe dagoen hondakindegira eraman beharko direla.

5.3.3.3.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Obrak burutzerakoan, obra-makina eta ibilgailuen motoreek errekontzako gasak isuriko dituzte. Gainera, solido esekien lainoak ere sortuko dira (hauts-lainoak). Isuri horiek obrako langileengan euren eta inguruetako eraikinetako biztanleengan izango dute eragina. Halaber, bertako landarediari ere erasango diote.

Eremuan bertan eta bere inguruetan, soinu-igorpenak sortuko dira; obren fasean, soinu horiek makineria astunaren funtzionamenduak eta lur-mugimenduko lanek eragingo dituzte. Eragin zuzenena jasango duten pertsonak aurreko paragrafoan aipatutakoak dira.

Eremuak aldeko ezaugarriak ditu irisgarritasunari dagokionez, bai ibilgailuentzat bai oinezkoentzat. Antolamendu berriaren bidez, Azitaingo Andra Mari parrokiaren ingurua oinezkoentzat egingo da eta “eremu lasaia” sortuko da.

Aurreikusitako bizitegi-garapena nahikoa gertu dago HAPNean Eibarko ekialdeko auzoak lotuko dituen Euskotrenen geltokia jartzeko proposatzen den lekutik. Proposamen hau gauzatuz gero, Azitain-Bideko arean biziko diren pertsonak beste garraio bide bat erabiltzeko aukera izango dute.

5.3.3.3.7.- Eragin sozioekonomikoa

Proposatutako etxebizitza-kopurua HAPNean aurreikusten diren etxebizitza berrien %2,4 baino ez da eta, beraz, esku-hartze honen eragin zehatza ez da oso esanguratsua. Hala ere, azpimarratu beharra dago etxebizitza horiek guztiak babes ofizialeko erregimenera atxikita daudela eta HAPNean aurreikusten diren babes ofizialeko etxebizitza guztien %7,3 osatzen dutela. Erregimen horretara atxikita egonda, gizarte-egoera ahulean dauden sektoreek etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago izango dituzte.



5.3.3.3.8.- Kultura-ondarearen galera

Esku-hartze honen ondorioz, eskola-tailerraren eraikina katalogotik kanpo geratuko da; eraikin horrek oinarrizko babes du HAPNak egindako Ondare Kultural eta Historikoaren Katalogoan.

Aldiz, proposatutako antolamendu berriari esker, hobetu egingo da Azitaingo Andra Mari parrokiaren ingurua; aipatutako katalogoaren arabera, ondasun higiezin horrek babes berezia du.

5.3.3.3.9.- Ondoriozko arriskuen analisisa

Uholdeak Ekiditeko Euskal Herriko Plan Integralak (P.I.P.I.P.V.) ez du area hori aipatzen uholdeak 10, 100 eta 1.000 urtero jasateko arriskuan dauden areen artean. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zuzendaritza azterlana egiten ari da Euskal Autonomia Erkidegoan 500 biztanletik gorako udalerrietan eta maiztasun ezberdinarekin urpean gera daitezkeen zonak zeintzuk diren jakiteko. Dagokion garapen-plangintzak kontuan hartu beharko du informazio hori, eskuragarri badago behintzat.

Ustiapen-fasean, azalera iragazgaitza gehitu egingo denez, arroaren iragazte-ahalmena murriztu egingo da. Inpaktu hori aurkakoa eta metagarria da; gainera, HAPNan proposatutako beste jardun batzuei gehituta, inpaktu honek eragina izango du ibaian behera kokatuta dauden arroaren beste zona batzuk urpean geratzeko izango duten arriskuan. Kasu honetan, kaltetutako azalera oso txikia denez, inpaktua esanguratsua ez dela uste da.

5.3.3.3.10.- Hierarkian gorago dauden planen ikuspegiak

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAPak ezartzen duenaren arabera, “Eremu garatuetako ibaialdeak” arautzen dituen irizpide orokorra honako hau da: “ibaia ibai gisa hartzeaz gain, hiri-paisajearen konfigurazioan garrantzi handia duen elementu gisa eta ingurune naturala hirien barruan integratzeko bitarteko pribilegiatu gisa hartzea”. Mota honetako ibaialdeetan (halakoak dira Azitain Bideko eremuan daudenak), LAPak eraikin berri guztiei aplikatu beharreko atzerapenak ezartzen ditu. Kasu honetan, mugatze-edo ubideratze-lerroarekiko gutxienezko atzerapena 10 metrokoa izango da, kontuan izanik tartearen maila I dela (adar-arroaren azalera 10 eta 50 Km²-koa izango da).



5.3.3.3.11.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Nahikoa zaila da egon daitezkeen inpaktuak baloratzea, horien artean, kutsadura akustikoa, efluenteak ibilgu publikora isurtzea, gasak eta partikula esekiak botatzea... Balorazioa zehaztasun gutxiko aurreikuspen orokorretan oinarrituta egin da.

5.3.3.3.12.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa


5.3.3.3. taulak zehatz-mehatz jasotzen du lehen aipatutako inpaktuen balorazioa. Horien artean, batez ere obren fasean landarediaren eta paisaiaren gaineko eragina eta sortutako hots-kutsadura aipatu behar dira. Inpaktu horiek zuzenak, epe laburrekoak, iraunkorrak eta itzulezinak dira, hots-kutsadura izan ezik, aldi baterakoa eta itzulgarria baita; inpaktu horiek ustiapen-fasean eta antzemango dira, beste aldaketa batzuen ondorioz. Inpaktu larriak dira, baina, neurri zuzentzaileak onartzen dituztenez, beharbada haien kontrako eragina murriz daiteke.

Ustiapen-fasean mantendu egingo da hirigunera sartzeko bideetan eta Murrategirako sarbideetan sortutako hots-kutsadura; inpaktu hau iraunkor, metagarri, itzulgarri eta berreskuragarritzat hartu da. Neurri zuzentzaileak onartzen ditu eta, beraz, aurreikusitako inpaktua leuntzen lagun dezakete.



5.3.3.3. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK													OBREN FASEAN		USTIAPEN FASEAN							
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOAK	ALDI BATERAKOAK	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOAK	EPE ERTAINEKOAK	EPE LUZEKOAK	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOAK	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILIAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILIAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILIAK DITU		
Baliabide naturalen galera	Landaredia		x	x			x	x			x				x	x	x	x	Lar.	Neur.				
	Fauna		x	x			x	x			x				x				Bat.					
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea		x	x		x		x					x				x		Neur.	Bat.				
	Akuiferoen urrakortasun handia																							
	Intereseko espazio katalogatuak																							
	Kultura-ondare katalogatua		x	x			x	x			x				x		x		Bat.					
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia		x	x			x	x			x			x	x		x		Lar.	Neur.	Neur.			
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa		x	x			x		x					x		x	x		Neur.	Bat.				
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																							
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x			x	x		x		Neur.	Bat.				
	Hondakinen sorrera		x		x		x			x				x	x							Bat.		
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura. Obren fasea		x	x		x		x			x		x	x			x		Neur.	Bat.				
	Airearen kutsadura. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x	x								Bat.		
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x	x			x		Lar.	Neur.				
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x			x		x		x			x					Neur.	Bat.	
	Mugikortasuna - irisgarritasuna		+																					+
Sozioekonomia	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzearen galera																							
	Biztanleria aktiboaren eta enpleguaren arteko oreka		+				+				+												+	
Kultura-ondarea	Ondarearen galera		x	x			x	x			x			x		x			Bat.					
Mugaz haraindiko ondorioak	Mugaz haraindiko ondorioak																							
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua		x		x		x			x				x		x	x					Neur.	Bat.	
	Arrisku geoteknikoak		x	x			x			x				x	x		x		Neur.	Bat.				
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua																							



--- Udalerrir Mugak
 Límite del Término Municipal

Berrantolaketa eta Bizitegi Garapena Azitain-Biden
 Reordenación y Desarrollo Residencial en Azitain-Bide

Eraikin Finkatuak
 Edificios Consolidados

Proposatutako Eraikinak
 Edificios Propuestos

Burutzen Ari Diren Eraikinak
 Edificios en Ejecución

Proposatutako Ordenazioa
 Ordenación Propuesta

--- Drainatze sarea
 Red de Drenaje

--- Egungo Sarea
 Red Actual

Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

Eraikuntza / Edificación

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

3.- BERRANTOLAKETA ETA BIZITEGI GARAPENA AZITAIN-BIDEN


EI-03-1

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS

3.- REORDENACIÓN Y DESARROLLO RESIDENCIAL EN AZITAIN-BIDE

E:1/1.000 (A3)

2007



<p>Udalerrir Mugak Límite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Berrantolaketa eta Bizitegi Garapena Azitain-Biden Reordenación y Desarrollo Residencial en Azitain-Bide</p> <p>Proposatutako Ordenazioa Ordenación Propuesta</p> <p>Maldak / Pendientes</p> <p>Malda %50-100 Pendiente entre 50 y 100%</p> <p>Malda > %100 Pendiente superior al 100%</p>	<p>Landaretza / Vegetación</p> <p>1 Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidófilo)</p> <p>2 Kararrizko Gallurreko eta Haltzebakien Oineko Landaredia Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo</p> <p>3 Artadi Kantauriarra Encinar Cantábrico</p> <p>4 Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa Robledal Acidófilo y Robledal-Bosque Mixto</p> <p>5 Hariztiren gazte-fasea edo fase anderatua Fase Juvenil o Degradada de Robledal</p> <p>6 Haltzadi Kantauriarra Aliseda Cantábrica</p> <p>7 Belardia / Sastraka Pastizal / Matorral</p> <p>8 Konifera Landaketak Plantaciones de Coníferas</p> <p>9 Belardi Menditarra Pradera Montana</p> <p>10 Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak Prados y Cultivos Atlánticos</p> <p>11 Landaredi Eruderal-Nitrofila Vegetación Ruderal - Nitrófila</p>
---	---

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

**INGURUMENAREN GAINKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
3.- BERRANTOLAKETA ETA BIZITEGI
GARAPENA AZITAIN-BIDEN

EI-03-2

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
3.- REORDENACIÓN Y DESARROLLO
RESIDENCIAL EN AZITAIN-BIDE

E:1/1.000 (A3)

2007



5.3.3.4.- Lurzoru urbanizagarria Legarre-Arrajolan

HAPNaren agiriak lurzoru urbanizagarri programatugabe modura sailkatzen ditu Arrajolan eta Amañan, Legarretik N-634 saihebidetan sartzeko egun dagoen bidearen albo banatan, kokatutako bi eremu, 27.369 eta 4.850 m²-koak, hurrenez hurren. Guztira 32.219 m² (3,2 ha) hartzen dituzten bi eremuek Legarre-Amañako bizitegi-garapenen eta saihebideari dagokion trazaduraren arteko hiri-bilbea amaitzen dute.

EI-04-01 jarduketa-planoak adierazten duen bezala, HAPNak Espazio Libreen Sistema Orokorrean barneratzen ditu Legarre-Amañako sektore osoa eta Legarre-Arrajolako sektorearen %70,7. 2,42 ha-ko azalera horrek, “Amañako Parkean” barneratzen denak, saihebidetaren jabari publikoko zonaren eta kanpoaldeko eraikinen artean dauden espazioak osatzen ditu, eta bere mugak saihebidetaren behin betiko trazadura-proiektuko eskakizunetara egokitu dira. HAPNak “gerriko berdea” egitea proposatzen du; gerriko hor, aisiarako area modura erabiltzeaz gain, azpiegiturak sortutako zarata arintzeko izango da.

Proposatutako antolamenduaren eskema **EI-04-01** jarduketa-planoan jasotzen da.

5.3.3.4.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonen gaineko eragina

Aztertutako proposamenak ez du eraginik ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonetan.

5.3.3.4.2.- Baliabide naturalen galera (landaredia eta fauna)

Gizakiaren eraginik ez balego, jarduketa-eremuan garatuko litzatekeen landaredia hostozabalen basoa izango litzateke; bertan, haritzia/baso misto atlantikoa nagusituko litzateke. Gaur egun, berez egongo litzatekeen baso horren ordean, landaredi-unitate ezberdinak daude; unitate horiei begiratuta gizakia tartean dela adierazten digute eta hiri-inguruko areen ezaugarriak bereganatzen dituzte.

Aztertutako bi eremu urbanizagarrietan, honako landaredi-unitateak bereiz ditzakegu, **EI-04-02** jarduketa-planoak jasotakoari jarraiki:

Legarre-Arrajolako eremuko lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparru-kop.
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	18.328	67.0	2
7. unitatea	Larrea / Sasia	1.433	5.2	1
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	6.952	25.4	3
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	656	2.4	2
Guztira		27.369	100.0	8



Aipatu beharrekoa da zuhaitzien eremua, hostozabalen baso mistoaren degradazio-fasetzat hartzen baitira. Eremuaren ekialdean, Legarreko lotunearen (N-634) alboko hegalean, zuhaitziaren ezaugarri monoespezifikoak aipatu behar dira. Sasiakaziaren espezie kolonizatzaileak, *Robinia pseudoacacia*, nagusitasun ia absolutua du, eite nabarmeneko aleak baitaude eta eremuaren ia % 100 okupatzen baitu.

Legarre-Amañako sektoreko lurzoruen okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparrukop.
4. unitatea	Hostozabalen baso mistoa	872	18.0	1
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	777	16.0	2
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	2.106	43.4	1
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	1.095	22.6	2
Guztira		4.850	100.0	6

Lehen aipatu den bezala, sektorearen zatirik handiena Espazio Libreen Sistema Orokorraren barneratzen da eta, beraz, horretatik ondoriozta dezakegu jardunak ez duela eraginik izango egungo landaredian. Nolanahi ere, eraginik balego, hori beharbada positiboa izango litzateke, erabilera horri esker, landaredi-unitate andeatuak leheneratu eta baso klimaziko bihurtu ahal izango baitira.

Legarre-Arrajolako sektore urbanizagarrian bizitegi-erabilerako lurzoruek (programatugabeak) guztizkoaren %29,3 hartzen du eta honako landaredi-unitate hauek barneratzen ditu:

Legarre-Arrajolako bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarrian dauden landaredi-unitateak				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparrukop.
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	2.043	25.5	3
7. unitatea	Larrea / Sasia	1.433	17.9	1
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	4.062	50.6	2
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	483	6.0	1
Guztira		8.024	100.0	7

Legarre-Arrajolan aurreikusitako bizitegi-garapenak (programatugabeak) ez dio landaredi interesgarriari nabarmen esango. Horren eragina balio eskasa duen hostozabalen baso mistoko zenbait zonetan baino ez da antzemango; baso horretan, besteak beste, lizarrak, haritzak, hurrondoak eta ale exotiko batzuk (bananondoa) aurki daitezke.



5.3.3.4.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eragina

Esku hartzeko proposamenaren arabera, egingo den amaierako eraikinak hirigunea eta lurzoru urbanizaezina lotuko ditu.

“Amañako Parkea” osatuko duen arearen gainerakoari dagokionez, HAPNak honako irizpide hau ezartzen du: *“ingurunea babestea, batez ere, hiri-parkeetako flora (...), eta zuhaitzi interesgarriak errespetatuta”*. Jardunak paisaia antropogenikoaren eta nekazaritzako paisaiaren arteko mugak finkatuko ditu, eta batetik besterako trantsizio antolatu du. Ikuspen handiko area denez, paisaiaren gaineko eragina batez ere Amañako parkean garatzen den landarediaren antolamenduak eta ezaugarriek baldintzatuko dute, baita tipologiak ere, nagusiki arean egiten diren eraikinen altuerak.

5.3.3.4.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Lurrak malda handiko hegaletan kokatuta daude (**EI-04-02**) eta horrek nekazaritzako produktibitatea mugatzen du. Legarre eta Amañako hegaletan, dagozkien azalaren %82 eta %71ak, hurrenez hurren, %50etik gorako aldapak ditu eta gainerako %18 eta %29ak %30 eta %50 bitarteko aldapak. Ondorioz, lur hauek erabiltzerakoan, nahitaez zuhaitzeko estaldura mantendu behar da edo, bestela, hobekuntza-lanak egin, HAPNean jasotako jardunak proposatutakoari jarraiki.

5.3.3.4.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Egingo den bizitegi-eremua oso aldapatsuak diren hegaletan kokatuta dago (**EI-04-02**). Obren fasean, lurren balantze positiboa aurreikusi da; lur horiek hondakindegira eraman beharko dira, nahiz eta plangintzaren egungo fasean alderdi hori oraindik ez den zehaztu.

Bestalde, Eibarko udalerririk inolako arazorik gabe egin diezaiotke aurre etorkizunean bizitegi-zonak zabaltzeak eragin dezakeen biztanleriaren hazkundeari, horrek ez baitu eragingo hiri-hondakinak nabarmen gehitzea.

5.3.3.4.6.- Hiri-ingurumenaren gaineko eragina

Aurreikusitako bizitegi-garapenak (programatugabeak) burutzeko obren fasean, eragozpenak sor daitezke obrako makinak eta ibilgailuen motoreetatik datozen hauts, zarata, bibrazio, errektuntza-gas eta abarren eraginez. Isuri horiek obrako langileengan euren eta gertu dagoen Legarre auzoko biztanleengan izango dute eragina. Halaber, bertako landarediari ere erasango diote. Eragin horiek dagozkien neurri zuzentzaileak aplikatuta minimiza daitezke.



Legarren egitea proiektatu den N-634 errepidearekiko lotura eta trazadura bizitegi-zonaren eremutik gertu geratzen direnez (gutxi gorabehera 70 m-ra), ziurrenik eremuaren kalitate akustikoa murriztu egingo da. Proiektuaren fase honetan ikus daitekeenari jarraiki, azpiegitura honen trazadura oso gertu dago Legarre eta Amaña auzoen goiko aldetik. Trazadura-proiektuak ingurumena zaintzen duela bermatzeko programaren esparruan, dagokion ingurumen-inpaktuaren azterlanak azpiegitura horren soinu-inpaktua aztertzea aurreikusten du; horretarako, neurketak egingo dira hiri-bilbearen zati ezberdinetan eta inpaktua minizatzeko kasuan kasuko neurri zuzentzaileak ezarriko dira. Azterlan horretarako aukeratu diren neurketa-puntuetariko bat Legarre-Arrajolan egingo diren eraikinen sektorea da eta, beraz, alderdi hori kontuan hartu beharko da sektorearen garapen-plangintza idazterakoan. Bestalde, sektorearen gainerakoa, azpiegituraren eta Amaña-Legarre auzoen arteko zatia, espazio libre gisa erabiliko da eta hori lagungarria izan daiteke N-634 errepideko trafikoak sortzen duen kutsadura akustikoa nolabait arintzeko.

Hiri-bilbearen ertzean egingo diren amaierako parkeei esker, bi auzoetako biztanleek aisirako gunegehiago izango dituzte.

5.3.3.4.7.- Eragin sozioekonomikoa

Proposatutako antolamenduak ez du eragin sozioekonomiko nabarmena, sektorean etxebizitza-kopuru txikia garatu baitaiteke. Hiri-inguruko parkeetarako gordetako zonetan biztanle askok erabilera mistoko (nola etxeko hala aisiako erabilerako) baratze txikiak dituzte. Erabilera hori mantenduko den edo ez, Amañako parkearen plangintza garatu duen plan berezian zehaztuko da.

5.3.3.4.8.- Ondoriozko arriskuen analisia

Esku-hartzea garatuko den hegala hain maldatsuak eta ezegonkorak direnez, arreta handiz jokatu beharko da etxebizitzak egiterakoan, lur-jausiak gerta baitaitezke. Area horiek arrisku handiko kategorian sailkatuta daude.

5.3.3.4.9.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Egingo den bizitegi-garapenak (programatugabeak) sortuko duen inpaktuaren balorazioa aldatu egin daiteke eraikiko diren eraikinen tipologiari buruzko zenbait ezaugarri (fatxadaren ezaugarriak, eraikinen altuera, e.a.) definitu ahala, gaur egun oraindik ez baitira ezagutzen.



5.3.3.4.10.- Inpaktuen ezaugarriak

Obren fasean, jardun ezberdinek eragindako inpaktuak gertatuko dira. Aldaketa aipagarrien artean, honako hauek ditugu: lur-mugimenduak, lurzoruen aldaketa, hondakinen antolaketa, paisaiaren gaineko eragina, hots-kutsadura eta airearen kutsadura. Fase honetan zehar, arrisku geologikoak egongo dira, hegalak oso maldatsuak eta ezegonkorak izatearen ondorioz. Behin obrak amaituta, inpaktu esanguratsuena aurreikusitako bizitegi-arearen kalitate akustikoarekin erlacionatutakoa da, N-634 errepidearen saihebidetza egiteko 3. faseko trazadura gertu geratzen baita. Inpaktu hori ezin dakioke HAPNean proposatutako esku-hartzeari egotzi, baina aurreikus daiteke, onetsitako trazadura-proiektuaren ezaugarriak aintzat hartuta. 5.3.3.4. taulak aipatutako inpaktuaren ezaugarriak eta kalifikazioa zehazten ditu.










5.3.3.4. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK												OBRENFASEAN		USTIAPENFASEAN									
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILLEAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU			
Baliabide naturalen galera	Landaredia	+			+		+			+								+						+	
	Fauna	+			+		+			+								+							+
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea																								
	Akuiferoen urrakortasun handia																								
	Intereseko espazio katalogatuak																								
	Kultura-ondare katalogatua																								
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+	x	x	+	x	+	x	+	x			x		x		x	Neur.	Bat.					+	
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna		x	x			x	x			x			x		x		Bat.							
	Gaitasun handiko lurzoruen galera		x	x			x	x			x			x		x		Bat.							
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x			x	x		x	Neur.	Bat.						
	Hondakinen sorrera		x		x		x		x		x		x		x								Bat.		
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura.		x		x		x		x		x		x		x		x	Neur.	Bat.				Bat.		
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x	Neur.	Bat.						
	Jasandako ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x		x		x						Lar.	Neur.	
	Ekipamenduak – Espazio libreak	+		+			+		+				+		+		+							+	
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina		x		x		x		x	x			x		x			Bat.							
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																								
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua																								
	Arrisku geoteknikoak		x	x		x		x					x		x	x	x	Neur.	Bat.						



N-634 Saihesbidearen Proiektuaren Trazadura

Trazado del Proyecto de Variante N-634

-  Udalerrir Mugak
Límite del Término Municipal
- Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación**
-  Lurzoru Urbanizagarria Legarre-Arrajolan
Suelo Urbanizable en Legarre-Arrajola
- Eraikuntza / Edificación**
-  Eraikin Finkatuak
Edificios Consolidados
-  Proposatutako Eraikinak
Edificios Propuestos
-  Burutzen Ari Diran Eraikinak
Edificios en Ejecución
-  Proposatutako Ordenazioa
Ordenación Propuesta
-  Espazio Libre Sistema Orokorra
Sistema General de Espacios Libres



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
4.- LURZORU URBANIZAGARRIA
LEGARRE-ARRAJOLAN

El-04-1

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
4.- SUELO URBANIZABLE EN
LEGARRE-ARRAJOLA





Ubilerrir Mugak
 Límite del Término Municipal

Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

- Lurzoru Urbanizagarria Legarre-Arrajolan
Suelo Urbanizable en Legarre-Arrajola
- Proposaturiko Ordenazioa
Ordenación Propuesta

Maldak / Pendientes

- Malda %50-100
Pendiente entre 50 y 100%
- Malda > %100
Pendiente superior al 100%

Landaretza / Vegetación

- Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa)
Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidófilo)
- Kararitzko Galurreko eta Haitzebakin Oineko Landaredia
Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo
- Artadi Kantauriarra
Encinar Cantábrico
- Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa
Robledal Acidófilo y Robledal-Bosque Mixto
- Haritiren gazte-fasea edo fase anderertua
Fase Juvenil o Degradada de Robledal
- Haltzadi Kantauriarra
Aliseda Cantábrica
- Belardia / Sastraka
Pastizal / Matorral
- Konifera Landaketak
Plantaciones de Coníferas
- Belardi Menditarra
Pradera Montana
- Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak
Prados y Cultivos Atlánticos
- Landaredi Emuderal-Nitrofiloa
Vegetación Ruderal - Nitrofila

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
4.- LURZORU URBANIZAGARRIA LEGARRE-ARRAJOLAN
EI-04-2
IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
4.- SUELO URBANIZABLE EN LEGARRE-ARRAJOLA

E:1/2.500 (A3) **2007**



5.3.3.5.- Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Bolinguan

HAPNak lurzoru urbanizagarri modura sailkatzen du Bolinguan, hirigunearen (Errekatxu-Arane) eta A-8 autobidearen artean, dagoen eremu bat. Eremu urbanizagarri honek 31.309 m²-ko azalera du.

Azalera horretatik, 28.930 m² 1C.103 (Bolingua) sektoreari dagozkio eta gainerakoa, 2.380 m² (eremuaren %7,6), Espazio Librean Sistema Orokorreko (E.L.S.O.) gordeko litzateke. Bolinguako sektorearen %60 inguru, zehazki 16,983 m², espazio libreetarako gordeko da (sistema lokala) eta, E.L.S.O.rako azalerarekin batera, Bolinguako hiri-inguruko parkea osatuko du.

Proposamenaren arabera, 217 etxebizitza eraikiko dira, bloke irekiaren tipologia eta errepidea euskarri hartuta. Etxebizitza horiek egungo hiri-bilbetik gertuen dagoen zonan kokatuko dira eta ordenazioz kanpo deklaratu diren 11 etxebizitzak ordeztuko dituzte. Eraikin horiek S+B+5+Atikoa eta 2S+B+5 profilak izango dituzte, hurrenez hurren. Etxebizitza-kopuruaren gehikuntza garbia aintzat hartuta, etxebizitza berrien %55 (114 etxebizitza) babes ofizialekoak izango dira.

Antolamenduaren arabera, errepide berria egingo da Errekatxu eta Araneko eremuak lotzeko; errepide hori Azitainen hasten den ordeztuko bidearen parte da espazio libre modura sailkatuko den eremuaren ondo-ondotik igaroko litzateke.

EI-05-01 jarduketa-planoak, batetik, eremu urbanizagarriaren, bizitegi-erabilerako sektorearen eta Espazio Librean Sistema Orokorrean barneratuko den zonaren mugak zehazten ditu eta, bestetik, proposatutako antolamenduaren eskema jasotzen du.

5.3.3.5.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Arearen bi muturretan, ekialdekoan eta hego-mendebaldekoan, tarteka bi ibilgu azaleratzen dira; horren trazadura lurpekoa da hirigunean. Tarteka azaleratzen denez, ezin dugu jabari publiko hidraulikoan barneratu eta, beraz, ezin har daiteke ingurumenaren aldetik sentikorra den zonatzat. Nolanahi ere, proposamenak drainatze-sarean eragina izango du, mendebaldetik doan errekaostoen trazadura aldatu beharko baita.

5.3.3.5.2.- Baliabide naturalen galera

Jarduketa-eremuan garatuko litzatekeen landarediari dagokionez; lehen Legarre-Arrajolako sektorea aztertzerakoan ikusitako egoeraren antzekoa genuke hemen. Hegalean kokatuta dagoen eremu hau hostozabalen baso mistoak estalita egongo litzateke eta, bertan, haritzia/baso misto atlantikoa nagusituko litzateke. Lehen azaldutako sektorean bezala, baso horren ordeztu, hainbat landaredi-unitate daude eta horiek hiri-inguruko areei dagozkien ezaugarriak dituzte.



Gaur egun, jarduketa-eremuan, honako landaredi-unitateak bereiz ditzakegu, **EI-05-02** jarduketa-planoak jasotakoari jarraiki:

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparru-kop.
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	5.680	18.1	6
7. unitatea	Larrea / Sasia	3.421	10.9	4
8. unitatea	Koniferoen baso-sailak	1.577	5.0	1
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	18.813	60.1	2
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	1.820	5.8	3
Guztira		31.309	100.0	16

Eraikinak (bai bizitegitakoak bai ekipamenduetakoak) eta bide-sistema jartzeko erabiliko den lurzorua, hots, 11.947 m², eremu urbanizagarriaren %38 da eta 1C.103 (Bolingua) sektorearen %41. Azalera horretan batez ere belardiak eta soro landuak daude.

Landaredi interesgarriaren ikuspegitik, aipatu beharra dago 5. unitatean eite nabarmeneko hainbat zuhaitz-espezie daudela, besteak beste, lizar-, intxaurrondo- eta gereziondo-aleak, baita eite nabarmenekoak izatera heldu diren zuhaixka-espezieak ere, esate baterako, ereinotz-aleak; horiek guztiek aurreikusitako esku-hartzearen eragina jasango dute.

5.3.3.5.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eragina

Obren fasean, arearen ikus-kalitatean aldi baterako aurkako eragina izango dute, besteak beste, eraispen-lanek, lur-mugimenduek eta makinak mugimenduek.

Ikuspen handiko area denez, lanak amaitzean jardunak paisaian utziko duen eragina eraikinen tipologiak baldintzatuta egongo da, bereziki, horien altuerak (S+B+5+atikoa). Eremua osatze aldera ezarri nahi diren espazio libreen tratamenduak eragin positiboa izan dezake hiri-paisaia osoari begira. Tratamendu hori dagokion garapen-plangintzan zehaztuko da.

5.3.3.5.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Esku-hartzeak eremuaren zati bat artifizializatzea ekarriko du, gutxi gorabehera %40. Gainerakoa Espazio Libreen Sistemak (bai Lokalean bai Orokorrean) barneratuko da eta, beraz, horren antolamendu espezifikoak dagokion garapen-plangintzaren arabera egongo da. Hori horrela, lurzorua artifizializazioari dagokionez, ez dirudi esku-hartzeak eragin nabarmena izango duenik; hala ere, inpaktu metagarria denez, esku-hartzea HAPN osoan aurreikusitako jardunak aintzat hartuta kalifikatu beharko da. Nolanahi ere, esku-hartze horrek maldatsuak izatearen ondorioz produktibitate ertaina duten lurzorua galtzea eragingo du.



Azaleraren %9ak bakarrik ditu %30etik beherako maldak. Zonarik lauena, %10 eta %30 bitarteko maldak dituena, eremuaren goiko aldean dago eta Bolinguan egingo den parkean barneratuko da. Sektorearen azalera %40ak, gutxi gorabehera, %50etik gorako maldak ditu (**EI-05-02**); horrek produktibitatea mugatzen du eta, beraz, egokiena basoa edo landaredi iraunkorra jartzea izango da. Eremuaren gainerakoan %30 eta %50 bitarteko maldak daude eta batez ere belardiak daude.

5.3.3.5.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Jarduna burutzeko, zenbait lur-mugimendu egin beharko dira eraikuntza-plataforma sortu eta bidea egiteko. Plangintzaren fase honetan, ez dakigu lur-balantzearen azken emaitza zein izango den, baina pentsa dezakegu sor litezkeen soberakinak alboko hirigunean erabiliko direla, hori ere hirigintzaren aldetik garatuko baita.

Behin jarduna bukatuta, sektore horretan egongo den etxebizitza- eta biztanle-kopuruak ez du hondakinen gehikuntza nabarmenik eragingo.

5.3.3.5.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Aurreko jardunei dagokionez esan den bezala, obren fasen eragozpenak sor daitezke obrako makinak eta ibilgailuen motoreetatik datozen hauts, zarata, bibrazio, errekontza-gas eta abarren eraginez. Isuri horiek batez ere obrako langileengan euren eta inguruko etxeetan bizi direnengan izango dute eragina. Neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira eragin horiek arintzeko.

Errekatxu-Arane arteko bideak eta hori hegoaldeko beste bidearen gainerakoarekin lotuko duen errepideak sektorerantz heltzea erraztuko dute eta alboko auzoetarako sarbideak hobetuko dituzte. Hobekuntza horri esker, hirigunea zeharkatzen duen bide-sistema nagusiko trafikoa apur bat arinduko da.

Mugikortasunari dagokionez, kontuan izan behar da eremua nolabait erdialdean dagoela (Untzagako plazatik zuzen joanda 400 metrora, gutxi gorabehera), baina kokapen hori koten arteko alde nabarmenak mugatzen duela eta, ondorioz, eremuak kanpoaldekoei dagozkien zenbait ezaugarri bereganatzen ditu. Eremua erdialdean egoteak eraikuntza berrietan biziko direnei oinez mugitzeko aukera emango die. Horrez gain, Sarbide Mekanizatuen Planean jasotako neurriak ere oso lagungarriak izango dira; horien artean, hirigunea eta Bistaeder, Bolinguako eremutik gertuen dagoen lekua, lotzea proposatzen da. Garraiobide publikoak bizitegi-garapen berrietara egokitzeko neurria neurri osagarria da eta trafiko motordun pribatuaren hazkundea mugatu dezake.



Hirigunearen inguruan zuhaitzez osatutako banda itxuratuko duten parkeak jartzea positiboa da hiri-ingurumenaren kalitaterako. Kasu honetan, “Bolinguako parkeak” aisiarako aukera gehiago eskainiko dizkie ondoko auzoei, gaur egun eremu horretan eskas samarrak baitira, erabilera pribatua nagusi izatearen ondorioz. Gainera, autobidea (A-8) erabiltzen duen trafikoak sortutako hots-kutsadura nolabait arintzen lagun dezake; izan ere, errepide hori, altuera nabarmena gainditu ondoren, parkearen hegoaldeko muga barrena doa. Are gehiago, gaur egun, Bolinguako mendixkari esker, zarata-mailak murriztu egiten dira aztertutako arearen iparraldean kokatutako auzoetan.

5.3.3.5.7.- Eragin sozioekonomikoa

Sektorean, gutxienez, lau eraikinetan bizi da jendea. Horietako batzuk baserriak dira; bertan, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak garatzen dira eta, beraz, horiek desagertzeak nabarmen eragingo die. Esku-hartzeak eremuan bizi ez arren lurak erabiltzen dituzten pertsoneri ere erasango die. Dirudienez, ondorioak larriak izango dira, nahiz eta bateragarritzat ere hartu ahal izango diren eragindako ustiategiak beste leku batzuetan kokatzeko neurri osagarriak aplikatzen badira.

Antolamenduaren arabera, egun dauden eraikinak ordenazioz kanpo daude eta, beraz, etxebizitza horietako biztanleak beste lekuren batera eraman beharko dira bizitzera. Esku-hartzeak ondorio larriak dakarzkie pertsona horiei, nahiz eta kontuan izan behar den, baita ere, pertsona-kopuru hori nahikoa txikia dela esku-hartzearen beste zenbait ondoriorekin alderatuta. Esate baterako, babes ofizialeko erregimenera atxikitako 114 etxebizitza egitea onuragarria izango da ekonomia-egoera ahulean dauden biztanleriaren sektoreentzat. Sektore honetan, HAPNak Eibar osorako aurreikusita dituen babes ofizialeko etxebizitza berrien %20 dugu.

5.3.3.5.8.- Kultura-ondarearen galera

Proposamenak ez du eraginik kultura-ondareko ezein elementutan.

5.3.3.5.9.- Ondoriozko arriskuen analisia

Eremuko ipar-ekialdean dagoen hegala hain da maldatsua, ezen horrek arrisku geoteknikoak baitakartza, eta, beraz, horiek eraikuntza-proiektuan adierazi beharko dira. Behin esku-hartzea amaituta, %50etik gorako maldak dituzten areatan landaredi iraunkorra mantenduko da.



5.3.3.5.10.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Oraindik ez dira ezagutzen eraikuntza-proiektuen eta egingo den hiri-parkearen ezaugarriak, plangintzaren fase honetan ohikoa den bezala, eta, hori dela-eta, inpaktuen balorazioa orokorra izan da.

5.3.3.5.11.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa

Parkea sortzeak eragin positiboa izan dezake landaredian, faunan, paisaian, soinu-kalitatean eta biztanleei zuzendutako aisiarako aukeretan. Ondorio positibotzat hartu dira baita ere gizarte-egoera ahulagoan dauden sektoreei etxebizitza eskuratzeko aukera ematea eta irisgarritasuna hobetzea.

Kontrako ondorioen artean, bai eremua erabiltzen dutenek bai eremuan bizi direnek jasan beharreko eragin sozioekonomikoa; bi talde horiek beste leku batera eraman behar dira bizitzera, ekoizteko euren espazioa gal ez dezaten. Eragin horiei aurre egiteko, kaltetuak diruz konpentsatuko dira eta/edo beste leku batera eramango dira bizitzera, edo, bestela, ukitutako ustiategiak beste nonbait kokatuko dira, betiere, horiek lantzen jarraitzeko asmorik badago.

Ustiapen-fasea amaitu ondoren, kontrako ondorio nagusia eraikin berriek jasan beharko duten hots-kutsadura da; hala ere, aurreikusitako errepidea bigarren mailakoa izango denez, inpaktu hori bateragarritzat hartu da eta, beraz, neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira.

5.3.3.5 taulak aipatutako inpaktuen balorazioa jasotzen du zehatz-mehatz.



5.3.3.5. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK													OBRENFASEAN		USTIAPENFASEAN						
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRSKURAGARRIA	BERRSKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILIAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	
Baliabide naturalen galera	Landaredia	+			+		+			+	+							+					+
	Fauna	+			+		+			+	+										+		+
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea																						
	Akuiferoen urrakortasun handia																						
	Intereseko espazio katalogatuak																						
	Kultura-ondare katalogatua																						
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+	x	x	+	x	+	x	+	x				x		x	x	Neur.	Bat.	Bat.		+	
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna		x	x			x	x			x			x		x		Bat.					
	Gaitasun handiko lurzoruen galera		x	x			x	x			x			x		x		Neur.	Bat.				
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x		x				x	x		x	Neur.	Bat.				
	Hondakinen sorrera		x		x		x			x		x		x		x				Bat.			
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura		x	x		x		x			x		x		x		x	Neur.	Bat.				
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x	Neur.	Bat.				
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x			x		x		x		x				Bat.			
	Ekipamenduak – Espazio libreak	+		+			+			+	+										+		
	Irisgarritasuna - Mugikortasuna -	+			+		+			+	+						+					+	
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina		x		x		x			x	x		x		x		x	Lar.	Neur.				
	Bizileku berria hartzea		x	x			x	x			x			x	x		x	Lar.	Neur.				
	Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko	+		+			+			+	+									+			
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																						
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua																						
	Arrisku geoteknikoak		x	x		x		x			x			x	x		x	Neur.	Bat.				




Udalerrir Mugak
Límite del Término Municipal

Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

Lurzoru Urbanizagarri eta Bizitegi Garapena Bolinguan
Suelo Urbanizable y Desarrollo Residencial en Bolinguan


Eraikuntza / Edificación

- Eraikin Finkatuak
Edificios Consolidados
- Proposatutako Eraikinak
Edificios Propuestos
- Burutzen Ari Diren Eraikinak
Edificios en Ejecución
- Proposatutako Ordenazioa
Ordenación Propuesta
- Espazio Librean Sistema Orokorra
Sistema General de Espacios Libres



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR




INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL


ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
5.- LURZORU URBANIZAGARRI ETA BIZITEGI GARAPENA BOLINGUAN

EI-05-1


IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
5.- SUELO URBANIZABLE Y DESARROLLO RESIDENCIAL EN BOLINGUA



E:1/2.500 (A3)



2007



Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

- Udalerrir Mugak / Límite del Término Municipal
- Lurzorru Urbanizagarri eta Bizitegi Garapena Bolinguan / Suelo Urbanizable y Desarrollo Residencial en Bolinguan
- Proposatutako Ordenazioa / Ordenación Propuesta

Maldak / Pendientes

- Malda %50-100 / Pendiente entre 50 y 100%
- Malda > %100 / Pendiente superior al 100%

Landaretza / Vegetación

- Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) / Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidoiflo)
- Kararrizko Gallurreko eta Haitzebaki Oineko Landaredia / Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo
- Artadi Kantauriarra / Encinar Cantábrico
- Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa / Robledal Acidoiflo y Robledal-Bosque Mixto
- Hariztiren gazte-fasea edo fase nderatua / Fase Juvenil o Degradada de Robledal
- Haltzadi Kantauriarra / Aliseda Cantábrica
- Belardia / Sastraka / Pastizal / Matorral
- Konifera Landaketak / Plantaciones de Coníferas
- Belardi Menditarra / Pradera Montana
- Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak / Prados y Cultivos Atlánticos
- Landaredi Eruderal-Nitrofila / Vegetación Ruderal - Nitrofila

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
 PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINeko ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
 ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 5.- LURZORU URBANIZAGARRI ETA BIZITEGI GARAPENA BOLINGUAN
 EI-05-2
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 5.- SUELO URBANIZABLE Y DESARROLLO RESIDENCIAL EN BOLINGUA

E:1/1.000 (A3) 10 0 10 20 m 2007



5.3.3.6.- Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Egazelain

Bolinguako eremua bezala, hau ere lurzoru urbanizagarri modura sailkatuta dago HAPNean; horren zati bat bizitegi-erabilerako da eta beste zatia, berriz, Espazio Librean Sistema Orokorrerako.

Hirigunearen (Ipurua) eta A-8 autobidearen artean dago. Eremu urbanizagarriak 17,962 m²-ko azalera du. Azalera horretatik, 6.176 m² (eremuaren %34), Espazio Librean Sistema Orokorrean barneratzen dira eta sektorean aurreikusitako bizitegi-garapenerako erabiliko dira.

Proposamenak guztira 11.786 m²-ko sektorea gordetzen du bizitegi-erabilerarako (1C.102 – Egazelai sektorea); bertan, 86 etxebizitza egingo dira, bloke irekian eta errepidea oinarri hartuta. Egungo hiri-bilbetik gertuen dagoen zonan kokatuko dira eta ordenazioz kanpo deklaratu diren 11 etxebizitzak ordeztuko dituzte. Etxebizitza-kopuruaren gehikuntza garbia aintzat hartuta, etxebizitza berrien %65 (52 etxebizitza) babes ofizialekoak izango dira.

Sektorearen azaleraren %44, hau da, 5.192 m², espazio libreetara bideratuta dago; horren zati bat Egazelain egingo den parkean barneratuta geratuko da, Espazio Librean Sistema Orokorri dagokion beste azalera horrekin batera. Espazio libreetarako azalera (Sistema Orokorra eta Sistema Lokala gehituta) guztira 11.368 m²-koa da (alegia, urbanizagarri modura sailkatutako eremuaren %63).

Jardun horren bidez, zona horretako bide-sarea osatu eta ordezeko bide-sistemaren trazadurarekin jarraituko duen errepide berria zabalduko da.

EI-06-01 jarduketa-planoak aurreikusitako antolamenduaren eskema jasotzen du.

5.3.3.6.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Egazelaiko eremuan tarteka azaleratzen den erreka dago; honi, hala ere, esku-hartzeak ez dio ondorio negatiborik ekarriko. Errekak Espazio Librean Sistema Orokorrean barneratutako eremua zeharkatzen du eta, beraz, errekaen tratamendua espazio honetan ezartzen den antolamenduaren arabera egongo da. A priori, erabilera horrek errekaen egoera ekologikoa hobetzen lagun dezake.



5.3.3.6.2.- Baliabide naturalen galera

Jarduketa-eremuan garatuko litzetekeen landarediari dagokionez, hemen ere Bolingua eta Legarre-Arrajolako eremuetan ikusitakoaren antzeko egoera dugu. Eremuan hostozabalen basoa egongo litzateke, haitztia/baso misto atlantikoa nagusi izanik. Lehen azal dutako bi sektore horietan bezala, baso horren ordez, hainbat landaredi-unitate daude eta horiek hiri-inguruko areei dagozkien ezaugarriak dituzte.

Gaur egun, eremuak honako landaredi-unitate hauek barneratzen ditu, **EI-06-02** jarduketa-planoak azaltzen duen bezala:

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparrukop.
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	2.524	14.1	2
7. unitatea	Larrea / Sasia	388	2.2	2
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	12.552	69.9	1
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	2.499	13.9	4
Guztira		17.962	100.0	9

Ikus dezakegun bezala, eremuaren %70 belardiek eta partzela txikitik banatzen diren baratzeek osatzen dute.

Eremu horretan, egingo diren eraikinek (bai bizitegitakoek bai ekipamenduetakoek) eta bide-sistemak 6.594 m² hartuko dituzte; hau da, eremu urbanizagarriaren %37 eta 1C-102-Egazelai sektorean %55. Erabilera horiek gaur egun landaredi erruderal-nitrofiloa eta, bereziki, belardiak eta soro landuak aurki ditzakegun zonetan garatuko dira.

Landaredi interesgarriaren ikuspegitik, lizarrak, urkiak eta gereziendoak baino ez daude; zuhaixka-erako landaredia ere ikus daiteke, nagusiki hurrondoa (5. unitatea), baina soilik %100etik gorako maldak dituzten areetan. Unitate honen zati txiki bat ezabatu egin behar da aurreikusitako bidea eraiki ahal izateko, baina hori ez da inpaktu nabarmentzat hartu.

5.3.3.6.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eraginak

Bolinguaren kasuan bezala, paisaiaren gaineko eragin nabarmenenak obren fasean gertatuko dira; fase horretan, arearen ikus-kalitatean aldi baterako aurkako eragina izango dute, besteak beste, eraispen-lanek, lur-mugimenduek eta makinaren mugimenduek.



Hiri-bilbeko kota altuenetan kokatuta dagoenez, sektore hau ere ikuspen handikoa da eta, beraz, hiri-bilbearen goiko aldean kokatzen diren eraikinen tipologiak (2+B+4+atikoa) multzo osoaren ikus-kalitatean eragina izango du. Bestalde, aurreikusitako espazio librean tratamenduak eragin positiboa izan dezake hiri-paisaia osoan. Tratamendu hori dagokion garapen-plangintzan definituko da.

5.3.3.6.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Egazelaiko aerako lurren %40ak %50etik gorako maldak ditu; horrek asko mugatzen du lurren erabilera (EI-06-02) eta, beraz, horietan zuhaitz-erako landaredi iraunkorra jartzea proposatu da. Bestalde, guztira 3,4 inguru (arearen %19) hartzen dituzten zenbait lekutan %20 eta %30 bitarteko maldak daude. Zona horiez dira, hain zuzen ere, baratze gehienak hartzen dituztenak eta ahalmen agrologiko handiena dutenak.

Aurreikusitako bizitegi-garapena eremuaren iparraldean egingo da, egungo hiri-bilbearen ondoan; horren eraginez, ahalmen agrologiko ertaineko lurzorutik gutxi gorabehera 6.500 m² desagertuko dira.

5.3.3.6.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Jarduna burutzeko, oso garrantzitsuak ez diren zenbait lur-mugimendu egin beharko dira eraikuntza-plataforma sortu eta bidea egiteko. Plangintzaren fase honetan, ez dakigu lur-balantzearen azken emaitza zein izango den.

Behin jarduna bukatuta, sektore horretan egongo den etxebizitza- eta biztanle-kopuruak ez du hondakinen gehikuntza nabarmenik eragingo.

5.3.3.6.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Jardun honen ezaugarriak eta ondorioak Bolinguako jarduna aztertzerakoan deskribatutako enbakoak dira. Atal horretan esan den bezala, obren fasean eragozpenak sor daitezke obrako makinak eta ibilgailuen motoreetatik datozen hauts, zarata, bibrazio, errektuntza-gas eta abarren eraginez. Isuri horiek batez ere obrako langileengan euren eta inguruko etxeetan bizi direnengan izango dute eragina. Neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira eragin horiez arintzeko.



Errepide horrek berak eta hori hegoaldeko beste bidearen gainerakoarekin lotuko duenak sektorea heltzea erraztuko dute eta alboko auzoetarako sarbideak hobetuko dituzte. Hobekuntza horri esker, hirigunea zeharkatzen duen bide-sistema nagusiko trafikoa apur bat arinduko da.

Mugikortasunari dagokionez, Egazelaiko eremuak Bolinguakoaren antzeko ezaugarriak ditu. Batetik, eremua nolabait erdialdean dago (Untzagako plazatik zuzen joanda 300 metrora, gutxi gorabehera), baina, koten arteko alde nabarmenak direla-eta, kanpoaldeko eremuei dagozkien zenbait ezaugarri ere baditu. Eremua erdialdean egoteak eraikuntza berrietan biziko direnei oinez mugitzeko aukera emango die. Horrez gain, Sarbide Mekanizatuen Planean jasotako neurriak ere oso lagungarriak izango dira. Aurreko kasuetan aipatu den bezala, garraiobide publikoz mugitzeko erraztasunak ere eman beharko dira eta, beraz, garriobideak bizitegi-garapen berrietara egokitu beharko dira; horrek trafiko motordun pribatuaren hazkundera mugatu lezake.

“Egazelaiko parkeari” esker, eraikin-dentsitatea handia duten alboko auzoetako biztanleek aisiarako gune gehiago izango dituzte. Gainera, autobidea (A-8) erabiltzen duen trafikoa sortutako hots-kutsadura nolabait arintzen lagun dezake. Gaur egun, eremuko orografiari berari esker, zarata-mailak murriztu egiten dira eremu honetan.

5.3.3.6.7.- Eragin sozioekonomikoa

Arean, nekazaritzan diharduen baserri bat dago gutxienez; jarduera hori desagertu egingo da proposatutako esku-hartzea burutu ostean. %50etik gorako maldak dituen ekialdeko hegalean, biztanle askok eta askok euren kontsumorako diren baratzeak produktuak dituzte landatuta ordenarik gabe ezarritako baratze txikietan. Jarduera horren jarraipena hiri-inguruko parkea garatuko duen plangintzako zehaztapenen arabera egongo da.

Antolamenduaren arabera, egun dagoen eraikin bat ordenazioz kanpo dago eta, beraz, etxebizitza horretarako biztanleak beste lekuren batera eramane beharko dira bizitzera. Esku-hartzeak ondorio larriak dakarzikie pertsona horiei, nahiz eta kontuan izan behar den, baita ere, pertsona-kopuru hori nahikoa txikia dela esku-hartzearen beste zenbait ondoriorekin alderatuta. Esate baterako, babes ofizialeko erregimenera atxikitako 52 etxebizitza egitea onuragarria izango da ekonomia-egoera ahulean dauden biztanleriaren sektoreentzat.

5.3.3.6.8.- Kultura-ondarearen galera

Eremuan ez da kultura-ondareko elementurik identifikatu.



5.3.3.6.9.- Ondoriozko arriskuen analisisa

Eremuaren ipar-mendebaldeko hegaletan aurreikusitako jarduketak burutzerakoan, gogoan izan behar da arazo geoteknikoak egon daitezkeela. Oro har, malda horietan zuhaitz-landaredi iraunkorra mantentzea gomendatzen da.

5.3.3.6.10.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Inpaktuen balorazioa orokorra izan da, oraindik ez baitira ezagutzen eraikuntza-proiektuen eta egingo den hiri-parkearen ezaugarriak.

5.3.3.6.11.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa

Egazelaiko parkea sortzeak eragin positiboa izan dezake landaredian, faunan, paisaian, soinu-kalitatean eta eremutik gertu bizi diren biztanleei zuzendutako aisiarako aukeretan. Ondorio positibotzat hartu dira baita ere gizarte-egoera ahulagoan dauden sektoreei etxebizitza eskuratzeko aukera ematea eta irisgarritasuna hobetzea.

Kontrako ondorioen artean, bai eremua erabiltzen dutenek bai eremuan bizi direnek jasan beharreko eragin sozioekonomikoa; bi talde horiek beste leku batera eraman behar dira bizitzera, ekoizteko euren espazioa gal ez dezaten. Eragin horiei aurre egiteko, kaltetuak diruz konpentsatuko dira eta/edo beste leku batera eramango dira bizitzera, edo, bestela, ukitutako ustiategiak beste nonbait kokatuko dira, betiere, horiek lantzen jarraitzeko asmorik badago.

Esku-hartzea behin amaituta, ez da nabaritu magnitude esanguratsuko eraginik. Aurreikusten diren gauza bakarrak, paisaiaren aldaketarekin, bide berriko trafikoak ekarriko duen zarata-kutsadurarekin eta eraikin berriek sortuko dituzten hiri-hondakinekin zerikusia duten magnitude bateragarriko eraginak dira.


5.3.3.6 taulak aipatutako inpaktuen balorazia jasotzen du zehatz-mehatz.




5.3.3.6. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA





ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK														OBREN FASEAN		USTIAPEN FASEAN					
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKO	ALDI BATERAKO	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRISKURAGARRIA	BERRISKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILIAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	
Baliabide naturalen galera	Landaredia	+			+		+			+	+							+					+
	Fauna	+			+		+			+	+							+					+
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea																						
	Akuiferoen urrakortasun handia																						
	Intereseko espazio katalogatuak																						
	Kultura-ondare katalogatua																						
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+	x	x	+	x	+	x	+	x		+	x		x		x	Neur.	Bat.	Bat.		+	
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna		x		x		x		x		x			x		x		Bat.					
	Gaitasun handiko lurzoruen galera		x	x			x	x			x			x		x		Neur.	Bat.				
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x			x	x		x	Neur.	Bat.				
	Hondakinen sorrera		x		x		x		x		x		x	x						Bat.			
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura		x	x		x		x			x		x	x		x		Neur.	Bat.				
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x	x		x		Neur.	Bat.				
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x	x		x				Bat.			
	Ekipamenduak – Espazio libreak	+		+		+		+	+												+		
	Mugikortasuna - irisgarritasuna	+			+		+		+	+							+						+
Sozioekonomia	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien galera		x		x		x		x	x			x		x		x	Lar.	Neur.				
	Bizileku berria hartzea		x	x			x	x		x				x	x		x	Lar.	Neur.				
	Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko aukera	+		+			+		+	+											+		
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																						
Ondoriozko arriskuak	Arrisku geoteknikoak		x	x		x		x		x				x	x		x	Neur.	Bat.				





 Udalerri Mugak
 Límite del Término Municipal

 Lurzoru Urbanizagarria eta Bizitegi Garapena Egazelain
 Suelo Urbanizable y Desarrollo Residencial en Egazelain


Eraikuntza / Edificación

-  Eraikin Finkatuak
Edificios Consolidados
-  Proposatutako Eraikinak
Edificios Propuestos
-  Burutzen Ari Diren Eraikinak
Edificios en Ejecución
-  Proposatutako Ordenazioa
Ordenación Propuesta

 Espazio Librean Sistema Orokorra
 Sistema General de Espacios Libres




EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR




**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
 BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
 DE IMPACTO AMBIENTAL**

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 6.- LURZORU URBANIZAGARRIA ETA
 BIZITEGI GARAPENA EGAZELAIN
EI-06-1
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 6.- SUELO URBANIZABLE Y DESARROLLO
 RESIDENCIAL EN EGAZELAI



E:1/2.500 (A3)



2007



<p>Udalerrir Mugak Límite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Lurzoru Urbanizagarria eta Bizitegi Garapena Egazelaing Suelo Urbanizable y Desarrollo Residencial en Egazelaing</p> <p>Proposaturiko Ordenazioa Ordenación Propuesta</p> <p>Maldak / Pendientes</p> <p>Malda %50-100 Pendiente entre 50 y 100%</p> <p>Malda > % 100 Pendiente superior al 100%</p>	<p>Landaretza / Vegetación</p> <p>1 Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) Hayedo (Calcicola-Eutrofo o Acidifilo)</p> <p>2 Kararitzko Gailurreko eta Haltzebakien Oneko Landaredia Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo</p> <p>Artadi Kantauriarra Encinar Cantábrico</p> <p>4 Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa Robledal Acidifilo y Robledal-Bosque Mixto</p> <p>5 Hariztien gazte-fasea edo fase anderaua Fase Juvenil o Degradada de Robledal</p> <p>6 Haltzadi Kantauriarra Aliseda Cantábrica</p> <p>7 Belardia / Sastraka Pastizal / Matorral</p> <p>8 Konifera Landaketak Plantaciones de Coníferas</p> <p>9 Belardi Menditarra Pradera Montana</p> <p>10 Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak Prados y Cultivos Atlánticos</p> <p>11 Landaredi Erruderal-Nitrofiloa Vegetación Ruderal - Nitrofila</p>
--	---

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

ASESORIA AMBIENTAL

**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

6.- LURZORU URBANIZAGARRIA ETA
BIZITEGI GARAPENA EGAZELAIN

EI-06-2

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
6.- SUELO URBANIZABLE Y DESARROLLO
RESIDENCIAL EN EGAZELAI

E:1/1.000 (A3)

2007



5.3.3.7.- Bizitegi-erabilerako hiri-lurzorua handitzea Amañan

Jarduketa horren bidez, Amaña auzoan hiri-lurzoruaren mugak handituko dira eta hiri-hutsuneak bete eta auzoa erabat urbanizatze aldera, gune berrietan bizitegi-eraikinak jarriko dira. Zabalduko eremuak (108.01 Asola Igartza egikaritze-unitateak) 5.561 m²-ko azalera du.

HAPNaren arabera, bertan 81 etxebizitza egingo dira, bloke irekiko tipologian (2 eraikuntza) eta B+4 profilarekin. Etxebizitza guztiak babes ofizialekoak izango dira. Garapen horri esker, 2.267 m² hartuko dituen espazio libreen zona sortuko da, landa-eremurako igarobide gisa.

Bizitegi-garapena nolabait Amaña auzoaren luzapena da, egungo hiri-bilbearen eta saihebidetako (N-634) zeharkatuko duen eremuaren artean (tarte horretan, saihebidetako tunelean barrena doa). **EI-07-01** jarduketa-planoak arearen muga, HAPNak aurreikusitako antolamendua eta saihebidetaren trazadura jasotzen ditu, hori guztia onetsitako trazadura-proiektuaren arabera.

5.3.3.7.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonen gaineko eragina

Jarduketa-arean, ez da identifikatu ingurumenaren aldetik sentikorra den zonarik.

5.3.3.7.2.- Baliabide naturalen galera

Jarduketa-eremuak, izatekotan hostozabalen baso mistoa izan beharko lukeenak, andeatutako landaredia du; nagusiki, sasiak eta hostozabalen ale bakanak aurki daitezke. Aipatu beharra dago eite nabarmeneko haritz (*Quercus robur*) eta lizar (*Fraxinus excelsior*) gutxi batzuk ere badaudela. Landaredi-unitate ezberdinek hartzen dituzten azalerak honako hauek dira, **EI-07-02** jarduketa-planoak jasotzen duen bezala:

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparrukop.
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	212	3.8	1
7. unitatea	Larrea / Sasia	3.189	57.4	2
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	698	12.5	1
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	1.461	26.3	1
Guztira		5.561	100.0	5



Zona honen orografia ikusita (azaleraren %91n %50etik gorako maldak ditu, EI-07-02 jarduketa-planoak ezartzen duen moduan), esku-hartzea burutzeko inausketa nabarmenak egin beharko dira eta, beraz, pentsa dezakegu jarduketak eragina izango duela landaredian (zona honetan landarediak ez da oso interesgarria).

Kaltetutako eremua ez dago faunaren aldetik interes berezia duten areen artean.

5.3.3.7.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eraginak

Area hau ikuspen handiko eremua da, nagusiki Ego ibaiaren eskuinaldean kokatutako hegalek guztietatik eta, bereziki, A-8 autobidetik; hori dela-eta, pentsa dezakegu jardunak paisaian eragin nabarmena izango duela, batez ere, obren fasean.

Behin esku-hartzea amaituta, horrek paisaian izan duen eragina nolabait murriztu egingo da, bizitegi-garapenerako esku-hartzea izanik, egungo hiri-bilbearen jarraipen modukoa izango delako eta bertako eraikinen profil bera izango duelako (B+4). Halaber, onartu beharra dago egungo hiri-bilbearen eta saihebidetaren artean sortzen den eremua hiri-parke modura jartzea, hasiera batean, eta paisaiaren ikuspegitik, irtenbide koherenteagoa dela udalerriaren gainerakoan (Barrenan, Asua-Errekan, Sakunen, Legarren eta Amaña auzoaren ekialdean) garatutako proposamenekin.

5.3.3.7.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Jarduketaren helburu diren lurren %90ak baino gehiagok %50etik gorako maldak dituzte, eta, beraz, horietan produktibitate ekologikoa eta nekazaritzakoa nahikoa eskasak dira. Ditutzen muga agrologikoen ondorioz, lur horiek zuhaitz-landaredi iraunkorra izan beharko lukete.

5.3.3.7.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Obren fasean, esku-hartzeak lur-mugimendu ugari egin beharra dakar. A priori, esan dezakegu lurren balantzea positiboa izango dela. Plangintzaren fase honetan oraindik ez da zehaztu soberakin horien xedea; nolana ere, behar bezala, kudeatu beharko dira.

Ustiapen-fasean, hiri-hondakinak gehitu egingo dira, nahiz eta bizitegi-garapenari dagokion jarduna ikusita, ez den ondorio esanguratsutzat hartzen.



5.3.3.7.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Esku-hartzeak ez du eragin nabarmenik hiri-ingurumenean, haren garrantzia nahikoa eskasa baita. Area honetan izango den biztanle-hazkundera sarbideetan trafikoa gehitzea eragin dezake eta horrek ere airearen kutsadura eta hots-kutsadura gehitzea ekarriko du.

Obren fasean eragozpenak sor daitezke obrako makinaren eta ibilgailuen motoreetatik datozen hauts, zarata, bibrazio, errekontza-gas eta abarren eraginez. Isuri horiek batez ere obrako langileengan euren eta inguruetan (Amaña auzoko goiko aldean) bizi direnengan izango dute eragina. Neurri zuzentzaileak ezarri beharko dira eragin horiek arintzeko.

Esku-hartze horren bidez, bizitegi-garapena egingo da saihesbidearen aurreikusitako trazaduratik oso gertu. Saihesbidearen 3. Faseari dagokion trazadura-proiektuari buruzko Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko Azterlanak honako hau dio: *“zarataren aurreikuspena egiteko, eraikuntza-proiektuaren inguruko azterlan zehatza idatzi beharko da. Lortutako emaitzak aintzat hartuta, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak proiektatutako dira.”* Azterlanak bereziki gatazkatsua izan daitezkeen zonen artean aipatzen du Amañako hirigunea. Hala ere, aipatu beharrekoa da, trazadura-proiektuak aurreikusten duen bezala, eremuaren inguruetan, saihesbidea tunelean barrena joango dela; sarrera gutxienez 80 bat metrora jarriko da. Zonaren orografiari erreparatuz gero (soinu-igorpeneko eremu hau eta bizitegi-garapenerako proposatutako eremua fisikoki banatzen dituen muinoa dago), esan dezakegu hots-kutsadura Amaña auzoko beste area finkatu batzuetakoa baino txikiagoa izango dela.

Mugikortasunari dagokionez, Amañako eremua kanpoaldeko zonatzat har daiteke, ez bakarrik bertatik hirigunera dagoen distantziagatik (Untzagako plazatik zuzen joanda 850 metrora dago gutxi gorabehera eta Alfako erdialdeko eremutik apur bat gutxiagora), baizik eta baita bertara iristeko dauden zailtasunengatik eta koten arteko aldeagatik (50 m-koa) ere. Eremu horretan zaila da ibilgailu motorduna ez den beste baliabide batez baliatuta mugitzea, oro har oso maldatsua baita; hala ere, hobetzen doa Sarbide Mekanizatuen Planean jasotako neurriek esker. Aurreko kasuetan aipatu den bezala, garraiobide publiko mugitzeko erraztasunak ere eman beharko dira eta, beraz, garraiobideak bizitegi-garapen berrietara egokitu beharko dira; horrek trafiko motordun pribatuaren hazkundera mugatu lezake.

5.3.3.7.7.- Eragin sozioekonomikoa

Jardunak ez du eragin sozioekonomiko nabarmenik, nahiz eta babes ofizialeko erregimenera atxikitako 81 etxebizitza horiek eraikitzea oso onuragarria izango den ekonomia-egoera ahulean dauden biztalen sektorearentzat. 81 etxebizitza horiek hiri osorako HAPNak aurreikusita dituen babes ofizialeko etxebizitzaren %14 dira.



5.3.3.7.8.- Kultura-ondarearen galera

Eremuan ez da kultura-ondareko elementurik identifikatu.

5.3.3.7.9.- Ondoriozko arriskuen analisisia

Jarduketaren xede izango den hegalean flyshoide izaerako materialak daude eta %50etik gorako maldak ikus daitezke. Arearen %93ak %50etik gorako maldak ditu eta arearen %21ak, berriz, %100etik gorakoak. Definizioz, zona horiez higadura-arrisku handia dute eta bertan, obren fasean, lur-irristatzeak gerta daitezke.

Ustiapen-fasean, azalera iragazgaitz gehiago egongo denez eremua urbanizatzearen ondorioz, ura iragazteko ahalmena murriztu egingo da. Eremu honek azalera txikia duenez, area baino beherago dauden eremuak ez daude uholde-arriskuan.

5.3.3.7.10.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Iragarri dezakegun bezala, plangintzaren fase honetan, ez dira ezagutzen aztertu ditugun ingurumeneko elementuetatik (batez ere paisaia) bateren baten balorazioan eragina izan dezaketen eraikuntza-proiektuaren ezaugarri zehatzak, besteak beste, lur-balantzeari, behin betiko ezpondei eta paisaia lehenera ekartzeko planei buruzko datuak.

5.3.3.7.11.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa

Obren fasean, eragin aipagarrienak honako hauek dira: paisaia aldatzea, soberakinak sortzea, higadura edo irristatzeak gertatzea, eta lanak burutzerakoan ohikoak diren eragozpenak sortzea (hots-kutsadura). Eragin horiek aurkakoak, aldi baterakoak eta epe laburrekoak dira, besteak beste, eta, beraz, neurri zuzentzaileak onartzen dituzte, horien ondorioak arintze aldera; izan ere, ondorio horiek larriak izan daitezke kasuan kasuko neurriak ezarri ezean.

Paisaiaren gaineko eragina behin esku-hartzea amaituta ere antzemango da, nahiz eta horren garrantzia neurrizkoagoa izango den eta, aipatu bezala, eraikuntza-proiektuan zehaztutako ezaugarriek (ezpondak, eraikinen tipologia, e.a.) eta paisaia leheneratzeko egin beharreko planak baldintzatuko duten.

5.3.3.7 taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta balorazioa jasotzen ditu zehatz-mehatz.









5.3.3.7. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK												OBRENFASEAN		USTIAPENFASEAN						
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILLEAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU
Baliabide naturalen galera	Landaredia	x	x				x	x		x					x	x	x	Bat.	Bat.			
	Fauna	x	x				x	x		x				x	x	x	x	Bat.	Bat.			
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea																					
	Akuiferoen urrakortasun handia																					
	Intereseko espazio katalogatuak																					
	Kultura-ondare katalogatua																					
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	x	x		x		x		x				x		x	x	x	Lar.	Neur.	Neur.	Bat.	
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna	x	x			x			x			x	x		x					Bat.		
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																					
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea	x	x		x		x				x		x	x		x		Lar.	Neur.			
	Hondakinen sorrera	x		x		x		x		x		x		x		x				Bat.		
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura	x	x		x		x			x		x		x		x		Neur.	Bat.			
	Ingurune-hotsa. Obren fasea	x	x		x		x			x		x		x		x		Lar.	Neur.			
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea	x		x		x		x		x		x		x		x				Neur.	Bat.	
	Mugikortasuna - irisgarritasuna	x		x		x		x		x		x		x		x				Neur.	Bat.	
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina																					
	Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko aukera	+		+			+		+	+										+		
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																					
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua	x		x		x		x		x			x		x		x	Bat.		Bat.		
	Arrisku geoteknikoak	x	x		x		x					x		x	x		x	Lar.	Bat.			



N-634 Saihesbidearen
Proiektuaren Trazadura

Trazado del Proyecto
de Variante N-634

-  Udalerri Mugak
Límite del Término Municipal
- Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación**
-  Bizitegitarako Lurzoru Urbanoaren Azalera Handitzea Amañan
Ampliación de Suelo Urbano para Uso Residencial en Amaña
- Eraikuntza / Edificación**
-  Eraikin Finkatuak
Edificios Consolidados
-  Proposaturiko Eraikinak
Edificios Propuestos
-  Burutzen Ari Diren Eraikinak
Edificios en Ejecución
-  Proposaturiko Ordenazioa
Ordenación Propuesta



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA


ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
7.- BIZITEGITARAKO LURZORU URBANOAREN
AZALERA HANDITZEA AMAÑAN

EI-07-1

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
7.- AMPLIACIÓN DE SUELO URBANO PARA
USO RESIDENCIAL EN AMAÑA




E:1/2.500 (A3)  25 0 25 50 m 2007



<p>Udalerrir Mugak Límite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Bizitegitarako Lurzoru Urbanoaren Azalera Handitzea Amañan Ampliación de Suelo Urbano para Uso Residencial en Amañan</p> <p>Proposatuturiko Ordenazioa Ordenación Propuesta</p> <p>Maldak / Pendientes</p> <p>Malda %50-100 Pendiente entre 50 y 100%</p> <p>Malda > %100 Pendiente superior al 100%</p>	<p>Landaretza / Vegetación</p> <ol style="list-style-type: none"> Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) Hayedo (Calcófila-Eutrofo o Acidoiflo) Kararrizko Gallurreko eta Haitzebakien Oineko Landaredia Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calzo Artadi Kantauriarra Encinar Cantábrico Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa Robledal Acidoiflo y Robledal-Bosque Mixto Hariztiren gazte-fasea edo fase anderatua Fase Juvenil o Degradada de Robledal Haltzadi Kantauriarra Aliseda Cantábrica Belardia / Sastraka Pastizal / Matorral Konifera Landaketak Plantaciones de Coníferas Belardi Menditarra Pradera Montana Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak Prados y Cultivos Atlánticos Landaredi Eruderal-Nitrofiloa Vegetación Ruderal - Nitrofila
---	---

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA


PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



ASESORIA AMBIENTAL

**INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL**




ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
7.- BIZITEGITARAKO LURZORU URBANOAREN
AZALERA HANDITZEA AMAÑAN

EI-07-2

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
7.- AMPLIACIÓN DE SUELO URBANO PARA
USO RESIDENCIAL EN AMAÑAN

E:1/1.000 (A3)



2007



5.3.3.8.- Txonta eremuaren antolamendu berria

HAPNak Txonta auzoa suspertzeko proposamena egin du (Txonta I, II eta III eremuak); horretarako, oraingo industria-erabilerak bizitegi-erabilera bihurtuko dira. Auzo hori ibarbide homonimo estu batean garatzen da, eta gaur egun industria- eta bizitegi-erabileren nahastea dauka, baina lehenengoak nagusitzen dira.

Jarduketa-eremuak 140.601 m²-ko azalera dauka. Antolamendu berriaren barruan, eraginpeko eraikinen eraispena sartzten da (horietariko asko industria-instalazio zaharkituak baitira), baita etxebizitza berrien eraikuntza, sarbideen birmoldaketa eta espazio libreen sorrera ere. Jarduketak irtenbidea aurkitu beharko die industrien, etxebizitzaren eta biztanleen lekualdatzei eta horien kokaleku berriei.

Bide-sistema, bestalde, bide perimetral baten bidez konpontzen da; hori “auzo arteko” bidetik irteten da eta bizitegi-proposamena inguratzen du; horrela, erdiko aldea oinezkoen zonatzat askatzen da. Oinezkoen trazadura hori Txonta erreka-eremuaren gainean kokatzen da, eta hori orain hiri-garapenaren azpitik doa. Esku-hartzearen eraginez, oraingo etxebizitzaren ordez (antolamendutik kanpoko 215 etxebizitza) gehienez ere 1.049 etxebizitza berri eraikiko dira, eta horietatik 88 (%10 etxebizitza kopuruaren hazkundeari dagokionez) babes ofizialekoak izango dira.

Arean, espazio libreen 67.270 m² egongo dira (eremuaren azalera osoaren %48).

EI-08-01 jarduketa-planoan, jarduketaren muga, oraingo drainatze-sarea eta HAPNan proposaturiko antolamendua jasotzen dira.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorretik eta Ingurumen Inpaktua Batera Ebaluatzeko prozedura arautu duen 183/2003 Dekretutik ondorioztatzen denez, eremuaren planeamendua garatuko duen Barne Erreformako Plan Berezia (BEPB) Ingurumen Inpaktua Baterako Ebaluatzeko prozeduraren menpe jarri behar da. 3/1998 Legeko I. Eranskinen A kapituluko 6. artikuluan eta 183/2003 Dekretuko 3.1 artikuluan, ingurumen-inpaktua batera ebaluatzeko prozedurari lotutako planen zerrendan, “Lurzoru urbanizaezinean eragina duten plan bereziak eta horien aldaketak” sartzten dira.



5.3.3.8.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Proposaturiko jarduketak eragina dauka Jabari Publiko Hidraulikoan, azterturiko eremutik doan zatian. Gaur egun, Txonta erreka estalita doa, Txonta auzoko aparkalekura iristen denetik (azterturiko eremuan) urak Ego ibaian isuri arte, eta tarte horretan ere estalita dago (**EI-08-01**). Txonta erreka estali gabe doa 150 m inguruko tartean, eremuaren hasieratik auzoaren hiri-garapenaren azpian estali arte. Estali gabeko zatia bideraturik dago, inklinaturiko harri-lubeta motako defentsak ditu eta hala-holako integrazio-maila dauka. Zati horretan gutxi gorabehera metro lekoak diren bi jauzi artifizial daude. Eskuineko ertzeko landarediak kontserbazio-maila hobea dauka, ez baitago bertarako irisgarritasunik. Bertan espezie erriparioak (haltzak, lizarrak...) eta landaturiko espezieak (koniferoak) txandakatzen dira. Ezkerreko ertzean, landaredia erriparioa narriaturik dago eta zuhaitzak nagusitzen dira (hurritza, sahatsa...). Jabari Publiko Hidraulikoa okupatzen duten eraikin eta azpiegitura batzuk ikusten dira eta horiek ia ubidearen mugaraino iristen dira.

Antolamenduaren barruan erreka-stoaren azalera sartzen da, 35 m-ko luzeran, hori orain estalita baitago.

Jarduketa-eremuan ura erakartzeko gune bat dago, eta hori Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) datu-basean jasota dago; bertan iturburutzat agertzen da, "Txonta II" izenarekin.

5.3.3.8.2.- Baliabide naturalen galera

Gaur egun, jarduketa-eremuan, honako landaredi-unitateak bereiz ditzakegu, **EI-08-02** jarduketa-planoak jasotakoari jarraiki:

Lurzoruaren okupazioa landaredi-unitateen arabera				
Kodea	Landaredi-unitatea	Azalera (m ²)	%	Esparru-kop.
4. unitatea	Hostozabalen baso mistoa	5.597	4.0	5
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gaztaroko fasea edo degradazio-fasea	20.702	14.7	10
7. unitatea	Larrea / Sasia	7.355	5.2	3
8. unitatea	Koniferoen baso-sail berriak	8.142	5.8	2
10. unitatea	Belardi eta labore atlantikoak	40.724	29.0	9
11. unitatea	Erruderal-nitrofiloa	58.081	41.3	3
Guztira		140.601	100.0	32

Proposaturiko esku-hartzea, batez ere, 11. unitateak okupaturiko eremuan garatzen da (eredu osoaren %41), eta bertako landaredia urria erruderal-nitrofiloa da. Hala eta guztiz ere, bizitegi-garapen berria inguratzen duen bide-azpiegitura berriak eta horren eraginezko basoko mozketek eragina dute landaredia interesgarriko eremu batzuetan (4. eta 5. unitateak).



Espazio libreetarako azaleraren zati bat zona berdeetarako erabiltzeak (eremuaren azaleraren ia erdia) eremuko landaredia hobetzea eragingo luke.

5.3.3.8.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eragina

Oraingo hiri-egituraren kalitate baxuaren eraginez, esan daiteke hirigintzako esku-hartzeak paisaiaren gaineko eragin positiboa izango duela. Hiri-inguruan dagoen eremu andeatua da, hiri-jabariaren eta nekazaritzako nahiz basoko jabariaren arteko trantsiziokoa, eta antolamendu argiagoa eta hobea lortuko luke. Espazio libreak lortuta (azaleraren %48) eta zona berde berriak sortuta, eremuaren ikus-kalitateak hobera egingo du modu nabarian.

Bestalde, estali gabeko zatiaren luzera txikia denez, Txonta auzoak errearen trazadura ardatz nagusizat berreskuratuko du, hori orain hiri-garapenaren azpian baitago. Bide perimetralaren betearazpenak ere (batik bat obren fasean) eragin txarra izan dezake, erliebe naturalean aldaketak egin beharko baitira, ibarbidearen ekialdeko maldan.

5.3.3.8.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Esku-hartzea egiteko erabiliko den eremuaren %40 baino apur bat gehiago urbanizaturik dago orain. Eraginpeko gainerako lurzoruek (galera itzulezinekoak) ez dute gaitasun agriologiko handirik. Nekazaritza-jarduerak, berriz, zenbait faktorek mugatzen dituzte, batik bat bertako malda handiek. Nekazaritzako produktibitatearen galera ez da garrantzitsua.

5.3.3.8.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Eragiketan hondakinak sortuko dira, oraingo eraikinak eraistearen ondorioz, eta horiek ondo kudeatu behar dira, euren jatorria eta kutsadura-maila aintzat hartuz. Bestalde, bidearen eraikuntzan egingo diren basoko mozketek ere soberakinak sortuko dituzte.

5.3.3.8.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Egoera txarrean dauden industria-instalazioak sarbide, irudi eta saneamendu egokiko industria-eremura eramateak eragin ona izango du hiri-ingurumenaren kalitatean.

Obra amaitu ondoren kutsadurak ez du gora egingo. Aldiz, Txonta eremuan industria-jarduerak desagertzearen ondorioz, oraingo airearen kutsadurak eta kutsadura akustikoak behera egingo dute. Txonta ibaiaren goiburuan industrialdea sortzeko proposamena ez da onartu, eta horrela, trafikoa eta kutsadura murriztu egingo dira bizitegi-eremuaren inguruko bidean; horrenbestez, eremuko kalitate akustikoa hobetu egingo da.



5.3.3.8.7.- Eragin sozioekonomikoa

Suspertze-eragiketak ez du kanpoko baliabide ekonomikorik; izan ere, Urban (EB), Izartu (EJ) eta Narriaturiko eremuen suspertzea (GFA) izeneko programen administrazio eskudunen ustez ez da bidezkoa horiek ematea. Hori dela-eta, HAPNak planteatzen du jarduketaren bide-egitura (enpresen lekualdaketa, eraikinen eraispena...) aurreikusteko moduko hirigintza-aprobetxamenduen menpe soilik egotea.

5.3.3.8.8.- Kultura-ondarearen galera

Kultura-intereseko elementuek ez dute eraginik jasango.

5.3.3.8.9.- Ondoriozko arriskuen analisisa

Proposatutako neurriek kontuan hartzen dituzte orubeen gaineko jarduketak, eta horiek IHOBek (1998) egindako inbentarioan (“Lurzorurako kutsagarriak izan daitezkeen jardueradun Kokalekuen Inbentarioa”) Eibarko udalerrirako dagokion zerrendan sartuta daude. **EI-08-02** jarduketa-planoan kokaleku horiek jasotzen dira.

Uholdeen Prebentziorako Euskadiko Plan Integralean (UPEPI) jasotakoaren arabera, zona hori ez dago jasota uholde-arriskua duten eremuen artean, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiei dagokienez. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritza uholde-arriskuko zonak mugatzeko ikerketa egiten ari da, EAEn 500 biztanle baino gehiago duten herriei dagokienez, 500 urteko birgertatze-aldia kontuan hartua. Txontako BEPBk kontuan hartu beharko du informazio hori, behintzat erabilgarri gonez gero.

5.3.3.8.10.- Hierarkian gorago dauden planetako ikuspegiak

LAK eta Eibarko LPPk lehenetsuna ematen diote Eibarren dauden industrialde zaharkituak suspertzeari. Hain zuzen ere, LPPan hauxe esaten da: “*hiri-itotze handieneko eta lurralde-gaitasun txikiaren udalerrietan (besteak beste, Eibarren), biziagotu egingo dira hiri-birmoldaketako eta hirigintza berriko lanak, zaharkituriko industrialdeei dagokienez, eta horien ordez dentsitate ertaineko (60-70 etxeb./Ha.) bizitegi-eremuak sortuko dira*”.

EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko LPSk ezartzen duenez, ibaiertzetan egiten diren jarduketa hidraulikoak Iparra III Plan Hidrologikoaren 5. ataleko 1. azpiatalean (“Ikerketei, Jarduketei eta Obrei buruzko Irizpideak”) ezarritako irizpideen arabera arautuko dira, uholdeen, ureztatzen edo beste fenomeno hidrauliko batzuen eraginezko kalteak ekiditeko (2.1.5.1.1. eta 2.1.5.1.17 bitarteko arauak).



LPSan ezarritakoaren arabera, “orokorrean, ekidin egingo dira estalitako bideratzeak. Ubidearen estaldura ezinbestekoa bada, drainatze-arroa 0.5 km²-tik gorakoa izanez gero, sekzioa agerian egongo da; gutxienez 1.8 m-ko altuera eta 1.5 m-ko zabalera izango du”. Gainera, “ezinbestekoa izateko, beharrezkoa izango da azpiegiturak eta arroko goialdeetako kasu bereziak izatea, hirigintza handiko eremuetan, eta horien drainatze-azalera 1 km²-tik beherakoak izango dira (Txonta erreka 2,1 km²-ko drainatze-azalera dauka); kasu horretan, justifikazio hidraulikoari buruzko ikerketa egingo da”.

Eraikinetarako distantziari dagokionez, LPSan ezarritakoaren arabera, “hiri-garapenaren zaharkitzapenaren eraginez eraikuntza berri behar denean (...), ertzetik eraikuntzarako distantzia orokorra izango da (10-12 m), salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta horietan, Hirigintza Planaren bidez (BEPB), eraikuntza berriaren lerroa lehendik dagoen lerrokadura hurbiltzeko eta horrekin bat etortzeko komenigarritasuna eta beharizana justifikatu beharko da”.

5.3.3.8.11.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Garapeneko plangintzaren ondorengo faseetan (BEPB), basoko mozketak egitearen, trazadura aldatzearen eta abarren ondoriozko eraginaren ebaluazioan sakondu ahal izango da, hori agiri honetan modu orokorrean egin baita.

5.3.3.8.12.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa

Eraginik garrantzitsuenak obren fasean gertatuko dira. Fase horretan eragina egongo da jabari publiko hidraulikoan, zuhaitzen masetan eta paisaian, eta gainera, hondakin bizigabeak nahiz hiri-hondakinak, zaratak, hautsa, bibrazioak eta airearen kutsadura zein uren kutsadura sortuko dira. Eragin horiek guztiak minimizatu egin daitezke, dagokion atalean azaldutako neurri zuzentzaileen bidez. Jarduketa-eremuan, lurzorua kutsatzeko arriskua duten jarduerak dituzten kokalekuak daude. Eragina, izan ere, lurzoruaren kalitate-ikerketen emaitzen arabera izango da, eta halako ikerketak lur-mugimenduak baino lehen egin beharko dira.

Obrak amaitu ondoren, eragina garapeneko plangintzaren ezaugarrien arabera izango da, neurri batean. Fase honetan aztertutako eraginak ez dira handiak, errekaaren zati bat aldatu eta estali beharra kenduta.

Aipaturiko eraginik gehienek neurritzko eragina dute obren fasean, proposaturiko neurri zuzentzaileak kontuan hartuz gero. Fase horretan drainatze sarearen gainean egon den eragina larria da, eta gainera, arriskuak daude kutsaturik egon daitezkeen lurzoruei dagokienez.

Obrak amaitu ondoren, eragina bateragarria izango da, baldin eta proposaturiko neurri zuzentzaileak betetzen badira.




Bestalde, antolamendu berriak landaredian, paisaian, espazio libreen sorreran eta hiriko ingurumenaren kalitatean izango duen eragina positiboa da; halaber, aipagarriak dira airearen kutsaduraren nahiz akustikoaren murriztapena eta uren kutsaduraren murriztapena, industria-prozesuak eta instalazioak hala-holako egoeran mantentzeak kutsadura hori sortzen baitu.

5.3.3.8. taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa jasotzen ditu zehatz-mehatz.








5.3.3.8. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK													OBRENFASEAN		USTIAPENFASEAN					
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKO	ALDI BATERAKO	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILLEAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILLEAK DITU
Baliabide naturalen galera	Landaredia		x	x			x	x							x				Neur.	Bat.	Bat.	+
	Fauna																					
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea		x	x			x	x					x		x		x		Lar.	Neur.	Neur.	Bat.
	Akuiferoen urrakortasun handia																					
	Intereseko espazio katalogatuak																					
	Kultura-ondare katalogatua																					
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+	x	x		x	+	x		+	x				x	x			Neur.	Bat.	Bat.	+
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna		x		x				x		x				x		x				Neur.	Bat.
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																					
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x			x	x		x		Neur.	Bat.		
	Hondakinen sorrera		x		x		x		x		x		x								Bat.	
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura	+	x	x		x		x			x		x		x		x		Neur.	Bat.	+	
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x		Neur.	Bat.		
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea	+			+				+		+						+					+
	Ekipamenduak - Espazio libreak	+		+					+		+											+
	Mugikortasuna - irisgarritasuna	+		+					+		+											
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina		x	x			x	x			x			x		x			Neur.	Bat.		
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																					
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua		x		x		x		x		x		x		x		x				Neur.	Bat.
	Kutsatutako lurzorua		x	x		x		x				x	x		x		x		Lar.	Neur.		Bat.
	Arrisku geoteknikoak																					



<p>Udalerrir Mugak Límite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Berrantolaketa eta Bizitegi Garapena Txontan Reordenación y Desarrollo Residencial en Txonta</p> <p>Eraikuntza / Edificación</p> <p>Eraikin Finkatuak Edificios Consolidados</p> <p>Proposatutako Eraikinak Edificios Propuestos</p> <p>Burutzen Ari Diren Eraikinak Edificios en Ejecución</p> <p>Proposatutako Ordenazioa Ordenación Propuesta</p>	<p>Drainatze sarea Red de Drenaje</p> <p>Egungo Sarea Red Actual</p> <p>Proposatutako Sarea Red Propuesta</p> <p>Ur Puntuak / Puntos de Agua</p> <p>Iturburua Manantial</p> <p>Gainazal Ur Hargunea Captación Superficial</p> <p>Ustiaper Zundaketa Sondeo de Explotación</p>
--	---

 <p>EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA</p> <p>PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR</p> 	<p>INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA</p> <p>ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL</p>	<p>ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA</p> <p>8.- BERRANTOLAKETA ETA BIZITEGI GARAPENA TXONTAN</p> <p>EI-08-1</p> <p>IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS</p> <p>8.- REORDENACIÓN Y DESARROLLO RESIDENCIAL EN TXONTA</p> 
<p>E:1/5.000 (A3)</p>  <p>2007</p>		



<p>Udalerrir Mugak Límite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Berrantolaketa eta Bizitegi Garapena Txontan Reordenación y Desarrollo Residencial en Txonta</p> <p>Maldak / Pendientes</p> <p>Malda %50-100 Pendiente entre 50 y 100%</p> <p>Malda > %100 Pendiente superior al 100%</p> <p>Proposatutako Ordenazioa Ordenación Propuesta</p>	<p>Landaretza / Vegetación</p> <ol style="list-style-type: none"> Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa) Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidófilo) Kararitzko Gailurreko eta Haltzebakien Oineko Landaredia Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo Artadi Kantauriarra Encinar Cantábrico Harizki Azidoifloa eta Harizki - Baso Mistoa Robledal Acidófilo y Robledal-Bosque Mixto Hariztiren gazte-fasea edo fase aheratua Fase Juvenil o Degradada de Robledal Haltzadi Kantauriarra Aliseda Cantábrica Belardia / Sastraka Pastizal / Matorral Konifera Landaketak Plantaciones de Coníferas Belardi Menditarra Pradera Montana Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak Prados y Cultivos Atlánticos Landaredi Erruderal-Nitrofiloa Vegetación Ruderal - Nitrofila 	<p>Poluituta egon daitezkeen Lurzorruak Suelos Potencialmente Contaminados</p> <ul style="list-style-type: none"> Industrialia Industrial Geldirik dagoen Industria Inactivo Aurriak Ruina Orubea Solar Zabortegia Vertedero
---	---	---

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

ASESORIA AMBIENTAL

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
8.- BERRANTOLAKETA ETA BIZITEGI GARAPENA TXONTAN

EI-08-2

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
8.- REORDENACIÓN Y DESARROLLO RESIDENCIAL EN TXONTA

E:1/5.000 (A3)

2007



5.3.3.9.- Kanposantua Altamirara eramatea

Egungo hilerria, gaur egun herri barruan dagoen lekutik Altamira izeneko lekura eramatea proposatzen du HAPNk. Hilerri berria gaur egun Altamira Goikua baserria dagoen lekuaren inguruan egingo litzateke, eta 14,1 Ha hartuko lituzke gutxi gorabehera.

Jarduera gauzatuko den esparrua Plan Berezi baten bidez garatuko da, HAPNaren Dokumentuan jasotzen den bezala, eta Lurzoru Urbanizaezinari dagokio; horregatik, hain zuzen Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren prozeduraren mende jarri behar da, prozedura hori arautzen duen 183/2003 Dekretuaren I. Kapitulua, 3. Artikuluak adierazten duen bezala.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Legearen I. Eranskinean eskatzen diren betekizun guztiak betetzen ditu jarduera honek; agindu horren arabera Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Sinplifikatuaren mende jarri behar da jarduera hau. Eranskin horretako C Kapituluko 7. Artikuluak prozedura horren mende jarri beharrekotzat aipatzen ditu “aurreko motetan sarturik ez dauden baina lurzoruaren eraldakuntza eragiten duten, zuhaixka edo zuhaitz estalkia kentzea dakarten eta 5-50 Ha-ko azalera hartzen duten jarduerak”

Hilerriak, beste batzuekin batera, 3/1998 Legearen II. Eranskinean “sailkatutako jarduerak” izendapen orokorraren azpian jasotako jarduera edota instalazioak dira, eta beren erregimena aipatu Legearen III. Tituluko III. Kapituluan zehazten den Administrazioaren lizentzia erregimenaren mende daude, horrenbestez. III. Tituluko II. Kapituluko 47. Artikuluak dioenez, bestalde “Lege honetako II. Eranskinean sartuta eta Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazio prozeduraren mende dauden jarduerak direnean, lege honetako 59. artikuluan aipatzen diren neurri zuzentzaileen ordeztasun balioko du ondorio guztietarako ebaluazio horrek”.

5.3.3.9.1.- Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan duen eragina

Aurreikusita dagoen eremuaren barruan sartzen da Txonta erreka ezkerreko aldetik datorren errekatxo bat; horregatik kontuan hartu behar dira Uraren Herri Jabetzari dagozkion murrizpenak (ikus **EI-09**). Jarduera eremu honetan bada, orobat, ur hartune bat, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) datu basean “Iraegi” izenez jasota dagoena.

5.3.3.9.2.- Izadi baliabideak galtzea

Proposatzen den eremuan gaur dauden erabilerak landaredi unitate hauen artean banatzen dira. Horien banaketa **EI-09** jarduera planoan kontsulta daiteke:



Lurzorua nola dagoen beteta, landaredi unitateen arabera				
Kodea	Landaredi unitatea	azalera (m ²)	%	barruti kopurua
4. unitatea	Hostozabalen baso mistoa	5.512	3.9	1
5. unitatea	Hostozabalen baso mistoaren gazte fasea edo hondatua	10.538	7.5	5
7. unitatea	Larrea / Lahardia	2.747	1.9	2
8. unitatea	Koniferoen baso landaketa	115.670	82.0	1
10. unitatea	Belardiak eta labore atlantikoak	6.528	4.6	2
Guztira		140.994	100.0	11

Azalera horren %82, 11,6 Ha, baso landaketaz estalita dago; landaketa horietako gehien gehienak intsinis pinuarenak dira, han eta hemen Lawson altzifrez zipriztinduta. Badira, proportzio txikiagoan bada ere, laritzez landatutako sailak, eta beste landare mota batzuek, Douglas izeiz adibidez, landatutako sailtxo bakan batzuk ere. Harizti-baso misto sailtxo bat; horretan badira haritz txortendunak, gaztainak, eta zuhaixka mailan hurritz ugari. Belardiei eta labore atlantikoei dagokienez, sailtxo bakan batzuk daude Altamira Goikua eta Iraegi erdikoa baserrien inguruan; honi dagokionez, ordea, eraikuntza bera ez da sartzen jarduera hau egiteko den eremuan.

Hilerri proiektua eta jarduera eremuaren ordenamendua Plan Berezi baten bidez definituko dira. Izadi baliabideetan izango duen eragina aipatu den Plan horretan hartutako erabakien arabera izango da; horregatik kontuan hartu beharko du gaur egun gehienbat basoz estalita dagoen eremu zabal bat hartzen duenez, eragin negatiboa izan dezakeela gaur egun mehatxatutzat harturik dauden abere mota batzuen habitata urritzen duenez.

5.3.3.9.3.- Baliabide estetiko eta kulturaletan duen eragina

Altamirako Hilerri berria gaur egun "baso landaketak" nagusi diren eremu batean kokatuko da. Proposamen honek eragina izango du paisaian, gaur egun baso landaketak, nekazaritzako zenbait elementurekin batera (belardiekin eta laboreekin batera) mosaiko bat eratuz, nagusi diren paisaia batean elementu antropogeniko bat "sartzen" den heinean. Eragin hori arras urritu daiteke, hala ere, proiektu honetan dagokien atalean zehaztuko diren neurri zuzentzaileak sartzen baldin badira. Hartu behar den eremuaren zati bat muino batean dagoenez, are ageriagoan geratuko da ekipamendu hau, hiriguneko zenbait lekutatik ere agerian geratuko baita.

5.3.3.9.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Jarduerak, ezin zehaztuzko lurzoru azaleraren artifizializazioa ekarriko du, egitea aurreikusten den Plan Bereziak sektoreari emango dion antolamenduaren menpe geratuko dena. Edozelan ere, lurzoruaren galera berreskura ezinezkotzat eta konpon ezinezkotzat hartzen da.



Nekazaritzaren produktibitatean ez du eragin handirik, nekazaritzarako gaitasun berezirik ez duten lurzorua baitira horiek. Eragin gehien duen faktorea malda da. Malda maila desberdinak daude: %20-30 (1,08 Ha), %30-50 (9,71 Ha) eta %50-100 (3,31 Ha). **EI-09** jarduera planoan jasota daude %50etik gorako malda duten zonak.

Eremu hori egokitzeko prestalanetan pendiz handiko maldetan lur begetal askoren galera gerta daiteke.

5.3.3.9.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Ez dira ezagun eraikuntza-proiektuaren ezaugarriak. Guztiaz ere, aurreikus daitekeena da eremuaren antolamenduak lur-higidurak eskatuko dituela, han jarri behar diren instalazioetarako plataformak eraiki ahal izateko. Proiektuaren ezaugarriak segun eta zelakoak diren, lur-soberakin gehixeago edo gutxiago aterako da. Bestalde, ustiapen fasera heltzerakoan ez da uste orain sortzen diren hondakinak baino hondakin gehiago sortuko denik, izan ere, lehendik dagoen ekipamendu bat lekuz aldatzea baino ez baita.

5.3.3.9.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Eremua prestatzeko lanak egiten diren bitartean ere lan horiek eragina izango dute, aldatzen den ingurumenean eta hartarako irispideetan hautsa eta zarata sortuko delako. Kontuan hartu behar da lurra prestatzeko lanetan lur mugimenduak egin beharko direla seguru asko, eta horretarako makineria astuna beharko dela erabili. Eragina, nolana ere, txikiagoa izango da, zeren ekipamendu hau eraikitzeke aukeratu den eremua aski urruti baitako hurbilen dituen bizitegietatik (Unbe, Txonta). Nolanahi ere, ekipamendu honen inguruan dauden zenbait baserritan bai izango du eragina (Iraegi txikixa).

Ekipamendu horrek sortuko duen kutsadura bertan egingo diren jardueren eta han jarriko diren instalazioen arabera izango da, eta proiektu barruan, eremu horretan diren erreka ubideetan eraginik izan ez dezaten jartzen diren saneamendu sistemen arabera, orobat. Beste alde batetik, hilerrira iristeko aurreikusita dauden irispideetan trafikoa ugalduko duen jarduera bat da, izatez. Unbe eta Txonta auzoetan izango du horrek eragin handiena, auzo horietatik igaroko baitira hilerri berrirako irispideak. Trafiko handitze horrek irispideetako bideen kalitate akustikoa gutxitu egingo du, etena bada ere.

Hirigunean espazio libre komunitarioak sortzeko aukera dakarren neurrian hobekuntza dakar hiriko ingurumenaren kalitatean.

5.3.3.9.7.- Kultura ondarea galtzea

Ez da eraginik izango kultura interesik duen elementu bakar batean ere.



5.3.3.9.8.- Eratorritako arriskuen azterketa

Aldapa pikoetan, %30etik gorakoetan, eta %50etik gorakoetan batez ere, higadura arriskua izan daiteke, bertan dagoen zuhaitz estalkia kenduz gero. Ekipamendu berria flysch gisako izaera duten formazio litologikoetan jartzeko proiektatu da: tuparri, tuparri-kareharri eta kareharri geruza txandakatuak. Formazio horien barruan, %50etik gorako aldapa duten eremuak arrisku handiko eremutzat kalifikatzen dira definizioz.

5.3.3.9.9.- Ingurumen eragina finkatzeko dauden zailtasunen eta zalantzen deskribapena

Ingurumen eragina Hilerri Proiektuaren ezaugarriek definitzen dute; ezaugarri horiek, hain zuzen ere, landaredian, paisaian, erreka sorburuan eta beste hainbat alorretan baitute eragina, eta horiek guztiak Plan Berezi batean beharko dira definitu. Gaur egun ez dira ezagutzen ezaugarri horiek, eta ez da erraza, horrenbestez, izan lezaketen eraginaren balorazioa egitea.

Lurraren artifizializazioak -planeamenduaren fase honetan zehatzezina den azalera baten- urak arroan iragazteko duen ahalmena murriztu egingo du.

5.3.3.9.10.- Eragin ezaugarritzea eta kalifikazioa

Ekipamenduak izango duen kokaera berriak eragin negatiboa izango du zenbait alorretan; aipatzekoak dira, besteren artean: paisaia, lurzuaren okupazioa, zuhaitz masaren galera, Uraren Herri Jabetzan izango duen eragina, faunarentzako habitat galera, hondakin lehorrak sortzea (lur mugimenduak), atmosferaren eta uraren kutsadura areagotzea, zarata, hautsa eta dardara sortzea, nekazaritzako produktibitate ekologikoaren galera, eta nekazaritzako ustategietan duen eragina.

Eraginik handiena eraikitzen ari den bitartean izango da. Behin eraikuntza lanak bukatu direnean, espazioaren okupazioak berak sortuko ditu eraginik handienak, eremuaren urbanizatzeko lurraren irazteko ahalmena gutxituko baitu, eta horrenbestez ibaian beherago kokatuta dauden eremuetan uholdeak izateko arriskua handitu egingo da. Baso galerak faunarentzako interesa duten habitaten arteko loturen galera ekarriko du.

Eragin horiek neurrikotzat kalifikatu dira, eraikuntza lanei dagokienez, paisaiaren eraginari dagokion parte salbu, eragin hori larrizat kalifikatzen baita. Ustiapen fasean gertatzeko diren eraginak bateragarritzat jo dira, dagokion atalean zehaztutako neurri zuzentzaileak aintzat hartzen badira.




Gaur egun dagoen hilerria lekuz aldatu ondoren hirigune barruan sortuko den espazio librea eragin positibotzat jo da.

5.3.3.9. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginen balorazioa.



5.3.3.9. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK													OBRENFASEAN		USTIAPIENFASEAN					
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	META GARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRISKURAGARRIA	BERRISKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILIAK	BABES-NEURRIKETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIKETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIKETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIKETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE
Baliabide naturalen galera	Landaredia		x	x			x	x			x				x		x		Neur.	Bat.	Neur.	Bat.
	Fauna		x	x			x	x			x			x		x	x		Neur.	Bat.	Neur.	Bat.
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea		x	x		x		x					x		x		x		Neur.	Bat.		
	Akuiferoen urrakortasun handia																					
	Intereseko espazio katalogatuak																					
	Kultura-ondare katalogatua																					
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia		x	x			x	x		x				x		x	x		Lar.	Neur.	Neur.	Bat.
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna		x	x			x		x		x			x		x	x		Neur.	Neur.	Neur.	Bat.
	Gaitasun handiko lurzoruen galera		x	x			x	x			x			x		x	x		Neur.	Bat.		
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x			x			x	x		x		Neur.	Bat.		
	Hondakinen sorrera		x		x		x		x		x		x		x		x		Neur.	Bat.		
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura		x	x		x		x			x		x		x		x		Neur.	Bat.		
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x		x			x		x		x		x		Neur.	Bat.		
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea		x		x		x		x		x		x		x						Bat.	
	Ekipamenduak - Espazio libreak	+			+		+		+		+											
	Mugikortasuna - irisgarritasuna		x		x		x		x	x			x		x				Neur.			
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina		x	x			x	x			x			x		x	x		Neur.	Bat.		
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																					
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua																					
	Kutsatutako lurzorua																					
	Arrisku geoteknikoak		x	x		x		x				x		x		x	x		Neur.	Bat.		



Udalerrir Muga
Limite del Término Municipal

Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

Hilerrriaren Lekualdaketa Altamirara
Traslado del Cementerio a Altamira

Drainatze sarea
Red de Drenaje

Eguneko Sarea
Red Actual

Proposatutako Sarea
Red Propuesta

Maldak / Pendientes

Malda %50-100
Pendiente entre 50 y 100%

Malda > %100
Pendiente superior al 100%

Ur Puntuak / Puntos de Agua

Iturburu
Manantial

Gainazal Ur Hargunea
Captación Superficial

Lislapen Zundaketa
Sondeo de Explotación

Landaretza / Vegetación

- 1 Pagadi (Kaltzikola Eutrofikoa eta Azidoifloa)
Hayedo (Calcícola-Eutrofo o Acidófilo)
- 2 Kararitzko Gallurreko eta Haltzebakien Oineko Landaredia
Bosque Mixto de Crestón y Pie de Cantil Calizo
- 3 Artadi Kantauriarra
Encinar Cantábrico
- 4 Harizti Azidoifloa eta Harizti - Baso Mistoa
Robledal Acidófilo y Robledal-Bosque Mixto
- 5 Hariztiren gazte-fasea edo fase nderatua
Fase Juvenil o Degradada de Robledal
- 6 Haltzadi Kantauriarra
Aliseda Cantábrica
- 7 Belardia / Sastraka
Pastizal / Matollar
- 8 Konifera Landaketak
Plantaciones de Coníferas
- 9 Belardi Menditarra
Pradera Montana
- 10 Belardi eta Labore-Lur Atlantikoak
Prados y Cultivos Atlánticos
- 11 Landareei Erruderal-Nitrofiloa
Vegetación Ruderal - Nitrofila

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
9.- HILERRIAREN LEKUALDAKETA ALTAMIRARA

EI-09

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
9.- TRASLADO DEL CEMENTERIO A ALTAMIRA

E:1/5.000 (A3) 0 50 100m 2007



5.3.3.10.- Trenbidea bikoiztea eta lurperatzea

Plan Nagusiak burdinbidea Eibarko hiriginetik igarotzen denean bikoiztu eta lurpean sartzea proposatzen du.

Burdinbidearen ibilbidea aldatu nahi da; ibilbide hori lurzoru urbanizaezinetik doa, lur azpia, 2 km baino gehiagoan, eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren mende dagoen HAPNak kalifikatutako sailetatik igarotzen da. Horregatik, hain zuzen, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Sinplifikatuaren mende jarri behar da jarduera hau, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Legearen I. Eranskinean (C Kapituluak, 1. Artikulua) jasota dagoen bezala.

5.3.3.10.1.- Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan duen eragina

Burdinbidea lurpean sartzeko proposamenak ondoko erreka hauen azpiarroak igarotzen ditu: Amaña, Abauntza, Ardantza, Pagei edo Matsaria, Asua, Galartza. Ezin da jakin erreka horietan eraginik izango den ala ez, haren ezaugarriak zehaztuko dituen Proiekturik ez dagoenez. Kontuan hartzeko adierazi da burdinbidearen lurperatzeak izan dezakeela eragina aipatu diren errekei dagokien Uraren Herri Jabetzan.

5.3.3.10.2.- Izadi baliabideak galtzea

Proposatzen den ibilbidea lurpetik doanez, ez da identifikatu dagoen landaredian izan dezakeen eraginik, baina alderdi hori ere berriro aztertu beharko da horretarako Proiektu bat zehaztu denean.

5.3.3.10.3.- Baliabide estetiko eta kulturaletan duen eragina

Trazatuaren ia zati osoa lurpetik doanez, paisaian izango duen eragina lurhondeaketetatik sortutako material soberakinak biltzera murriztuko da. Eraikin gabeko oinezkoentzako gunek bat sortzeak hiri-paisaiaren kalitatea hobetzen utziko du.

5.3.3.10.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Proposamenak ez dakar, ez lurzoru urbanizatuaren gehitzetik, ezta nekazaritza-produktibitate ekologikoaren galerarik ere, lur-soberakinen bilguneak salbu. Proposamenaren fase honek ez du zehazten soberako lur horiek non bilduko diren, beraz, ezinezkoa da horrek ingurumenaren aldetik izan ditzakeen ondorioak aztertzen hastea.



5.3.3.10.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Trenbidea lurperatzeko obrak egiterakoan soberako material asko sortuko da. Horren kudeaketak zehaztuko du ingurumenarekiko eragina, baina, a priori, zaila da identifikatzen, ez delako ezagutzen ez bolumenak nolakoak izango diren, zein tokitan bilduko diren.

5.3.3.10.6.- Hiriko ingurumenaren kalitatean duen eragina

Lanak dirauten bitartean eragozpenak eta traba eragingo zaie eremu horretako biztanleei, hautsa eta zarata sortuko delako batez ere. Eremu horretatik hurbilen dauden bizitegi eremuak Azitaindik hasi eta Amañaraino hirigunearen ipar aldean daudenak dira. Ibilbidea aldatzeak nekez konpondu ahal izango diren hondar eraginak izango ditu, dardara sortzea adibidez; horrek neurri batean edo bestean eragina izango du ibilbide berriak igarotzen dituen eremu guztietan.

Behin lanak bukatu ondoren eragin positiboa izango du, gaur egun trenak hirigunetik igarotzean sortzen duen kutsadura akustikoa desagertuko delako. Kontuan hartu behar baita gaur egun burdinbidearen ibilbidea etxebizitzetatik metro gutxitara dagoela hirian zehar 4 km inguruan. Kontuan hartu behar da, baita ere, burdinbide trafikoari dagokionez, Ingurunek prestatutako Eibarko Ingurumen Diagnostikoak dioenez, herritarren aldetik ez dela askorik baloratzen kutsadura akustiko hori, gaur egun dagoen trafiko urriarengatik batez ere. 21 Agenda prozesuaren barruan Mapa Akustiko bat prestatzen ari da; haren emaitzek emango dute esku-hartze honi eta HAPNan jasotzen diren beste zenbaiti buruz behar diren zuzenketa neurriak formulatzeko behar den informazioa.

Hirigunean gaur egun burdinbideak hartzen duen eremua trafikorako libratu eta espazio librean sistemari atxikitzen dion neurrian hobekuntza ekarriko du hiriko ingurumenaren kalitaterako.

5.3.3.10.7.- Kultura ondarea galtzea

Ez da eraginik izango kultura ondareko elementu bakar batean.

5.3.3.10.8.- Eratorritako arriskuen azterketa

Burdinbidea lurperatzen hasten den eremua, Azitaingo biribilgunetik hurbil, sumendi jatorriko formazio litologikoetan barrena sartzen da; formazio horiek irazkortasun gutxikoak dira, eta luizi arrisku gutxikoak orobat. Ibilbidearen gainerakoa kare haitz nahasiko eta kalkarenitazko formazioetan oinarritzen den eremu batetik igarotzen da; leku horietako batzuetan ezegonkortasun handia izan daiteke zenbaitetan.



Akuiferoen kutsatzeko arriskua oso txikia da proposatu den ibilbide osoan.

Proposatzen den ibilbidea Matsariako ibarretik igarotzen da; ibar horretan badira IHOBek “lurzorua kutsa lezaketen jarduerak dituzten kokaguneen” zerrendan sartu dituen zenbait orube; hori kontuan hartu beharreko gauza izango da orube behin betiko proiektua prestatzerakoan.(ikus **EI-10**). Hori halaxe gertatuko balitz, neurri zuzengarriak hartu beharko lirateke, erabiltzen diren materialak zuzen kudeatzeko; hori, ordea, dagokion atalean zehaztuko da.

5.3.3.10.9.- Ingurumen eragina finkatzeko dauden zailtasunen eta zalantzen deskribapena

Ingurumenean zer eragin izango duen, behin betiko Proiektuaren ezaugarriek arabera izango da; horregatik proiektu horrek bere baitan jaso beharko du proiektatuta dagoen tunela zulatutakoan geratuko diren hondakinak egoki kudeatzeko modua. Gaur egun zehaztasun horiek ez dira ezagutzen oraindik. Proiektu honek uraren herri jabetzan zer eragin izan dezakeen ere ez da ezagutzen. Kontuan hartu behar da ibilbide berri honek sei azpiarro igarotzen dituela, Ego ibaiari ezkerretik iristen zaizkion errekei dagozkienak.

5.3.3.10.10.- Ingurumenarekiko eraginak ezaugarritzea eta kalifikatzea

Eraikuntza lanek dirauten bitartean, soberakinak sortzeak eta haien nonbait utzi beharrak paisaia izango duen eragina, eta lanek sortutako zarata, hautsa eta dardara izango dira eragin nagusiak. Uraren herri jabetzari dagokionez ere izan daitezke eraginak. Oso kontuan hartu beharko dira izan daitezkeen arrisku geologikoak, eta ibilbide horretan kutsatuta egon daitezkeen lur sailak ere badirela. Ustiakuntza aldian eragin horiek jarraitu egingo dute, soberakinak nonbait eduki beharko direlako, eta ibilbide berriaren inguruan dardara sortuko delako.


Eragin positiboak izango dira, ageriko burdinbidea desagertzeak hiri paisaia hobetuko duelako (espazio libre berriak sortzea) eta baita gizakiaren osasunari dagokionez ere, gaur egungo ibilbideak bere inguruan sortzen duen kutsadura akustikoa desagertuko delako.

Soberakinak sortzeak, paisaia duen eraginak, eta eraikuntza lanek diharduten bitartean zarata eta dardara handitzeak izango duen eragina eragin LARRITZAT kalifikatu da. Uraren herri jabetzan, atmosferaren kutsadura handitzea, eta prozesu geologikoek edo lur kutsatuak egoteak izan ditzaketen eraginak neurritzotzat kalifikatu dira. Gainerako eraginak bateragarri bezala kalifikatu dira.




Ustiapen fasean ez da kontrako eraginik ez da kontuan hartu. Ondorio ontzat edo positibotzat hartu dira zarata-kutsadura gutxitzea, hiri-paisaiaren kalitatea hobetu izana, gune edo espazio libreak sortzea eta motorrik ez duen mugigarritasunarentzako aukera gehiago edukitzea.

5.3.3.10. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginen balorazioa.




<p>Udalerrir Muga Limite del Término Municipal</p> <p>Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación</p> <p>Trenbidearen Estalketa Soterramiento de la Línea Ferroviaria</p> <p>Proposatutako Ordenazioa Ordenación Propuesta</p>	<p>Kutsadura Potentziala Contaminación Potencial</p> <p>Industrialia Industrial</p> <p>Geldirik dagoen Industria Inactivo</p> <p>Aurriak Ruina</p> <p>Orubea Solar</p> <p>Zaborategia Vertedero</p>
--	--



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA

PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL


ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

10.- TRENBIDEAREN ESTALKETA


EI-10

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS

10.- SOTERRAMIENTO DE LA LÍNEA FERROVIARIA



E:17.500 (A3)



2007



5.3.3.11.- Hiri barruan mugikortasuna hobetzeko proposamena

Plan Nagusiak zenbait ekimen proposatzen ditu Eibarko hiriguneko mugikortasuna errazteko asmoz. Hirigune barruan eta hartatik igaroz ibil daitekeen motordun ibilgailuen joan-etorria, bai kopuruz bai egindako bidearen luzerari dagokionez urritzeko helburua dute ekimen horiek. Hauek dira ekimen nagusiak:

- Garraio Publikoa
 - ✓ “ALFA”-ko eremuan geltoki intermodal bat sortzea, burdinbidearen geltokia eta autobus geltokia, biak batera hartuko lituzkeena.
 - ✓ Burdinbideko geltoki berriak sortzea. Geltoki horietako batek, Matsarian jartzekoak, gaur egun dagoenaren ordezkotz lekua hartuko luke. Azitainen ere beste geltoki bat eraikiko litzateke, herriaren ekialdeari zerbitzua emateko (Azitaingo industrialdea, irakaskuntzarako ekipamenduak).
 - ✓ Gaur egungo hiri autobusaren ibilbidea finkatzea.
- Motordun garraio pribatua
 - ✓ Hiri barruan ibilgailuen lastertasuna 50 km/h baino gutxiagora jaitsaraztea.
 - ✓ Zonalde lasaiak (“30 zonaldeak”) sortzea auzo bakoitzean, eta lastertasuna 30 km/h baino gutxiagora jaitsaraztea.
 - ✓ Disuasio-neurriak hartzea, ekonomikoak eta lur-gainean aparkatzeko espazioa murriztuko dutenak.
 - ✓ Hiri erdialdean lurpeko txandakako aparkalekuak sortzea.
 - ✓ Auzoetan lurpeko aparkalekuak eraikitzea.
- Motorrik gabeko garraioa
 - ✓ Gaur egun hiri erdialdean dagoen oinezkoentzako eremua “ALFA”-ko eragiketa estrategiaren bitartez eta Fermin Calbeton Kalea oinezkoentzat bihurtuz zabaltzea.
 - ✓ Trenbidea desbideratzea eta lur azpiratzea, horren ondoren sortuko diren plataformak, herria luzetara zeharkatuko duten ibilbide gisa erabili, erdigunearekin lotzeko.
 - ✓ Kanpoaldeko auzoak hiri erdi aldeko oinezkoentzako eremuekin lotzea, leku estrategikoetan eskailera mekanikoak jarritz.
 - ✓ Oinezkoentzako guneak bateragarri egitea garraioarekin eta motorrik gabeko beste ibilgailu batzuekin (txirrinduak, eta abar.).

EI-11 jarduera planoan daude jasota HAPNk proposatzen dituen ekimen nagusiak.



5.3.3.11.1.- Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan duen eragina

Proposamen multzo honek ez du ukitzen ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dagoen alderik. Geltoki intermodal bat eraikitzeak izan dezake eragina Uraren Herri Jabetzan, Ego ibaiaren ubidetik hurbil dagoelako; alderdi hori, ordea, dagokion Proiektua definitzen denean baloratu beharko da.

5.3.3.11.2.- Izadi baliabideak galtzea

Aipatzen diren proposamenak hiri lurzoruak garatzekoak dira, eta ez dute izadi baliabideen galerarik eragiten.

5.3.3.11.3.- Baliabide estetiko eta kulturaletan duen eragina

Aurreikusita dauden esku-hartzeek hiri sarearen osagarri diren elementu batzuk aldatzea eskatzen dute, baina ez dute eragiten elementu antropogenikoek hartzen duten eremua handitzerik. Espazioak birgaitzeari dagokionez, nolana ere, eragin positiboa izango du gaur egungo hiri paisaian; hain zuzen ere hiri sare trinkoa baita gaur eguneko, eta eskertzekoa izango da eraiki gabeko espazio libreak sortzea.

5.3.3.11.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Proposamenak ez dakar, ez lurzoru urbanizatuaren gehitzetik, ezta nekazaritza-produktibitate ekologikoaren galerarik ere, lur-soberakinen bilguneak salbu. Proposamenaren fase honek ez du zehazten soberako lur horiek non bilduko diren, beraz, ezinezkoa da horrek ingurumenaren aldetik izan ditzakeen ondorioak aztertzen hasia.

5.3.3.11.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Trenbidea lurperatzeko obrak egiterakoan soberako material asko sortuko da. Horren kudeaketak zehaztuko du ingurumenarekiko eragina, baina, a priori, zaila da identifikatzen, ez delako ezagutzen ez bolumenak nolakoak izango diren, zein tokitan bilduko diren.

5.3.3.11.6.- Hiriko ingurumenaren kalitatean duen eragina

Aurreikusita dauden esku-hartzeak Eibarko hiri eremuan ibilgailu motorduneko garraioa gutxitzea bideratuak dira, eta esku-hartze horiek eraginkorrak diren heinean, hiri eremuaren atmosferaren kutsadura gutxitzen ez ezik, kutsadura akustikoa arindu egingo dute, eta energia kontsumoa ere gutxitu egingo dute orobat. Geltoki intermodalak eta Azitaingo geltokiak garraio publiko erabiltzeko baldintzak hobetu egiten dituzte, ekipamendu horiek izan ditzaketan erabiltzaile kopuruak kontuan hartuta batez ere.



Zenbait auzotarako irispide mekanikoak jartzeak, gainerako esku-hartzeek bezalaxe, hiri barruan oinezkoen joan-etorriak ugaltzen eta atmosferaren kutsadura eragiten duten garraio motordunen gutxitzen lagun dezake. Esan beharra dago, nolana ere, irispide mekaniko hauek energia kontsumoa handitzea eragingo dutela.

Oinezkoentzako eremuak zabaltzeak, era berean, sosegua eta espazio publikoak eskainiko ditu, herritarren arteko harremanak errazteko.

5.3.3.11.7.- Kultura ondarea galtzea

Ez da eraginik izango kultura ondareko elementu bakar batean ere. Oinezkoentzako espazioak sortzeak hirigunean dauden kultura interes bereziko elementuen inguruan zirkuituak sortzeko aukera emango du.

5.3.3.11.8.- Eratorritako arriskuen azterketa

Proposatzen diren neurriek IHOBek (1998) "Lurzorua kutsa lezaketen jardueren kokaguneen inbentarioan" sartu dituen orubeetan jardutea aurreikusten dute; hori kontuan hartu beharreko gauza izango da orube horiei dagozkien proiektuak prestatzerakoan. Hori halaxe gertatuko balitz, neurri zuzengarriak hartu beharko liriateke, erabiltzen diren materialak zuzen kudeatzeko; hori, ordea, dagokion atalean zehaztuko da.

5.3.3.11.9.- Hierarkiaren goragoko maila baten dauden antolamendu Planen kontuan hartuzkoak

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Araudiko E.1.4. artikulua dio "garatutako eremuen ertzetan" hauxe bete behar dela:

"Hirigintza-ikuspegiari dagokionean nahitaez zentroan egon behar dutelako edo interes kulturalerako eraikinetan kokatu behar dutelako urpean gera daitezkeen areatan kokatu behar duten zerbitzu eta ekipamendu komunitarioetarako eta beren instalazioak uholde-kotatik behera dituzten edo hota horietatik igarotzen diren garraio publikoko zerbitzuetarako, pertsonak eta ondasunak zaintzeko egoki irizten diren neurriak bermatuko dituen Barne Larrialdiko Plan bat prestatuko da, administrazioarekiko lankidetzan.

Urpean gera daitezkeen area baten perimetroaren barruan kokatzen diren lurpeko aparkalekuen kasurako, pertsonak arriskutik kanpo dauden puntuetarantz ateratzeko beharrezko neurriak hartuko dira."



5.3.3.11.10.- Ingurumen eragina finkatzeko dauden zailtasunen eta zalantzen deskribapena

Aurki ebaluatu beharko diren neurriak dira. Gaur egun gauzak dauden bezala, faktore gehienei dagokienez eragin positiboa izango dutela aurreikusten da, baina ez dago datu zehatzik proposatutako helburuak lortzeko zer eragin izango duten jakiteko.

5.3.3.11.11.- Eraginen ezaugarritzea eta kalifikazioa

Hiri barruan mugitzeko erraztasuna hobetzeko proposamen hauek guztiek eragin positiboa izan dezakete atmosferaren kutsadura gutxitzeari eta kutsadura akustikoa arintzeari dagokienez. Denak batera hartuta hiriaren ingurumen kalitatea hobetzeko balio duten proposamenak dira.


Egin den ezaugarritzean kontuan hartu dira izan daitezkeen zenbait ondorio, hala nola hondakin lehorrak sortzea, aldatu behar diren zenbait areatan lurzorua kutsatuta egon daitekeela edota egiten diren proposamen batzuk (geltokiak, aparkalekuak) eraikitzekeo aldian zarata, hautsa eta dardarak izan daitezkeela. Eragin hauek neurritzotzat jo dira.

5.3.3.11. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginen balorazioa.



5.3.3.11. TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK													OBRENFASEAN		USTIAPENFASEAN						
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRISKURAGARRIA	BERRISKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILAEK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK DITU	
Baliabide naturalen galera	Landaredia																						
	Fauna																						
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea		x	x		x		x					x	x		x		x	Neur.	Bat.			
	Akuiferoen urrakortasun handia																						
	Intereseko espazio katalogatuak																						
	Kultura-ondare katalogatua																						
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+	x	x		x		x				x		x		x		x	Neur.	Bat.	+		
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna																						
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																						
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea		x	x		x		x				x			x	x		x	Neur.	Bat.			
	Hondakinen sorrera																						
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura	+			+		+		+		+												
	Ingurune-hotsa. Obren fasea		x	x		x						x		x		x		x	Neur.	Bat.			
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea	+			+		+		+		+											+	
	Ekipamenduak - Espazio libreak	+			+		+		+	+													+
	Mugikortasuna - irisgarritasuna	+		+			+		+				+										+
Sozioekonomia	Nekazaritzako erabiltzaileek jasandako eragina																						
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																						
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua																						
	Kutsatutako lurzoruak		x	x		x		x				x	x		x		x		Neur.	Bat.			
	Arrisku geoteknikoak																						



- Udalerrir Muga
Limite del Término Municipal
- Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación
Hiri Barruko Higikortasunaren Arrazobideratzeko Proposamena
Propuesta de Racionalización de la Movilidad en el Área Urbana
- Oinezkoentzako Areak
Áreas Peatonales
 - Bidegorria
Carril-Bici
 - Trenbidea Estaltzetik eta Lurperatzetik Sortutako Areak
Espacios Libres Resultantes del Recubrimiento y Soterramiento del Tren
 - Dauden Eskalierak
Escaleras Existentes
 - Proposatzen diren Eskalierak
Escaleras Propuestas
 - Aparkalekuak
Aparcamientos
 - Txandakako Aparkalekuak
Aparcamientos Rotatorios

- Kutsadura Potentziala
Contaminación Potencial
- Industrial
 - Geldirik dagoen Industria Inaktibo
 - Aurriak
 - Ruina
 - Orubea
 - Solar
 - Zaborategia
 - Vertedero



EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR



INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN
BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA
DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
11.- HIRI BARRUKO HIGIKORTASUNAREN
ARRAZOBIDERATZEKO PROPOSAMENA

EI-11

IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
11.- PROPUESTA DE RACIONALIZACIÓN DE
LA MOVILIDAD EN EL ÁREA URBANA



5.3.3.12.- Hiri-parkeak eta hiri-ingurukoak sortzea

Plan Orokorrak espazio libreei dagokienez proiektatzen duen egiturak bete egiten ditu jarauntsitako hutsuneak. Espazio libreen 17,03 hektarea antolatu dira, eta horiek modu homogean banaturik daude hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian. Horrela, zuzkiduren estandarra biztanleko 6,81 m²-koa izango da, 25.000 biztanleko hiri baterako biztanlerai-hipotesian, eta hori orain ezarrita dagoen biztanleko 5 m²-ko gutxieneko estandarra baino apur bat handiagoa da. Antolamenduaren proposamena eta horren dimentsioa honako hau da:

- Itzioko parkea (hiri-lurzorua).....13.340 m²
- Sakuneko parkea (hiri-lurzorua).....16.886 m²
- Asua Errekako parkea (hiri-lurzorua).....14.314 m²
- Barrenako parkea (hiri-lurzorua).....16.296 m²
- Azitaingo parkea (hiri-lurzorua).....7.545 m²
- Txaltxa Zelaiko parkea (hiri-lurzorua).....12.790 m²
- Armagineko parkea (hiri-lurzorua).....6.855 m²
- Oinezkoen beste eremu batzuk (hiri-lurzorua).....49.753 m²
- Amañako parkea (lurzoru urbanizagarria).....24.199 m²
- Bolinguako parkea (lurzoru urbanizagarria).....2.380 m²
- Egazelaiko parkea (lurzoru urbanizagarria).....5.983 m²
- **GUZTIRA.....170.341 m²**

Parkerik gehienak sortu berriak dira eta hiri-lurzoruko espazio libreen sistemaren barruan daude (Itzioko parkea, Sakuneko parkea, Asua Errekako parkea, Barrenako parkea, Azitaingo parkea, Txaltxa Zelaiko parkea, Armagineko parkea). Amañako, Bolinguako eta Egazelaiko parkeak lurzoru urbanizagarriari atxikitako espazio libreen barruan daude.

Hiriko erdigunean dauden parkeak ez ezik, proposamenean hiria inguratuko duen gerriko berdea sortzeko proposamena egiten da; horretarako, autobidearen (A-8) jabari publikoko zonaren, saihesbidearen (N-634) eta eraikuntza periferikoaren arteko espazioak egokituko dira. Aisialdiko eta jolasaldiko berezko funtzioak ez ezik, bi azpiegitura horiek sorturiko eragozpenak arintzeko funtzioa ere edukiko dute. Parkeek hiriguneari eta bide-azpiegiturei dagokienez duten banaketa **EI-12** jarduketa-planoan ikus daiteke.

HAPNan egindako proposamenaren arabera, hiria inguratuko duen gerriko berde horretan 3 m-ko zabalerako eta 12 km inguruko luzerako zidorra sartuko da; ibilbide ekologikoa, ludikoa eta kirolekoa izango da, eta oinezkoek edota txirrindulariek erabili ahal izango dute. Eremu horietan jarduteko irizpide orokortzat hauxe proposatzen da: *“inguruaren babesa, batez ere landarediaren babesa, lehendik dauden zuhaitz interesgarriak errespetatuz”*.



5.3.3.12.1.- Ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonen gaineko eragina

Jarduketek ez dute eragin kaltegarrik ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonetan. Orokorrean, parkeen mugaketa eta Jabari Publiko Hidraulikoko ubideak (Ego, Asua Erreka...) biltzeko lekuetan, eraginak positiboak izango dira, hobetu egingo gaita bertako egoera edo ahalmen ekologikoa. Egin daitezkeen jarduketetan (plangintzako fase honetan zehazturik ez dauden jarduketak), estaldurak kentzea, ertzetako landaredia hobetzea eta halakoak sar daitezke.

5.3.3.12.2.- Baliabide naturalen galera

Aipaturiko proposamenek berez ez dakarte baliabide naturalen galerarik. Jarduketa baloratzeko orduan, kontuan hartu da mantendu edo hobetu egin behar direla lehendik dauden landareak, horixe baita HAPNak adierazitako irizpide orokorra. Beraz, errespetatu egingo dira balio naturalik handieneko landaredi-unitatea, harizti azidofiloa eta harizti/baso misto atlantikoa, eta neurriak hartuko dira suspertze-fasean dauden unitateak hobetzeko. Parkeak sortzeko proposatu diren barruti guztiek, Txaltxa Zelaiko parkearen eta Armagineko etorkizuneko parkearen kasuan izan ezik, landaredia interesgarriko zonak dituzte.

Parkeek gunearen inguruan duten kokalekuak logika jakina dauka horren helburua, HAPNan adierazitakoaren arabera, hiri-eremuaren inguruan gerriko berdea sortzea da. Aukeraturiko eremuak, lagapen-eragiketen bidez lortutakoek, eremu jarraitua sortu nahi dute, ezarritako irizpideari jarraituz.

Hala eta guztiz ere, proposaturiko eremu berdeen multzoak ez du aukerarik ematen oraingo habitat desberdinen edo etorkizunean egon daitezkeen arteko lotura baldintza bikainak sortzeko. Proposaturiko eremuetan txertatzen diren ibarbideetako hiri-garapenek, erdiko hiri-eremuan sartzeko nahiz bertatik irteteko bide-azpiegituren kopuru handiak eta bi nabarmen apurtzen du etorkizunean gerriko berdea sortzeko aukera. Halaber, ez da erraza eremu periurbano horien eta bide-azpiegituren (saihesbidea eta autobidea) beste aldean hedatzen den nekazaritzako nahiz basoko eremuaren arteko lotura suspertzea. Gainera, espazio libreen multzo horren sorrerak ageriko hobekuntza ekar dezake, oraingo egoerari dagokionez, eta gainera, HAPNan formulaturiko helburura hurbiltzeko aukera ematen du, baldin eta jarduketa-lerro horretan sakontzen bada.



5.3.3.12.3.- Baliabide estetiko eta kulturalen gaineko eragina

Hirigunean kokaturiko parkeen sorreran, elementu naturalak sartzen dira paisaia antropogeniko batean, eta horrek nolabaiteko aniztasuna sortzen du hiriko paisaian; gainera, hobetu egiten du bertako ikus-kalitatea. Gainerako parkeen sorreraren eraginez (hiri-egiturako eremu periurbanoetan eta gunearen inguruko bide-azpiegituretan), paisaiaren kalitatea hobea izango da, baldin eta garapenetan kontuan hartzen bada baso hostogalkorrek okupaturiko eremuen mantenamendua eta handitzea. Aintzat hartu behar da parke periurbano horiek, euren kokalekuaren ondorioz, oso ikuspen handia dutela, bai hiriguneko zati handi batetik eta bai beste eremu batzuetatik (esate baterako, saihesbidea edo autobidea).

5.3.3.12.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Hiri-lurzoruan parkeak sortzeak ez dauka eraginik nekazaritzako produktibitate ekologiko handian. Amañan, Sakunen, Asua Errekan, Egazelain eta Bolinguan parkeak izateko erabiliko diren eremuetan, %30etik gorako maldak dituzten aldapak nagusitzen dira, eta malda horiek leku batzuetan, %50etik gorakoak dira. Horrenbestez, baso-bokazio handiko lurzorua dira. Aurreikusitako jarduketek ez dute nekazaritzako produktibitate ekologikoa murriztuko.

5.3.3.12.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Parkeen sorrerak ez du handitzerik ekarriko hondakinen sorreran. Nolanahi ere, jarduketa horien eraginezko hondakinak erraz integratzeko modukoak izango dira ezarritako bilketa-sisteman, eta gainera, horietariko batzuk berriro erabili ahal izango dira espazio libreen sisteman bertan.

5.3.3.12.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gaineko eragina

Proposatutako esku-hartzeek hobetu egiten dute hiri-ingurumenaren kalitatea, moteldu egiten baitute bide-azpiegituretan sorturiko begi- eta hots-inpaktua. Gainera, gizakien osasunean hobekuntza handia dakarte, dentsitate handiko eremu batean. Era berean, eremu lasaiak, giza harremanetarakoak, pasealekuak eta halakoak sortzeko aukera ematen dute, eta kontuan hartu behar da Eibarren orain halako eremu gutxi dagoela.



5.3.3.12.7.- Eragin sozioekonomikoa

Egazelai, Bolingua, Amaña eta Asua Errekako parkeen sorrerak eragina dauka orain nekazaritzako ustiatuek edo egun zatizko erabiltzaileek erabilitako eremuetan (batez ere etxeko erabilera).

5.3.3.12.8.- Kultura-ondarearen galera

Proposaturiko zenbait eremutan (Armagin, Azitain), Eibarko Ondare Historiko Artistikoaren Katalogoan jasotako eraikinak daude. Parkeen sorrerak balio handiagoa eman ahal die horien inguruari, eta ingurumen-inpaktu onak izango dira kasu guztietan.

5.3.3.12.9.- Ondoriozko arriskuen analisisa

Ahalezko proiektuak garatzeko orduan, kontuan hartu behar da zona batzue %50etik gorako maldak dutela. Lur-mugimenduak egin behar izanez gero, datu hori aintzat hartu beharko da; halaber, eremuko ezaugarri litologikoak ere kontuan hartuta, pentsa daiteke malda horietan ezegonkortasunak egon daitezkeela.

5.3.3.12.10.- Ingurumen-eragina zehazteko zailtasun eta zalantzen deskribapena

Gaur egun, proposaturiko eremu guztietarako eragin onuragarria dago aurreikusita, ingurumen-faktore gehienei dagokienez, baina ez dira proiektu zehatzak ezagutzen, eta beraz, zaila da egon daitezken eragin zehatz aztertzea. Horrenbestez, kasuan kasuko garapenerako plangintza formulatu arte, hasierako faseko (“obren fasea”) eraginen ezaugarriak eta balorazioa egiteko, eremuaren mugaketan eta okupazioan oinarrituz aurreikusitako moduko eraginak baino ez dira kontuan hartu. Ustiapen-fasean, zuhaitz-masen hobekuntza eta erabiltzaile-kopuruaren hazkundera aurreikusi dira.

5.3.3.12.11.- Inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa

Hiriko parkeen eta hiri-inguruko parkeen sorrerak eragin onuragarria izango du hiri-ingurumenaren kalitatean, eta hobekuntzak egongo dira paisaiaren eta landaredia interesgarriaren aldetik. Kasu batzuetan, parke sortu berriak direlako, eta besteetan, plangintzaren irudi berriak bi alderdi horietan kalitatea hobetzeko aukera emango duelako.



Proposamenak eragin ona dauka airearen kutsaduraren eta hots-kutsaduraren mailetan, baita iragazpen-gaitasunean ere, eta beraz, Erdiko eremuen uholde-arriskuan ere bai. Azkenik, eremu horiek Espazio Libreen Sistema Orokorren barruan kalifikatzeak eragin ona izango du bertatik igarotzen diren ubideetan.

Hasierako fasean (eremu horien mugaketa eta kalifikazioa), proposamenak eragina dauka nekazaritzako ustiatzietan eta lurren erabiltzaileetan (Amaña, Asua Erreka, Bolingua, Egazelai). Bestalde, parkeen erabiltzaile-kopuruak gora egitearen eraginez, hiri-hondakinen bolumen handiagoa sor daiteke.

Nekazaritzako ustiatzietan gainera eraginak neurritzat kalifikatu dira, eta horietarako konpentsazio-neurriak daudela jotzen da. Halaber, proposaturiko eremuen lotura eza ere kategoria horren barruan kalifikatu da, eta horrek ez du neurri zuzentzaile onartzen, behintzat HAPNaren ikuspegitik.


Jabari publiko hidraulikoari lotutakoak eragin positibotzat kalifikatu dira; zuhaitz-masak, fauna nahiz paisaia mantendu dira, eta gainera, murriztu egin dira airearen kutsadura, iragazte-gaitasuna, uholde-arriskua eta hots-kutsadura, eta giza habitataren kalitatea hobetu egin da.









5.3.3.12 taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa jasotzen ditu zehat-mehatz.



5.3.3.12 TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK												OBRENFASEAN		USIAFENFASEAN							
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILIAK	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILIAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIAK ETA NEURRI ZUZENTZAILIAK DITU	
Baliabide naturalen galera	Landaredia	+			+		+			+								+					
	Fauna	+			+		+			+								+					
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Konektibitatea		x		x		x					x		x	x			Neur.					
	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea	+			+		+				+									+			
	Akuiferoen urrakortasun handia																						
	Intereseko espazio katalogatuak																						
Baliabide estetiko eta kulturalak	Kultura-ondare katalogatua	+			+		+			+	+									+			
	Paisaia	+			+		+			+	+									+			
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna	+			+		+			+										+			
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																						
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea																						
	Hondakinen sorrera																						
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura	+			+		+			+										+			
	Ingurune-hotsa. Obren fasea																						
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea	+			+		+			+		+								+			
	Hiriguneko espazio libreak	+			+		+			+	+									+			
	Mugikortasuna - irisgarritasuna																						
Sozioekonomia	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien galera		x	x			x	x			x			x	x	x		Lar.	Neur.				
Kultura-ondarea	Ondarearen galera																						
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua	+			+		+			+										+			
	Kutsatutako lurzorua																						
	Arrisku geoteknikoak																						



 Udalerri Mugak / Límite del Término Municipal
 Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación
 Hiri Parke eta Hiri-Inguruko Parkeen Sorkuntza / Creación de Parques Urbanos y Periurbanos
 Erdialdeko Oinezkoen Guneak / Áreas Centrales Peatonales
 Proposatutako Ordenazioa / Ordenación Propuesta
 Interes Kultureleko Elementuak / Elementos de Interés Cultural
 Oinarritzkoa / Básico
 Berezia / Especial
 Berezia - Herrikoa / Especial - Local
 Herrikoa - Local

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 12.- HIRI ETA HIRI-INGURUKO PARKEEN SORKUNTZA ETA ERDIALDEKO OINEZKOEN GUNEAK
EI-12
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 12.- CREACIÓN DE PARQUES URBANOS Y PERIURBANOS Y ÁREAS CENTRALES PEATONALES



E:1/10.000 (A3)  **2007**



5.3.3.13.- Lurzoru Urbanizaezinean Parke Periferikoak eta Atsedenlekuak egitea.

Plan Nagusiak lurzoru urbanizaezinean bi parke periferiko eta atsedenleku bat sortzeko proposamena egiten du; horien garapena bakoitzari dagokion Plan Berezi banaren bidez egingo da. Eredu horiek Espazio Libreen Sistema Orokorrean sartuta daude, eta **EI-13** jardura planoan daude jasota; honako hauek dira.

- Kalamuako aisia lekua2.809.280 m²
- Arrateko parkea275.313 m²
- Santa Kruzeko parkea.....124.642 m²
- **GUZTIRA****3.209.235 m²**

HAPNaren Dokumentuak Lurzoru Urbanizaezinean zenbait kategoria desberdin bereiztea proposatzen du. Horietako bat “Babes Berezikoa” da, helburu nagusia “*ekosistema zaintzen eta hobetzen eta herritarrek ingurune fisikoarekin harremanak errazago izan ditzaten lagunduko duen kontserbazio zorrotzeko erregimen bat sortzea duena*”. Kategoria honetan, denbora-pasa estentsiboa har dezaketen Aisia Lekuatarako eta parke periferikoetarako esparruak sartzen dira.

Eredu hauek Plan Berezien bidez garatuko dira, HAPNren Dokumentuan jasotzen den bezala, eta Lurzoru Urbanizaezina ukitzen dute; horregatik, hain zuzen Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren prozeduraren mende jarri behar dira, prozedura hori arautzen duen 183/2003 Dekretuaren I. Kapituluak, 3. Artikuluak adierazten duen bezala

5.3.3.13.1.- Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan duen eragina

Proposatzen diren eremuetatik Pagei edo Matsaria erreka, Gorosta erreka, Urko erreka igarotzen dira, ea eremu horietako batek, Kalamuakoak, Saturixo errekararekin du muga. **EI-13** jardura planoan eremu horretan diren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) datu basean jasotako dauden ur sorburuak ere jasota daude.

Proposatzen diren eremuetan badira kultur intereseko zenbait elementu ere, dagokien puntuak zehaztuta daudenak.

5.3.3.13.2.- Izadi baliabideak galtzea

“Babes Bereziko” kategorian bultzatzen diren jarduerak ekosistema kontserbatzea eta hobetzea dira; horrek ez du esan nahi izadi baliabiderik batere galtzen denik, oso bestela baizik, gaur egun dauden baliabideetarako hobekuntza ekar dezake, bai landarediari bai faunari dagokienez.



Galerak, onargarrizat hartuta dauden jardueraren bati dagokionez gerta daitezke. Honako hauek dira: denbora-pasa estentsiboa, abelazkuntza, basogintza, airetiko lineak, lurpetik doazen lineak, B motako zerbitzu instalazio tekniko ez-linealak (dorreak, antenak, komunikazioak hartu eta igortzeko estazioak, faroak, irrati-faroak eta antzekoak), eta erabilera publikoko eta gizarte interes bereziko eraikuntzak.

Aipatutako eremu hauek garatzeko Plan Bereziek kontuan hartu beharko dute badirela eremu horietan interes bereziko zuhaitziak; zuhaitziok **EI-13** jarduera planoan daude jasota eta han begira daitezke. Interes bereziko zuhaitzi bezala sartu dira ongi kontserbatuta dauden zuhaitz hostozabalezko basotxoak (pagadiak, harizti azidofiloak-baso mistoak, haltzadiak...). 16 eremu kartografiatu dira; guztien artean 16,7 Ha hartzen dute, espazio libre bezala mugarrizatu diren eremu guztien %5,2 bakarrik, beraz. Eremuon garapenerako planeamenduak kontuan hartu beharko du orobat, badirela eremu horietan lurzoru urbanizaezinaren barruan “Faunaren ikuspegitik intereseko Babes Bereziko” kategorian sartuta dauden lekuak; horietako batzuk Kalamuako aisialekuan daude.

5.3.3.13.3.- Baliabide estetiko eta kulturaletan duen eragina

Urko eta Kalamua mendien malda hasieran, Artibai eta Deba arroen banalerroaren inguruan daude hiru espazio libre hauek. Lau eremuetan ibai inguruneke baso landaketak dira paisaia unitate nagusiak. Badira beste unitate batzuk ere, hala nola baso landaketekiko nekazaritzako mosaikoak, baso mosaikoak, sastrakadia, hosto erorkorreko basoa... aisia eremu batetik bestera intentsitate desberdinez.

Onargarrizat eman diren jarduera batzuk, denbora-pasa estentsiboa, abelazkuntza edo basogintza adibidez, mantentzeak ez du eraginik gaur egungo paisaiaren kalitateari dagokionez. Gainerako jarduera onargarririk, berriz, bai izango dute eragina paisaian, bai bertan koka daitezkeen eraikuntza edo instalazioen (eraikinak, antenak, dorreak, faroak...) tipologiagatik, bai ikusgarritasunari dagokionez, proposatzen diren eremuen parterik handiena oso agerian baitago. Esan beharra dago, hala ere, badirela gaur egun era horretako instalazioak proposatzen diren aisialeku horietako batean (eraikinak eta antena Arraten).

5.3.3.13.4.- Lurzoruaren artifizializazioa

Aisiarako leku hauek sortzeak, eta “Babes Bereziko” kategoriaren barruan sartzeak ez ditu desagerrarazten jarduera onargarrizat hartu diren abelazkuntza edo basogintza jarduerak. Lurzorua eraikuntzarako, dagozkien azpiegiturak jartzeko, eta abar, okupatzea behar duten eta onargarrizat hartuta dauden bestelako jarduera batzuk gertatzen badira, orduan izan daitezke galerak; horrelakorik, ordez, oraindik ez da aurreikusi.



5.3.3.13.5.- Lur-soberakinak eta hondakinen sorrera

Aisia lekuak sortzeak ez du hondakin eta zabor gehiago sorrarazten, leku horiek gaur egun ere aisia leku bezala erabiltzen baitituzte Eibarko herritarrek. Nolanahi ere, jarduera horiek sortu ohi dituzten hondakinak eta zaborrak aise mendera ditzake dagoeneko jarrita dagoen hondakinen kudeaketarako sistemak.

Aisiarako lekuak sortzeak ez du zuzeneko eraginik gizakiaren osasunean, hirigunearen inguruan denbora-pasarako leku gehiago edukitzeak ekar lezakeen ongizatea salbu.

5.3.3.13.6.- Hiri-ingurumenaren kalitatearen gainko eragina

Lurzoru Urbanizaezinean atsedenlekuak deklaratzek ez du eragin zuzenik izango hiriko ingurumenaren kalitatean, baina bai ostera bertako biztanleen ongizateari dagokion hobekuntzari dagokionean, herrigunearen inguruan aisialdirako gune edo zona berriak edukiko baitituzte.

5.3.3.13.7.- Kultura ondarea galtzea

Aisiarako eremu deklaratzek ez du galerarik eragiten eremu horietan dauden kultura intereseko elementuei dagokienez. Eremu horiek garatu behar dituzten Plan Bereziek oso kontuan eduki beharko dute eremu horietan dauden kultura intereseko elementuok daudela:

- Arrateko parke periferikoan:
 - ✓ Balio arkeologikoa izan lezaketen guneak: Arrateko Andre Mariaren Eliza barruko eremua eta Hospederiakoa (Partxua etxea).
 - ✓ Elementu Katalogatuak:
 - Arrateko Andre Mariaren Eliza, babes bereziko erregimena duena. Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu/monumentu multzo aldarrikatzeko proposatua.
 - Arrateko Gurutzea, Babes bereziko erregimena duena.
- Santa Kruz parke periferikoa:
 - ✓ Elementu Katalogatuak: Santa Kruz basiliza, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak herri babeseko Ondasun Higiezin bezala proposatua.



- Kalamuako Aisia Lekua:

- ✓ Balio arkeologikoa izan lezaketen guneak: Akondiako San Pedroren Ermita barrua eta beste 15 metro
- ✓ Elementu Katalogatuak: Akondiako San Pedro ermita, oinarritzko babes gradua duena.

5.3.3.13.8.- Herri mugaz haraindi izan ditzakeen eraginak

Kalamuako ingurunean aisiarako leku bat sortzeak badu eragina Eibar bezala Urko eta Kalamua mendien maldatan dauden beste udalerrietan. Elgoibar, Markina-Xemein ea Etxeberria dira udalerrri horiek; azkeneko biak Bizkaiko lurralde historikokoak dira.

5.3.3.13.9.- Eratorritako arriskuen azterketa

Arrate, Santa Kruz eta Kalamuako aisia lekuak leku gehienetan %50etik beherako aldapak dituzten muino eta maldatan daude. Kalamuako aisia lekuaren erdialde gehiena, azalera gehien hartzen duena, %30eko aldapa baino gehiagorik ez duten muino eta maldatan dago. Ereku horietako luraren osaera litologikoari esker, sumendi haitzetan baitago oinarrituta, luiziak izateko arrisku gutxiago dago.

Kalamuako aisia lekuaren barruan dauden Urko mendiaren maldetan %50etik gorako aldapak dira nagusi. Horrek, eta eremu horren ezaugarri geologikoen, are handiagoa egiten dute higadura eta luizi arriskua. Ereku honetan badira zenbait leku, lurzoru urbanizazineko kategoriaz gainera, "eremu higagarri" ezaugarria eman zaienak.

5.3.3.13.10.- Ingurumen eragina finkatzeko dauden zailtasunen eta zalantzen deskribapena

Dokumentu honetan aurreikusten den ingurumen eraginaren deskribapena berriro eguneratu beharra izango da, proposatzen den eremu bakoitzerako prestatzen diren Plan Berezietan sustagarritzat, onargarritzat edo debekatutzat ematen diren jarduerak eratzen direnean. Hiriko edo hiri inguruko parkeetan bezala, esku-hartze honek bere hasierako fasean izango duen eraginaren balorazioa egiterakoan, proposatutako mugarriztapenak izan ditzakeen eraginak baizik ez dira hartzen kontuan.



5.3.3.13.11.- Eraginen ezaugarritzea

Aurreikusita dauden esku-hartzeek eragin positiboa izan dezakete garrantzi handiko zenbait alderditan, hala nola, erreken ubideetan, interes bereziko landare multzoetan, habitaten arteko loturetan, interes bereziko faunan, kultur interes bereziko elementuetan, paisaian, atmosferaren kutsaduran, lurraren irazgarritasunean, uholdeak izateko arriskuan, higadura prozesuak arintzean.

Eragin negatiborik izan dezakeen esku-hartzerik ez da ikusi, baina baliteke eragin puntualen batzuk izatea Plan Berezetan lurraldean, paisaian eta abarretan eragina izan dezaketen jarduerak onargarritzat hartzen diren ahala.

Aipatu diren eraginak eragin positibotzat kalifikatu dira. Zenbateko eraginak izango diren, jarduera sustagarriak, onargarriak edo debekatuak arautzeko erabakitzen den araudiaren arabera izango da.

5.3.3.13. taulek zehatz-mehatz jasotzen dute adierazitako eraginen ezaugarritzea eta balorazioa.



5.3.3.12 TAULA INPAKTUEN EZAUGARRIAK ADIERAZTEKO MATRIZEA

ELEMENTUA	ALDAKETA	INPAKTUAREN EZAUGARRIAK																							
		POSITIBOA	NEGATIBOA	ZUZENA	ZEHARKAKOA	ALDI BATERAKOA	IRAUNKORRA	EPE LABURREKOA	EPE ERTAINEKOA	EPE LUZEKOA	SINPLEA	METAGARRIA	SINERGIKOA	ITZULGARRIA	ITZULEZINA	BERRESKURAGARRIA	BERRESKURAEZINA	NEURRI ZUZENTZAILERAK	OBREN FASEAN			USIAPEN FASEAN			
																			BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERAK DITU	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERIK GABE	BABES-NEURRIK ETA NEURRI ZUZENTZAILERAK DITU			
Baliabide naturalen galera	Landaredia	+			+		+			+	+							+							+
	Fauna	+			+		+			+	+							+							+
	Konektibitatea	+			+		+			+	+							+							+
Ingurumenaren aldetik sentikorrek diren zonak	Jabari publiko hidraulikoa, ibilgu etengabea																								
	Akuiferoen urrakortasun handia																								
	Intereseko espazio katalogatuak	+			+		+			+	+							+							+
	Kultura-ondare katalogatua	+			+		+			+	+							+							+
Baliabide estetiko eta kulturalak	Paisaia	+			+		+			+	+							+							+
Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	Lurzoruaren artifizializazioa / Iragazte-gaitasuna																								
	Gaitasun handiko lurzoruen galera																								
Soberakinak eta hondakinak	Lur-soberakinak. Obren fasea																								
	Hondakinen sorrera	+			+		+			+	+														+
Hiri-ingurumena	Airearen kutsadura																								
	Ingurune-hotsa. Obren fasea																								
	Ingurune-hotsa. Ustiapen-fasea	+			+		+			+	+														+
	Hiriguneko espazio libreak																								
	Mugikortasuna - irisgarritasuna																								
Sozioekonomia	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategien galera																								
Kultura-ondarea	Ondarearen galera	+			+		+			+	+														+
Ondoriozko arriskuak	Uholde-arriskua																								
	Kutsatutako lurzorua	+			+		+			+	+														+
	Arrisku geoteknikoak	+			+		+			+	+								+						+



Jarduketaren Eremua / Ámbito de Actuación

- Parke Periferiko eta Aisialdi Eremuen Sorkuntza / Creación de Parques Periféricos y Áreas Recreativas

Interes Kultureleko Elementuak / Elementos de Interés Cultural

- Oinarrizkoa / Básico
- Berezia / Especial
- Berezia - Herrikoa / Especial - Local
- Herrikoa - Local

Landaretza / Vegetación

- Interesdun Landaretza / Vegetación de Interés

Drainatze sarea / Red de Drenaje

- Egungo Sarea / Red Actual
- Proposatutako Sarea / Red Propuesta

Ur Puntual / Puntos de Agua

- Iturburua / Manantial
- Gainazal Ur Hargunea / Captación Superficial
- Ustiapen Zundaketa / Sondeo de Explotación

Udalerrir Muga / Límite del Término Municipal

EIBARKO HERRIAREN HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA
 PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA
 ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA
 13.- PARKE PERIFERIKO ETA AISIALDI EREMUEN SORKUNTZA
 EI-13
 IDENTIFICACIÓN Y VALORACIÓN DE IMPACTOS
 13.- CREACIÓN DE PARQUES PERIFÉRICOS Y ÁREAS RECREATIVAS

E:1/12.500 (A3) 100 0 100 200 300 m 2007



5.4.- INGURUMEN INPAKTUAREN ONDORIOZ ALDATURIKO EDO EZABATURIKO JARDUKETAK

5.4.1.- Txarako dentsitate apaleko bizitegi-garapena

HAPNaren Dokumentuak kontuan hartu ditu Gipuzkoako Foru Diputazioaren Garapen Iraungarrirako Departamentuak Txarako barrutian dentsitate apaleko bizitegiak eraikitzeke proposamena berriz aztertzeari buruz idatzitako Aurretxostenak (HAPNaren Aurrerapen Dokumentuan jasota dago) dioena. Txosten horrek zioenez, proposamen horrek beharrik gabe hedatzen zuen hiri sarea eta hiri eredu barreiatu eta lauso bat indartzen zuen. HAPNaren Dokumentuak kendu egin du Txarako lurzoru urbanizagarria, Aurrerapen Dokumentuan halakotzat mugarriztatua.

5.4.2.- Amaña-Arrajolako dentsitate apaleko bizitegi-garapena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurretxostenak HAPNaren Aurrerapen Dokumentuak Amaña-Arrajolan dentsitate apaleko bizitegi-garapenari buruz proposatzen zuena ere aipatzen zuen. Alde horretatik HAPNaren Aurrerapen Dokumentuak berriro aztertu du proposamena, eta Aurretxostenean esaten zenari jarraituz, bloke zabaleko bizitegi-garapen bat proposatzen du, bertan dagoen bidean oinarrituta, berez dagokion jarraipen bezala gaur egungo hiri sarea burutuz.

5.4.3.- Industria-garapena Txontaren ibarbidean

HAPNenaren egungo Agiriak ez du onartzen Txontaren ibarbidean industria-garapena egiteko 1. Hasierako Onesteko Agiriak zekarren proposamena. Proposamen hori ingurumen-inpaktua batera ebaluatzeko prozesuan aztertu zen, eta ingurumen-akatsak zituen, ingurumenari loturiko elementu batzuetan. Hain zuzen ere, eragin kritikotzat baloratu zen proposamenak jabari publiko hidraulikoan zuen eragina, horrek Txonta erreka-errekastoaren trazadura eta ubidea aldatzea behar baitzuen.



6.- BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIEN PROPOSAMENA

6.1.- INGURUMEN ERAGINAREN EBALUAZIOA PLANIFIKAZIOAREN GORAGOKO MAILETAN EGINDA, ONDORIOZ ATERATZEN DIREN BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIAK IDENTIFIKATZEA

Ingurumen eraginaren Ebaluazio osokoaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak dioenez, Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak, Lurraldeko Plan Partzialek eta Lurraldeko Plan Sektorialek, besteren artean, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren prozeduraren mende jarri behar dira.

Lurraldearen Arloko Plana orain dela gutxi onartu da (2005eko apirilean) eta hari dagokin IENA azterlana ez da publiko egin. Edozein modutan ere, Ingurumenaren esparruarekin duen zerikusia dela eta -azterlan honek alderdi hori jorratzen baitu- LAPren zehaztapen hauek azpimarratu nahi dira:

- Ingurune Fisikoa
- II. Kapituluko 2. atalean ezartzen diren babestu eta/edo hobetu nahiz leheneratu beharreko garrantzi handiko eremuetarako zedarriztapenak eta aplikazio-erregimena jasoko da.

- Kokapenak

II. Kapituluko zehaztapen orokorrak batuko dira, hain zuzen ere, jardun hauek:

- Lurzoru kutsatuen tratamenduari buruzko atal berezi bat sartzea.
- Urbanizatu edo berrurbanizatu behar diren aldeetan uberkek bistan uzteko irizpidea barneratzea.

- Azpiegiturak

II. Kapituluko zehaztapen orokorrak batuko dira, eta hain zuzen ere, jardun hauek:

- 634 errepidearekiko paraleloa izango den bidegorriaren ibilbidea.

- Lurralde samurra



II. Kapituluako zehaztapen orokorrak batuko dira, hain zuzen ere, jardun hauek:

- Aisialdirako Naturaguneak sailkapen honen arabera:
 - Hiri-inguruak: Eibar, Arrate eta Urko-Usartza parkeak
 - Eskualdekoak: Irumuga-Urko-Kalamua parkea
- Lurraldera iristeko landa-eremuak sailkapen honen arabera:
 - Nekazarita-bizitegirakoak: Mandiola eta Arrate
- Turismo-baliabideak:
 - Lehentasunezko turismo-baliabideak: III. eranskinean jasotakoak.
- Ingurugiroaren hobekuntza
 - Industria Paisaia Multzoak: CPI 4.4, 4.5 eta 4.6
 - Hiri inguruak: Eibar
 - Erreka bazterrak: Ego erreka Eibartik igarotzean
 - Hiri-irudiak eta mugarriak nabarmendu: erreka ertzeko pasealekua
- Kultura ondarea:
 - Katalogoetan sartu beharreko ondare-elementuak zehaztu eta aplikazio-erregimena arautu.
 - Katalogatzeke dauden elementuetarako, IV. Eranskinak ezartzen duen gutxieneko araudia jasotzea.

6.2.- PLANAREN HELBURU ETA ESTRATEGIEN EGOKITZAPEN PROPOSAMENA. INGURUMENARI DAGOZKION HELBURUAK

Plan Nagusiaren Dokumentuak bere hiri planeamenduzko prozesuaren helburu nagusien artean kokatzen du garapen iraugarria. Helburu nagusi hori lau esku-hartzeko ardatz estrategikok definitzen dute (ikus 1.2 atala); horien artean “*hiriaren berrikuntza urbanistikoa, ingurumenaren hobekuntzarekin bateragarri eginez*” eta “*hirian bizi-kalitate hobea lortzea*” aipatzen ditu Dokumentuak. Ardatz estrategiko horiek 18 helburutan zehaztu dira; horietako batzuk hurbil-hurbiletik dagozkion ingurumenari:

- Hiri-lurzorua birsortzeko eta zaharkitutako espazio eta eraikin zaharkituak eraberritzeko politika bultzatzea.



- Udallerriaren ingurumena hobetzea, sistemaren iraungarritasunari eutsiko dioten politikak eta ekintzak garatuz.
- Eibar, herri abegitsu eta erakargarria bihurtzea oinezkoarentzat, pertsona orok mugitzeko aukera izan dezan.

Hala ere, Dokumentuan ez dago ingurumenarekiko helburuen sistematizaziorik, helburu zehatzagoak definitzen utziko lukeenik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Programa Markoak (2002-2006) ere beretzat hartua du “2003 aurrera egin edo berrikusten diren Jaurlaritzaren, Foru Aldundien, Mankomunitateen, udalen plan eta programa berri guztietan iraungarritasun irizpide eta helburuak (...)” jasotzeko konpromisoa.

Proposatzen diren helburuak gai desberdinetan daude sistematizatuta. Ondoren gai horietako bakoitzerako, garapen iraungarritzko estrategia baten arabera jokatu nahi duen edozein planeamenduk ingurumenari dagokionez izan behar dituen helburu orokor eta berezi batzuk.

- Lurzoruaren okupazioa: Ahalik eta lurzoru gutxiena okupatzea eta haren erabilera arrazionalizatzea, globalki eraginkorra izango den lurralde eredu batekin adostuz.
- Uraren zikloa: Planeamendua uraren ziklo naturalera egokitzea eta ur baliabideen erabilera globalki eraginkorra izango den lurralde eredu batekin adostea.
- Airearen kalitatea: Planeamenduak airearen kalitatean eta klima aldakuntzan izan lezakeen eragina ahal den bezainbat gutxitzea. Oro har, gai kutsagarrien igorpena ahaleginean gutxitzea.
- Zarata, argitasun eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak: Kutsadura akustikoa, argizkoa eta elektromagnetikoa eragotzi eta zuzentzea.
- Materialen eta hondakinen kudeaketa: Hiri hondakinak birziklatu eta berrerabil daitezten bultzatzea, eta hondakin horiek tratatu edo edukitzeko instalazio egokiak edukitzen bideak jartzea. Eraikuntzak materialen zikloan duen eragina minimizatzea.
- Bioaniztasuna eta izadi ondarea zaintzea: Lurraldeko bioaniztasuna zaintzea eta haren erabilera iraugarria ziurtatzea.
- Paisaiaren kalitatea: Lurraldearen eta hiriaren planeamendu prozesu guztietan paisaia ere kontuan hartzea, iraungarritasunaren ikuspegitik begiratuta.



6.3.- PLAN NAGUSIKO PROPOSAMENETARAKO BABES, ZUZENKETA ETA KOMPENSASIZIO NEURRIAK

Atal honetan eragin negatiboa duten proposamenek ingurumenean eragin dezaketen kaltea eragotzi edo arintzeko eta ingurumenean eragin positiboa izan dezaketen onura ahal dela hobetzeko neurriak jasotzen dira. Neurriak erabakitzeko, eragina nolakoa izango den eta eragin hori zerk eragiten duen kontuan hartu da, eragina txikitzeko, eragin modua aldatzeko edo eragina orekatzeko.

6.3.1.- Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumena hobetzeko babes neurriak

Arriskuak minimizatzea.

- Urez bete daitezkeen lekuei dagokienez -Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzaren egungo zedarriztapenen arabera- HAPNren proposamenetarikoren batek eragiten badie, legokeen garapen planeamendua xehetasuneko azterlan hidrauliko bat hartu beharko du bere gain, behin betiko antolamendua Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak alde horietarako ezarritako irizpideekin bateragarria dela ziurtatuko duena.
- Garapenerako planeamendua egin baino lehen azterketa geoteknikoak egitea eskatuko da. Azterketa horiek barrutien uzkurkortasun baldintzak identifikatuko dituzte eta eraikinak egiteko gomendioak emango.

Uraren zikloa

- Ibaien ertzetan gauzatuko diren jarduera hidraulikoak arautzeko irizpideak III Ipar Hidrologia Planean, 5. atalean, 1. azpiatalean, “Uholdeek, uraldiek eta beste fenomeno hidrauliko batzuek eragindako kalteei aurrea hartzeko eta kalteak eragozteko Azterlanei, Jarduerari eta Lanei buruzko Irizpideak” izenburua duenean, 2.1.5.1.1 arautik 2.1.5.1.17. araura, daude jasota. Irizpide horiek hartuko dira oinarritzat prestatzen ari den Euskal Autonomia Erkidegoko arroen Hidrologia Plana oraindik burututa ez dagoen bitartean.
- Garapenerako planeamendua, ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zehaztasunetara egokitu behar da, ubidearen alde banatan eraikuntzarako edo urbanizaziorako gutxieneko erretiro-lerroei dagokienez. Aipatutako LAPean ezarritako irizpideei jarraikiz, oro har estalitako ubiderapenak ekidingo dira. Urbanizatu edo berrurbanizatu behar diren aldeetan uberkek bistan uzteko irizpidea barneratzea.
- Nekazaritzako eremuetan ur arazketarako sistema autonomoak ezarri beharra izango da, saneamendu sare orokorrera lotzerik ez dagoenean eta nekazaritzako eta basogintzako jokabide zuzeneko kodea betetzea eskatuko da.



Materialen eta hondakinen kudeaketa

- Hondakin eta zabor biltegien kokalekua “jarduera sailkatu” bezala kudeatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Legean (II. Eranskina) jasota dagoen bezala; eta beren erregimena aipatu Legearen III. Tituluko III. Kapituluaren zehazten den Administrazioaren lizentzia erregimenaren mende daude, horrenbestez. Nolanahi dela ere, ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan eraginik izan ez dezaten ahalegina egingo da (3/1998 Legearen II. Kapituluak, 51. Artikulua).
- Hondakin lehorren edo lehortuen kudeaketa hondakin lehor edo lehortuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren eta 1995eko otsailaren 15eko Aginduaren (Eusko Jaurlaritzak, Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak) arabera egingo da.
- Industriadako sektoreetako Plan Partzialetan edo Plan Berezietan lurzoru erreserbak egingo dira industriako hondakinak birziklatzeko eta tratatzeko premietarako.
- Arau eta ordenantza horietan turismorako, hoteletarako eta gisa horretako establezimendu proiektuetan balora daitezkeen materialak gaika biltzeko sistema bat jarri beharra ezarriko da.
- Eraikuntza arauetan eta ordenantzetan obligazioz ezarriko da proiektu horiek hiri hondakin eta zaborren gaikako bilketa egiteko behar diren espazioak aurreikusitako beharra.
- Eraikuntzako hondakinak kudeatzeko udal ordenantza bereziak idatzitako direla aurreikusitako da.

Lurzoru kutsatuen tratamendua

- "Lurzorua potentzialki poluitzen duten jarduerak egiten diren kokalekuei buruzko Inbentarioa"n (IHOBE, 1998) jasotzen dituen kokalekuan dauden eremuetan eta sektoreetan datu zehatz horiek sartuko dira hirigintza-fitxategietan.
- Otsailaren 4ko 1/2005eko legeak, lorzuorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, bere 17. artikulua ezartzen dituen inguruabarretakoren bat betetzen den kasuetan, lurzoruaren kalitatea ikertzeko jardunbideari ekiteko obligazioa ezarriko da.
- 1/2005 Legearen 17. artikulua hauxe ezartzen du: "Autonomia Erkidegoko ingurumen-organuari dagokio lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egitea, titulu honetan araututako prozedurarekin bat etorritik hurrengo gorabeheretakoren bat gertatzen denean:
 - a) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioaren bat duen edo izan duen lurzoruan jardueraren bat instalatu edo handitzen denean.



- b) Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat izan duen eta egun jardunik gabe dagoen kokapen batean lurra mugitzeko proiektuak gauzatzen direnean.
 - c) Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat behin betiko bukatu edo ixten denean.
 - d) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat duen edo izan duen lurzoruaren kalifikazioa aldatzen denean.
 - e) Lurzoruaren jabe edo edukitzea diren pertsona fisiko edo juridikoren kabuz, kutsa dezakeen jardueraren bat egiten denean.
- Ikerketa horrek izango duen helburua kutsadurarik dagoen eta kutsadura-maila nolakoa den adieraztea izango da, erabilera onargarriak zehaztea eta kutsadura kentzeko behar diren sistemak ezartzea, eremu horien erabiltzaile direnek eta eraikuntza-lanean dabiltzan beharginek kutsadura horren ondorioz arriskurik ez dutela izango bermatzeko. Ikerketatik aterako diren emaitzak eta gomendioak garapen planeamenduaren dokumentazio zehatzari atxikiko zaizkio.

Bioaniztasuna zaintzea

- HAPNan azpiegitura linealen eta uraren herri jabetzen ondoko administrazioaren babespeko jabetzek ibilbide ekologiko izateko eginkizuna bete dezaten finkatuta dagoen lan ildoak bultzatuko da.

Paisaia

- Paisaian eragin nabarmena izan dezaketen eta baimena behar duten proiektu guztiei, oro har, paisaia berreskuratzeko eta eragina minimizatzeko programak eduki ditzatela eskatuko zaie, dagokien baimena eman ahal izateko baldintza bezala.

Energia kontsumoa, airearen kalitatea

- Eraikin publiko berrietan instalazio fotovoltaikoak instalazioak jartzea bultzatuko da, ekipamendu berrietan eta eraikin handietan (bulegoak, saltokiak, hotelak eta abar) elektrizitatea sortzen laguntzen duten sistemak jartzea orobat.

Zarata, argitasun eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak

- Kutsadura akustikoa arautuko duten ordenantza batzuk idaztea aurreikusita dago; ordenantza horietan kontuan hartuko dira orain prestatzen ari den Eibarko Mapa Akustikoaren emaitzak.
- Argizko kutsadura arautuko duten ordenantza batzuk idaztea aurreikusita dago.
- Irratikomunikaziorako instalazioak kokatzeko Plan Berezi bat eta horretarako udal ordenantzak idaztea aurreikusita dago.



6.3.2.- Plan Nagusian proposatutako esku-hartzeen eragin esanguratsuenei dagozkien babes eta zuzenketa neurriak

6.3.2.1.- Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa

- Lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari dagokionez ez da zuzenketa neurririk proposatzen.

6.3.2.2.- Azitaingo erabilera industrialerako lurzoru urbanizagarria

- Eremu hori garatuko duen Plan Partzialak kontuan hartuko ditu agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.
- Jarduketaren eraginez Lezeta erreka toaren trazadura eta estaldura aldatzen badira (soberakinak uzteko), aukera hidraulikoen ikerketa eta ingurumen-eraginak zuzentzeko ikerketa beharko da, arto osorako.
- Plataforma berriak betearaztean, ahalegina egingo da landaredia interesgarrian eragin ahalik eta txikiena sortzeko (arteak eta eite nabarmeneko hostozabalen oin urtetsuak).
- Hirigintza-proiektuaren barruan “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” jasoko da, eta horrek obren eta jarduketa osagarrien (instalazio laguntzaileak, hondakindegia edo zabortege berriak, sarbide nahiz bide berriak...) eraginpeko eremuak aztertuko ditu.
- Eraginpeko eremuko nekazaritza-erabiltzaileen gaineko eragina konpentsatu egingo da, diru-laguntzen bidez edo antzeko gaitasun agrologikoa duten lurak emanez, ustiapenekin jarraitzeko asmoa egonez gero.
- Eremuaren antolamenduan, kontuan hartuko da esku-hartzeak paisaiaren eta soinuen aldetik duen eragina. Horri dagokionez, espazio libreak eta lorategidun zonak ikus-hesi akustikoaren funtzioa sustatzeko moduan kokatuko dira, behaketa-gune nagusiak kontuan hartuta (autobidea, Azitain parkea, Arrateko landa-auzoa). Horretarako, espezie autoktonoak edota apaindurakoak erabiliko dira (hostotza handia eta eite nabarmenekoak).
- Plan Partzialak aintzat hartuko du eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura. Horiei dagokienez, udal garraio publikoaren lineak eremu berrira arte luzatzeko aukera aztertuko da.



- Barruti horretan koka daitezkeen jarduerak sor dezaketen zarataren eragina kontuan hartuko da hirigintza-lizentzietan.
- Industrietako hondakin-urak saneamendu-sare berriarekiko bateragarriak izan ezean, urok arazi egin beharko dira.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-konsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan (eraikuntzako materialak, fatxaden tratamendua, barruko orientazioa...).
 - Lurzoru erreserbak ezarriko dira birziklapen beharrezkoetarako eta industria-hondakinen tratamendurako.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.3.- Bizitegi-garapena Azitain Biden

- Xehetasun Ikerketak aintzat hartuko diru agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.
- Eraikinen kota kontuan hartuta, bazterturik egongo da uholde-arriskua, 500 urteko birgertatze-aldirako, eta horretarako, xehetasun-estudio hidraulikoa eskatuko da. Baldintza hidraulikoen arabera bideratzeko eta defentsako obrak egin behar badira, horietan lehentasuna emango zio ingeniarietza biologikoko teknikak erabiltzeari.
- Bidearen eta plataformaren betearazpenean, ahalegina egingo da landare interesgarrietan ahalik eta eragin txikiena sortzeko (baso misto atlantikoa).



- Espazio libreak ikus-hesien eta hesi akustikoen funtzioa sustatzeko moduan jarriko dira, kutsadura-gune nagusien aurrean (autobidea, hirigunean N-634 errepidetik sartzeko bidea, Murrategin sartzeko bidea). Ereku horietan, landaredia interesgarria mantendu edota hobetu egingo da horren funtzionaltasuna, zuhaitz eta zuhaitza autoktonoak eta apaindurakoak (hostotza handikoak) erabiliz.
- Urbanizazio-proiektuak “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” edukiko du, eta horrek aztertu egingo ditu obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakindegia edo zabortege sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak.
- Garapeneko plangintzak kontuan hartu eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzeko sistema ere bermatuko du.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.4.- Lurzoru urbanizagarri programatugabea Legarre-Arrajolan

- Sektore urbanizagarri programatugabea garatuko duen plangintzak kontuan hartuko ditu agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.
- Garapeneko plangintza egin aurreko ikerketa geoteknikoak eskatuko dira, eta horietan arriskuko zonak mugatuko dira. Ikerketan, sektorearen baldintzak identifikatu eta gomendioak emango dira eraikinen eraikuntzarako.



- Garapeneko plangintzak osatu egin beharko ditu Ingurumen Zaintzako Planak (N-634 errepideko saihebidetaren 3. fasearen eraikuntza) proposaturiko neurri zuzentzaileak eta neurketak. Legarre – Arrajola sektorearen antolamenduak aintzat hartuko du azpiegituren eraginezko ikus- eta hots-eragina minimizatzeke helburua. Horri dagokionez, proposaturiko etxebizitzak eta soinua sortzen duen gunetaren artean espazio libreen mantentzea sustatuko da. Eremitan, landaredia interesgarria mantendu edota hobetu egingo da horren funtzionaltasuna, zuhaitz eta zuhaitza autoktonoak eta apaindurakoak (hostotza handikoak) erabiliz.
- Garapeneko plangintzak kontuan hartu eta koponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzeko sistema ere bermatuko du.
- Urbanizazio-proiektuek “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Planak” edukiko dituzte, eta horiek obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakindegia edo zabortegei sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak aztertuko dituzte.
- Urbanizazio-proiektuek honako irizpide hauek hartuko dituzte aintzat:
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Espazio Libreen Sistema Orokorra (Amañako parkea) antolatzeari buruzko neurriak 6.3.1.12 atalean (*Hiri-parkeak eta hiri-inguruko parkeak*) adieraziko dira.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.5.- Lurzoru urbanizagarri eta bizitegi-garapena Bolinguan

- Sektore hori garatuko duen Plan Partzialak kontuan hartuko ditu agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.



- Garapeneko plangintza egin aurreko ikerketa geoteknikoa eskatuko da, eta bertan arriskuko zonak mugatuko dira. Ikerketan, sektorearen baldintzak identifikatu eta gomendioak emango dira eraikinen eraikuntzarako.
- Eremuko ustiapenen edo erabiltzaileen gaineko eragina konpentsatu egingo da, bai dirutan edo bai antzeko gaitasun agrologikoa duten lurak emanez, jarduerarekin jarraitzeko bokazioa egonez gero.
- Plan Partzialak kontuan hartu eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzeko sistema ere bermatuko du.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Sektorearen antolamenduak oraingo drainatze-sarea integratuko du. Ez dira aldatuko sektoretik doan errekaen baldintza naturalak.
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Hiri-parkea antolatzeari buruzko neurriak 6.3.1.12 atalean (*Hiri-parkeak eta hiri-inguruko parkeak*) adieraziko dira.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.6.- Bizitegi-garapena Egazelain

- Sektore hori garatuko duen Plan Partzialak kontuan hartuko ditu agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.



- Garapeneko plangintza egin aurreko ikerketa geoteknikoa eskatuko da, eta bertan arriskuko zonak mugatuko dira. Ikerketan, sektorearen baldintzak identifikatu eta gomendioak emango dira eraikinen eraikuntzarako.
- Eremuko ustiapenen edo erabiltzaileen gaineko eragina konpentsatu egingo da, bai dirutan edo bai antzeko gaitasun agrologikoa duten lurrak emanez, jarduerarekin jarraitzeko bokazioa egonez gero.
- Plan Partzialak kontuan hartu eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzeko sistema ere bermatuko du.
- Urbanizazio-proiektuak “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” edukiko du, eta horrek aztertu egingo ditu obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakindegia edo zabortege sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Sektorearen antolamenduak oraingo drainatze-sarea integratuko du. Ez dira aldatuko sektoretik doan errekaren baldintza naturalak.
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Hiri-parkea antolatzeari buruzko neurriak 6.3.1.12 atalean (*Hiri-parkeak eta hiri-inguruko parkeak*) adieraziko dira.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.



6.3.2.7.- Hiri-lurzorua handitzea eta bizitegi-garapena Amañan

- Aurreikusitako xehetasunezko estudioak aintzat hartuko diru agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.
- Garapeneko plangintza egin aurreko ikerketa geoteknikoa eskatuko da, eta bertan arriskuko zonak mugatuko dira. Ikerketan, arearen baldintzak identifikatu eta gomendioak emango dira eraikinen eraikuntzarako.
- Xehetasuneko estudioak kontuan hartu eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzako sistema ere bermatuko du..
- Xehetasuneko estudioak “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” edukiko du, eta horrek aztertu egingo ditu obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakindegia edo zabortege sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak.
- Eraikin berrietako biztanleek jasango duten eragin akustikoari dagokionez, garapeneko plangintzak kontuan hartuko ditu Ingurumen Zaintzako Planean jasotako datuak (N-634 errepideko saihebidearen 3. fasea). Horri dagokionez, espazio libreak eta lorategidun zonak ikus-hesiaren eta hesi akustikoaren funtzioa sustatzeko moduan kokatuko dira, behaketa-leku nagusietatik (saihebidia) eta kutsadura-gune nagusietarantz (saihebidia). Horrenbestez, ikertu egingo da hiri-inguruko parkeen sistemari jarraipena emateko aukera (auzoen amaieraren eta saihebidearen trazaduraren artean sorturiko parkeak).
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
 - Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.



6.3.2.8.- Txontaren eremuaren antolamendu berria

- Jarduketa-eremu hau garatzen duen Barne Erreformako Plan Bereziak (BEPB) eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioko (IIBE) azterlanak kontuan hartuko dituzte agiri honetan proposaturiko neurri zuzentzaileak.
- BEPBak kontuan hartuko ditu Euskadiko Lurzoruren Kutsaduraren Prebentzioari eta Zuzenketari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legean adierazitako prozedurak, eremu honetan kutsaturik egon daitezkeen lurzoruak daudelako (IHOBEn inbentarioa, 1998). Lege hori 2005eko maiatzaren 16an sartu da indarrean, hau da, EHAAn argitaratu eta hiru hilabete geroago (2005eko otsailaren 16ko 32. zenbakia).
- Bizitegi-aprobetxamenduen kota kontuan hartuta, bazterturik egongo da uholde-arriskua, 500 urteko birgertatze-aldirako, eta horretarako, xehetasun-estudio hidraulikoa eskatuko da. Baldintza hidraulikoen arabera bideratzeko eta defentsako obrak egin behar badira, horietan lehentasuna emango zio ingeniari-tza biologikoko teknikak erabiltzeari.
- Jabari Publiko Hidraulikoan eragina duten jarduketak egitean (100 m-ko erreka-aren gaineko jarduketa, oraingo estalduraren goiko uretan), mantendu egingo dira ubidearen baldintza naturalak; hortaz, bi ertzetan mantendu egingo da urbazterreko landaredia; trazadura eta ohantze zimurra ere mantendu egingo da, etab.
- BEPBk kontuan hartuko du eremuan babesa behar duen ur-gunea dagoela (iturburua).
- Bidearen betearazpenean, ahalegina egingo da landare interesgarrietan ahalik eta eragin txikiena sortzeko (baso misto atlantikoa).
- BEPBak kontuan hartu eta ondo konponduko du hiriko zerbitzuen lotura, besteak beste, udal garraio publikoen lerroen jarraitasuna, eremu berriraino, eta hiri-hondakinak gaika biltzeko espazio egokiak ere bermatuko ditu.
- Urbanizazio-proiektuak “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” edukiko du, eta horrek aztertu egingo ditu obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakin-degi edo zaborte-gi sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:



- Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
- Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
- Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan, eta lorategidun zonetan.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.9.- Hilerria Altamirara eramatea

- Jarduera-eremu hau garatuko duen Barne Erreformako Plan Partzialak eta hari dagokion Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Azterketak kontuan hartuko dituzte dokumentu honetan proposatzen diren zuzenketa neurriak.
- Urbanizazio-proiektuak “Ingurumena eta Paisaia Suspertzeko Plana” edukiko du, eta horrek aztertu egingo ditu obren betearazpenaren eta jarduera osagarrien (instalazio laguntzailea, hondakindegia edo zabortege sorberriak, irekitako sarbideak eta bideak...) eraginpean dauden eremuak.
- Eremuko ustiapenen gaineko eragina konpentsatu egingo da, bai dirutan edo bai antzeko gaitasun agrologikoa duten lurrak emanez, jarduerarekin jarraitzeko bokazioa egonez gero.
- Urbanizazio-proiektuak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:
 - Beharrezko ezpondak modu ahalik eta esekienean egingo dira, gainazal uhindunekin eta zimurrekin. Horiek egonkortu egin behar badira, teknika “biziak” erabiliko dira (horma berdeak...). Eustormak instalatu behar izanez gero, horiek zimendatu gabeko gainjarritako harriekin eginda egongo dira, ahal izanez gero.
 - Sektorearen antolamenduak oraingo drainatze-sarea integratuko du. Sektoretik doan erreka baldintza naturalak ez aldatzen ahaleginduko da.
 - Drainatze-sarearen ertzetan eta aldapa handiko (%50etik gorako) eremuetan zuhaitz estalkia mantendu egingo da. Aldapa handiko (%30etik gorako) eremuetan babes basotxoak mantenduko dira.



- Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoen eremuetan eta ibilgailuen sarbideko eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
- Ur- eta energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezarriko dira eraikin berrietan.
- Proiektuak balora daitezkeen materialak gaika biltzeko sistema bat edukitzea eskatuko zaio.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.10.- Burdinbidea lurperatzea eta lekuz aldatzea

- Burdinbidearen lurperatzea eta aldaketa, ingurumen eraginaren prozeduraren mende dago, 2/98 legearen arabera; eta prozedura horrek erabakiko ditu, proiektua ezagutu ondoren, babeseke eta zuzenketako zein neurri hartu behar diren.
- Plan horrek, nolana ere, kontuan hartu beharko du burdinbidearen ibilbide berrian izan daitezkeela lurzorua kutsa lezaketan jardueren kokaguneak, eta Euskadiko Lurzoruren Kutsaduraren Prebentzioari eta Zuzenketari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legean adierazitako prozedurak bete beharko ditu.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.11.- Hiri barruan mugikortasuna hobetzeko proposamenak

- Uraren Herri jabetzan eragina duten azpiegitura edo eraikuntza berrien (geltoki intermodalaren, lurpeko aparkalekuen) Proiektuek EHAeko Ibai eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak hirigintza atzeratzeko ezartzen dituen gutxieneko neurriak bete beharko ditu.
- Faktore hidraulikoek ubidea egin eta babesteko obrak egin beharra badakarte, ingeniariak biologikozko teknikak erabiliz egingo dira lan horiek.
- Urbanizazio-proiektuek Euskadiko Lurzoruren Kutsaduraren Prebentzioari eta Zuzenketari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legean adierazitako prozedurak kontuan hartuko dituzte.
- Garraio publikoko lineak egokitzeko kontuan hartu beharko da zein lekutan dauden hiriaren erdigunearen periferian ezarritako trafikoa erditik atzeratzeko



aparkalekuak, eta horretan garraio publikoaren erabiltzaile izan daitezkeenek egiaz hura erabil dezaten eta hiriaren erdialdean ibilgailu motordunen trafikoa gutxitu dadin.

- Irispide mekanikoen proiektuetan energia kostuen azterketak egingo dira, eta proiektu berrietan energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak erabiltzea bultzatuko da.
- Obren fasean, kontuan hartuko dira 6.3.4. atalean (*Neurri zuzentzaile orokorrak*) aipaturiko neurri zuzentzaileak.

6.3.2.12.- Hiri-parkeak eta hiri-ingurukoak sortzea

- Plan Berezia garatuko da paisaia suspertzeko eta hobetzeko, edo bestela, alderdi hori Hiriko Parkeen Sarea garatzen duen Plan Bereziaren barruan jaso beharko da.
- Mantendu egingo dira zuhaitz-masa interesgarriak (hariztia, hostozabalen baso mistoa).
- Mantendu egingo dira zuhaitz iraunkorrak, %50eko aldapatik gorako maldetan.
- Hiriko espazio libreen eta interes naturaleko eremuen arteko lotura ekologikoa hobetzeko neurriak ikertuko dira; horri dagokionez, lurralde-ereduaren oinarrizko egitura-elementutzat balio duen sarea sortuko da. Sare horren funtsezko elementuak, izan ere, hiri-inguruko espazio libreak, ibaibideak eta proposaturiko jolas-eremuak dira.
- Bide-azpiegitura berrien proiektuetan kontuan hartuko dira neurri horiek, habitat desberdinen artean sortzen den apurtze-efektua mugatzeko.
- Zoladura-eremuak mugatu egingo dira lursailetan. Oinezkoentzako eremuetan, euriarekiko iragazkortasuna duten materialen erabilera planteatuko da.
- Instalazioetan ura aurrezten duten sistemak erabiliko dira. Eremu berde publiko sorberrietan, ureztaketa kontrolatuko sistemak jarriko dira (tantakoa, ihintadura). Sustatu egingo dira ura berriro erabiltzeko aukera ematen duten sistemak.



6.3.2.13.- Herriaren kanpoaldean parkeak eta atsedenlekuak egitea: Santa Kruz, Arrate eta Kalamua

- Jarduera-eremu hauek garatuko dituen edo dituzten Plan Bereziek kontuan hartuko dituzte dokumentu honetan eta *6.3.1 Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumena hobetzeko babes neurriak* eta *6.3.4 Neurri zuzentzaile orokorrak* puntuetan proposatzen ziren zuzenketa neurriak.
- Kontu handiz erabakiko dira Arrate, Santa Kruz eta Kalamuako espazio libreen sistemari (parke periferikoei eta aisialekuei) atxikitzen zaion denbora-pasa estentsiborako erabileraren baldintzak.
- Plan Berezi bat prestatuko da paisaia berreskuratu eta hobetzeko; plan horretan jasorik egon beharko du paisaia interes berezia duten lurzoruen babespeko zonen mugariztapena. Jarduera eremu hauek garatzeko aurreikusita dauden Plan Bereziek, nolahi ere, alderdi hau zaindu beharra izango dute.
- Paisaia eraginaren azterketa bat eskatuko da katalogatuta edo babestuta dauden kultura intereseko elementuetan ikusmeneko eraginen bat izan dezaketen proiektu guztietan.
- Paisaian eragin nabarmena izan dezaketen eta baimena behar duten proiektu guztiei, oro har, paisaia berreskuratzeko eta eragina minimizatzeko programak eduki ditzatela eskatuko zaie, dagokien baimena eman ahal izateko baldintza bezala.
- Landare multzo natural edo erdi-naturalei dagozkien erabilerak mantendu egingo dira.
- Landaredia hondatuta dagoen eremuetako kalitatea hobetzeko neurriak hartuko dira (itxiturak, garbiketa lanak, landaketak eta abar).
- Zolazta daitezkeen azalerak mugatu egingo dira.

6.3.3.- Zuzenketa neurri orokorrak

Ondoren zuzenketa neurri orokorrak aipatuko dira; neurri horiek Plan Nagusiak proposatzen dituen jarduerak eragindako obra guztietan hartu beharko dira kontuan. Neurri orokor horiek, kasu zehatz bakoitzera moldaturik, Planak proposatzen dituen jarduerak garatzeko proiektuen baldintza orri guztietan jasotzea komeni dela irizten da.



Eragina duten azalerak seinalatzea:

- Gomendio sail bat finkatuko da okupatu behar den azalera ahalik eta txikiena izan dadin. Lanek eragina duten azalerak zuinez zedarriztatuko dira, behar den baino azalera gehiagotan eraginik izan ez dadin.
- Hondalanak egiteko zonen eta obretarako instalazio lagungarrien kanpoaldeak seinalez adieraziko dira, makineria astuna obren muga barruan ibili dadin eta lan egin dezan.
- Zuinez mugarriztatutako eremuetatik kanpo materialak ez erauzten eta hondakinik ez jaurtitzeko ahalegina egingo da.

Lur mugimenduak:

- Hondea lanetan erauzten den lurra obra bakoitzerako aurrez egindako azterketan eta hari dagozkion ordenantzetan erabakitako lekuetan betelanak egiteko erabiliko da. Betelanetarako lurra edo “obrarako hondakin isurtegia” kokatzeko oso arro txikia (<0.2 Km²) duten ibarrak edo aldian behingo ubideak dituztenak, edo ubide batean definitutako azaleko urik ez dagoenak aztertuko dira lehendabizi.
- Ezingo da betelanik egin akuiferoak kutsatzeko arrisku handia edo oso handia duten edo irazgarritasun handia duten eremuetan.
- Lur geruzarik baliozkoenak aukeratu eta berreskuratu ahal izateko prozesuak definituko dira. Jarduera eremuetan dauden lur emankorrak obrarako traba egingo ez duten lekuetan metatuko dira, era horretan geroago berreskuratu behar diren lekuetan erabili ahal izan daitezen.
- Lur gozoa metatzeko garaian zenbat gai organiko dagoen zainduko da. Eta lur horretatik, erein aurretik, harriak kenduko dira.
- Profilatutako azaleraren azkeneko metroa ez da trinkotuko, bertan landatu behar diren landareek hobeto hel dezaten. Eta gutxienez 30 cm-ko lur gozozko geruza bat jarriko da orobat.

Erliebe mota berrien egokitzapen orokorra:

- Aldatu den topografia berriro moldatuko da, berezkora ahalik eta ongien egokitu dadin. Ezpondak, oinean zen altxaeran, bizkartu egingo dira, ertzik eta azalera planorik izan ez dadin.
- Neurriak hartuko dira toki bakoitzean erliebe aldaketei eta geologia arriskuei dagozkien eraginak ahalik eta txikiak izan daitezen.



Eragina izandako azalerak leheneratzea:

- Hondatutako lurrak lehengo egoerara itzuliko dira. Behin esku-hartzea bukatu ondoren behar bezala egokituko dira berriro, lehen zuten erabilera izan dezaten.

Irispideak:

- Obretara iristeko lehendik dauden bideak erabiliko dira, ahal dela. Obretara iristeko bideak obrak hasi aurretik zehaztuko dira, eta ahal dela ez dira irispide berriak egingo. Behar izanez gero, ahal den hobekien egokituko dira terrenora, gehiegizko aldapa duten ezpondarik gabe, lur hustuketa edo betelan nabarmen eta handirik sortu gabe.

Ur baliabideetan izan daitezkeen eraginak:

- Ondorioak nozitzen dituzten erreken eta errekatxoek jarraipena eta kontrola egin beharko da, eta uretan materialak nahastea itzuri egingo da. Horretarako erreka horietan, obrak eragina duen lekua baino beherago, uraren azterketak egingo dira (parametrorik ohikoenak: T^a, pH, konduktibitatea, esekirik daramatzan gai trinkoak, eta abar). Eragiketa egin aurretiko egoeraren agiria jasoko da, eraikuntza aldiaren eragiketa guztien kontrola eraman ahal izateko.
- Ustekabeko isurketaz ura eta zorua ez kutsatzeko bideak jarriko dira. Makinariak azaleko uretara isurtzea debekatu egingo da. Instalazio lagungarriak kokatzeko gainazalak irazgaiztu egingo dira, eta ura ateratzeko azaleko sistema bat izango dute, era horretara isurkariak, isuriz gero, lurrean irazi baino lehen jaso ahal izateko sistema egokietan bildu ahal izateko.
- Erregaiz hornitzeko lekuek eta makineria eduki eta ibilgailuak zaintzeko lekuek, hondakinak biltzeko sistema bat izan beharko dute. Hormigoi makinak garbitzen erabilitako ura kanpora ez isurtzeko bidea jarriko da beti ere. Lan hori irazgaiztutako lekuetan egin beharko da.
- Obrek eta haien instalazioek eragina duten erreka zatietan arrainek igaro ahal izan daitezen, aldatu diren erreken azpia irregularra eta latza izatea proposatzen da.

Eragina nozitzen duen landaredia seinalatzea:

- Garbitu behar diren sailak zuinez mugarriztatu eta adieraziko dira, eta bota behar diren zuhaitzak markatu egingo dira. Zalantzarik bada, zuhaitzak zutik uztea jotzen da lortu nahiko litzatekeen helburu bezala. Lur mugimenduak eragindako landaredia eta egin behar den antolamenduarekin bateraezina dena baizik ez da kenduko.



Paisaia berreskuratzea:

- Ekologia edo paisaia helbururen bat duten eta eraginaren bat jasan duten edo obretan azala urratu den eremuetan paisaia berreskuratzeke lanak egingo dira.
- Paisaia berreskuratzeke bertako landareak erabiliko dira batez ere, bai erreka bazterrak beren lehengo oinera bihurtzeke bai eragina jasan duten zuhaitziak berreskuratzeke (ikus *Izan litekeen Landaredia*, 3.2.6.1. atala eta *Gaur egun dauden landare multzoak* 1, 2, 3, 4 eta 6 unitateak, 3.2.6.2. atala).
- Lur hustuketak aurreratuz joan ahala, belarrezko estalkia jarriko da, higadura arriskua saihesteko. Horretarako bertako lur eta klima baldintzetara ongi egokitzen diren landare motak erabiliko dira.
- Betelan eremuetan ondoko helburuok betetzen dituzten zuhaitz eta zuhaixkak landatuko dira: esku-hartzean paisaiari dagokionez beren ingurumenean egoki txertatzea, lekuaren balio ekologikoak eta estetikoak hobetzea eta azkenik, esku-hartzeke sortutako ezpondak finkatzea.
- Landaredia eta berreskuratutako eremuak mantentzeke lanak berme aldi osoan zehar egin behar dira, geratzen diren hutsuneak betez eta landareek heldu ez duten lekuetan berriro landatuz edo ereinez.

Faunak jasandako eragina:

- Jarduera eremuak hesiz itxiko dira, bertan abererik sar ez dadin, eta landareri landatzen bada, haiek gal ez daitezten. Era berean, beharrezkoak ez diren makineriaren mugimenduak direla eta, aberengandako eragina izan dezaketenez zarata, kutsadura eta gainerako kalte guztiak minimizatu egingo dira.
- Erabakita dauden esku-hartzeak interes bereziko faunaren umaldia ez den garaian egingo dira. Interes berezia duten abere edo hegazti edo bestelako fauna mota guztiak 3.2.7. *Fauna* atalean sailkatu dira. Umaldiak udaberriko hilabeteetan (martxoa-ekaina) izaten dira. Mota bakoitzari dagozkion xehetasunak "Euskal Autonomia Erkidegoko Ornodunak. Eusko Jaurlaritza. 1989" liburuan begira daitezke.
- Erreken ubideetan eraginik duten obrak hasi aurretik haietako arrainak kenduko dira, horretarako "arrantza elektrikoa" deitzen zaion metodoa erabiliz.
- Faunaren mugimenerako edo migrazioetarako hesiak jartzen dituzten proiektuak aldatu egingo dira, traba berririk ez jartzeko.



Sozioekonomia:

- Laneko Segurtasunari eta Higieneari dagokienez indarrean dagoen Araudiak ezarrita dituen araubideak beteko dira.
- Obrek dirauten bitartean trafikoaren kontrola eramango da, trafikoa gehitu delako oztopo edo arrisku gehiago ez sortzeko.
- Airearen kutsadura arintzeko aldiro bideak ureztatuko dira, obra inguruetan sortutako hauts pilak garbituko dira, materialak kargatzeko eta deskargatzeko lanetan ahalik eta hauts gutxiena jasoko da, eta abar.
- Jarduera-eremuan zehar dabilzan ibilgailuen lastertasuna eta tamaina ere kontrolatu egingo da, egun lehor eta haizetsuetan dabilzanena batez ere.
- Makinei zarata gutxitzeko behar diren tresnak jarriko zaizkie, eta zorrotasun guztiaz beteko dira obra lanetarako makinaren zaratari buruzko 86/662/CEE eta 95/27/CE zuzentarauak, ingurumenaren babes maila on batera iritsi ahal izateko.

Kultur ondarearen babesa:

- Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen beste xedapen batzuk bete beharraz gainera, lanek dirauten bitartean arkeologiazko interesa izan lezakeen aurkikuntzaren bat egingo balitz, badaezpada ere lanak eten egingo dira eremu horretan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduari jakinaraziko zaio al bait lehen, eta hark erabakiko du zer neurri hartu behar diren.

Hondakinak:

- Obretan sortzen diren hondakinak, horien artean sarturik lansailak prestatzeko lanetan sortuak, lur hondeaketetan, egiturak erauztean, soberan geratutakoak, uhesiak kentzean eta garbiketa kanpainan geratuak, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, estatuko 833/1988 eta 952/1997 Errege Dekretuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin lehor eta lehortuei buruzko 423/1994 Dekretuan eta hondakinak zabortegean uztea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan esaten denaren arabera kudeatuko dira.
- Bota behar diren eraikinen eraispin lanak modu hautakorrean egingo dira, eraispinetik sortzen diren hondakin mota guztiak banan bana sailkatuta eta kudeatuta.



- Olio erabiliak eta alkatarnak hondakin toxiko eta arriskutsu bezala tratatuko dira, eta Hondakinei buruzko 10/98 Legean, Euskal Autonomia Elkartearen barruan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan eta indarrean dauden gainerako arauetan erabakita dagoenaren arabera kudeatuko dira.
- Hondakin bilketa behar bezala etiketatutako ontzietan egingo da. Ontzi horiek erabilera horretarako aurrez izendatu eta irazgaiztutako lekuetan utziko dira, hormigoizko zoru gainean, estalpean, eta berorien gaikako bilketa bermatu ahal izango den moduan.
- Hondakin lehorrak metatzeko leku bereziak izendatuko dira orobat.
- Hondakinak betatzeko lekuetan sua itzaltzeko gailuak eduki beharko dira, eta ahalegina egingo da sua, beroa eta abar sortzen duten iturbururik ez izateko, suterik gerta ez dadin.
- Ustekabeko isurketarik gertatuko balitz, isuria garbitu eta, nolakoa izan den, hala dagokion trataera emango zaio.

6.3.4.- **Konpentsazio neurriak:**

Ondoko neurriok proposatzen dira, zuzenketa neurriak hartuta ere, esku-hartzeak burutu ondoren izango diren baliabide galera (izadi baliabideena, estetika eta kultur baliabideena, eta abar) berdintzako.

- Landaredia hondatuta dagoen eremuetan landaredi naturala berreskuratzea Plan Nagusiak eragindako esku-hartzeek interes bereziko habitatetan izandako eragina berdintzeko. Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu proposamenean, “Ingurumena Hobetzea” kategorian bada gaur egun landaredia hondatua duen eremu bat. Eremu horrek ipar aldetik Urkoko aisia lekuarekin du muga, eta “Amañako Parkeraino” jaisten da ia. Kategoría horretan sartuta dagoen eremuaren zati batek, “eremu higagarria” ezaugarria du gainera; horregatik, hain zuzen, eremu horretan landare iraunkorrak berreskuratzeke esku-hartze batek oso eragin positiboa izango luke faktore horretan. Eremu horretan bada, gainera, “Babes bereziko izadi intereseko eremua” kategoría duen sailtxo bat, artaditxo bat dagoena; artadiak, izan ere, oso eremu urria hartzen du berez izan lezakeen eremuarekin alderatuta.
- Erreken ubidearen egoera ekologikoa hobetzea arro hidrologiko bereko erreketan egindako ubideratzeen edo ubide aldaketen ordainez. Abontza, Matsaria, Gorosta, Saturixo, Unbe eta Sautxi erreken goialdeetan ubazterreke landaredia hobetzea proposatzen da.



- Igarobide biologikoak sortzea, azpiegitura linealek (Saihesbidearen 3. Faseak, esate baterako) eragiten zuten zatiketa berdintzeko. Igarobide biologikoak “Babes Bereziko” eremu gisa jaso dira Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu proposamenean. Saturixo erreka ubidea jaso da zehazki. Konpentsazio neurri bezala Abontza erreka egoera ekologikoa hobetuko balitz, hiri periferiako aisiarako eremuen eta hiri inguruko parke sarearen arteko lotura ekologikoa hobetzeko aukera emango luke.

6.3.5.- Maila apalagoko planak edo programak diseinatzeko irizpide eta araubide orokorrak

Aurreko atal horietan aipatu diren neurri zuzentzaileak, irizpide eta ildo nagusi edo orokor legez, balio dute HAPNk aurreikusitako garapenerako planeamendua egikaritu eta diseinatzeko orduan.

HAPNk proposatutako jardunen Plan partzialak (Azitain, Legarre-Arrajola, Bolingua, Egazaleai) diseinatzeko irizpideak osatu egin dira ondorengo atal hauetan: 6.3.1.2 (*Azitain-Erisonoko lurzoru urbanizagarriarentzat neurri zuzentzaileak*); 6.3.1.4 (*Azitain-Erisonoko lurzoru urbanizagarriarentzat neurri zuzentzaileak*); 6.3.1.5 (*Bolinguako lurzoru urbanizagarriarentzat neurri zuzentzaileak*); 6.3.1.6 (*Egazelaiko lurzoru urbanizagarriarentzat neurri zuzentzaileak*).

Aurreikusten diren Barne-erreformako edo eraberritze lanetarako Plan Berezien kasuan (Txonta, Matxaria-Estaziñoa, Azitainbide), ondorengo atal hauetan hainbat irizpide eta neurri gehitu dira: 6.3.1.3 (*Azitainbide barrutia berrantolatzeke neurri zuzentzaileak*) eta 6.3.1.8 (*Azitainbide barrutia berrantolatzeke neurri zuzentzaileak*).

HAPNk hirilurrean edo lur urbanizagarrian beste Plan Berezi batzuk egitea aurreikusten du, hiriko parkeen sareari dagozkionak. 6.3.1.12 atalean, (Hiri-parkeak eta hiri-inguruko parkeak sortzeko neurri zuzentzaileak) Planak egiteko irizpideak eta ildo nagusiak osatzen dituzten neurri zuzentzaileak eta babes neurriak sartu dira.

Azkenik, lurzoru urbanizaezinean egitea aurreikusten diren Plan Bereziei dagokienez (Altamira, Arrate, Santakurutz eta Kalamuako parkeak), hainbat irizpide garatu dira 6.3.1.9 atalean (*Hilerria Altamirara eramateko neurri zuzentzaileak*) eta 6.3.1.13 (*Hiri-parkeak eta Aisialdirako guneak sortzeko neurri zuzentzaileak*) Neurri andana horiek 6.3.1. atalean garatzen diren irizpideez eta neurriez osatuta daude (*Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumena hobetzeko babes neurriak*).



6.3.6.- Betetze mailaren adierazleak

Atal honetan lehen aipatu diren babes neurriak, zuzenketa neurriak eta konpentsazio neurriak zenbateraino bete diren eta zenbateko eraginkortasuna duten neurri eta jakiteko balio dezakeen adierazle multzo bat aipatzen da.

6.3.6.1.- Lurzoruaren okupazioa

- *Gaur egungo lurzoruaren azalera + lurzoru urbanizagarria + sistema orokorrek lurzoru urbanizaezinean planeamendua baino lehenago eta ondoren hartzen duen lurzoru kopurua, udalerrriak gaur egun duen eta etorkizunean izan dezakeen biztanleriarekin alderatuta.*

6.3.6.2.- Uraren zikloa

- *Ur kontsumoa pertsonako edo guztira, planeamendu berria aplikatu aurretik eta ondoren.*
- *Udalerritik igarotzen diren erreka ubideen Egoera Ekologikoaren (edo Ahalmen Ekologikoaren) bilakaera planeamendu berriaren aurretik eta ondoren. 60/2000/CE Uraren Arau Markoak jartzen dituen adierazleetan oinarrituko litzateke (V. Eranskina).*

6.3.6.3.- Energia kontsumoa eta airearen kalitatea

- *Bertan sortzeko energia berriztagarriak erabiltzen dituzten eraikinen portzentaia konparaketa, Plana aplikatu aurretik eta ondoren.*

6.3.6.4.- Zarata eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak

- *Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) gomendatzen dituen goreneko zarata mailetatik gorakoa pairatu beharrean aurkitzen den biztanle proportzioa, Plana aplikatu aurretik eta ondoren.*
- *Irratikomunikaziorako instalazioetarako Plan Berezirik edo udal ordenantzarik izatea, planeamenduaren aurretik edo haren ondorioz.*

6.3.6.5.- Materialen eta hondakinen kudeaketa

- *Planeamenduak behar diren neurriak zenbateraino jasotzen dituen. Horretarako proposatu diren ordenamendu irizpideak Planean zenbateraino jaso ziren neurtu nahi da.*



6.3.6.6.- Bioaniztasuna zaintzea

- *Ekosistemak zaintzeko, Plana aplikatu aurretik eta ondoren, babespean jarri den azalera.*

6.3.6.7.- Paisaiaren kalitatea

- *Paisaiari dagozkion arrazoiengatik babespean jarritako azalera.*



7.- PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN PROGRAMA

7.1.- KONTROLAREN HELBURUAK. DEFINIZIOA

Ingurumenaren Zaintza Programaren helburua Plan Nagusiak proposatzen dituen ekimen horien eragina nozitu dezakeen ingurumenaren kalitatea zaintzea da. Horregatik, ekimen horiei dagokienez, ingurumenaren kontrol bat egitea beharrezkotzat jotzen da, azterketa honetan eta Ingurumenarekiko Eraginaren Aurretiazko Txostenean (GFA) erabakitakoa beteko dela bermatzeko. Ingurumenaren kontrola aholkulari bulego kualifikatu batek edo ingurumen gaietan aditua den teknikari batek egin beharko du.

7.2.- JARRAIPEN EGIN BEHARREKO SISTEMAK, ALDERDIAK EDO ALDAGAIK IDENTIFIKATZEA

Ondoko alderdi hauen jarraipen bat egitea eskatzen du: lurzoruaren okupazioa, uraren zikloa, energia kontsumoa eta airearen kalitatea, zarata, argitasun eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak, bioaniztasuna eta paisaiaren kalitatea. Jarraipen horrek, erabakitako adierazleetan oinarrituz, lortutako emaitzen arabera aztertzea eskatuko du.

7.3.- ADIERAZLEEN JARRAIPENA EGITEKO DATU KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK FINKATZEA

Finkatu diren adierazleak beren jarraipena egiteko behar diren datuak lortzeko egiaz dagoen aukerara egokitu dira atal honetan.

7.3.1.- Lurzoruaren okupazioa

- *7.3.1.1. adierazle: Gaur egungo lurzoruaren azalera + lurzoru urbanizagarria + sistema orokorrek lurzoru urbanizaezinean planeamendua baino lehenago eta ondoren hartzen duen lurzoru kopurua, udalerrriak gaur egun duen eta etorkizunean izan dezakeen biztanleriarekin alderatuta.*

HAPNk izan dituen izapidetze-faseetako Dokumentuetatik jasotako datuen arabera aztertzen da adierazle honen bilakaera:



Hiri lurzoruaren azalera, lurzoru urbanizagarriarena eta lurzoru urbanizaezineko bide-sistema						
Lurzoru mota	Eremua (Ha)			Udalerraren azalera %		
	Aurrer.	Has.Ones.	HAPN	Aurrer.	Has.Ones.	HAPN
Hiri lurzorua (HL)	168,6	204,6	202,3	6,8	8,3	8,2
Lurzoru urbanizagarria (LU)	114,6	20,1	22,0	4,6	0,8	0,9
Lurzoru Urbanizaezina (LUE)	2.191,1	2.249,6	2.249,9	88,6	90,9	90,9
Lurzoru Urbanizaezineko Bide-Sarea	178,8	178,8	178,8	7,2	7,2	7,2
<i>SU + SUB</i>	<i>283,2</i>	<i>224,7</i>	<i>226,1</i>	<i>11,4</i>	<i>9,1</i>	<i>9,1</i>

Iturria: Eibarko HAPN Dokumentuak

*Aurrer.: Aurrerapenaren Dokumentua; Has.Ones.: Hasierako Onespenaren Dokumentua; HAPN: HAPNaren Behin-Behineko Onespenaren Dokumentua

Biztanleriaren bilakaera	
Biztanleria 2003an	2013an izan daitekeen biztanleria
28.185	25.000

Iturria: Eibarko Biztanleriaren Eboluzioaren Diagnostikoa eta Ezaugarri Demografikoak

Fase ezberdinen arteko adierazlearen bilakaera kalkulatzeko adierazlea gaurkotu egin da, horretarako izan daitezkeen biztanleen datua erabilita, Eibarrendako aukeratu den hiri-ereduari dagokiona (HAPN).

7.3.1.1 Adierazlea. Planeamendua betearazi ondoren okupaturiko azalera bilakaera, ahalezko biztanleriari dagokionez			
<u>HL + LU + LUEko Bide-Sarea</u> Izan daitekeen biztanleria	Aurrerapena (m ² /bizt.)	Hasierako Onespena (m ² /bizt.)	Behin Behineko Onespena (m ² /bizt.)
	184,8	161,4	162,0

7.3.2.- Uraren zikloa

- 7.3.2.1. Adierazlea: Ur kontsumoa pertsonako edo guztira, planeamendu berria aplikatu aurretik eta ondoren.

Ur kontsumoak. 2001					
Biztanleria	Biztanleak	Etxekoa (m ³)	Etxez kanpokoa (m ³)	Etxeko kontsumoa (l / bizt / egun)	Etxez kanpoko kontsumoa (l / bizt / egun)
Eibar	28.946	1.267.843.000	288.117.000	120	27,3

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune

1995-1998 bitarteko pertsonako etxeko kontsumoaren erreferentzia historikoa hau da:



Pertsonako etxeko kontsumoa (1995-1998)	
Urtea	Etxeko ur kontsumoa (l / bizt / egun)
1995	109
1996	125
1997	118
1998	120

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune

- 7.3.2.2. Adierazlea: Udalerritik igarotzen diren erreka ubideen Egoera Ekologikoaren (edo Ahalmen Ekologikoaren) bilakaera planeamendu berriaren aurretik eta ondoren.

BMWP' Adierazlearen balioak. 2002.			
Zatia	Lagina	BMWP' Adierazlea	BMWP' Mota
Ego	DEG-068 (1999)	6	V
Urko	Urko 2 (2001)	120	II

Iturria: EAE barruko ibaien ezaugarriak. Ur Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. 2002.

QBR Indizearen balioak. 2002.				
IBAIK	QBR PUNTUAZIOA			
	Eskuineko ubazterra	Ezkerreko ubazterra	Guztira	Kalitatea
Ego	5	0	2	Ezin txarragoa
Urko	70	60	65	Onargarria

Iturria: EAE barruko ibaien ezaugarriak. Ur Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. 2002.

Egoera / Ahalmen Ekologikoa. 2002.			
Ibaia	Kalitate mota	Egoera ekologikoa	Ahalmen ekologikoa
Ego	V	-	Txarra
Urko	III	Neurizkoa	-

Iturria: EAE barruko ibaien ezaugarriak. Ur Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. 2002.

7.3.3.- Airearen kalitatea eta energia kontsumoa

- 7.3.3.1. Adierazlea: Bertan sortzeko energia berriztagarriak erabiltzen dituzten eraikinen portzentaia konparaketa, Plana aplikatu aurretik eta ondoren.

Energia berriztagarria bertan sortzeko sistemak erabiltzen dituzten eraikinak		
Energia mota	Eraikinak	Produkzioa (Kw)
Energia hidraulikoa	-	-
Eguzki energia	Armagintza Eskola	-
Haize energia	-	-
Baliabide anitzeko energia sorkuntza	Polikiroldegia	900 – 3.500

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune



7.3.4.- Kutsadura akustikoa eta elektromagnetikoa

- 7.3.4.1. Adierazlea: Zarata mailaren bilakaera Plana aplikatu aurretik eta ondoren.

Eusko Jurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzak Deba Barrena Eskualdearen azterketa pilotu bat egin zuen 1992an, ingurumeneko zarata ebaluatzeko eta zarata mailagatik arazoak izan zitezkeen eremuak zein ziren ezagutzeko. Gaur egun udalerriaren mapa akustiko bat prestatzen ari da; mapa hori izan daiteke Planaren ekimenak aplikatu ondoren adierazle honen izan duen bilakaera ezagutzeko oinarria. Sailburuordetzaren azterketak zarata iturri desberdinak bereizten zituen: errepideak, burdinbidea eta industrialdeak.

Eibarko industrialdeetan neurtutako zarata mailak		
Industrialdea	Lekua	Maila (dBA)
Apalategi	1	71
Errota	1	66
Ibur-erreka	1	67
	2	69
	3	83
Maltzaga	1	67
Matsari-Barren	1	55
	2	69
	3	62
Murrategi	1	46

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune

Komunikabide desberdinetan neurtutako zarata mailak	
ERREPIDEA	Heina (dBA)
A-8 Itziar-Durango	70-75
N-634 Sasiola-Zaldibar	70-75
Herrikoa 1302 Etxeberria-Eibar	60-65

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune

N-634 errepideko leku desberdinetan neurtutako zarata mailak	
LEKUA	dBA
N-634 herri barruan zirkulazioa bi zentzuetan dagoen lekuetan	71
N-634 herri barruan zirkulazioa BI-DON zentzuan	69
N-634 herri barruan zirkulazioa DON-BI zentzuan	98

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune



Eibarko hiriguneko kale desberdinetan egindako zarata mailaren estimazioa					
KALEAK	Leq distantzia desberdinetara estimatua (dBA)				
	1,5 m	5 m	7 m	9 m	12 m
San Andres	76	75	74	73	72
Arragueta	79	78	77	76	75
Isasi	77	76	75	74	73
Bidebarrieta	77	76	75	74	73
Otaola	78	77	76	76	75

Iturria: Eibarko Ingurumenaren Diagnostikoa.2002. Ingurune

- *7.3.4.2. Adierazlea: Irratikomunikaziorako instalazioetarako Plan Berezirik edo udal ordenantzarik izatea, planeamenduaren aurretik edo haren ondorioz.*

Plan Nagusiaren Dokumentuan jasota daude lurzoru urbanizaezinean datuak transmititzeko eta errepikatzeko sistemen kokaerari buruzko azterketan ateratako ondorioak, eta helburu orokor hauek definitu dira:

- Lurzoru urbanizaezinean jarri behar diren antena eta euskarriei dagokienez, eginda dauden eraikinetaraino tarte egokia utziz instalatu beharko dira, zerbitzu publikoa emango dela ziurtatuz beti ere.
- Sistema eta ekipo horiek babes bereziko zonetan ez instalatzeko ahaleginak egingo dira, eta ezta babeseko baso-berritze bezala aurrez ikusitako baso-zonetan ere.
- Ahal dela ez dira instalatuko etxe-gailurretan, uren banalerroetan, eta ezta ikusmenerako eragin nabarmena sortuko duten lekuetan ere.

7.3.5.- Bioaniztasuna zaintzea

- *7.3.5.1. Adierazlea: Eremu honetan zenbat habitat mota dauden eta habitat mota bakoitzak hartzen duen azalera osoa.*

Habitategi buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzak emandako kartografia tematikotik hartu dira; kartografia hori 1990ean 1:25000-eko eskalan egin zen landarediaren inbentario batean oinarritzen da. Gaur egun inbentario hori eguneratzen ari dira, eta horren emaitzak hartu ahal izango dira habitat kopuruaren eta azaleraren bilakaera ezagutzeko oinarri gisa.



LANDARE UNITATEEN AZALERA (HA)		
Kod.	Landare multzoak	Azalera (Ha)
1	Pagadia (kaltzikolo-eutrofoa edo azidofiloa)	38,50
2	Kareharrizko gailurretako eta amilburuetako baso mistoa	1,84
3	Kantauriko artadia	2,48
4	Harizti azidofiloa eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoa	36,11
5	Harizti azidofiloaren eta Hariztia-Atlantikoko baso mistoaren gazte fasea edo degradazio handikoa	107,00
6	Kantauriko haltzadia	5,30
7	Larre/Lahardia	168,66
8	Konifero sailak	1.445,81
9	Mendiko belardia	0,95
10	Belardiak eta labore atlantikoak	482,97
11	Zakartegietako landaredi nitrofiloa (Hiri barruko eremuak, azpiegiturak)	191,11

7.3.6.- Paisaiaren kalitatea

- 7.3.6.2. Adierazlea: Paisaiari dagozkion arrazoiengatik babespean jarritako azalera.

Eibarko udal barrutian indarrean dagoen Planeamenduak ez du paisaia interes bereziagatik inolako azalaren babesik ezarri. Plan Nagusiaren Dokumentuak, lurzoru urbanizaezineko kategorietan "Paisaia eta aisia interes bereziagatiko Babes Bereziko Eremu" gisa 321 Ha-ko azalera bat sartzea proposatu du; azalera hori bat dator Parke Periferikoetarako eta Arrate, Santa Kruz eta Kalamuako Aisialekuetaarako proposatutako eremuekin.

7.4.- IKUSKAPEN, ZAINTZA ETA INFORMAZIO PROGRAMEN DISEINUA

7.4.1.- Iraungarritasunezko estrategiarekin koherentzia duten ingurumen helburuak eta antolamendu irizpideak hartzeari dagozkion ikuskapen, zaintza eta informazio programa

Ingurumen eraginaren Ebaluazio osokoaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak dioenez, plan eta programa desberdinak lantzeko eta onartzeko prozesuan zehar egingo da ebaluazio hori. Kontuan hartu da Plan Nagusiaren prestaketa haren tramitazioarekin batera gertatzen dela, eta horrenbestez etengabe berrikusten edota aldatzen dela Plan Nagusi hori, behin betiko onarpenerantz hurbilduz joan ahala. Prozedura horren arabera, ingurumenari dagokion organoaren esku hartzea bi alditan antolatzen du Dekretuak. Lehenengo fasea edo aldia Aurrerapen Dokumentuari dagokionez ingurumen eraginari buruzko aurre txosten bat ematea da. Aurre txosten hori kontuan hartu dute Plana prestatzeko ardura zutenek, Plan hori hasierako onarpenera eman aurretik.



Bigarren fasea edo aldia, Planaren azken bertsioari dagokionez, behin interesdunei entzun eta jendaurrean jarrita egon ondoren prestatutakoa, ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostena ematearekin batera etorriko da. GFAREN Garapen Iraunkorrerako Departamentuak, HAPNri behin betiko onarpena eman baino lehen, HAPNren antolamendu irizpideak eta ingurumenaren aldetik dituen helburuak aztertuko ditu.

Azkenik, ingurumen arloan eskumena duen organoak, garapenerako planeamenduaren dokumentuetan (Plan Bereziak, Plan Partzialak, urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak) IENAK ezarritako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak hartu direla egiaztatuko duen Eranskin bat sartu den egiaztatu beharko du; neurri guzti horiek zeintzuk diren zehaztu eta neurri eraginkortasun maila adierazi. Eranskin hori -garapenerako planeamenduaren sustatzaileak edo egileak egin behar duena-, espedientearen hirigintza-dokumentuen zati izango da, hortaz, udalari iritsiko zaio. Udalak, edo, hala balegoke, hirigintzaz edo ingurumenaz arduratzen den teknikariak, ziurtagiri hori, ingurumenaren alorrean eskumena duen organoari helarazi behar dio.

7.4.2.- Planeamendua aplikatzeari dagokion obretan Ingurumena Zaintzeko Programa

Plan Nagusiaren Dokumentuaren zehaztasun mailak ez du aukerarik ematen jarduera zehatzei dagokion Ingurumenaren Zaintzarako Programarik zehazteko. Hala ere, ordea, aztertu diren jarduera askotarako ingurumenerako zenbait osagarritan eragina izango duten lanak egin beharko direnez, Ingurumena Zaintzeko Programa orokor bat proposatzen da, aldian aldiko jarduera konkretura moldatu beharrekoa.

7.4.2.1.- Eraikuntza aldia

Eraikuntza aldian obraren ingurumen kontrola egin behar dela iritzi da, era horretara, eraikuntza bakoitzari dagokion proiektuan zehaztu beharko diren babes eta zuzenketa neurriak beteko direla bermatu ahal izateko. Obra bakoitzari dagokion ingurumenaren kontrola aholkulari bulego kualifikatu batek edo ingurumen gaietan aditua den teknikari batek egin beharko du. Obra bakoitzari dagokion ingurumen kontrolean aldi jakinean behin egin beharko dira obraren ikuskapenean jasotako oharpenak bilduko dituzten txostenak. Txosten horietan zuzenketa neurriak kontuan hartu diren ala ez, zuzenketa neurri horien ondorioak, sortu diren arazoak eta abar jasoko dira. Lanetan izan diren gertaera nagusiak, isurketak, gai jaurtiketak eta abar, ere jaso beharko dira txostenetan. Behin lanak burutu direnean, dagokion obraren jarraipenaren azken txosten bat egin behar da.

Hondakin, jaurtipen eta zarata mailen kontrolerako plana

Eraikuntza aldian zehar hondeaketaz erauzitako materiala kontrolatuko da, material hori ezaugarritu eta neurtzetik hasi eta material horrek izango duen azken erabilerraino; erabilera hori dagokion kudeatzaileak sinatutako onspen agiri batez egiaztatu beharko da.



Obrako makineriari aldi jakinean behingo berrikusketak egiten zaizkiola ere kontrolatuko da, era horretan makina horiek behar bezala zaintzen direla ziurtatzeko eta makineriak egiten dituen jaurtipenak eta ateratzen duen zarata indarrean dauden arauetan onartzen diren neurrien barruan daudela kontrolatu ahal izateko.

Airearen kutsadura arintzeko neurriak betetzen direla kontrolatuko da: bideak ureztatzea, obra inguruetan sortutako hauts pilak garbitzea, materialak kargatzeko eta deskargatzeko lanetan ahalik eta hauts gutxiena jasotzea. Obraren ingurumen zuzendaritzak erabakiko du, obrak dirauen bitartean, noiz eta zenbatero egin behar diren ureztatzeak.

Eragina nozitzen duten erreketako uraren kalitatearen kontrola

Obrak egiten diren bitartean berebiziko kontua hartuko da erreketara isurketarik ez egiteko. Era berean, lur mugimenduak egin ondoren errekek higaturak eramandako partikulak daramatzen ere kontrolatu beharko da. Horretarako, eragina nozitzen duten erreketako uraren kalitatea kontrolatuko da.

Uraren kalitatea aztertzekeo lagin fisiko-kimikoak eta biologikoak aztertuko dira. Lagin fisiko-kimikoak bi hilabetez behin jasoko dira, eta lagin biologikoak sei hilabetez behin. Obrak hasi aurretik laginak jaso eta urak lanak hasi aurretik zuen kalitatea ezagutu eta finkatuko da, gero ondoko faseetan ateratzen diren emaitzekin alderatu ahal izateko. Hiru lekutan jasoko dira laginak: bat aldatu behar den eremuaz goiti dagoen ubidean, eta beste biak aldatutako eremuaz behetik dagoen ubide zati batean. Parametro hauek neurtuko dira: T^a, pH, konduktibitatea, disolbaturik duen oxigenoa, olioak eta grasak, esekirik daramatzen gai trinkoak, amonia, DQO eta adierazle biotikoak. Euri-jasa handiak izan ondoren ere laginak jasoko dira obren ondorioz esekirik zenbat gai trinko daraman neurtzeko, eta hala egokitzen bada, behar diren zuzenketa neurriak proposatzeko.

Obrako ingurumen zuzendaritzak laginen emaitzak eta lagin bilketa eta azterketan izandako gorabeherak jaso beharko ditu txostenetan.

Irispideen kontrola

Obran parte hartzen duten ibilgailuek eta makinek lehendik dauden irispideak erabiltzen dituztela kontrolatuko da. Obretara iristeko bideak obrak hasi aurretik zehaztuko dira, eta ahal dela ez dira irispide berriak egingo. Irispide berriak zabaldu beharko balira, ahal den hobekien egokituko dira terrenora, gehiegizko aldapa duten ezpondarik gabe, lur hustuketa edo betelan nabarmen eta handirik sortu gabe.



Lur mugimenduak

Obraren eraikuntza aldiaren aldatu den topografia berriro moldatzeko ekimenak kontrolatuko dira, bereziki ahalik eta ongien egokitu dadin: ezpondak, oinean zen altzairu, bizkartu egingo dira, ertzik eta azalera planorik izan ez dadin, eta abar. Geratzen diren ezponden aldapa kontuz neurtuko da, bertako landareak bertan erretzeko aukera izango duela bermatzeko.

Paisaia Egokitzeko Proiektuaren kontrola eta jarraipena

Dagozkion Berreskuratze Planen jarraipen bat egingo da, haietan adierazita dauden esku-hartze guztiak betetzen direla ziurtatzeko. Hilero-hilero prestatuko dira txostenak bitarte horretan burutu diren esku-hartzeak eta, hala iritziz gero, beste alderdi batzuk ere, gertatutako gorabeherak eta abar, jasoz. Fitxa bereziak prestatuko dira obra unitate bakoitzerako, haiek burutzeari dagozkion alderdi guztiak bilduz: landare motak, kopuruak, itxura, tamaina, materialak, haziak, mulch eta abar.

Obrako Ingurumen Zuzendaritzak landatzeko erabiltzen diren landareak, zuloen prestatzea, landaketa bera eta neurketa ikuskatu beharko ditu. Hidrolandaketetan ondo kontrolatu beharko dira hazien egoera, mulch, egonkortzailea, ongarria, hidrolandaketa egiteko modua, landareen ernaldia eta egindako obra unitatearen neurketa. Finkatu den berme aldiaren mantentze lanak nola egiten diren, hutsik geratzen diren hutsuneak betetzen diren eta landareek heldu ez duten lekuetan berriro landatzen edo ereiten diren ere kontrolatu beharko da.

Obrako instalazioen, langileen eta irispide lagungarrien kontrola

Behin eraikuntza lanak bukatu direnean, bideak, irispideak, makinak berreskuratu beharra izango da, horretako garbiketa lanak, areatze lanak eta lurra harrotzeko lanak eginez. Obrako Ingurumen Zuzendaritzak obra inguru osoa hartuko duen kanpaina orokor bat egingo dela bermatu beharko du, era horretara obra hondakinak eta abar kentzeko.

7.4.2.2.- Funtzionamendu aldia

Paisaia Egokitzeko Proiektuaren kontrola eta jarraipena

Berme aldiaren gerorako, lorategi eta berreskuratze lanak egiteko, beste batzuen kontura, mantentze lana egitea proposatzen da. Era horretara, Berreskuratze Planen bidez lortu diren emaitzen jarraipen bat egin ahal izango bailitzateke, mantentzeko premia handiena duten lekuetan batez ere: hego aldera jotzen duten ezpondak, eta abar. Haietan landatutako landareak edo egindako ereintzak zer egoeratan dauden ere ezagutu ahal izango litzateke, behar izanez gero, hutsik geratutako tartekak betetzeko eta berriro ereiteko.



7.5.- BEREN AZTERKETA XEHEAK GERORAKO UTZI DIREN ALDERDIAK

Atal honetan beren azterketa xeheak garapen dokumentuen ingurumen eraginaren azterketak egin arte atzeratzen diren esku-hartzeak biltzen dira. Dagozkien Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren Azterketak prestatzen direnean egingo da jarduera horien azterketa xeheagoa.

Plan Bereziak

Plan Nagusiaren Dokumentuak diotenaren arabera eremu hauek Plan Berezien figura bidez garatuko dira: Txontako auzoaren berrantolakuntza, Altamirako Hilerria, Hiri parkeen sarea, Parke periferikoak, Aisialekuak. Ingurumen eraginaren Ebaluazio osokoaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak Plan Bereziak aipatzen ditu, besteren artean, aplikazio eremutzat.

Burdinbidea lurperatzea eta lekuz aldatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 3/1998 Legearen I. Eranskinaren C kapituluko 1. artikulua dioenez, lurralde antolamenduko planetan lurzorua kalifikazioa duten 2 km-tik gorako luzerako saihesbideak eta ibilbide aldaketak (...) Ingurumen Eraginaren Banakako Ebaluazioa prozeduraren mende jarri behar dira. Dagozkien Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Sinplifikatuaren Azterketak prestatzen direnean egingo da jarduera horien azterketa xeheagoa.



8.- SINTESI DOKUMENTUA

AURREKARIAK ETA IKERKETAREN HELBURUAK

Ingurumena Babesteko Euskadiko 3/1998 Lege Orokorraren araudia garatzeko, 183/2003 Dekretua onartu da uztailaren 22an; dekretu horrek arautzen du Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Osokoaren (IEEO) prozedura. Dekretuak dio prozedura hori ezarriko zaiela, besteak beste, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiei. Eibarko Udalak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko (HAPO) Udal Bulegoaren bidez, prestatu du dokumentu honetan aztertzen den Plan Nagusia.

8.1.- EIBARKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIAREN (H.A.P.N.) HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA AZTERTUTAKO ALTERNATIBAK

8.1.1.- HAPNeren jarduera esparrua eta gaur egungo egoera

Jarduera esparrua udalerriaren azalera da. HAPNa, behin betiko onarpena jaso ondoren, zortzi urtez indarrean egotea aurreikusten da.

8.1.2.- HAPNeren helburuak.

1995ean "Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia formulatzeko lanak idazteko eta aurkezteko programa, eta Planaren Udal Bulegoaren sorkuntza" onartu zen, eta horren ondoren, Plan Estrategikoa idazten hasi ziren. Prozesu horren haritik, Helburu nagusi bat finkatu zen, honako lau lan ildo hauez osatua:

- 1- Egitura ekonomikoa eta ekoizpen egitura eraldatzea, dibertsifikatzea eta modernizatzea.
- 2- Hiria berrikuntza urbanistikoa, ingurumenaren hobekuntzarekin bateragarri eginez.
- 3- Hirian bizi-kalitate hobea lortzea.
- 4- Eibarrek bere hurbileneko inguruarekin duen erlazioa indartzea, eta bere eskualdeburu izaera hedatzea.

Lan ildo horiek zehazteko 18 helburu eta 75 jarduera estrategiko finkatu ziren, HAPNeren helburu nagusiak markatzen dituztenak.

8.1.3.- Azttertutako alternatiben deskribapena

Atal honetan HAPN osatu bitartean aztertu diren alternatiben berri emango dugu. Hona hemen alternatiba nagusiak.



Dentsitate txikiko etxebizitzaren eskari potentzialari erantzuteko, zenbait eremu hartu dira kontuan, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzeko; adibidez, Legarre-Arrajola, Egazelai, Bolingua, Mandiola, Gorosta, Legarre, Miraflores, Txara eta Ixuako gunek. Era berean, baserri multzoak nekazaritza gune gisa sailkatzeko aukera aztertu da.

Hainbat aukera aztertu dira ibarbide eta mendi hegaletan ekonomia jardueretarako lurzoru urbanizagarria sortzeko: Arrajola, Estixa, Argiñao, Gorosta (Azitain), Murrategi, Txonta, Erisono (Azitain), Ibur erreka eta Urkoko eremua.

Hiri-lurretan aztertutako alternatibei dagokienez, hirigunean edo industrialdeetan (Txonta, Matsaria, Asua Erreka) industriako eraikinak sendotu beharra ikusi da kasu batzuetan, bizitegi erabilerarekin bateraezin diren jarduerak soilik lekualdatzea, lurzoru berkalifikatzea (Otaola-Torreku), Alfan industrialdea sortzea, Lambrettan merkataritza eta aisia guna jartzea, eta ekipamenduetarako eta eraikinak birgaitzea eta berrerabiltzea (Beistegi, Alfa).

Azpiegitura eta komunikazioei dagokienez, honako alternatiba hauek soilik hartu dira kontuan: saihebidetaren 3. faseari dagozkionak, burdinbidetaren saihebidetaren, Markinako tunela, ingurabide berdeko bidegorria, autobus geltokiaren kokalekua...

8.1.4.- Eibarko Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiaren Dokumentuan aintzat hartu diren jardueren laburpena eta zehaztasun maila

Aztertu diren jardueren artean, honako hauek onartu ditu Plan Nagusiak:

LURZORU SAILKAPENA			
KODEA	LURZORU MOTA	AZALERA (m ²)	%
HL	HIRI-LURRA	2.023.210	8,18
LU	LURZORU URBANIZAGARRIA	216.016	0,87
LUE	LURZORU URBANIZAEZINA	22.503.482	90,95
UDALERRIA GUZTIRA		24.742.708	100,00

Etxebizitzak

- Hiri-lurretan bizitegi garapenak egingo dira industrialde zaharkituak eraberrituz (Alfa, Txonta), baita hiriaren berrikuntzarako eragiketa jakinen bidez ere (hutsik dauden hiriko espazioak hartzea, birgaitzea, ordezkatzea).
- Bolingua eta Egazelaiko sektore bana lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu da, eta Amañako hiri luraren mugapena zabaldu egin da, bloke irekiko eraikinak aurreikusita.
- Hilerria dagoen lekuan bizitegi garapen berriak proposatzen dira, espazio libre ugariarekin; hilerria Altamirara aldatu beharko da.



Jarduera ekonomikoak

- Plan Nagusiak onartzen ditu Matsarian, Azitain-Erisonon eta Ibur-Errekan industrialde berriak sortzeko Arau Subsidiarioetan egin beharreko aldaketak.
- Eremu bat sailkatzen du industria erabilerarako lurzoru urbanizagarri gisa, Azitain-Erisonon.
- Lurzoru industrial gisa finkatzen dira Otaola eta Torrekua, unean uneko berrikuntza lanak eginda. Matsaria Ien polo teknologiko bat sortzea proposatzen du, barne berrikuntzako hiri eragiketa bat eginez, eta irisgarritasun baldintzak hobetuta. Era berean, industria eraikin zaharkituak birgaitzeko unean uneko jarduerak ere proposatzen ditu; horien artean aipatzekoak dira “Aurrera” eta “Alfa S.A.” eraikinetarako proposatutakoak.

Egitura orokorra

- Plan Nagusiak onartzen du GFAk Saihesbidearen 3. Faserako onartutako ibilbidea.
- Egungo trenbidearen linea desbideratzea eta lurperatzea proposatzen du.
- Era berean, proposatzen du “Alfa” inguruan autobus geltoki berria jartzea, Azitainen tren geltoki berria jartzea, auzoetan aparkalekuak egitea, Sarbide Mekanikoen Plana zabaltzea (eskailera mekanikoak), oinezkoentzako gunek sortzea (erdigunea, gaur egun burdinbidea igarotzen den tokia) eta auzo arteko bidea osatzeko hainbat jarduera gauzatzea, Otaola eta Azitain artean.

HAPNeren ingurumen proposamenak

- Ego ibaiaren tarte bat agerian uztea, Alfa-Star eremuan.
- HAPNak jaso egin du GFAk egindako Eibarko herriaren Saneamendu Proiektua.
- Lurzoru Urbanizaezinean “Lurgaineko Urak Babesteko Zona” kategoria ezarri da.
- Saturixo ibaiaren ibilguari “Babes Berezi” kategoria ezarri zaio.
- Burdinbide sarea lurperatzea, Alfan geltoki intermodala egitea eta Azitainen beste tren geltoki bat eraikitzea.
- Gaur egungo N-634 errepidea “hiriko kale” bihurtzea, erdigunea oinezkoentzako gune bihurtuta.
- Oinezkoentzako ardatza, auzoen eta erdialdearen artean, burdinbidea estali ondoren.
- Sarbide Mekanikoen Plana.
- “30” zona delakoak auzo guztietan, ibilgailuen abiadura murrizteko.
- Lehendik zeuden eraikinak beste erabilera batzuetarako berrerabiltzea. Erabilera askotarikoa nahasian, hirigunean. Babes Ofizialeko Etxebizitzen politika bultzatzea, zaharkitutako eraikin industrialak berrerabiliz edo/eta birmoldatuz
- “Hiriko eta hiri inguruko parkeak” sortzea (Armagin, Txaltxa Zelai, Amaña, Itzio, Sakun, Asua Erreka, Barrena, Azitain, Bolingua, Egazelai), 120.588 m²-ko azalera bete arte; gune horiek, hiri-lurreko gainerako espazio hutsekin eta lurzoru urbanizagarriarekin, 170.341 m² –ko azalera (6,81 m²/biztanle) osatuko dute. “Ingurabide berdea” eratuko da hirigunearen inguruan, bide sareko zirkulazioak sortzen dituen eragozpenak leuntzeko.



- Plan Nagusiak, hiri inguruko bi parke (Arrate eta Santa Kruz) eta Kalamua atsedenekua (Urko ingurua barne) egitea proposatzen du. 281 Ha-ko azalera du (Lurzoru Urbanizaezinaren % 12,5).
- Lurzoru Urbanizaezinerako honako kategoria hauek zehazten dira: Babes Berezi, Ingurumen Hobekuntza, Baso, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabal Zonalde, eta Lurgaineko Uren Babes. Babes Berezi kategoriak hiru azpikategoria ditu: natura interesekoa, fauna interesekoa eta paisaia-aisialdi interesekoa.

8.1.5.- HAPNren zehaztapenak goragoko esparru batean dauden antolamendu-planei dagokienez

HAPNren helburuak bat datoz nabarmenki Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek (LAA) finkatutako jarraibide orokorarekin, Eibarrentzat, besteak beste, ondoko artezpide hauek proposatzen baitituzte:

- Alde edo area kaltetuak eta zaharkituak birmoldatzea
- Ingurumena hobetzea eta bizi- eta hiri-kalitate maila goratzea.
- Produkzio-sektorea askotarikitzea.
- Lurraldearen berroreka.

Dokumentu honen 1.5. atalean HAPNren jarduera-proposamenak jasotzen dira, goragoko esparru batean dauden antolamendu-planak Planean txertatu eta, hala dagokionean, garatu dituztenak; hain zuzen ere LAA eta Eibarko Lurraldeko zati-plana (Debarrena).

8.1.6.- Ingurumen eragina sor dezaketen jardueren zehaztapena

1.6. atalean zehaztu eta deskribatu dira, horien baloraziorik egin gabe, Plan Nagusiak proposatu eta ingurumen inpaktuak eragin ditzaketen jarduerak. Honako jarduera hauek hartu dira kontuan:

- Lurzoru okupatu berriak: Legarre-Arrajola, Bolingua, Egazelai, Azitain-Erisono, Amaña.
- Erabilera aldaketa: gaur egungo hilerria, Alfa-Star, Txonta, Matsaria-geltokia....
- Ibai ibilguak: Ego ibaiaren zati bat agerian uztea (Alfa-Star), ubideratze proiektuak (Ibur Erreka, Matsaria, Txonta).
- Azpiegiturak: burdinbidea desbideratzea eta lurperatzea, geltoki intermodala, hiri barruko mugikortasuna hobetzeko proposamenak.
- Espazio libreen sistema: Hiri parke, hiri inguruko parke eta atsedeneku berriak egitea.
- Ezarpen isolatuak lurzoru urbanizaezinean: Altamirako hilerria.



8.1.7.- Esku-hartze publikoa

Plan Nagusia formulatu aurretik, Plan Estrategikoa osatu zen, eta hainbat gizarte eragilek parte hartu zuten zeregin horretan: talde politikoeak, sindikatuek, enpresariak, kultur taldeak. Plana onartu zelarik, Erakundearteko Konpromiso Dokumentu bat sinatu zuten inplikaturak zeuden herri administrazioetako arduradunek eta hainbat talde politiko, sindikatu, enpresari, eta kultura, gizarte eta kirol elkarterek. Ondoren, HAPNeren Aurretikostena prestatu zen. 2000 irailean Aurretikostena jendaurrean erakustea erabaki zen.

Planaren edukia ezagutarazteko, dibulgazio txostenak argitaratu ziren, hiru hilabetez zehar jendaurreko aurkezpenak egin ziren, informazio panelekin, hiriko auzo guztietan aurkezpenak egin ziren, herriko komunikabideetan (prentsan, irradian eta telebistan) iragarki laburrak tartekatu ziren eta jendaurreko eztabaidak egin ziren, talde politiko guztiak parte-hartzaile zirela.

Jendaurreko erakusketa egin ondoren, 134 iradokizun bildu ziren. Iradokizunak Hirigintza Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, 2002ko uztailaren 8ko osoko bilkuran, Plan Nagusiaren “Irizpideak, Helburuak eta Soluzio Orokorrak” onartu ziren.

Horren ostean, HAPNren Hasierako Onespenaren Dokumentua edo agiria egin zen, udalbatzak 2004ko urriaren 26ko osoko bilkuran onartu zuena. Agiri hori jendaurrean utzi zen bi hilabetez (2004ko azaroan eta abenduan). Denbora horretan 120 alegazio aurkeztu ziren. Prozesu horrek Dokumentuaren aldaketa ekarri zuen, eta egindako aldaketak sakonak izatera beste hasierako onespen berri bat eman zitzaion (2005eko abenduan); ondoren, dagokion bezala, jendaurrean egon dena. Kontsulta-aldi berri horretan beste 44 alegazio berri aurkeztu ziren.

8.2.- BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINEN ANALISIA

Fase honetan ingurumenari eragin diezaioketen ondorioak ekar ditzaketen beste plan edo programa batzuekiko loturak aztertu dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, 1997an onartuak, gainerako beste dokumentuak idazteko erreferentzia dira. 2005eko apirilean eman zitzaion behin betiko onarpena Eibarko Eremu Funtzionalari buruzko Lurralde Plan Partzialari (Debabarrena) Honako hauek dira onartuta dauden eta Plan Nagusiari eragiten dioten Lurraldearen Arloko Planak (LAP): Kantauriko isurialdeko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzea; EAEko Errepide Plan Nagusia; EAEko Trenbide Sarearen LAP; eta Ekonomia Jardueretarako Lurzorua Sortzeko LAPa. Lantzealdi ezberdinetan dauden LAPak hauek dira: Kultura Ondarearena; Nekazaritza-basoa; Etxebizitzaren Sustapen publikorako Lurzorua sortzea; Gipuzkoako Errepideena.

Hierarkikoki Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren gainetik dauden eta plan hori baldintzatzen duten lurralde antolaketarako plan horien jarraibideak eta zehaztapenak aztertu dira 2.1. atalean.



2.2. atalean aztergai den arloan eragina duten beste plan eta legedi batzuk sartu dira. Uren Legea, Jabego Publiko Hidraulikoari buruzko legedia, Uraren 60/2000/EB Jarraibide markoa (UJM); Plan Hidrologiko Nazionala, Iparraldeko III Plan Hidrologikoa; Gune Urpegarriari buruzko legedia; Lurraren kutsadurari aurrea hartzeko eta kutsadura zuzentzeko Legea, Zarataren Legea, Agenda 21.

Azkenik, 2.3. atalean, erkidegoetan, estatuan, Europan eta munduan ezarri diren ingurumen helburu eta konpromisoak Planak nola landu dituen aztertu da.

8.3.- PLAN NAGUSIAK LANDUTAKO INGURUMEN ANALISI, DIAGNOSTIKO ETA BALORAZIOA

8.3.1.- Azterketa eremua eta kokalekua

Azterketa eremua Eibarko udalerriaren azalera da. Eibarko udalerria Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago, mendebaleko muturrean, Bizkaiarekin mugan (IA-01KO). Eibar Deba Barrena eskualdeko hiri nagusia da, eskualdeburua, eta baita izen bereko Gune Funtzionekoa ere. Honako udalerrri hauekin muga egiten du: Mallabia, Markina-Xemein, Elgoibar, Soraluze, Bergara, Elgeta, Zaldibar eta Ermua. Udalerriaren azalera 24,7 Ha da.

8.3.2.- Ingurune fisikoa

Azterketa eremuaren ingurune fisikoaren ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

- Honako mota litologiko hauek bereizten dira: Kuaternariokoak (harea, limoa, hartxintxarra eta buztina), harkaitz karbonatatuak (markak, margakaredunak eta kareharriak) eta sumendi harriak (piroklastikoak eta kolada). Interes geologikoko egitura garrantzitsuenak hauek dira: Urkoko Tolestura, Ixuako Ebakidura eta Eibarko Tolesturak (**IA-02LI:Litologia**).
- Bi eratako egitura geomorfologikoak dira aipagarriak: ibaienak, ibar alubialak eta ibarrak ezaugarri dituztenak, eta mendi hegalak, egitura kolubialekoak batzuk eta higadura prozesu indartsua nabari zaienak beste batzuk. (**IA-03GE: Geomorfologikoa**).
- Lurzoruaren maldak zortzi kategoriatan banatu dira, ehunekotan adierazitako tarte jakin batzuen arabera (**IA-04MA:Maldak**).



- Udalerria bi Hidrologia Unitatetan banatuta dago (Deba eta Artibai). Eibarko hirigunea eta udalerriaren zati handi bat, 17 km² gutxi gorabehera, Deba ibaiaren Ego ibaiadarraren azpiarroan kokatuta daude. Ego ibaiaren adar nagusiak hauek dira: Pagei edo Matsaria, Gorosta, Unbe, Txonta eta Murrategi. Udalerriaren ipar-ekialdeko mugan Saturixo errekatxoa dago; urak Deba ibaira isurtzen ditu zuzenean. Udalerriaren iparraldean, eta Artibaiko Hidrologia Unitatearekin bat eginda, hainbat erreka txiki daude, Urko ibaiaren goi-ibarra osatzen dutenak. Urko Artibai ibaiaren adar bat da. **(IA-05HI: Hidrologia)**.
- Ego ibaia erabat aldatuta dago, hasi Maltzagako bokaletik eta Ermuko hirigunearen amaieraraino. Ibilbide ia guztian estalita dago, eta gainerakoan, ubidetuta; horren ondorioz, ibaiertzak oso hondatuta daude, konponezinezko kalteak dituzte. Gauza bera gertatzen da hirigunetik igarota ura Ego ibaian isurtzen duten erreken behe ibilguetan. Estali gabe dauden erreka apurrak erabat eraldatuta daude. Erreka horien iturburuak baso inguruetan daude eta zuhaitz estalki egokia dute, oro har.
- Ego ibaiaren uraren kalitatea oso kaskarra da, Ermuko eta Eibarko hiri eta industria isurien ondorioz, oraindik ez baitira arazten. Datu fisikokimiko guztiek erakusten dutenez, ura oso kutsatuta dago, eta horregatik ez dago arrainik ibai horretan. Ibilguren eraldaketaren, ibaiertzen hondamenaren eta ingurunearen kutsadura larriaren ondorioz, potentzial ekologikoa ez da ona. Balorazio hori baliagarri izan daiteke, halaber, ibaiaren adar nagusien behe ibilguetarako (Gorosta, Matsaria, Azitain, Asua, Txonta, Murrategi), adar horiek antzeko ezaugarriak dituztelako, hain larriak ez badira ere.
- Urko ibaiaren goi ibilgua, eta ibai horren adarrak, oso sartua dagoen malda handiko leku batetik jaisten dira, baso erabilera nagusi den leku batean behera. Ibaiertzetan zuhaitz asko dago, oro har. Urko ibaiaren urak kalitate ona du, behe ibilguan izan ezik. Horri esker, egoera ekologiko moderatua du. Ego ibaiaren erreken iturburuak antzeko ezaugarriak dituzte, eta, beraz, horien egoera ekologikoaren balorazioa Urko ibaiaren iturburuaz egindakoaren antzeko da.
- Plan Nagusiak Eibarko udalerriaren Saneamendu Proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindakoa, jasotzen du. Proiektu hori, Deba ibaiaren Saneamendu Planaren barruan dago, eta, plan horren arabera, Elgoibarko udalerrian Hondakin Uren Araztegi bat ezarriko da; une honetan eraikitzen ari dira araztegi hori.
- Aixolako sistemak hornitzen du Eibar; Aixola Gipuzkoako Uren Partzuergoak kudeatzen du. Horrez gain, bi sistema txiki daude, udalak berak kudeatuak, Aginaga eta Arrate herriguneak hornitzen dituztenak.



- Pinusailek edo pinudiek, eta neurri txikiagoan, belartzek, udalerri ia guztian hartu dute jatorrizko basoen lekua. Hariztiak ziren lurretan, aldapa gutxi dutenetan batez ere, larreak dira nagusi. Hariztiei eta pagadieiei zegozkien lurretan oster, konifero edo pinu sailak ageri dira. Jatorrizko basoak desagertu egin dira; antzinako landaredi haren arrastoak lurralde guztiak barreiatuak baso txikietan ikus daitezke. Hamaika landaredi unitate bereizi dira; horien ezaugarri nabarmenenak eta okupatzen duten azalera 3.2.6.2. atalean islatu dira, "Egungo landaredia" izenekoan.
- "Euskadiko Zuhaitz Bitxiak" argitalpenean (Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saila. 1990), Eibarko udalerrian dagoen arte bat (*Quercus ilex ilex*) aipatzen da. Otaolaerdikoa baserriaren ondoan dago arte hori. **IA-06LA** mapan ikus daiteke Landaredi Unitateen banaketa eta Otaolaerdiko artearen kokalekua.
- Mehatxupean dauden Espezieen Euskal Katalogoan udalerriko espezie hauek ageri dira, mehatxupean dagoen floraren atalean: *Lycopodium clavatum* L., "Arrarora" estatusa duena; *Narcissus bulbocodium* L., "Interes Berezikoa" estatusa duena; *Narcissus asturiensis* (Jordan) Pugsley, "Interes Berezikoa" estatusa duena; *Ilex aquifolium* L., "Interes Bereziko" estatusa duena; *Taxus baccata* L. "Interes Berezikoa" estatusa duena.
- 3.2.7. atalean udalerriko animalia espezie eta habitat interesgarriak aipatzen dira. Arreta berezia eman zaie mehatxatutakotzat hartzen direnei. Mehatxupean dauden Espezieen Euskal Katalogoan, honako hauek ageri dira: belatza, "Arrarora" izendatua, eta, "Interes Bereziko" espezieetan, berriz, eskulapioren sugea, mirotz zuria, gabiraia, zata, lepituzulia eta belea. Ugaztunei dagokienez, ipurtats arrunta bakarrik hartu dute espezie mehatxatutzat, eta "Interes Berezikoa" izendapena eman diote.

8.3.3.- Prozesuen eta izan litezkeen arriskuen azterketa

3.3. atalak, "Prozesuen eta izan litezkeen arriskuen azterketa" izenekoak horrelako prozesuak eta arrisku-motak zehazten ditu, eta horien artean hauek dira aipagarri:

- Mendi hegaletako prozesuei dagozkien prozesuen eta izan daitezkeen arriskuen azterketa egin da; bereziki azpimarratzekoak dira material flyshoideen konbinaziozkoak dagozkienak (udalerraren hego-mendebaldean), malda handia eta landare babes urrikoak baitira, eta, hortaz, higadura gertatzeko arrisku handia baitute.
- Uholdeei Aurrea Hartzeko Euskadiko Plan Integralak (PIPIPV) uholdea itzultzeko hainbat alditarako uholde arriskua duten aldeei buruz emandako informazioa jaso da (**IA-08UR: Uholde arriskua**).



- Eibarko udalerrian potentzialki kutsagarri diren jarduerak egiten diren 174 gune daude, IHOBE, S.A.k 1998an egindako “Lurzorua kutsa lezaketan jardueren kokaguneen inbentarioa” argitalpenean agertzen denez (**IA-09LK: Lurra kutsa lezaketan jardueren kokaguneak**).

8.3.4.- Kultura Ingurunea

Plan Nagusiak “Historia-Arte Ondarearen katalogoa” landu du. Katalogo horretan daude Eibarko Hirigune Historikoko Gune Arkeologikoa, Monumentu Multzo kategoriarekin Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean inskribatua, Kultura Ondasun gisa. Ustezko Arkeologia Gune gisa ageri diren 29 elementu ere badaude, eta horietako bakoitzari dagozkion babes eremuaren mugak eta tipologia zehaztuta daude. Katalogoak Ondasun Higiezinaren inbentarioa ere badakar; zenbait arrazoirengatik nolabaiteko babes behar duten ondasunak agertzen dira hor. (**IA-10OK: Ondarea**).

Udalerraren eremuan zortzi paisaia unitate bereizi dira (ikus 3.4.2 atala, “Paisaia”), IA-10PA planoan kontsultagai daudenak. **Paisaia** Landaredi potentziala, neurri handi batean, ordezkatu egin da. Gaur egun zuhaitz sailak dira nagusi. Gutxiago badira ere, badaude larreak, baserri inguruetan. Ibar hondoak, hiri eta industria erabilerek eta azpiegiturek hartuta daude. Erabilera horiek gero eta goragoko maila edo kotetara iristen ari dira, ibarrak eta behe-ibarrak bete ahala. 6, 6, 7 eta 8 Paisaia Unitateak dituen eremuan (Urko eta Kalamua mendien inguruan, eta horien magaletan, esate baterako Arrate inguruan), hortxe daude paisaiaren aldetik interes gehien duten guneak. Ibai, erreka eta erreten ibilguak eta horien ertzak ere, ibai eremuan zuhaitz eremu ñabar unitatea osatzen dutenak, paisaiaren aldetik interes handikotzat hartu behar dira.

8.3.5.- Ingurune sozio-ekonomikoa

Deba Barrena Eskualdean Eibarko eremuaren barruan daude Eibar, Ermua, Mallabia eta Soralue udalerrak eta Zaldibar eta Elgeta udalerrien parte bat. Eremu horretan eskualdeko herritarren %71 bizi dira. Eibarrek 30.468 biztanle zituen 1996an, eta 27.841 biztanle, 2003ean. Gaur egun, biztanleriaren kurba etengabe behera egiten ari da, era sistematikoan. Adinen egituraren bilakaerak biztanleriaren etengabeko eta mailakako zahartzea adierazten du. Aurreikusitako egoera demografikoetatik ondorio hau atera daiteke: litekeena da 25.500-26.500 biztanle izatea 2006an, eta 22.500-24.000 biztanle, 2011n.

Eibarrek, 1996an, 12.695 pertsonako biztanleria aktiboa zuen (aktiboak/biztanleria osoa), biztanleria osoaren %41,8koa. Udalerriko langabezia tasa biztanleria aktiboaren %6,65ekoa zen 2001n. Lehen sektoreak 2.103 Ha kudeatzen ditu; 178 ustiategi daude, horietako 70, abere ustiategiak.



3.5. atalean, "Ingurune Sozioekonomikoa" izenekoan datu gehiago ematen dira bilakaera demografikoari dagokionez, etxebizitzari, gune libreei edo jarduera ekonomikoari dagokienez.

8.4.- ALTERNATIBEN INGURUMEN AZTERKETA. AUKERATUTAKOAREN JUSTIFIKAZIOA

Plan Nagusia formulatzean, Aurrerapen eta Hasierako Onespenaren faseetan aztertu diren garapen sektorialetarako alternatibak 4. *Alternatiben ingurumen azterketa* atalean agertzen dira.

8.5.- ERAGINEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALIOESPENA

8.5.1.- Planaren edo programaren helburuek ingurumenean eragin litzaketen ondorioen azterketa

Azterketa honen 2.2 atalean ezarri den moduan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren helburua da, garapen iraunkorraren ikuspuntutik, lurraldeen arteko berrorka lortuz, herriaren bizitza kalitatearen hobekuntza nabarmena lortzea. Bai helburu nagusi hori bai hori lortzeko garatu diren jardunbideak, bateragarriak dira plan nagusiagoetan ezarritako arauekin edo HAPNan (LAJ, LPS, 21 Agenda, Programa Markoa) eragina dutenekin eta azterketa honen 2. atalean garatu direnekin.

8.5.2.- Planaren jardueren eragina ingurumenean.

8.5.2.1.- Aztertutako jarduerak

Lehenik, Plan Nagusiak proposatutako lurraren sailkapenaren eta kalifikazioaren ezaugarri eta balorazio orokorrak azaldu dira, eta, ondoren, herriko eremu jakinetarako proposatutako jarduerak aztertu dira. Honako jarduera hauek aztertu dira:

1. Lurzoruaren sailkapena
2. Industria-erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitain-Erisonon
3. Berantolaketa eta bizitegi garapena Azitain Biden
4. Lurzoru urbanizagarri programatugabea Legarre-Arrajolan
5. Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Bolinguan
6. Lurzoru urbanizagarria eta bizitegi-garapena Egazelain
7. Bizitegi-erabilerarako hiri-lurzorua handitzea Amañan
8. Berrantolamendua eta bizitegi-garapena Txontan
9. Hilerria Altamirara eramatea
10. Trenbidea lurperatu eta bitan banatzea
11. Hirigunean mugikortasuna hobetzeko proposamena
12. Hirian eta hiri inguruan parkeak sortzea
13. Herriaren kanpoaldean parkeak eta atsedenlekuak egitea.



8.5.2.2.- Ikuspegi metodologikoa

Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiak proposatutako jarduerak lurraldearen ingurumen fisikoan eragindako aldaketak identifikatu dira, lurraldean eragin handiagoa duten proposamenak azpimarratuta. Bigarrenik eragin horien ezaugarriak zehaztu dira, eraginaren adierazleak erabilia (landaredia, geologia, hidrologia, fauna, paisaia, sozioekonomia...) Zehaztapen hori egiteko hainbat eratako irizpideei jarraitu zaie: jardueraren izaera, ekintza-mota, iraupena, etab. Ondoren eraginak sailkatu egin dira eta bakoitzari dagokion balioa eman zaio: bateragarria, neurrizkoa, larria eta kritikoa. Eragin onuragarriak ere jaso dira. Era horretako eraginei dagokienez, horien presentzia identifikatzera mugatu da balorazioa. Identifikazioan eta eraginaren balioespenean erabilitako metodologia 5.3.2. atalean kontsulta daiteke "*Ikuspegi metodologikoa*" izenekoan.

Jarduera bakoitzean izandako eraginaren ezaugarri eta balioespenean tauletan, eragin bakoitzaren garrantziaren arabera, kolore desberdinetan adierazita daude eraginak. Eragin positiboak beste sinbolo batez (+) adierazi dira.

Eraginak	Mailak			
	Bateragarria	Neurrizkoa	Larria	Kritikoa
Eraginaren balioespena	Bat.	Neur.	Lar.	Krit.

8.5.2.3.- Aztertutako jardueren eraginaren identifikazioa eta balorazioa

Ondoren, jarduera bakoitzaren eraginaren ezaugarrien eta balorazioaren laburpena agertzen da.

8.5.2.3.1.- Lurzorua kalifikatzeak eta sailkatzeak ingurunean dituen eraginak

Esan liteke HAPNren Dokumentuan proposatutako eremuek lehendik zegoen gunean dutela oinarri, eta saihestu egin dela lurzoru bakartuak erabiltzea; eta Planaren tramitazioan aintzat hartzekotan zeuden dentsitate apaleko etxebizitza garapena (Txara, Amaña-Arrajola) berriz aztertu izanak hiri egitura inolako beharrik gabe hedatzea eta hiri eredu sakabanatua ezartzea saihestu du. Txontako ibar-behean industrigune bat jartzeko proposamena ere baztertu egin da; asmo hori lehen Hasierako Onarpenari zegokion IENA azterketan aztertu eta ingurumenarekiko ondorio txar ezin handiagotzat hartu zen.

Industria eremu zaharkituak (Alfa, Txonta) berritzeko aurreikusitako ekintza garrantzitsuak, egungo hiri sarea birmoldatzeak eta hirigunean erabilerak nahasteak hiri egitura trinkoa sustatzeko aukera emango dute, funtzioak nabarmen hobetuko dira, eta baita hiri-kalitatea ere, aipatutako alderdien egoera oso-oso txarra dela kontuan hartuta.



8.5.2.3.2.- Erabilera industrialerako lurzoru urbanizagarria Azitain-Erisonon

Azitain aldean industrialdea hegoalderantz-hegoekialderantz handitzea proposatzen du Plan Nagusiak; horretarako, lurzoru urbanizagarritzat sailkatu da 134.718, m²-ko azalera duen sektore bat (13,5 ha). HAPNk 61.821 m²c-ko azalera produktiboa ezartzen du, B+1 soslaiarekin (2 solairu sestra gainean) eta B+2 (3 solairu sestra gainean). **EI-02-01** Jarduera Planoan ageri da proposatutako antolamenduaren eskema (orientagarria)

Intereseko landaredia suntsitzearen inpaktua obren fasean zehar antzemango da. Negatiboa, zuzena, iraunkorra, sinergikoa, itzulezina eta berreskurazina izango da. Babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke, jarduketaren eragina negatiboa murrizteko. Obren fasean, paisaiaren gaineko eragina ere antzemango da, ustiapen-fasean ere ikusiko dena. Negatiboa, zuzena, sinplea, itzulezina eta berreskurazina da. Neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke.

Area urbanizatzean, ura iragazteko ahalmena murriztu egingo da. Eragin hori obren fasea hasten denetik ustiapen-fasera heldu arte antzemango da eta neurri zuzentzaileen bidez murriztu daiteke. Inpaktua negatiboa, zuzena, iraunkorra, sinergikoa, itzulezina eta berreskurazina da. Lur-soberakinak obren fasean sortuko dira. Inpaktu hau negatiboa, zuzena, aldi baterakoa, metagarria, itzulezina eta berreskurazina da. Soberakin horiek behar bezala kudeatuko dira, neurri zuzentzaileen kapituluaren zehazten den moduan. Inpaktu garrantzitsuen artean aipatu beharrekoa da aita ere obren fasean eragingo den kutsadura akustikoa da. Inpaktu hau negatiboa, zuzena, aldi baterakoa, metagarria, itzulezina eta berreskurazina da. Lehen aipatutako beste inpaktuei bezalaxe, honi ere neurri zuzentzaileak aplikatu dakizkioke, ondorioak murrizteko.

5.3.3.2. taulan inpaktuen ezaugarriak adierazteko ezartzen den matrizeak zehatz-mehatz jasotzen ditu aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa.

8.5.2.3.3.- Berantolaketa eta bizitegi garapena Azitain Biden

Azitain Bide 2B eremua (UE 140.01) Azitain auzoan dago. 6.005 m²-ko azalera du. HAPNak eremua berrantolatzea proposatzen du, bide-sistema hobetzeko (besteak beste, banaketa-glorieta eta Murrategirako sarrera berria egitea, eta Azitain auzoaren erdiko gunek oinezkoentzat jartzea) eta 41 etxebizitza eraikitzea, babes ofizialeko erregimenaren pean (BOE).

HAPNak dio eraikinak bloke irekiko tipologia izan dezakeela (S+BS+6) eta linealki kokatuta egon daitekeela, oinezkoentzat izango den kalearen arabera antolatuta. Proposatutako antolamenduaren eskema **EI-03-01** jarduketa-planoan jasotzen da.



5.3.3.3. taulak zehatz-mehatz jasotzen du lehen aipatutako inpaktuen balorazioa. Horien artean, batez ere obren fasean landarediaren eta paisaiaren gaineko eragina eta sortutako hots-kutsadura aipatu behar dira. Inpaktu horiek zuzenak, epe laburrekoak, iraunkorrak eta itzulezinak dira, hots-kutsadura izan ezik, aldi baterakoa eta itzulgarria baita; inpaktu horiek ustiapen-fasean eta antzemango dira, beste aldaketa batzuen ondorioz. Inpaktu larriak dira, baina, neurri zuzentzaileak onartzen dituztenez, beharbada haien kontrako eragina murriz daiteke.

Ustiapen-fasean mantendu egingo da hirigunera sartzeko bideetan eta Murrategirako sarbideetan sortutako hots-kutsadura; inpaktu hau iraunkor, metagarri, itzulgarri eta berreskuragarritzat hartu da. Neurri zuzentzaileak onartzen ditu eta, beraz, aurreikusitako inpaktua leuntzen lagun dezakete.

8.5.2.3.4.- Lurzoru urbanizagarria Legarre-Arrajolan

HAPNaren agiriak lurzoru urbanizagarri programatugabe modura sailkatzen ditu Arrajolan eta Amañan, Legarretik N-634 saihebidetan sartzeko egun dagoen bidearen albo banatan, kokatutako bi eremu, 27.369 eta 4.850 m²-koak, hurrenez hurren. **EI-04-01** jarduketa-planoak adierazten duen bezala, HAPNak Espazio Libreen Sistema Orokorrean barneratzen ditu Legarre-Amañako sektore osoa eta Legarre-Arrajolako sektorearen %70,7. 2,42 ha-ko azalera horrek, “Amañako Parkean” barneratzen denak, saihebidetaren jabari publikoko zonaren eta kanpoaldeko eraikinen artean dauden espazioak osatzen ditu, eta bere mugak saihebidetaren behin betiko trazadura-proiektuko eskakizunetara egokitu dira. HAPNak “gerriko berdea” egitea proposatzen du; gerriko hor, aisiarako area modura erabiltzeaz gain, azpiegiturak sortutako zarata arintzeko izango da.

Obren fasean, jardun ezberdinek eragindako inpaktuak gertatuko dira. Aldaketa aipagarrienen artean, honako hauek ditugu: lur-mugimenduak, lurzoruaren aldaketa, hondakinen antolaketa, paisaiaren gaineko eragina, hots-kutsadura eta airearen kutsadura. Fase honetan zehar, arrisku geologikoak egongo dira, hegalak oso maldatsuak eta ezegonkorak izatearen ondorioz. Behin obrak amaituta, inpaktu esanguratsuen aurreikusitako bizitegi-arearen kalitate akustikoarekin erlacionatutakoa da, N-634 errepidearen saihebidetara egiteko 3. faseko trazadura gertu geratzen baita. Inpaktu hori ezin dakioke HAPNean proposatutako esku-hartzeari egotzi, baina aurreikus daiteke, onetsitako trazadura-proiektuaren ezaugarriak aintzat hartuta.

5.3.3.4. taulak aipatutako inpaktuaren ezaugarriak eta kalifikazioa zehazten ditu.

8.5.2.3.5.- Lurzoru urbanizagarri eta bizitegi garapena Bolinguan

HAPNak lurzoru urbanizagarri modura sailkatzen du Bolinguan, hirigunearen (Errekatxu-Arane) eta A-8 autobidearen artean, dagoen eremu bat. Eremu urbanizagarri honek 31.309 m²-ko azalera du.



Bolinguako sektorearen %60 inguru, zehazki 16.983 m², espazio libreetarako gordeko da (sistema lokala) eta, Espazio Libreen Sistema Orokorako azalerarekin batera, Bolinguako hiri-inguruko parkea osatuko du. Proposamenaren arabera, 217 etxebizitza eraikiko dira, bloke irekiaren tipologian eta errepidea euskarri hartuta. Etxebizitza horiek egungo hiri-bilbetik gertuen dagoen zonan kokatuko dira eta ordenazioz kanpo deklaratu diren 11 etxebizitzak ordeztuko dituzte. Eraikin horiek S+B+5+Atikoa eta 2S+B+5 profilak izango dituzte, hurrenez hurren. Etxebizitza-kopuruaren gehikuntza garbia aintzat hartuta, etxebizitza berrien %55 (114 etxebizitza) babes ofizialekoak izango dira. **EI-05-01** jarduketaplanoak, batetik, eremu urbanizagarriaren, bizitegi-erabilerako sektorearen eta Espazio Libreen Sistema Orokorrean barneratuko den zonaren mugak zehazten ditu eta, bestetik, proposatutako antolamenduaren eskema jasotzen du.

Parkea sortzeak eragin positiboa izan dezake landaredian, faunan, paisaian, soinukalitatean eta biztanleei zuzendutako aisiarako aukeretan. Ondorio positibotzat hartu dira baita ere gizarte-egoera ahulagoan dauden sektoreei etxebizitza eskuratzeko aukera ematea eta irisgarritasuna hobetzea.

Kontrako ondorioen artean, bai eremua erabiltzen dutenek bai eremuan bizi direnek jasan beharreko eragin sozioekonomikoa; bi talde horiek beste leku batera eraman behar dira bizitzera, ekoizteko euren espazioa gal ez dezaten. Eragin horiei aurre egiteko, kaltetuak diruz konpentsatuko dira eta/edo beste leku batera eramango dira bizitzera, edo, bestela, ukitutako ustiategiak beste nonbait kokatuko dira, betiere, horiek lantzen jarraitzeko asmorik badago. Ustiapen-fasea amaitu ondoren, kontrako ondorio nagusia eraikin berriek jasan beharko duten hots-kutsadura da; hala ere, aurreikusitako errepidea bigarren mailakoa izango denez, inpaktu hori bateragarritzat hartu da eta, beraz, neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira. 5.3.3.5 taulak aipatutako inpaktuen balorazia jasotzen du zehatz-mehatz.

8.5.2.3.6.- Lurzoru urbanizagarri eta bizitegi garapena Egazelain

Bolinguako eremua bezala, hau ere lurzoru urbanizagarri modura sailkatuta dago HAPNean; horren zati bat bizitegi-erabilerako da eta beste zatia, berriz, Espazio Libreen Sistema Orokorreko. Hirigunearen (Ipurua) eta A-8 autobidearen artean dago. Eremu urbanizagarriak 17,962 m²-ko azalera du. Bertan, 86 etxebizitza egingo dira, bloke irekian eta errepidea oinarri hartuta. Egungo hiri-bilbetik gertuen dagoen zonan kokatuko dira eta ordenazioz kanpo deklaratu diren 11 etxebizitzak ordeztuko dituzte. Etxebizitza-kopuruaren gehikuntza garbia aintzat hartuta, etxebizitza berrien %65 (52 etxebizitza) babes ofizialekoak izango dira. Espazio libreetarako azalera (Sistema Orokorra eta Sistema Lokala gehituta) guztira 11.368 m²-koa da (alegia, urbanizagarri modura sailkatutako eremuaren %63). **EI-06-01** jarduketaplanoak aurreikusitako antolamenduaren eskema jasotzen du.



Esku hartze horren inguruan aurreikusten diren eraginak, aurreko atalean Bolinguari buruz aipatu direnen antzekoak dira. Aurreko kasu horretan bezala, kontrako ondorioen artean, gaur egun eremua erabiltzen dutenek eta eremuen bizi direnek jasan beharreko eragina azpimarratu behar da, saihestezina baita horiek beste leku batera eraman behar izatea bizitzera, bestela, beraien ekoizpen espazioa galduko baitute. Esku-hartzea behin amaituta, ez da nabaritu magnitude esanguratsuko eraginik. Aurreikusten diren gauza bakarrak, paisaiaren aldaketarekin, bide berriko trafikoak ekarriko duen zarata-kutsadurarekin eta eraikin berriek sortuko dituzten hiri-hondakinekin zerikusia duten magnitude bateragarriko eraginak dira. 5.3.3.6 atalak aipatutako eraginaren ezaugarritapena eta balioespena jasotzen du zehatz-mehatz.

8.5.2.3.7.- Bizitegi-erabilerako hiri-lurzorua handitzea Amañan

Amaña auzoan hiri-lurzorua mugak handituko dira eta hiri-hutsuneak bete eta auzoa erabat urbanizatze aldera, gune berrietan bizitegi-eraikinak jarriko dira. Zabalduko eremuak (Asola Igartza) 5.561 m²-ko azalera du. HAPNaren arabera, bertan 81 etxebizitza egingo dira, bloke irekiko tipologia (2 eraikuntza) eta B+4 profilararekin. Etxebizitza guztiak babes ofizialekoak izango dira. Garapen horri esker, 2.267 m² hartuko dituen espazio libreen zona sortuko da, landa-eremurako igarobide gisa.

Bizitegi-garapena nolabait Amaña auzoaren luzapena da, egungo hiri-bilbearen eta saihebidetuek (N-634) zeharkatuko duen eremuaren artean (tarte horretan, saihebidetuek tunelean barrena doa). **EI-07-01** jarduketaren planoak arearen muga, HAPNak aurreikusitako antolamendua eta saihebidetuen trazadura jasotzen ditu, hori guztia onetsitako trazadura-proiektuaren arabera.

Obren fasean, eragin aipagarrienak honako hauek dira: paisaia aldatzea, soberakinak sortzea, higadura edo irristatzeak gertatzea, eta lanak burutzerakoan ohikoak diren eragozpenak sortzea (hots-kutsadura). Eragin horiek aurkakoak, aldi baterakoak eta epe laburrekoak dira, besteak beste, eta, beraz, neurri zuzentzaileak onartzen dituzte, horien ondorioak arintze aldera; izan ere, ondorio horiek larriak izan daitezke kasuan kasuko neurriak ezarri ezean.

Paisaiaren gaineko eragina behin esku-hartzea amaituta ere antzemango da, nahiz eta horren garrantzia neurrizkoagoa izango den eta, aipatu bezala, eraikuntza-proiektuan zehaztutako ezaugarriek (ezpondak, eraikinen tipologia, e.a.) eta paisaia leheneratzeko egin beharreko planak baldintzatuko duten. 5.3.3.7 taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta balorazioa jasotzen ditu zehatz-mehatz.



8.5.2.3.8.- Txontako eremua berrantolatzea

HAPNak Txonta auzoa suspertzeko proposamena egin du; horretarako, oraingo industria-erabilerak bizitegi-erabilera bihurtuko dira. Jarduketa-eremuak 140.601 m²-ko azalera dauka. Antolamendu berriaren barruan, eraginpeko eraikinen eraispena sartzen da (horietariko asko industria-instalazio zaharkituak baitira), baita etxebizitza berrien eraikuntza, sarbideen birmoldaketa eta espazio librean sorrera ere. Jarduketak irtenbidea aurkitu beharko die industrien, etxebizitzaren eta biztanleen lekualdatzei eta horien kokaleku berriei.

Bide-sistema, bestalde, bide perimetral baten bidez konpontzen da; hori “auzo arteko” bidetik irteten da eta bizitegi-proposamena inguratzen du; horrela, erdiko aldea oinezkoen zonatzat askatzen da. Oinezkoen trazadura hori Txonta erreka-eremuaren gainean kokatzen da, eta hori orain hiri-garapenaren azpitik doa. Esku-hartzearen eraginez, oraingo etxebizitzaren ordean (antolamendutik kanpoko 215 etxebizitza) gehienez ere 1.049 etxebizitza berri eraikiko dira, eta horietatik 88 (%10 etxebizitza kopuruaren hazkundera dagokionez) babes ofizialekoak izango dira. Auran, espazio librean 67.270 m² egongo dira (eremuaren azalera osoaren %48).

EI-08-01 jarduketa-planoan, jarduketaren muga, oraingo drainatze-sarea eta HAPNan proposaturiko antolamendua jasotzen dira.

Eraginik garrantzitsuenak obren fasean gertatuko dira. Fase horretan eragina egongo da jabari publiko hidraulikoan, zuhaitzen masetan eta paisaian, eta gainera, hondakin bizigabeak nahiz hiri-hondakinak, zaratak, hautsa, bibrazioak eta airearen kutsadura zein uren kutsadura sortuko dira. Eragin horiek guztiak minimizatu egin daitezke, dagokion atalean azaldutako neurri zuzentzaileen bidez. Jarduketa-eremuan, lurzorua kutsatzeko arriskua duten jarduerak dituzten kokalekuak daude. Eragina, izan ere, lurzoruaren kalitate-ikerketen emaitzen arabera izango da, eta halako ikerketak lur-mugimenduak baino lehen egin beharko dira. Obrak amaitu ondoren, eragina garapeneko plangintzaren ezaugarrien arabera izango da, neurri batean. Fase honetan aztertutako eraginak ez dira handiak, erreka-eremuaren zati bat aldatu eta estali beharra kenduta.

Aipaturiko eraginik gehienek neurritzko eragina dute obren fasean, proposaturiko neurri zuzentzaileak kontuan hartuz gero. Fase horretan drainatze sarearen gainean egonen den eragina larria da, eta gainera, arriskuak daude kutsaturik egon daitezkeen lurzoruei dagokienez. Obrak amaitu ondoren, eragina bateragarria izango da, baldin eta proposaturiko neurri zuzentzaileak betetzen badira. Bestalde, antolamendu berriak landaredian, paisaian, espazio librean sorreran eta hiriko ingurumenaren kalitatean izango duen eragina positiboa da; halaber, aipagarriak dira airearen kutsaduraren nahiz akustikoaren murriztapena eta uren kutsaduraren murriztapena, industria-prozesuak eta instalazioak hala-holako egoeran mantentzeak kutsadura hori sortzen baitu.

5.3.3.8. taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa jasotzen ditu zehatz-mehatz.



8.5.2.3.9.- Hilerria Altamirara eramatea

HAPNk, hilerria, gaur egun herri barruan dagoen lekutik Altamira izeneko lekura eramateko proposamena egiten du. Hilerri berria, gaur egun Altamiragoikoa baserria dagoen lekuaren inguruan egingo litzateke, eta 14,1 Ha hartuko lituzke, gutxi gorabehera. **EI-09** Jarduera Planoak jasotzen ditu jardunaren mugak eta kokapena.

Ekipamenduak izango duen kokaera berriak eragin negatiboa izango du zenbait alorretan; aipatzekoak dira, besteren artean: paisaia, lurzoruaren okupazioa, zuhaitz masaren galera, Uraren Herri Jabetzan izango duen eragina, faunarentzako habitat galera, hondakin lehorrak sortzea (lur mugimenduak), atmosferaren eta uraren kutsadura areagotzea, zarata, hautsa eta dardara sortzea, nekazaritzako produktibitate ekologikoaren galera, eta nekazaritzako ustiattegietan duen eragina. Eraginik handiena eraikitzen ari den bitartean izango da. Behin eraikuntza lanak bukatu direnean, espazioaren okupazioak berak sortuko ditu eraginik handienak, eremuaren urbanizatzek lurraren irazteko ahalmena gutxituko baitu, eta horrenbestez ibaian beherago kokatuta dauden eremuetan uholdeak izateko arriskua handitu egingo da. Baso galerak faunarentzako interesa duten habitaten arteko loturen galera ekarriko du.

Eragin horiek neurrikotzat kalifikatu dira, eraikuntza lanei dagokienez, paisaiaren eraginari dagokion parte salbu, eragin hori larritzat kalifikatzen baita. Ustiapen fasean gertatzeko diren eraginak bateragarritzat jo dira, dagokion atalean zehaztutako neurri zuzentzaileak aintzat hartzen badira. Gaur egun dagoen hilerria lekuz aldatu ondoren hirigune barruan sortuko den espazio librea eragin positibotzat jo da. 5.3.3.9. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginaren balorazioa.

8.5.2.3.10.- Trenbidea bikoiztea eta lurperatzea

Plan Nagusiak trenbidea bikoiztea eta lurperatzea proposatzen du, Eibarreko hirigunetik igarotzen den tokietan (**EI-10**).

Eraikuntza fasean, eragin aipagarriak sortuko dira soberakinak sortzearen eta pilatzearen ondorioz eta horrek paisaian ere izango du eragina; era berean, zarata, hautsa eta dardarak sortuko dira. Uraren herri jabetzan ere kalteak izan daitezke. Kontuan hartu behar dira, halaber, arrisku geologikoak, baita ibilbideko lurzoru batzuk kutsatuta egon daitezkeela ere. Ustiapen fasean iraun egingo dute soberakinen sorreraren ondoriozko eraginek, baita ibilbide berriaren inguruan sortuko diren dardaren ondoriozkoak ere.

Eragin positiboak sortuko dira hiri paisaia hobetzearen ondorioz, agerian dagoen burdinbidea desagertu egingo baita (espazio libre berriak sortuko dira), eta giza osasuna ere hobetu egingo da, gaur egungo ibilbide inguruko kutsadura akustikoa desagertu egingo baita.



Larritzat jo dira eraikuntza fasean soberakinak sortzearen ondorioz gertatuko diren eraginak, paisaiari eragingo diotenak eta zarata-kutsaduraren ondoriozkoak. Neurrizkotzat hartu dira herri-jabari hidrauliko publikoari eragiteko arriskua, eguratsaren kutsadura areagotzekoa eta prozesu geologikoei dagozkien arriskuak edo lurzoru kutsatuak agertzearen ondoriozkoak. Gainerako eraginak bateragarritzat hartu dira. Ustiapen fasean ez da kontrako eraginik aintzat hartu. Ondorio ontzat edo positibotzat hartu dira zarata-kutsadura gutxitzea, hiri-paisaiaren kalitatea hobetu izana, gune edo espazio libreak sortzea eta motorrik ez duen mugigarritasunarentzako aukera gehiago edukitzea.

5.3.3.10. taulak aipatutako inpaktuen ezaugarriak eta kalifikazioa jasotzen ditu zehatz-mehatz.

8.5.2.3.11.- Hiri barruan mugikortasuna hobetzeko proposamena

Plan Nagusiak Eibarko hirigunean mugikortasuna hobetzeko zenbait jarduera proposatzen ditu. **EI-11** jarduera planoan agertzen dira proposatutako jarduera nagusiak. Honako hauek dira esanguratsuenak:

- Garraio publikoa
 - ✓ Geltoki intermodala sortzea “ALFA” inguruan; tren eta autobus geltokia izango da.
 - ✓ Tren geltoki berriak sortzea. Horietako bat, Matsariakoa, gaur egungo geltokiaren ordezkia izango da. Era berean, geltoki berria eraikiko litzateke Azitainen ere, hiriaren ekialdeari zerbitzua emateko (Azitain industrialdea, hezkuntzarako ekipamenduak...).
 - ✓ Gaur egungo hiri autobusaren ibilbidea sendotzea,
- Garraio pribatu motorduna
 - ✓ Ibilgailuen abiadura 50 km/h baino gutxiagora jaistea hirigunean.
 - ✓ Zonalde lasaiak (“30 zonaldeak”) sortzea auzo bakoitzean, eta abiadura 30 km/h baino gutxiagora jaitsaraztea.
 - ✓ Disuasio-neurriak hartzea, ekonomikoak eta lurgainean aparkatzeko espazioa murriztekoak.
 - ✓ Erdialdean txandakako lurpeko aparkalekuak sortzea.
 - ✓ Auzoetan lurpeko aparkalekuak egitea.
- Motorrik gabeko garraioa
 - ✓ Gaur egungo erdialdeko oinezkoentzako eremua zabaltzea, “ALFA”ko eragiketa estrategikoaren bidez eta Fermin Kalbeton Kalea oinezkoentzako egokituz.
 - ✓ Trenbidea desbideratu eta lurperatu ondoren sortuko diren plataformak erabiltzea herria luzetara zeharkatuko duten ibilbide gisa, erdigunearekin lotzeko.



- ✓ Kanpoaldeko auzoak erdialdeko oinezkoentzako eremuarekin lotzea, eskailera mekanikoak jarriz leku estrategikoetan.
- ✓ Oinezkoentzako guneetan bateragarri egitea motorrik gabeko beste garraio batzuekin (bizikletak eta abar.).

Hiri barruan mugitzeko erraztasuna hobetzeko proposamen hauek guztiek eragin positiboa izan dezakete atmosferaren kutsadura gutxitzeari eta kutsadura akustikoa arintzeari dagokienez. Denak batera hartuta hiriaren ingurumen kalitatea hobetzeko balio duten proposamenak dira.

Eraginen ezaugarritzeak kontuan hartu ditu proposamen horietako batzuen (geltokiak, aparkalekuak) obrak egiterakoan izan daitezkeen ondorio batzuk, kontrako ondorioak, ondorio puntualak eta aldi baterakoak herri jabari hidraulikoan, paisaian, soberakinak sortzean, izan daitezkeen lurzoru kutsatuen agerpenean edo eragozpenak sortzean (hautsa, zaratak) Eragin horiek neurritzotzat hartu edo sailkatu dira.

5.3.3.11. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginen ezaugarritzea eta balorazioa.

8.5.2.3.12.- Hirian parkeak sortzea

Plan Orokorrak Espazio libreen 17,03 hektarea antolatu ditu, eta horiek modu homogeneoan banaturik daude hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian (Amaña, Itzio, Sakun, Asua Erreka, Barrena, Azitain, Txaltxa Zelai, Armagin, Bolingua, Egazelai). Horrela, zuzkiduren estandarra biztanleko 6,81 m²-koa izango da, 25.000 biztanleko hiri baterako biztanleria-hipotesian. Parkerik gehienak sortu berriak dira eta hiri-lurzoruko espazio libreen sistemaren barruan daude (Itzioko, Sakuneko, Asua Errekako, Barrenako, Azitaingo, Txaltxa Zelaiko eta Armagineko parkeak). Amañako, Bolinguako eta Egazelaiko parkeak lurzoru urbanizagarriari atxikitako espazio libreen barruan daude. Proposamenean hiria inguratuko duen gerriko berdea sortzeko proposamena egiten da; horretarako, autobidearen (A-8) jabari publikoko zonaren, saihesbidearen (N-634) eta eraikuntza periferikoaren arteko espazioak egokituko dira. Aisialdiko eta jolasaldiko berezko funtzioak ez ezik, bi azpiegitura horiek sorturiko eragozpenak arintzeko funtzioa ere edukiko dute. Parkeek hiriguneari eta bide-azpiegiturei dagokienez duten banaketa **EI-12** jarduketa-planoan ikus daiteke.

Hiriko parkeen eta hiri-inguruko parkeen sorrerak eragin onuragarria izango du hiri-ingurumenaren kalitatean, eta hobekuntzak egongo dira paisaiaren eta landaredia interesgarriaren aldetik. Kasu batzuetan, parke sortu berriak direlako, eta besteetan, plangintzaren irudi berriak bi alderdi horietan kalitatea hobetzeko aukera emango duelako. Proposamenak eragin ona dauka airearen kutsaduraren eta hots-kutsaduraren mailetan, baita iragazpen-gaitasunean ere, eta beraz, erdiko eremuen uholde-arriskuan ere bai. Azkenik, eremu horiek Espazio Libreen Sistema Orokorren barruan kalifikatzeak eragin ona izango du bertatik igarotzen diren ubideetan.



Nekazaritzako usiategien gainerako eraginak neurritzotzat sailkatu dira, eta horietarako konpentsazio-neurriak daudela jotzen da. Kategoría horren sailkapen barruan sartu da baita proposatutako eremuen arteko lotura eza, HAPNren ikuspegitik behintzat neurri zuzentailerik onartzen ez duena. Eragin positibotzat, herri-jabari hidraulikoari dagozkionak, fauna, paisaia, arboladiak mantetzeari edo sortzeari buruzkoak, eguratsaren kutsadura, iragazte-ahalmena, uholdetasuna, zarata-kutsadura eta gizakiaren habitataren kalitatea hobetzeari dagozkionak sailkatu dira. 5.3.3.12 talak aipatutako eraginaren ezaugarritzapena eta balioespena jasotzen du zehatz-mehatz.

8.5.2.3.13.- Parke eta Atsedenleku Periferikoak egitea lurzoru urbanizaezinean

Plan Nagusiak lurzoru urbanizaezinean bi parke periferiko eta atsedenleku bat eraikitzea proposatzen du. Eremu horiek Espazio Librean Sistema Orokorrean sartuta daude, eta **EI-13** jarduera planoan daude jasota; honako hauek dira:

- Kalamuako aisia lekua.....2.809.280 m²
- Arrateko parkea.....275.313 m²
- Santa Kruz Parkea.....124.642 m²
- **GUZTIRA.....3.209.235 m²**

HAPNaren Dokumentuak Lurzoru Urbanizaezinean zenbait kategoría desberdin bereiztea proposatzen du. Horietako bat “Babes Berezikoa” da, helburu nagusia “*ekosistema zaintzen eta hobetzen eta herritarrek ingurune fisikoarekin harremanak errazago izan ditzaten lagunduko duen kontserbazio zorrotzeko erregimen bat sortzea*” duena. Kategoría honetan, denbora-pasa estentsiboa har dezaketen Aisia Lekueterako eta parke periferikoetarako esparruak sartzen dira.

Aurreikusitako eraginak positiboak izan daitezke hainbat alderdiri dagokionez, adibidez, ubideei, intereseko landaredi unitateei, habitaten arteko loturari, intereseko faunari, interes kulturalako elementuei, paisaiari, eguratsaren kutsadurari, iragazte ahalmenari, uholde arriskuari eta higadura prozesuen arriskua murrizteari dagokionez. Eragin negatiborik ez da aurreikusi, baina baliteke eragin puntualen batzuk izatea.

Plan Bereziatan lurraldean, paisaian eta abarretan eragina izan dezaketen jarduerak onagarritzat hartzen diren ahala 5.3.3.13. taulak zehatz-mehatz jasotzen du adierazitako eraginaren balorazioa.



8.5.3.- Eragin kritikoaren ondorioz aldatu edo ezabatutako jarduerak

8.5.3.1.- Txarako dentsitate apaleko bizitegi garapena

HAPNren Dokumentuak, Txara eremuan dentsitate apaleko bizitegi-garapenerako proposamena atzera botatzeko orduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuak egindako Aurretiatzko txostenean emandako zehaztapenak kontuan hartu ditu; eta HAPNren Aurrerapenari zegokion Dokumentuan sartuta bazegoen ere azkenean atzera bota da. Aipatutako txosten horrek zioen proposamenak hiri-bilbeari beharrezkoa ez duen hedapen bat ematean eta hiri-eredu sakabanatu eta lauso bat indartzean zetzala.

8.5.3.2.- Amaña-Arrajolako dentsitate apaleko bizitegi garapena

GFaren aurretiatzko txostenak, Aurrerapenaren Agiriak Amaña-Arrajola eremuan dentsitate apaleko bizitegi garapenari buruz zekarren proposamenean ere eragiten zuen. Hori dela eta, HAPNk proposamena atzera botatu du Aurretiatzko Txostenak ezarritakoaren ildoari jarraikiz. Azkenean, HAPNk esparru murriztuago bat sailkatu du oraingo hiri-bilbea amaitzen den lekuaren eta saihebidetaren trazatuaren artean (GI-634), programatu bariko lurzoru urbanizagarritzat zehaztuta.

8.5.3.3.- Industria garapena Txontako ibarbidean

HAPNk baztertu egin du hasierako lehen onarpenaren Dokumentuan Txontako ibarbidearen industria garapenaren alde zegoen proposamena. Proposamen horrek - Ingurumenarekiko Eragina Neurtzeko Azterlanaren prozesuan aztertu zena- ingurumenaren kontrako ondorioak zituen ingurumen elementu batzuetan. Hain zuzen ere magnitude kritiko eragintzat hartu zen proposamenak herri-jabari hidraulikoari egiten zion eragina, Txontako errekaaren trazatua aldatzea eta bideratzea eskatzen zuena.

8.6.- BABES, ZUZENKETA ETA KONPENTSAZIO NEURRIEN PROPOSAMENA

8.6.1.- Ingurumen Eraginaren Ebaluazioa planifikazioaren goragoko mailetan eginda ondorioz ateratzen diren babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak

Lurraldearen Arloko Plana orain dela gutxi onartu da (2005eko apirilean) eta hari dagokion IENA azterlana ez da publiko egin. Edozein modutan ere, LAPren behin betiko Dokumentuak Eibarko udal planeamenduari dagozkion hainbat atxikipen dakartza, horietako batzuk aintzat hartu eta HAPNren Dokumentuari erantsi zaizkio. 6.1. atalean atxikidura horietako batzuk zehazten dira, ingurumen izaerakoak izatera, azpimarratu nahi izan direnak.



8.6.2.- Planaren helburu eta estrategien egokitzapen proposamena. Ingurumenari dagozkion helburuak

Proposatutako helburuak 6.2. atalean sistematizatu dira, eta honako gai hauei buruzko helburuak ere adierazi dira: lurzoruaren okupazioa, uraren zikloa, airearen kalitatea, zarata, argitasun eta elektromagnetismoari dagozkion baldintzak, materialen eta hondakinen kudeaketa, bioaniztasuna eta izadi ondarea zaintzea eta paisaiaren kalitatea.

8.6.3.- HAPNk proposatutako babes neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak

Neurri horien helburua da eragin nagusiak gertatzeko arriskua murriztea, baita balio handiko elementuak edo elementu hauskorak eta gizakia eragin horietatik babestea ere.

8.6.3.1.- Izadi baliabide estrategikoak zaintzeko eta hiri ingurumen egoera hobetzeko babes neurriak

6.3.1 atalean hainbat neurri jasotzen dira: arriskuak gutxitzea (alde uholderagarriak, arrisku geoteknikoak); uraren zikloa (jardunbide hidraulikoak, ubideetatik egon behar diren erretiroak, arakatzeko-sistemak nekazaritza aldeetan, nekazaritza-praktika onak); materialen eta hondakinen kudeaketa (biltegiak, hondakin geldoak eta geldotuak, gaikako bilketa); lurzoru kutsuak; biodibertsitatea; paisaia; kontsumo energetikoa; baldintza akustikoak, argitasunarenak eta elektromagnetikoak.

8.6.3.2.- Aztertu eta proposatu diren jarduera horien eragin esanguratsuenei buruzko babes neurriak eta neurri zuzentzaileak

Laburbilduz, honako hauek dira eragin nagusiei buruzko babes eta zuzenketa neurriak:

- Intereseko landaredia babesteko neurriak ezarri dira, honako jarduera hauetan: Azitain-Erisono, Azitain-Bide, Bolingua, Egazelai, Txonta, Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekua.
- Malda gehien duten guneeetan zuzentzaileak irautzeko gomendatzen da, honako jarduera hauetan: Azitain-Erisono, Azitain-Bide, Legarre-Arrajola, Bolingua, Egazelai, Amaña, Altamirako hilerria, Txonta, Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekuak.
- Landaredi hondatua duten guneei buruzko zuzenketa neurriak proposatzen dira guneei buruzko jarduerarako: Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekuak.



- Uraren Herri Jabetzari dagokionez, babes neurri gisa ezarri da ibai bazterreko landaredia mantentzea honako jarduera hauetan kaltetutako tartetan: Bolingua, Altamira, Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekua.
- Garapen-antolamenduak honako gune hauetako iturburuak kontuan hartuko eta babestuko ditu: Txonta, Altamira, Atsedenekua.
- Uholde arriskuari dagokionez, babes neurri gisa ezarri da aurreikusitako garapenak 500 urtetik gorako ubidearen kotatik gora ezartzea: Azitain Bide, Txonta, Aparkalekuak.
- Urbanizazio-proiektuetan Paisaia Lehengoratzeko Planak sartuko dira, honako jarduera hauetarako: Azitain-Erisono, Azitain-Bide, Legarre-Arrajola, Amaña, Txonta auzoa, Altamirako Hilerria, Trenbidea Lurperatzea, Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekua.
- Paisaiari buruzko eraginaren ikerketa egitea eskatuko zaie katalogatuta edo/eta babestuta dauden interes kulturalako elementuen itxurari eragin diezaieketen proiektuei: Atsedenekua.
- Arrisku geologikoen guneak zehaztuko dira Legarre-Arrajolan, Amañan.
- Otsailaren 4ko 1/2005 Legeak - Euskal Herriko Lurzoruaren Kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko legea- ezarritako prozedurak edo jardunbideak bete egingo dira, esparru horretan uste batean kutsatuta dauden lurzoruak daudelako (IHOBE Inbentarioa, 1998) ondoko jarduera hauetan: Txontan; trenbidea lurperatzerakoan; mugikortasuna hobetzeko proposamenetan; hiri-parkeetan.
- Mugatu egingo dira zolaztatu daitezkeen azalerak: Azitain-Erisono, Azitain-Bide, Legarre-Arrajola, Amaña, Txonta, Altamirako hilerria, Hiriko Parkeak, Parke Periferikoak eta Atsedenekua.
- Proiektu hauetan energia kostuen ikerketa erantsiko da: Sarbide Mekanikoen Plana
- Azitain-Erisonon kokatuko diren jardueretarako baimenak ematerakoan, kontuan hartuko da jarduera horiek sortzen duten eragin akustikoa.
- Kutsadura akustikoa minimizatzea, zaratak arintzeko hesiak eraikiz: Azitain-Erisono, Amaña, Hiri Parkeak.
- Lurzoru erreserbak egingo dira hondakinak (hirikoak edo/eta industriakoak) birziklatzeko eta tratatzeko premietarako, bizitegi eremu eta industrialde guztien garapen antolamenduetan.



8.6.3.3.- Neurri zuzentzaile orokorrak

Lanak (lurra mugitzea, eraikinak botatzea edo altxatzea, etab.) egin beharra ekarriko duten jarduera guztietarako zuzenketa neurri orokorrak proposatu dira.

Zuzenketa babes neurri horiek lanak egiten ari diren bitartean hartu beharko dira kontuan. Honako alderdi hauei loturiko neurriak dira: Kaltetutako eremuak seinalizatzea; Lur mugimendua; Erliebe forma berriak egokitzea; Kaltetutako eremuak konpontzea; Sarbideak; Baliabide hidrikoen kalteak; Kaltetutako landaredia seinalizatzea; Lurra pilatzea; Lurra trinkotzea; Paisaia lehengoratzea; Faunaren kalteak; Laneko segurtasuna eta higiena; Zirkulazioaren kontrola; Eguratsaren kutsadura; Makinen kontrola; Kultur ondarearen babesa; Hondakinak; Pilaketa gunek; Nahi gabeko isuriak.

8.6.3.4.- Konpentsazio neurriak

Baliabideen (izadikoak, estetiko-kulturalak, etab.) galeraren ordain gisa, honako konpentsazio neurri hauek proposatzen dira:

- Landaredia hondatuta duen gunean berezko landaredia berreskuratzea. Lurzoru Urbanizaezineko kategorietan Ingurumen Hobekuntzako gunek mugatzea.
- Ubideen ingurumen egoera hobetzea. Abontza, Matsaria, Gorosta, Saturixo, Unbe eta Sautxi errearen iturburuetan ibai ertzeko landaredia hobetzea proposatzen da.
- Korridore biologikoak sortzea. Konpentsazio neurri gisa proposatzen den Abontza ubidearen ingurumen egoeraren hobekuntzak periferiako atsedenekuen eta hiri inguruko parkeen arteko lotura ekologikoa hobetzea ekarriko du, halaber.

8.6.3.5.- Maila apalagoko planak edo programak diseinatzeko irizpideak eta jarraibideak

6.3.5. atalean HAPNak aurreikusitako garapen antolamendurako irizpide eta jarraibideak agertzen dira.



8.6.3.6.- Bete beharreko adierazleen deskribapena

6.3.8. *atalean* lehen aipaturiko babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak betetzen diren eta eraginkorrak diren aztertzeke baliagarri izan daitezkeen adierazle hautatu batzuk agertzen dira.

8.7.- PLANAREN ONDORIOAK IKUSKATZEKO PROGRAMA

8.7.1.- Kontrolaren helburuak. Definizioa

Plan Nagusiak proposatzen dituen jardueri dagokienez, Ingurumen Ikuskaritzarako Programaren helburua da bermatzea ingurumenaren kalitatea jarduera horiek eragin litzaketen kalteetatik babestuko dela. Beharrezko jotzen da Plan Nagusiak proposatzen dituen jarduera batzuen garapenean ingurumen kontrola egitea, Ikerketa honek zehaztutakoa betetzen dela bermatzeko. Ingurumen kontrola aholkularitza talde aditu batek edo ingurumenean aditua den Teknikari batek egingo du.

8.7.2.- Ikergai diren sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatzea

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: lurraren okupazioa; uraren zikloa; energia kontsumoa eta airearen kalitatea; zarata, argitasun eta elektromagnetismoko baldintzak; material eta hondakinen kudeaketa; bioaniztasuna zaintzea; paisaiaren kalitatea. Jarraipenean, finkatutako adierazleei dagozkion emaitzen analisisa sartu beharko da.

8.7.3.- Adierazleen jarraipena egiteko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea

Adierazle hautatuen jarraipenerako baliagarri izango diren datuak bildu dira 7.3. atalean.

8.7.4.- Antolamenduaren ezarpenari dagozkion lanen Ingurumen Ikuskaritzako Programa

Aztertutako jarduera gehienetan lanak egin beharko dira eta lan horiek ingurumenaren hainbat osagairi eragingo diete. Hori dela eta Ingurumen Ikuskaritzako Programa orokor bat proposatzen da, jarduera bakoitzaren berezitasunei egokitu beharrekoa, hala behar izanez gero. Jarraipen Planak 7.4.2. atalean bildu eta ondoren laburtuta aipatuko ditugun alderdi hauek kontuan hartu beharko ditu:



- Hondakin, igorpen eta zarata mailen kontrolerako plana; ubide kaltetuen uraren kalitate kontrola; sarbideen kontrola; lur mugimenduak; paisaia egokitzeko proiektuaren kontrolerako eta jarraipenerako plana; lanetako instalazioen, langileen eta bide osagarrien kontrola.

8.7.5.- Azterketa zehatz atzeratuaren alderdiak

Atal honetan, azterketa zehatza garapen dokumentuetako edo proiektuetako ingurumenarekiko eraginaren neurketara atzeratuko zaien jardunak dira jasotzen direnak. Ingurumenarekiko Eraginaren Azterlanak egiterakoan egingo da jardun guzti horien azterketa zehatzago bat. Jardun horiek artean HAPNk aurreikusitako plan bereziak edo trenbidearen trazatua aldatzeko eta trenbidea lurperatzeko proiektua daude.



I. ERANSKINA. UTM 30T WN48 SAILEAN SARTZEN DIREN ARRISKUPEKO ORNODUN ESPEZIEEN ZERRENDA ETA ESTATUSA, MEHATXUPEAN DAUDEN ESPEZIEEN EUSKAL KATALOGOAREN ARABERA (167/1996 DEKRETUA)

IZEN ZIENTIFIKOA	IZEN ARRUNTA	ESTATUSA	HABIALDIA
NARRASTIAK			
Elaphe longissima	Eskulapioren sugea	Interes Berezikoa	
HEGAZTIAK			
Circus cyaneus	Mirotz zuria	Interes Berezikoa	EZ
Accipiter nisus	Gabiraia	Interes Berezikoa	EZ
Falco subbuteo	Zuhaitz belatza	Bakana	GERTAGARRIA
Caprimulgus europaeus	Zata arrunta	Interes Berezikoa	GERTAGARRIA
Jynx torquilla	Lepitzulia	Interes Berezikoa	GERTAGARRIA
Corvus corax	Erroia	Interes Berezikoa	ZIURRA
UGAZTUNAK			
Mustela putorius	Ipurtatsa	Interes Berezikoa	



ERANSKINA

Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiari
behin betiko onspena eman zion Gipuzkoako Foru
Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006/12/12an
hartutako erabakira moldatua.



JARDUERA
EKONOMIKOKO
LURZORUAK
GARATZEKO DAUDEN
AUKEREN
INGURUMENARI
BURUZKO AZTERKETA.



AURKIBIDEA

9.-	SARRERA	216
10.-	AZTERTUTAKO AUKERAK.....	216
10.1.-	Aurrerapena egiterakoan aintzat hartutako aukerak.	217
10.2.-	Aurrerapenari egindako iradokizunen ondoren kontuan hartu diren aukerak.	218
10.3.-	Hasierako onarpenaren eta aldi baterako onarpenaren ondoren aintzat hartu ziren aukerak.....	219
10.4.-	Azkenean hartu diren aukerak.	219
10.5.-	Dokumentu honetan aztertu diren aukerak.	220
11.-	“0” AUKERAREN EDO “INTERBENTZIO EZA”REN AUKERA ZEHAZTEA.	221
12.-	AUKERAK AZTERTZERAKOAN ERABILITAKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA.	222
13.-	AZTERTUTAKO AUKERA HORIEK SORTZEN DITUZTEN ERAGIN NAGUSIEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA.	223
14.-	AZKENEAN HARTU DEN KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA.	227



9.- SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiari behin betiko onespena eman zion aldi baterako onespeneren udal erabakian adierazitako eran.

Akordio hark zioen behin betiko onespena ematen zela baina ondoren zekartzan baldintzak bete egin behar zirela, besteak beste, hau:

"Bigarren: Behin betiko onarpen honen eraginkortasunak, Erisonoko industria sektoreari dagokionez, baldintzatzat izango du ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostenean eskatutakoa betetzea, horretan agintzen baita aukeren analisi bat prestatzea eta aurkeztea. Analisi honek, ingurumen eraginaren baterako ebaluaziorako prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuaren eranskineko 4. apartatuan zehaztutakoarekin bat, kontuan hartu beharko ditu jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaria estaltzeko beste aukera posible batzuk ere, azkenean gai honetarako irtenbide bat optimizatzeko eta justifikatzeko.

Aurreko paragrafo horretan aipatu den Ingurumen Eraginaren behin betiko txostenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorrerako Foru Departamentuak luzatutakoak, hauxe dio: *"Erisonoko industri eremu berrirako proposamenari lotutako ingurumen eraginak ikusirik, eta Hiri Antolaketako Plan Orokorrak berak industri arloko jarduera ekonomikorako lurzoru berriak sortzeko helburuei eta Eibarko eremu funtzionaleko Plan Partzialeko zehaztapeni erantzun egokia emate aldera, Eibarko Udalak, Eibarko Hiri Antolaketarako Plan Orokorrean sartu aurretik, aukerei buruzko analisi bat egin eta aurkeztu beharko du, 183/2003 Dekretuaren eranskineko 4. atalean zehaztutakoaren arabera, eta kontuan harturik, inolaz ere, jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaria betetzeko izan daitezkeen beste aukera batzuk ere (esate baterako, eta besteak beste, Matsaria, Azitain eta Goitondoko industri eremuen optimizazioa), gai honetarako irtenbide egoki bat prestatu eta justifikatzearren."*

Dokumentu hau behin betiko erabakian aipatutako determinazioei erantzuteko xedez egiten da, eta Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren eranskin gisa eranstean.

10.- AZTERTUTAKO AUKERAK.

HAPNren espediente tramitatzerakoan, hau da, Aurrerapenean, Hasierako Onespenean eta Aldi baterako Onespenean, aukera asko izan dira aintzat hartu direnak, HAPN egiterakoan, egitura ekonomiko produktiboaren alorrean finkatutako helburuei erantzutearren. Dokumentuak, alor horretako helburu orokorren artean aipatzen dituenak hauek dira:



- Sustatu kalitatezko industri lurzoria lortzeko politika aktiboa.
- Garatu zerbitzu tekniko eta teknologikoen azpiegitura, enpresen eta industrien berrikuntza bultzatzeko.
- Bultzatu eta sendotu herri eredu berriak eskatuko dituen industri jarduerak, eta, hortaz, berriitu industri sarea.

10.1.-Aurrerapena egiterakoan aintzat hartutako aukerak.

Plan Nagusiaren Aurrerapena egiten ari zela zenean, jendaurrean jartzeko erabakia hartu baino lehen, goian esandako helburu horiek betetzeko hainbat aukera aztertu ziren. Kontuan hartutako aukera horien kokapena I.01. Planoan jaso dira, dokumentu honi laguntzen diona.

Hiri-lurra

1. Sendotu hiriaren erdigunean dauden industri eraikinak, eta lekuz aldatu, bakarrik, bizitegi erabilera galarazten dutenak.
2. Kalifikazioa aldatu Otaola eta Torrekua kaleen artean dagoen lurzoriari, lehendik dauden produkzio-jardueren ordez hirugarren sektoreko jardueretara, bizitegirakora eta hiri-ekipamendurakora zuzentzeko.
3. Sendotu indarrean dauden Arau Ordezkatzaileetan, produkzio-jardueretarako, xehatuta zeuden eremuak: Batik bat Txonta, Matsaria, Asua Erreka...
4. Industrialde bat sortu Alfa enpresak San Andres pasealekuan dituen instalazioetan.
5. Berrerabili Alfa enpresak duen bulego-eraikina beste hainbat erabileretarako: Merkataritza zentroa, Eibarko Hiriaren Museoa, Kultura Etxea handitzea...

Lurzoru urbanizagarria.

1. Industria lurzoru urbanizagarritzat hartzen jarraitu Ibur Errekako eremua.
2. Teniker Fundazioaren instalazioak Arrajolara lekuz aldatzea.
3. Hainbat ibarbide jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarritzat sailkatzea. Hainbat kokapen aztertu ziren: Arrajola, Estixa, Argiñao.



4. Gorosta errearen (Azitain) eskumako aldean aurkitzen den mendi-hegala jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoru urbanizagarritzat sailkatzea.
5. Txontako mendi-hegalean industria lurzoru urbanizagarriko sektore bat sortzea.
6. Ermua eta Mallabiarekin batera jardutea, Mallabian lurzoru industrialak garatu ahal izateko.

Azkenean, HAPNak, Mallabian industrialde bat garatzeko proposamena barneratu zuen, Ermua eta Mallabia udalekin batera jardunda. Jarduera hori, Debarreneko Lurraldeko Zati-planak proposatutakoa eta Ingurumen Eraginari buruzko Behin Betiko Txostenean (GFA) aukeratzat aipatutakoa, gauzatzen ari da "*Eibarko udalerrak parte hartzeke*" HAPNren dokumentuak dioenez. Kasu horretan, jarduera horrek komunikazioen alorrean izango lukeen eragina kontuan hartuta, Eibarko saihebidetaren 3. faseari zegokion aurreproiektua berriaztertzea proposatu zen, sarbideak hobetzeko asmoz. Aurrerapeneko Dokumentuak aurkeztu zuen aukerak ezetza jaso zuen, hasieran Ermuko udalak berak eman zion ezetza, eta gero proiektua onesteko eskumena duen organoak, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

10.2.-Aurrerapenari egindako iradokizunen ondoren kontuan hartu diren aukerak.

Aurrerapenaren Dokumentua jendaurrean egon zen sasoiaren hainbat talde politikok eta hainbat sektoretakoek iradokizun batzuk egin zituzten gai horren inguruan. Iradokizun horiek aztertuak izan ziren Hasierako Onespeneren Dokumentuan egiterakoan. Aurrerapenaren Dokumentuan jasotako proposamenez gain, aurkeztutako iradokizunek jarduera ekonomikoetarako ondoko leku hauetan lurzoruak garatzeko proposamenak jasotzen zituzten:

1. Pagei eta Estixako industrialdeak; azkena atzera bota zen Aurrerapenaren Dokumentuan.
2. Erabilera mistoa, industriarako eta bizitegirakoa, Txonta auzoan.
3. Azitaingo industrialdea Maltzaga aldera handitzea, Pagoaga (Argiñao), Ardantza eta Zubiagoko behe-ibarrak beteta.
4. Industrialde bat sortzea Itzio eta Amaña arteko behe-ibarrak beteta.
5. Eibar (Matsaria) eta Markina tunel bidez lotzeko proiektuaren industria-aprobetxamendua.
6. Industrialdea Txonta auzoaren hegoaldean.
7. Azitaingo industrialdea mendi-hegal bietara zabaltzea.
8. Azitaingo industrialdea Gorosta bailaran materia geldoentzat dagoen hondakindegira zabaltzea (orain dagoen industrialdearen iparrera).
9. Murrategiko behe-ibarra industria-lurtzat sartzeara.



10.3.-Hasierako onarpenaren eta aldi baterako onarpenaren ondoren aintzat hartu ziren aukerak.

Hainbat arrazoiengatik, geroago datorren beste atal batean azalduko direnak, aukera horiek kopuru aldetik murriztuz joan ziren HAPNren tramitazio-prozesuan.

Plan Orokorren amaierako faseetan jarduera ekonomikoko lurzorua garatzeko hainbat aukera sakondu zen.

Horrela, Hasierako Onespenaren aldian, hirilurrari begira hartutako proposamenez gain edo Ibur Erreka edo Matsaria bezalako aldeetan indarrean dagoen planeamenduaren aldaketa bidez onartutakoez gain, Txontako behe-ibarrean eta Azitain ekialdearen hegalerako industria-garapenerako proposamenei eutsi zitzaien.

Azkenik, aldi baterako Onespenaren Dokumentuak atzera bota zuen Txontako behe-ibarrean industriarako lurra garatzeko proposamen hura; ostera, Azitaingo hegalean industria garatzeko proposamenari eutsi egin zion.

Azkenik, HAPNk jarduera ekonomikoetarako lurzorutzat sailkatzen duen azalera 673.420 m²-koa da; udalerriak duen azalera osoaren %2,7 inguru.

10.4.-Azkenean hartu diren aukerak.

Eibarko HAPNren behin betiko proposamenen artean, egitura ekonomiko produktiboarekin eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruekin lotutako jardun hauek daude.

- 8.- HAPNk industria-eraikin zaharkituak berritzeko jarduera puntualak proposatzen ditu. HAPNk, zenbaitetan, erabilera aldaketa proposatzen du (bizitegia, hirugarren sektorea). Horien artean daude “Aurrerá” enpresaren instalazio zaharren berrantolaketa eta “Alfa” enpresaren lurrak birgaitzeko eta eraldatzeko operazioa, edo Txonta eta Matsaria-Estaziñoko bizitegi-garapenak.
- 9.- Otaola eta Torrekuako eremuak sendotu industria eta ekonomia jardueretarako, gaur egun hutsik dauden lurrak beteaz, edo erreforma operazio puntualak eginez.



- 10.-Beste industrialde bat egin Ibur-Errekan, udalerraren hego-mendebaldean, Eibar, Elgeta eta Zaldibar udalerrien artean. HAPNren Dokumentuak, hiru udaletan batera tramitatu zen Plan Partziala erantsi du.
- 11.-Matsaria Iean, guneko teknologiko bat sortu. HAPNak Matsarian balio erantsi handiko ekoizpen jarduerak finkatu nahi ditu, lurzoru handirik erabili gabe.
- 12.-Matsaria IIan, aurrekoaren iparraldean, industriarako guneko bat sortu. Irizpide nagusia lur industrialak sortzea da, bertara eramateko herrian gaizki kokatuta dauden industriak. HAPNak Matsariako Plan Partzialean agertzen diren erabakiak jaso ditu.
- 13.-Azitain inguruan sortu den plataforman industria garatu, Erisono I Plan Partzialaren bidez, HAPNk jaso baitu bere plangintzan.
- 14.-Azitain-Erisonon beste industrialde bat sortu. Lurzoru urbanizagarritzat hartu da Erisono I plataformaren mugakide den eremu bat, Azitain inguruan sortuko dena, eskualdeko zentro teknologiko bat kokatzen uzteko.

10.5.-Dokumentu honetan aztertu diren aukerak.

Eibarko HEPN egin duen taldeak eta udalbatzak, aurreikusita dauden eta garapenerako planeamendu onartua duten guneez gain (Matsaria, Ibur-erreak, Azitain-Erisono I); Goitondon (Mallabia) aurreikusitako industrialdeaz gain, udalerrian industria-garapenerako guneko berriak islatzeko premia ikusi dute. Premia hori industria-proiektu zehatzen aldetik egon den horrelako lurzoru-motaren eskariari erantzuna ematean oinarritzen da, baina analisi hori ingurumen azterketa honetatik kanpo geratzen da.

Arrazoi horregatik, dokumentu hau, jarduera ekonomikoko lurzoru-okupazioetarako HAPNren Dokumentuan egiten diren proposamen berriei buruzko ingurumen azterketara mugatzen da.

Aurreko ataletan aipatu izan den bezala, HAPNren tramitazio-prozesuan jarduera ekonomikoetarako lurzoru aukera asko erabili dira. Proposatutako esparru guztien kokapena *I.01. Planoan* jaso da, nahiz eta ekimen batzuk, zehaztasun kartografiko bariko proposamen bezala geratu direnak, gutxi gorabehera lekututako orban bidez kokatu. Aukera horietako batzuk proposamen edo iradokizun huts bezala geratu ziren eta ezetza jaso zuten arrazoi ekonomikoak, ingurumenarekikoak edo/eta hirigintza-arrazoiak zirela medio.

Hauek izan ziren hasierako faseetan atzera bota ziren kokapen aukerak:

- Arrajolako ibarbidea.
- Estixako ibarbidea.



- Pagaegiko ibarbidea.
- Argiñao-Ardantza-Zubiaga ibarbidea.
- Itzio-Amaña ibarbidea.
- Murrategiko ibarbidea.
- Gorostako ibarbidea.
- Eibar-Markina lotzeko tunelaren ahoak.
- Gorostako (Azitain) eskumako hegala.
- Txontako ibarbidearen hegala.

Aukera horietako gehienek modu kritikoan eragiten zioten sare hidrografikoari, ibarbide estuak beteta eta laututa egitea planteatzen baitzen eta aipatu diren ibai-ibilgu horien zati nahiko luzeak estaltzea zekarren.

Tunelaren ahoen inguruko proposamenaren kasuan ezetza eman zaio bide hori ez delako orain egingo, izan ere, GFaren akordioak berak ere haxe baitio: *“Lea-Artibai eskualdearekiko lotura bakar-bakarrik etorkizuneko esku-hartze programatu gabeko baterako asmo-adierazpen gisa har daiteke.”*

Azkenik, mendi edo muino hegaletan kokatutako proposamen bi horiek atzera bota ziren ingurumenarekin lotutako arrazoiengatik (aldapak, beharrezko lur-mugimenduak) nahiz arrazoi ekonomikoengatik.

Tramitazioaren ondorengo faseetan zehaztu ziren aukeren artean ondoko proposamen hauek daude:

- Txontako ibarbidea.
- Erisono-Azitaineko hegala (Azitain-Erisono II)

Proposamen biak zehaztu ziren Hasierako Onespeneren fasean. Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketak aukera biei buruzko ingurumenaren azterketa jaso duen, jardun biek aurreikusitako eraginaren identifikazioa eta balorazioa barneratuta.

11.- “0” AUKERAREN EDO “INTERBENTZIO EZA”REN AUKERA ZEHAZTEA.

“Interbentzio eza”ren aukera bateraezina da Eibarrentzat Lurralderen Antolamendurako Artezpideek (LAA) finkatutako jarraibideekin, besteak beste, ondoko artezbide hauek proposatzen baitituzte:

- Alde edo area kaltetuak eta zaharkituak birmoldatzea
- Ingurumena hobetzea eta bizi- eta hiri-kalitate maila goratzea.
- Produktzio-sektorea askotarikitzea.



Eibarko Plan Estrategikoa egin zenean, HAPNren tramitazioa egin aurretik, hiru egoera posible aztertu ziren. Horietako batek, “interbentzio eza”ren aukeraren baliokidea izan daitekeenak, bilakabide hau du: *“Lehenengoa, hiriak urteetan zehar izandako hondamen eta gainbeherako prozesuari jarraitasuna ematearen ondorioa izan zitekeen eszenatokia, alegia, hiriaren baldintzarik negatiboenak mantenduko lituzkeen eta puntu ahulen indarrez hiriaren eta gizartearen gainbehera betikotzeko balioko lukeena. Eszenategi erreala zen hori eta, azken urteetako prozesua aldatzeko elementuak lortzera bideratzeko jarduerarik egingo ez balitz, Plan Estrategikoan ezarritako horizonte-urtean iritsiko litzatekeena.*

12.- AUKERAK AZTERTZERAKOAN ERABILITAKO INGURUMEN IRIZPIDEEN DESKRIBAPENA.

Aukera guztiak aztertzerakoan erabili diren ingurumen irizpideak hauexek izan dira:

- Kanpo-koherentzia hierarkia mailan goragoa dauden lurralde antolaketarako Planen ingurumen irizpideekin.

Estrategiaren ikuspegitik garrantzizkotzat hartzen da aurretik badiren plangintza edo/eta programazio agiriekiko erlazioa, maila antzekoak edo maila ezberdinekoak.

Ildo horretatik, Debabarreneko LPPk adierazten du sortuko diren jarduera ekonomiko berrientzat lurzorua topatzeko jarraituko den irizpidea izango dela mendi-hegalak erabiltzea kokalekuetarako, eta horrek ibaiak eta errekek babes eremu, espazio libre... moduan antolatzeke aukera emango du.

Garapen iraungarriaren ikuspegi zehatzetik, Merkataritza Ekipamenduetarako eta Jarduera Ekonomikoetarako Sormen Publikoko Lurzoruari buruzko LPSk hainbat hausnarketa eta gomendio egin ditu jarduera ekonomikoetarako lurak aukeratzeko. Badaezpadako izaeraz, LPSk, jarduera ekonomiko-produktiboen garapenetik babestu beharreko eremuak finkatzea komeni dela azpimarratzen du. Planak onartu egin du garapenaren exigentzia berrien eta babes politikaren arteko desadostasun puntuetako bat, alegia, uraren ibilbideena, saihestezina baita horrek, handiagoa edo txikiagoa, eragina izatea, jarduera ekonomikoetarako izango diren lur urbanizagarriko plataforma horizontal berriak sortzerakoan. Kasu horietan, LPSk Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeke LPSren araudira jotzen du. Planak, bestalde, lurzorua betetzeko beste aukera batzuk ere aztertu ditu, esate baterako, materia bizigabeak dituzten zaborteak zigilatu ondoren, berriro erabil daitezkeen degradatutako espazioak hartzea, edo azpiegitura handiak egiterakoan sortu diren betegarriekin egindako plataformak baliatzea. Lurzoruak horrela betetzea, tradiziozko ohituraren aurrean, hau da, haranetako lur lau urriak erabiltzearen aurrean, aukera bat izan daiteke.



- Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeetan duen eragina

Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeen eragin maila baloratuko da (herri-jabari hidraulikoa, katalogatutako interesguneak, arriskuan egon daitezkeen guneak...).

- Izadi baliabideak galtzea

Proposatutako jardunen ondorioz egon daitezkeen izadi baliabideen galera baloratuko da (landaredia, aberedia...).

- Paisaiari egin dakioken eragina.

Balorazio horrek jardunek paisaian izan dezaketen eraginaren azterketa bat du barnean.

- Lurzoruaren okupazioa.

Proposamen bakoitzak okupatutako azalera aintzat hartuko da, baita nekazaritza-ahalmen handiko lurzoruen galera ere.

- Mugikortasuna.

Aintzat hartuko da mugikortasun modu ezberdinak banatzerakoan jarduerak izan dezakeen eragina.

13.- AZTERTUTAKO AUKERA HORIEK SORTZEN DITUZTEN ERAGIN NAGUSIEN DESKRIBAPENA ETA BALORAZIOA.

Azitain-Erisono II-n industrialdea garatzea.	
Koherentzia Antolaketa planekin	<input type="checkbox"/> Koherentea mendi-hegalak okupatzeko irizpidearekin. <input type="checkbox"/> Ez dago sartuta LZPren proposamenean.
Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeak	<input type="checkbox"/> Jardunak Lezeta errekarri eragingo dio, horren zati bat aldatu egingo baita gaindikinak bildu eta urbanizazio-plataforma sortzeko. Errekak duen arro-drainatze azalera 0,20 km ² ingurukoa da. Errekaren aldizkakotasunak herri-jabari hidraulikoari ez atxikitzea ekarriko luke, eta hartara, ez litzateke ingurumenaren aldetik arriskuan dagoen errekatzat hartuko.
Izadi baliabideak	<input type="checkbox"/> Gauzarik azpimarragarriena artadi sail txiki batzuen eta adaburu handi ederreko hostozabal bakan eta isolatuen desagertzea da, herri mailan horrek bere garrantzia duelako eta interes handiko eta urte askoko arbola zahar batzuk daudelako (arteak, haritzak...).



	<ul style="list-style-type: none">❑ Faunari dagokionez, jardun horrek landazabaleko habitataren murrizketa dakar (10 hek.), azalera nahiko txikia udalerrri osoa kontuan hartuta.
Paisaian duen eragina	<ul style="list-style-type: none">❑ Sektorearen mendebaldeko zatiaren erdia paisaia-kalitate gutxiko bailera batean dago (Gorosta), elementu antropogenikoak ugaltu direlako (bideak, pabiloiak, ezpondak...), jatorrizko erliebea aldatu delako, haranaren sakonean eta mendi-hegalean landaredia galdu egin delako, ibai-ibilgu nagusia artifizialdu egin delako... Ekialdeko zatiaren erdia gaur egun bistarako kalitate handia duen gunee batean aurkitzen da, baserri-izaerakoa; zelaiak dira hor nagusi eta tarteka hostozabalak eta pinudi batzuk ere badaude.
Lurzoruaren okupazioa.	<ul style="list-style-type: none">❑ Azitain-Erisono industrialdea hego-hego-ekialdera hedatzeak 134.717 m²-ko azalera duen sektore baten okupazioa dakar (13,5 hektarea).❑ Lurra erabiltzeko gaitasuna apala da, eta bi dira gaitasun hori mugatzen duten faktoreak: aldapa handiak (>%30) eta luraren sakonera urria. Beraz, ez du eragin esanguratsurik izango nekazaritzaren produktibitate ekologikoan.
Mugikortasuna.	<ul style="list-style-type: none">❑ Eremu hori herri barrutik aparte dagoenez, periferian, garraio motordun pribatuak gora egingo du. Hala ere, HAPNren proposamen bat aurrera eramanez gero, hain zuen ere, trenbidearen (Euskotren) geltoki berri bat Azitainen ipinita, ez litzateke hori gertatuko. Geltoki hori, aztertu den eremuaren muturretatik 900-1400 ml ingurura geratuko litzateke, eta geltokitik eremurainoko kota-aldea handia izango litzateke (120 metroko aldea koten bataz bestekoan).

Eragiketa horrek egin dezakeen eraginari buruzko azterketa zehatza Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Dokumentuko 5.3.3.2. atalean ikus daiteke, "Industria erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitainen" izenekoan.



- Industria garapena Txontako ibarbidean	
Koherentzia Antolaketa planekin	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Ez dago sartuta LZPren proposamenean. ❑ Inkoherentea da ibarbideen okupazioa ekiditeko irizpidearekin. ❑ Ez du betetzen Ibai eta Erreken Ertzak Ordenatzeko LPSren baldintzarik. Hirigintza-plataformarentzat eta eraikuntza-lerroarentzat Lurralde Plan Sektorialak hirigintza atzeratzeko planteatzen dituen gutxienerako parametroak 2 eta 12 metrokoak dira, hurrenez hurren, kontuan hartuta zatiaren maila '0' dela (1 eta 10 km² arteko ibai arroa duten azalerak).
Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeak	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Egin nahi den antolaketa horrek erreken zati bat lekuz aldatzea eta ubideratzea eskatzen du, urbanizazio-plataformak sortzeko ubidea zuzenduta. ❑ 2000/60/CE (DMA) Uraren Esparru Zuzentarauak -ur masen egoera ekologiko onari eusteko- ezarritako irizpideen aurkakoak izan daitezke aldaketa horiek.
Izadi baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Aurreikusitako garapenak gutxiarazi egingo du landa inguruneke habitat nagusien (landazabalak, landaketak, galeria basoak) eta hiri inguruko gune libreen arteko lotura, espazioa artifizializatu egingo delako, eta, batez ere, erreken tarte horrek korridore ekologiko moduan izan dituen ezaugarriak erruz hondatuko direlako.
Paisaian duen eragina	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Alde horrek ikusgaitasun eskasa du, ahokatutako albo ibarra baita, disezio maila handikoa eta bista jateko gaitasun handia duena. Nolanahi ere, poligonoa egiteko erliebean egin behar diren aldaketek eta erreken ardatz erdi naturalaren aldaketak nahiko eragina izango dute landa eremurako trantsizio gune den paisaian.
Lurzoruaren okupazioa.	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Txontako industrialdearen garapenak 64.322 m²-ko azalera duen sektore baten okupazioa dakar (6,4 hektarea). ❑ Lurra erabiltzeko gaitasuna apala da, eta bi dira gaitasun hori mugatzen duten faktoreak: aldapa handiak (>%30) eta lurraren sakonera urria. Beraz, ez du eragin esanguratsurik izango nekazaritzaren produktibitate ekologikoan.
Mugikortasuna.	<ul style="list-style-type: none"> ❑ Eremu hori herri barrutik aparte dagoenez, periferian, garraio motordun pribatua gehituko da.

1

Eragiketa horrek egin dezakeen eraginari buruzko azterketa zehatza Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Dokumentuko 5.3.3.3. atalean ikus daiteke, "Industria erabilerako lurzoru urbanizagarria Azitainen" izenekoan.



Beste industria-garapen batzuk ibarbideetan. (Murrategi, Argiña—Ardantza, Estixa, Pagei, Itzio-Amaña, Gorosta)	
Koherentzia Antolaketa planekin	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ez dago sartuta LZPren proposamenean. <input type="checkbox"/> Inkoherentea da ibarbideen okupazioa ekiditeko irizpidearekin. <input type="checkbox"/> Ibai eta Erreken Ertzak Ordenatzeko LPSren baldintzak bete beharko lituzkete.
Ingurumenaren ikuspegitik arriskuan dauden aldeak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Proposamen horiek, kasu guztietan, erreken ubide-aldaketak egitea edo errekek estaltzea eskatuko lukete. <input type="checkbox"/> 2000/60/CE (DMA) Uraren Esparru Zuzentarauak -ur masen egoera ekologiko onari eusteko- ezarritako irizpideen aurkakoak izan daitezke aldaketa horiek.
Izadi baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Aurreikusitako garapenak gutxiarazi egingo du landa ingurunekeo habitat nagusien (landazabalak, landaketak, galeria basoak) eta hiri inguruko gune libreen arteko lotura, espazioa artifizializatu egingo delako, eta, batez ere, erreken tarte horrek korridore ekologiko moduan izan dituen ezaugarriak erruz hondatuko direlako. <input type="checkbox"/> Ingurumenaren aldetik dituzten ezaugarriak aintzat hartuta (landaredia, topografia...), gune horietako gehienak lurzoru urbanizaezinaren “Ingurumen Hobekuntza” kategorian sartu dira.
Paisaian duen eragina	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Alde horietako gehienak ikusgaitasun eskasa dute hiri-gunetik, ahokatutako albo ibarrak baitira, disezio maila handikoak eta bista jateko gaitasun handikoak. Argiñoa-Ardantzako guneek osteria ezaugarri ezberdinak daukate, trafiko handiko bide-azpiegituretatik oso ondo ikusten baitira (634 errepidea, A-8 autobidea). Hala ere, kasu guztietan, erliebe-aldaketek eta erreketako ardatz erdinaturalen eraldaketek eragin handia du nekazaritza aldera igarotzekoak diren eremuen paisaian.
Lurzoruaren okupazioa.	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Proposamenak ez ziren iritsi lurzoru-azalera jakin bat zehaztera. <input type="checkbox"/> Orokorrean, luraren erabilera gaitasun gutxiko aldeak edo guneak dira, ibarbide estuak eta aldapa handiko mendi-hegal barrenekoak direlako.
Mugikortasuna.	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Orokorrean, proposamenak herri barrutik aparte kokatzen direnez, periferian, horrek garraio motordun pribatuaren gorakada iragartzen du.



14.- AZKENEAN HARTU DEN KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA.

Eibarko HAPN egin duen taldeak eta udalbatzak, aurreikusita dauden eta garapenerako planeamendu onartua duten guneez gain (Matsaria, Ibur-erreka, Azitain-Erisono I); Goitondon (Mallabia), udalerrri baruran industria-garapenerako leku berriak islatzeko premia ikusi dute. Premia hori industria-proiektu zehatzen aldetik egon den horrelako lurzoru-motaren eskariari erantzuna ematean oinarritzen da, baina analisi hori ingurumen azterketa honetatik kanpo geratzen da.

Azkenean hartu den konponbidea, tramitazioan zehar planteatu izan diren gainerako proposamenak baztertuta, Azitain-Erisono (II. Fasea) aukeratzea izan da.

Esan daitekeena da proposatuko eremu horrek, lehendik dagoen nukleo baten duela oinarria (Azitaingo Industrialdea, industrialdearen hedadura Azitain-Erisonora, I. fasea), eta horrela saihestu egingo dira planteatu diren bezalako lurzoru okupazio isolatua (Pageiko ibarbideak, Eibar-Markina tunelaren ahoak, Argiñao-Ardantzako ibarbideak...).

Txontako ibar-behean industriagune bat jartzeko proposamena ere baztertu egin da; asmo hori lehen Hasierako Onarpenari zegokion IENA azterketan aztertu eta ingurumenarekiko ondorio txar ezin handiagotzat hartu zen (Txontako erretenari egiten zion eragina kritikotzat hartu zen).

Hainbat ibarbidetarako planteatutako gainerako proposamen horiek, HAPNren dokumentuan zehaztura heldu ez zirenak, eragin handikoak ziren, Txontakoari buruz esandakoaren pareko ondorio txar ezin handiagokoak.